EGAN

1-6

1982

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

Redacción: Seminario de Filologia Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

	Pág.
NICOLAS ALZOLA GEREDIAGA ZENAREN OROITZAPENEZ: Juan San Martín	5
GABRIEL ARESTI: BERE POESIEN ANTOLOJIA LABURRA: *Juan San Martín*	13
1. Sagar zimelak bildumatik	20
2. Maldan behera eta gora bildumatik	21
3. Primera vez en castellano (poesía para la sombra de un camello)	24
4. Herriarekin inkontru	25
5. Hitz eta mintz	28
6. Astepeko Sekretarioaren bersoak (1878)	30
7. Ezkutu edo dukat banatan saltzeko bersoak	32
8. Harri eta herri	33
9. Profeta bati (Jurgi Oteitzari azaldu nahirik)	36
10. Poesía para Agustín Ibarrola	38
11. Mailu batekin	41
12. Euskal Harria	43
ERDARAZKO POESIEN ITZULPENAK	
3. Gaztelaniaz lehenik (Gamelu baten gerizarako poesia)	53
10. Agosti Ibarrolarentzateko poesia	54
LEHENENGO EUSKAL-OLERKI SARIKETA URRUÑA-N: Yon *Etxaide Itharte*	59
OLERKIAK	69
EUSKALERRI ZARRARI: *Etxaniz'tar Nemesio*	71
IZANAREN OIHALETAN: Luis Mari Mujika	73
Nire hitza	73
Jaio naiz zure hegaletan	74
Hiru amets	75
Nork etsi	76
Hitzek naute populatzen	76
Sagar geza jaten	77
Lur-Amak hatsa lodia	77
Txalapartak gan-dan-ban	78
Pikoketa-ko pagadian	79
Eguzkiaren semea nintzen	79
Harkaitzak handiago	80
Gizon kosmikoa	81
Nire eskua doa hutsunean	82
Haritzezko hilkutxa	83
Ertzak, itzak ideiak	85
ZATOZ: Otsalar	87
CANTIGA DE MEENDIÑO (XIII. mendeko galego olerkia Otsalarrek euskaratua)	91
NEBULAE: Remi Larrañaga	93
KONTU KANTARI	
TXAN FANTASMAREN ETENGABEKO ISTORIOA: Asun Landa	99
HONDARTZA ERTZEKO HARKAITZETAN: Iñaki Sarasua	111
HIRU EGIAK (Elezaharretik): J. Egigurentarra	131
NEURRIA (*Ipui antzera*): J. Egigurentarra	135
BERRIZ ERE UNAMUNOREN INGURUAN: Juan San Martín.	139
ONDARROA (Abizenak): Agustín Zubikarai	159
MITXELENAREN EKARPENEZ: Juan San Martín	175
MUXIKA GREGORIO'REN ESKUTITZ BAT «BERTSO BERRIEI» BURUZ	179
LIBURUAK: Antonio Zabala. (Jan-edanaren bertsoak): Juan San Martín	183
ANTZERKIA	189
PEDRO MARI (Arturo Campion-en kontakizunetik Yon Etxaide-k antzerkiratutako trajedia): Yon Etxaide	191
Lehendabiziko Egikera	193
Bigarren Egikera	211
XURI GORRIAK ETA... (Antzerkia hiru zati eta bost agertaldi. *Egilea: Daniel Landart*	233
HENRIK IBSEN. ANDERE ETXEA: Agirre'tar Joxek euskaratua	301

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA
1018552
891.69 EGA
1982 1-6
M

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray y Luis Michelena.

ISSN 0422-7328. Título Clave: EGAN

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Gráficas Echeverría · Easo, 47 - San Sebastián 1982

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XL | Enero-Diciembre 1982

EGAN

NIKOLAS ALZOLA GEREDIAGA ZENAREN OROITZAPENEZ

JUAN SAN MARTIN

1982ko ekainaren 2an hil zen Irunen Nikolas Alzola Gerediaga adiskide eta lankidea, EGAN aldizkari hontako laguntzailerik kartsuenetakoa. Nikolas, izatez, Bizkaiko Izurtzan sortua zen 1922ko abenduaren 30ean. Mutikotatik agertu omen zuen elizgizon izateko bokazioa eta Frantziskotarren ordena hautatu zuen lehendabizi. Baina, Foruan ikastaroetan ari zela, latin ikasteko aurkitzen zituen oztopoengatik ordenaz aldatu zen, La Sallekoetara pasatuaz. Gainera, pedagojiarako doain bereziak zituenez, hor bilatu zuen gogoa betetzeko era.

Literaturaz gainera, bibliografiaz asko arduratu zen, eta baita bideak markatu ere aurkibideak lortzeko, ikertzaile eta jakinzaleak lan errazagoa izan zezaten. Lan tipiak itxura batean, baina funtsezkoak kulturgintzan. Adibidez, Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* (1960) liburuari izenen *Index* zehatz bat egin zion, 1969an *Boletín de la R. S. V. de los Amigos del País*-en argitaratu zuena (ikus Cuadernos 2.° y 3.°, 423-434 orrialdeak). Eta, hori, adibide bat baizik ezta Nikolas Alzolaren lan isil, ilun baina jakingarrizko diren horietan. Besteak beste, ezin bestekoa deritzat EGAN-i egin zion Arkibidea aipatzea, aldizkari honen erabilkerarako hain premiazkoa denez: 1957koa agertu zuen lehendabizi EGAN, 1958ko 1-2 zenbakiaren 111-118 orrialdeetan. Eta, gero, urte bereko 3-6 zenbakiaren 248-264 orrialdeetan, aurreragoko urteena, 1954, 1955 eta 1956. Lastima izan da

berak markatutako bide hori beste inork ez jarraitzea. Arkibideok egile izenez alfabeta ordenan jarriak daude.

Horrez gainera, liburuen sailean lan handia egin zuen Nikolasek, argitara berriak aipatuz edo komentatuz; bestalde zenbat ipui, olerki eta zertzelada ez zuen eman? Artisteri buruz idatzi zituen lanak ere ez guti, eta hauen artean Gaspar Montes Iturriozi egina izango da onenetako bat.

Nikolasek, gauzak patxada handiz egiten bazituen ere, kezkatia zen eta bere adiskide edo inguruko ezagunen lanak arduraz jarraitzen zituen.

Bere lanik gehienak izenordez argitaratzen zituen. Gehien bat, jokaera hori, bere izate apaletikakoa zuen; baina baita ere bere ordenaren aurrean, garai ilun haietan, kulturgintzan gehiegi ez nabarmentzearren. Inolazko konpromisorik agertzen ez zuen artean lanean jarrai zezakean, baina bestela nork zekien... zer? Ez zen alperrik ber-berak izendatu zuen «Katakunbetako gizaldikoa».

«Markue» izenordez eman zion hasiera «Kantuz eta Itxaropenez» zeritzan olerki sailari 1966 EGAN-en, eta era hortako bertso libreetan agertuko zituen seguru asko bere olerkirik hoberenak. Gizarteko aldaketak kezkaturik, bide berrietan laguntzeko bere etorrizko urratsak eman nahi zituen:

Amaika milla
arantzagaz
dakarzu
zaurituta
biotza.

Ainbeste oiñaze artu dauben
zoritxarrezko biotz orrentzat
ez ete-da
egongo
bakea ta egotaroa
egunen
batean?

Danok
alkar
parkatu

eta
areriorik eztagoan
tokira
egaz egiteko naia:

beste
asmorik
eztaukazula
esan
deustazu.

Norekin ziharduen une hortan? Ez dut uste pertsona konkretu batekin ziharduenik, baina bai pertsona bidetzat hartuz gure gizarte egoeraz kezkaturik eta larriturik. Gizona gizonagatik sufrituz ikusten zuen eta anaitasunerako deiaz baretu nahi zituen gure ezbeharrak. Halakoa zen gure Nikolas, beti guziei on egin nahirik, laguntza eman nahirik

Sufritu ere egingo zuen bere barne gogoan, baina gauzak pazientzia handiz hartzen zekiena zen, gertakizun guzien gainetik erlijiozko fede sendoak bere izatea betetzen zuenez. Lagun urkoarentzako errespetua eta maitasuna, neurkaitzak ziren Nikolasen baitan. Izan ere, bere kontseilu honak nork ez ditugu izan lagungarri? Beraz, ezta harritzekoa bere heriotzak hainbeste bihotz tristuraz jartzea.

Gure bizitza laster hontan nekez oroitzen gara lagun on baten balioaz. Lagun on bat heriotzak daroanean bururatzen zaizkigun oroitzapenezko gogoeta guziak samurtzen dute gure bihotza. Askotan norberekiko gogoetatik haruntza ez doaz, baina bizi garen gizarte hontarako, norbere laguna izatez gainera bestelako garrantzirik baldin badu, ezin isil egon. Askozaz gutiago lagunaz gainera herri baten kulturgintzan bere bizitzaren ordurik gehienak eman dituen gizona baldin bada, eta hala zen, Irundik heldu zitzaigun berri beltzak zekarren izenekoa: Nikolas Alzola Gerediaga (La Salletarretan Anai Balentin Berriotxoa bezala ezagutzen zena).

Bai, bera fisikoki mugitu zen gizartearen inguruan bi izen horiekin oso ezaguna zen; ezaguna irakaskintzan eta ezaguna euskal kulturan, baina ezagunagoa ontasunaren eredu norbait izendatu behar zenean. Nik, pertsona onak asko ezagutu ditut, baina ontasunean eta zintzotasunean inor ere ez Nikolas haina-

korik. Izan ere, Nikolas, katolikoek santutasunez eman izan duten irudiaren erakoa zen bere izakeraz. Pertsona ona eta beste edonorren parte ona soilik ikusten zekiena eta beti nornahiri laguntzeko gertu. Hark bezala ikasiko bagenu lagun urkoa maitatzen, gure gizarteak zori hobea izango luke. Holakoa zenez, berakin harremana izan duten guziak maite zuten Nikolas.

Nikolasek apaltasunez egiten zituen bere lanak. Apala zelako, idazlanik gehienak izenordeekin ematen zituen Euskal Herriko kultur aldizkarietan. Ba ote aldizkaririk bere lanen bat agertu ez duenik? Ezetz esango nuke. Bere *Atalak* zeritzan liburuari egin nion hitzaurre hartan nion bezala, gure Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Balentiñ Berriotxoa, N. de Cortázar, Bitaño, Markue, Ozerin-Jauregi, Altzarte, Dolometa, Oxiñondoko Txoria, V. del Parral edo denadelakoa, ez da erreza izanez eta izenez mugatzea. Bere idazlangintzaz eman duenaz zerbait jakin nahi badugu, ikus Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoko 132-134 orrialdeak eta bereziki VIII. tomoko 433-438 orr. Baina, ez uste hor bertan ere guzia jasoa dagoenik.

Liburuak ere, sei liburu argitaratuak zituen, eta zazpigarren bat inprimategian. Hauetan ere izenordeak erabiltzeagatik edo, bere heriotzari buruz egunkarietan idatzi dutenek, ez dute eman bere liburu guzien berririk. Gazteleraz idatzia eta N. de Cortázar izenordearekin *Cien autores vascos* argitaratu zuen 1966an. Euskaraz idatzi zituen liburuak ordea, Bitaño izenordez, honako hauek dira: *Atalak* (1967), *Bigarren atalak* (1972), *Hirugarren atalak* (1978), *Ipuinak* (1978) eta *Ipuinak - II* (1980). Eta, esan bezala, *Ipuinak - III* inprimategian, laster argitaratzekotan. Lehen liburuak ehun egileen bizitza eta lanen berriak aurkezten ditu; euskarazko *Atalak* sailekoetan ordea: elezahar, kontu berri, pasaixuak (gertaerak), saio-oharrak, olerkiak, egileen xehetasunak, jakintza oharrak eta abar. Lehen biak bizkaieraz eta hirugarrena euskara batuan. *Ipuinak* sailean, haur eta nagusientzako ipuiez gainera zenbait kondaira egokitu biltzen ditu.

Bigarren ipui liburuari egin nion hitzaurrean adierazi nuen bezala, lanok, aurpegi ona erakutsiz bizitzaren filosofian, nekealdietan kantaz eta itxaropenez atsedena hartuz aritu zen. Luma ez bazen, pintzelak eskuan, letraz adierazi ezina «fauve» eskolak eskaini zituen kolore eta estiloaren aukeraz. Zeren, gutik dakite gure artean Nikolas pintorea ere bazela, eta ez nola nahikoa, berak uste zuen baino hobea baizik. M. Madariagare-

kin egin zituen bere arte ikastaroak, geroago bere baitarik onduko zituenak. Akuarelagile ona zen, arte berezi honek eskatzen duen teknika egoki benderatuaz. Atseden orduetan pintatzen zuen, bere barnearen lasaitasunerako lagungarri iduritzen zitzaiolako. Hala aitortu zidan behin batean. Gainera, bere obrekin sari bat jarri zuen Durangoko Liburu Azokan, urtero, euskal kulturan nortasuna zuen idazleren bati lauki bat eskainiz.

Bere lana ugaria delarik ere, horrez gainera landu zuen beste alor bat ere: gutunak. Berak, laguneri eta harat honat galdereri erantzunez egin zituen milaka eta milaka gutunak bildu ahal balira, euskal kulturarentzat gordailu ederra lortuko genuke. Izan ere, nork ez zion eskatu Nikolasi historiaz, literatuaz, pertsonaz, leinuz edo beste zenbait gaiez agiri edo oharren bat? Nikolas, beti prest bere memorian gordetzen zuenaren berri emateko, eta bere memoria hondo gabea zen, eta bere borondate onak ere ez mugarik. Horregatik, milaka eta milaka gutunak idatzi zituen handik eta hemendik eskatzen zitzaizkion datoak emanaz. Ni neu berandu hasi nintzen gutunok gordetzen, baina nere gordailuan ditudanak bildurik emango ditut Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako, agiri baliagarri asko daudenez (1).

Bere literatur eraz edo estiloaz zer esan? Beretzako idazlerik atseginena Pio Baroja zela esatez aski litzake. Asko esan nahi du horrek Nikolasen alde. Aspalditik, Durangaldeko ikastola eta alfabetatze ekintzetan irakurgaitzat bere liburuak erabili dira. Bere «fauve» pintura bezalako bizitasuna dute irudiz eta giroz, ipuingintzaren alorra landuz, berbiztu zituen haur eta gaztetxoen irudimenak, berbiztu zuen supazterreko oroitza zaharren baitan, sortu zituen ikuspegi ederrak, piztu pertsonaia berriak... beti gogo bera iraunaraziz, kantuz, bakez eta itxaropenez berebaitako sorkunde aberatsetik.

Atsedena irabazia zuen hainbeste lan egin duenak. Ontasuna predikatuz eta exenplu onak erakutsiz igaro zuen munduko bizitza. Geroan ezer bada eta ezer hortan betirako zoriontasunik inori ematen bazaio, gure Nikolas zena han izango da, inor izatekotan.

---

(1) Horien artean, besteak beste: 1966-an *Egan*-en argitaratu zituen «Kantuz eta Itxaropenez» poemen gaztelerazko itzulpena. 1966-an «Euskaltzaindiari eskari bat» deritzan txosten labur argitara gabea. Eta, Durangoko Liburu Azoka idekitzean, 1973. urtean, eman zuen hitzaldiaren kopia, Durangaldeko idazleei buruz.

Guretako penagarria izan da holako lagun on bat galdu beharra. Penagarriagoa oraindik intelekto lanetarako adinik egokienean sartzeaz bat heriotzak eroatea. Erudizio handiko gizona zen Nikolas, buruko almazena ondo hornitua zuen eta gure kultura ahularen alde dena hustu gabe joan beharra, tamalezkoa benetan.

Behin beregan hartzen zituen lanak ere urteak zehar jarraitzen zekien. Aurten bertan Bizenta Mogeli buruz Azkoitian ospatu ditugun jardunaldiak zirela-ta, herri hontako kultur elkartekoek, Nikolasek hogeitahiru urte zituenean bertako alkateari egin zion gutunaren kopia bat eman ziguten (2), Bilbotik 1945eko abenduaren 18an idatzia da, Ignazio Iriarte XVII. mendeko pintatzailearen berririk zuten galdezka, bere zuzendaritzapean laster irtetzekotan zen *El Arte* aldizkarirako lan bat burutu nahi zuela-ta. Ez dakigu erantzunik izan zuen ere. Dena dela, anitz urte igaro ondorean ere jarraitzen zuen Murillo maisu eta adiskide izan zuen azkoitiar artistaren gaia. Hara nola, *Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País* (1975, 571-572 orr.) Azkoitiko Iriartez argitaratu zuen oharra, J. A. Gaya Nuño-k aurkitu edo adierazi zuen lauki bati buruz. Ohar hortan, Iriarteren obrak, Pradoko Museoaz aparte, Leningradoko Ermitage, Bilbon bertan, Sevillako Alcazar errege-etxean, Loiolako San Ignazioren erretratua, Viñazak dionez, ba omen dira. Iriarte pintoreari buruzko bibliografia ere ugaria omen da. Berak, nonbait, ezagutuko zuen noski, baina gure bibliografia lanetan, Jon Bilbaorena bera ere barne dela, urri da. Beraz, iturrien adibideak Nikolasekin joan dira.

Osasunez aspalditik zebilen makalik. Duela zenbait urte hasi zen bronkioetatik, gero diabetes agertu zitzaion eta azkenik bihotzekoa. Hil baino hilabeteren bat lehenago bisitatu nuen eta itxura txarra iduritu bazitzaidan ere, bere gogoa kementsu zuen eta uste nuen gehiago iraungo zuela. Bere lanerako gogoaz zer esanik ere ez. Hil aurreko egunean bertan igorri zidan Piarres Lafitteren omenezko libururako lan bat, *Iker* - 2 osatuko

---

(2) Aipatzen den gutun kopia hau ere, nere gordailuan aurkitu ditudan paperekin batean doa Azkue Bibliotekarako.

duenerako. Nonbait, une hortan, heriotza hurbil ikusten zuen, igorriaz idatzi zidan gutun laburretik ikus daitekenez:

1982. VI. 1

Juanito: Piarres Lafitteren omenaldirako.
Makalik nabil eta ezin dut gehiago
idatzi.

N. Alzola G.

Behar bada, edo kasik seguru, ohar hau izango zen milakak gutunak idatzi zituenaren azkena.

Lizentziatura burutzeko tesigintzarako edo, bere lepora ekintza hartu nahi duenarentzat, material ederrik eta ugaririk utzi digu Nikolas Alzola zenak.

Arte aldetik, kontuan artzekoa da bere lana. «Fauve» joerako akuarela-gintza egin zuen, aski puntilista, dibujoaren ritmoa ondo eroanaz. Paisaje argiak, alaiak eta anekdotikoak. Dibujo hutsak ere oso onak, batez ere zuhaitzak beren mugimendu urduriak egiten zituenean. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak, bere Pintores y Escultores Vascos... sailean ale bat eskaini zion.

Ber-beraren hitzak ziren honako hauek: *Kultura zaharrak bide berriaz aurrerantz' eroango gaitu.* Bai. Baina guk egun lagun bat gutiago bidean. Goian bego.

Eibar.
1982. Ekaina.

GABRIEL ARESTI: BERE POESIEN ANTOLOJIA LABURRA

J. SAN MARTIN

HITZAURRE GISA

Gabriel Aresti zenak, *Euskal Harria* (1967) poesi liburua argitaratzeaz izan zituen kritika, aburu eta erizpideez gainera aski irain ere jaso beharra izan zuen. Dabilenak berez izaten ditu holako zamak jaso beharra, baina argitalpen haren ondotik inoiz baino krisi handiagoak menperatu zuen gure gizona. Kritiketarik asko lehenagotik poetaren lepora zetozten esames guztiak gainezkatu ziren eta batek baino gehiagok bengantzarako aprobetxatu ere bai.

Lehendik bera batasunaren alde hain gihartsu ari zenez eta zenbait idazle gazte H erabiltzera bultzatu ondorean, ber berak *Euskal Harria* deritzanean ortografi berri baten proposamena egiteaz, neregandik ere hartu zituen zenbait zaparrada. Baina, garai hartan, nereak nahiko ondo jasan zituen. *Harri eta Herri* (1964) argitaratzen lagundu ez ezik, liburu honi egin nion hitzaurrea ez zekin nola eskertu ere eta garai haietan jaramon asko egiten zion nere esanari. Dena dela, bere krisi handiak hainbeste larritu ninduenez, zenbait gutun idatzi nizkion, animoak eman nahirik. Baina, gizona etsipendurik aurkitzen zen eta gehiago poesiarik idatziko ez zuen promesa ere egin zuen. «Dimisio» famatua, publikoa izan zen. Eta, horren ondorioz, bere poesiagintza goitik behera aztertu zuen eta *Antolojia laburra*

gertatu, bere despedida gisa. Gero, zenbaitzuk egin genituen ahaleginengatik, berriz bihurtu zen euskal poesiara. Baina, une hartako lekukotasunez, hor dugu bere *Antolojia laburra*, ber-berak hautatutako olerkiz, tartean inoiz argitaratu gabea ere aurkitzen dela, eta beste guti batzu, bere gogoa hala zenez, gazteleraz idatziak.

Horietan ageri denez, bere (ordurarteko) poesiarik gogozkoenak bildu zituen eta Arestiren bizitza eta lanak hobeto ezagutzeko beharrezko iduritzen zait berak osatu zuen bezala argitaratzea. Bere lanaren berekiko kriterioa markatzen bai dute. Horregatik, arrazoi hori aski da *Egan*-en *Bere poesien antolojia laburra* os-osorik argitaratzeko.

Baina, lehenik, hara *Antolojia laburra* bidali zidanean gutunez zer agertzen zidan Gabrielek:

GABRIEL ARESTI

Bilbaon, 1968. Abenduak 16.

Juan San Martin
Eibarrera

Nere lagun maitea:

Hirea hartu diat. Barka zak lehenago nire oler-bilduma bidali ez baderauat. Honekin batean doakik.

Asko alaitzen nauk, hortik, estranjeriatik, euskal poesia hedatzeko egiten dituan aleginak gatik. Hala eta guztiz ere, eta ez modestiagatik, nire izenik ez diat hortik nahasturik ikusi nahi. Daukadan gauzarik maiteena duk eta Poesia Hispana-rako egin duten selezioarekin ez natzegok konforme. Nork bere poeta-kideak hautatzeko eskubide osoa dik, eta ate falsotik sartu den horrekin ez diat olertizko har-emanik izan

nahi. Mesedez idatziko derauek Aguilar-koei hortik nere izena kentzeko. Eta X. Leteren baztertzearekin ere ez natzegok ados. Mesedez «Si la píldora...»-tik ere desagertzea nahi nuke. Eginen deraudak mesedea?

Diskoarena oraindik egin gabe zedukat. Hea aste honetan egiten dudan. Oso lanpeturik natzebik, eta asti librerik ez zedukat ere. Ezer firmerik dakidanean jakinaren gainean edukiko haut.

Hire kartan diostak nirearen berri eman huela Iruineko batzarrean. Agirian zegok, beraz, irakurri ez huela, eta hori ez zegok ongi. Euskaltzaindiaren araudiak eskubide hori aitortzen diraudak, boza. Edozeini errespetatzen zaiok, baina ez niri. Ez zekiat noren errua den, seguru asko ez hirea, baina euskera lanoan izen bat merezi dik portaera horrek: jauntxokeria. Hobe litzake Euskaltzainditik botatzen banauzue. Gutienez, garbi jokatuko zenukete. Ez zak har hau, mesedez, gauza personal bat bezala, baina egia duk.

Meaberen liburua zentzuran zedukat, eta asko luzatzen dituk. Baimenik emanen ez deraudatenaren bildur nauk. Baina ematen baderaudate, diru ederrak dizkiat, liburu gehiago aterako dizkiat. Hirea gogora zaidak.

Beste gabe har zak hire adiskidearen segurantza. Mari Pazi eskumuinak eta haurrentzat mozuak denon partetik.

Gabriel

Gutunean aipatzen duen «estranjeriatik, euskal poesia hedatzeko...» egiten nituen ahaleginak, garai hartan *Si la píldora bien supiera...*, eta *Papeles de Son Armadans* literatur aldizkarietara hemengo poeta gazteen zenbait lan gazteleraturik bidali nituelako da; baina, Gabriel mindu zuena, L. Jiménez Martos-en *Poesía Hispánica - 1968* (Madrid-eko Aguilar-ek argitaratua) bilduma zen. «Ate falsotik sartu» zena Santi Aizarna zen. Ordurarte euskaraz etzuelako idatzi, erderaz baizik, eta bere iduriz besteon poeta-kidetasunez aprobetxatzeari ez zeritzan ongi. Gainera, ez dakigu zergatik, baina X. Lete baztertua izan zen eta hori ere ez zitzaion gustatu.

Bertan aipatzen den diskarena, asmo hutsean gelditu zen. Orduan, gauzak bizkortu nahirik, zenbaiten artean, diska bat argitara nahi genuen hiru eta lau poetaren artean, bakoitzak bere abotsez errezitatuz, bere poesi sorketazkotik ber- berak hautatu nahi zuena. Honi, Arestik, idea ona zeritzan.

Euskaltzaindira aurkeztu zuen gutunean, ordea, batua derrigortzearen eskarizkoa zen. Aldez aurretik ere aditzera emana nion, Euskaltzaindiak, bere izatez, inor ezin zuela bortxatu, baizik gomendatu. Eta, aldez aurretik zekin Gabrielek, euskaltzainon artean irakurri eta aipatuko bazen ere, agirian ez genuela jarriko aipamenik ere. Baita ere, bazekin, inork errurik izatekotan, gutuna irakurri eta ez aipatzearena, nerea besterik ez zela, orduan idazkari nintzenez; baina hara hor, irakurle, lehenagoko eskerren ordainez edo, gutunean etzuen nahi errua nere lepora botatzerik, hala izanik ere.

Aipatzen duen Meaberen liburua *14 alegia* (1968) zeritzana da. Nere liburutegiko ale batetik berak euskaraz jarria eta R. Salvat eta X. Alonso Montero-ren itzulpenez lau hizkuntzatan emana, 1969. urteko lehen partean azaldu zen, naiz eta liburuan 1968a agertu.

* * *

Argitasun horien ondotik, jo dezadan *Antolojia laburra* deituko diogunari beste zenbait ohar gehitzera.

Inoiz inork aztergai hartu nahiko balu, Antolojiaren atzetik ematen ditut zenbait ohar, numeroz jarriak, eta numero horiek Gabriel Aresti zenak berak bildumako poesieri jarritakoak dira. Horrela, azterlariak zuzen eta erraz jakin dezan bakoitza non

argitaratua den eta zein dagoen, nik dakidanez, oraindik argitara gabe.

Bestalde, aztertzaileak, edo Arestiz zerbait gehiago jakin nahi duenak, esan beharra dago euskal poetek eta artistek omenez eskaini zioten *Agiriak* (Donostia, 1978) liburuaren hitzaurrean gure poetaren bizitza eta lanez eman genituen argitasunez gainera, oroi A. Zelaietaren *Gabriel Aresti*, I eta II tomok osatzen duen lana, 1976an Donostiako Kriseluk argitaratua.

Haranburu Altuna editoreak Kriselun eman zituen *Obra guztiak*, Poemak I eta II tomoetan (1976), jarraipenik gabe gelditu zirenez, poesia guziak oraindik argitaratzeke daude, eta azterketa zehatza egin nahi duenak bestelako paperetara ere jo beharra izango du, bereziki honako aldizkari hauek zehatz mehatz aztertuz: *Euzko-gogoa, Egan, Euskera, Olerti, Zeruko Argia, Arragoa* eta abar.

G. Arestiren poesi liburuak ordea, honako hauek dira: *Maldan behera, Euskera* aldizkarian lehenik argitaratua, V, 1960; *Harri eta Herri*, 1964 (2. edizioa 1969); *Euskal Harria*, 1967; *Harrizko Herri hau*, 1970; *Obra guztiak* (Poesia I eta II), 1976; *Azken Harria*, 1980. Hor aurkitzen direnez gainera, hemen orain bizpahiru besterik ez datoz; baina, Arestik literatur absurdua munduan modan jarri zen garaian, era hartaz ere zenbait saio egin zituen. Beretarik kopia bat igorri zidan, nere eritzia eskatuz. Euskal giroan, garai hartan etsai asko zituen, eta bere pertsonaren onerako, ez argitaratzea gomendatu nion. Ez dakit orijinal haiek zer burubide eramango zuten, baina nik kopia bat badut eta uste dut zor zaiola Aresti zenari horiek ere argitara ematea, bere literatur ibilera hobeto ezagutzeko. Beraz, *Egan*-en urrengo zenbakian, uste dut aukera hori izango dugula. Aurrerantzean, *Bere poesien antolojia laburra* deritzan honekin batean kontuan hartzekoa izango bait da.

Behinora ezkeriok, beste gauzatxo batek ere zuritzea merezi du. Angel Zelaieta adiskideak *Gabriel Aresti* II, liburuaren 238 orrialdean dakarrenez, 1972. urtean Amatiñok egin zizkion kritikegatik oso mindurik omen zen. Gainera, Amatiñorengan nere eskua edo itzala somatzen omen zuen, eta bion atzetik hainbeste desesperazio ekarri zioten ELA-berrikoak (oroi, *Lan Deya*-ko eraso-aldiak, 1967-68).

Bere susmoetan oso urruti zebilela esan behar. Alde batetik, Amatiñok, beti gorde izan duelako bere independentzia alderdi

politikoetatik, euskarazko ekintzetara soilik entregatuaz. Egin zizkion kritikak, bere kabuzkoak ziren, ez «Eladioak» eta nik zer ikustekorik gabeak. Bestalde, ezta harritzekoa, edonolako susmoak edonorrentzat eta edonondik sortzea. Oraindik orain ere, gure artean etiketa jartzailerik falta ez bada ere, garai haietan etiketa-mende ginen. Nekeza zen inor hortik libratzea, batez ere, norbait, «Eladio» eta «Felipe» inguruko pertsonaren bategandik hurbil bazebilen. A, ze talde parea! Neri dagokidanez, era hortako integrista setatirik inoiz ez dut maite izan. Ez batekorik eta ez bestekorik. Horiek gainera, azken batean, ez zuten euskararik maite. Ezta defendituko ere, beren bestelako maniobretarako probetxuan izan ezik.

Baina, arazoaren sakonean, ba zen besterik ere. 1969tik sortu nahi zen Euskal Idazle Elkartea, nekez eta abar nolabait mugitzen zena, 1972an, Lur Editorialaren inguru biltzen zirenak (Mallabiko batzarra lekuko), elkarte ezkertiar edo sozialista bihurtu nahi zuten. Ni, horren kontra jarri nintzen. Idazle bakoitzari, naiz ezker naiz eskubi, bere ideetan libre uztearen alde. Batzar iskanbilatsu hartan, Gabrielekin hitz gogorrak izan nituen. Jakina, A. Zelaieta berak bigarren tomoko 238. orrialde hortan dion bezala, gure «enfrentamenduagatik han gelditu zen dena bertan behera», batzuk ezkertiar euskal idazle elkartea nahi zutelako eta besteok politika kolore gabea, idazleena soil soilik.

Ez dut hemen ezer gorde beharrik Gabrielen izakeraz. Bere kemena ez ezik bere bat-bateko arrebato hariek ere ezagutzen genituen bere inguruan ibili ginenok. Asko ta asko errazoizkoak ziren, eta hainbeste irain jasotzeaz, azkenerako bere senetik aguro irtetzen zen. Batzuk baretzen eta laguntzen ahalegintzen ginen artean, bestek zirikatzen eta gauzak okertzen egiten zuten. Gizonarentzako sikologiazko sentsibilitate minimun bat agertu beharrean. Zeren, Aresti, irainen sufrikarioz aparte, azken urteetan osasunez makal zebilen, eta begiramena ez ezik maitasuna ere behar zuen. Gainera, esan beharrik eztago, gure herriaren kontradizio guziak sentitzen zituela, sufritzen zituela eta neurri handi batean beragan bildu ere bai, herriaren prolema berea eginaz. Aberri arazoa eta gizarte arazoa, oraindik ere ez dira behar bezala bideratuak izan, politiko onen faltaz edo gizon setatien sobraz. Eta, txikikeriok gaindituko zituen humanismoari ez dugu jakin behar bezalako lekua egiten.

Horregatik, nahaspila horiekin zer ikusirik duen puntutxo bat agertu nahi dut, A. Zelaieta ohartu ez zena eta Mailabiako

batzar hura baino lehenagokoa. Hau da, *Kaniko eta Belxitina* (1971) pastoralari hitzaurrez egin zion «Zenbait ele samin» zelakotik sortua. Pastorala bide, G. Hérelle-ren lana arrazoiz goraipatu zuen, baina era berean Julio Urkixo kondenatu. Hori zela bide, 12. orrialdean nere kontra sartzen zen; «Haritik landa», gero *Anaitasuna* aldizkarian erantzungo nionez. J. Urkixok, ene ustez, egin genion baino gorazarre handiagoa merezi zuen euskaltzaleon partetik bere mendeurrenean. Nik egin nion artikulua ez zitzaion gustatu Arestiri, berak zionez, Zuberoako pastoralak ez zituelako maite eta Euskalerriko langileriaren kontura bizi zelako. Baina, nik dakidanez, J. Urkixok, pastoralak ber-berak maite ez bazituen ere, G. Hérelleri RIEV aldizkarian hortaz idazteko tokia eman zion, eta burgesiatik edo langileen lanaren lepotik bizi zirenak anitz gehiago ere baziren (hala izanik ere), baina euskal kulturara ezer eskaini gabe. Burgesiaren kontura beren lanak burutu zituztenetakoak ziren Engels eta Marx ere. Beraz, planteamendu horietatik gauzak nahastu besterik ez dira egiten. Baina, momentu haietako berotasunean hala gertatu ziren gauzak.

Dena dela, hortik zetorren, garai hartan Arestirengandik neretzako hoztasuna. Gero, nik ez dakit nondik atera zezakean nik ELA-berrirekin izan nezakean kidetasuna, berekiko hutsa tapatzearren edo izan ezik. Edo, bestela, beste asko bezala, gure inguruan «Eladioak» eta «Felipeak» besterik ezer ez zen ustekoa zen.

Hala ere, aitor dezadan, Aresti eta nere artean inoiz ez zela tentsio handirik sortu, eta nere kontseiluak gehienetan onartzen zituela eta estimuan izan ere bai.

Gaur ordea, poetari zor zaiona eman nahi dut; garai batean, bere etsipenean ere, kriterio finkatu baten barnean azaldu zuen *Antolojia laburra*. Ondotik jartzen ditudan oharrak, poesia bakoitzaren adibideak emanaz, irakurlearen erraztasunerako, *Obra guztiak*-en bi tomo horietan oinarritzen naiz, horietan sailik handiena eskuratu lezakealako, naiz eta argitalpen hortan huts handiak nabaritu.

Eibar, 1982ko Ekaina.

melitxuri dedikatua.

zuri
espainiako andrea
zimaurretan aurkitutako lili apala
melitxu
zuri
eskeintzen dizkizut
nire hiru grinak
poesia honetan
eta nire personan
dauden
hiru grinak
melitxu
ez bakarrik
nire bizitza
(izerdia) (hasarrea) (iraindua izatea)
nire egunak eta gauak
zuri
melitxu
espainiako andrea
nire aitaren etxearen habea
eskeintzen dizut
nire poesia
eta
nire persona

1.
SAGAR ZIMELAK bildumatik

Hirugarren sonetoa.

Ernerik genituen belarriak
Hala ere ez dugu ezer ulertan
Erderaz minzatzen baitzitzaizkigun
Nahas-putzu zituen eztarriak

Noizik behin zerbait genuen behatzen
Baina ez inoiz hori bere betan
Apur hortaz oroitzen gara egun
Gure barnetik baitzaigu hedatzen

Enzute hartan ezkerki bekatu
Egiten genuen ez dakigu zertan
Hola paradisutik gabilza hurrun
Ez dugu gure zedea alkanzatu

Ez dugu erderarik enzun gura
Hogen tikiak haundienak dira.

2.
MALDAN BEHERA ETA GORA bildumatik

Hariztia
1.

Orain hemen nago, eremu latz honetan.
Nire gurariak galdurik, lur hauetan
arbola adar-gabeen parea naiz orain.
Landare zekenak baitdaduzka eremuak,
erratzak harean, haitzetan kalamuak,
nire arima dago mirari baten zain.

Lizardia
16.

Gauzok ikusten diren
lizardi doilorra!
Munduan zerbait
bada, zu zara
zaharra!
Nire lepoan
jarri zenidan
uztarriaren
gogorra!
Gauzok ikusten diren
lizardi doilorra!

Iratze Ederra
23.

Ni ba nindoan, kantaturik,
Galtzada luze batetik.
Zer egin nuen ez nenkien, ez dut jakin nai ezer nik:
    Nire gauzetan,
    azioetan,
ez dago zuzenbiderik.

Lore-mendia
11.

Zekiat nor haizen eta nundik hatorren;
zekiat zer haizen, honera zerk hakarren:
    Nire laguntasuna eskeintzen darauat nik.
Kontuz ibiltzeko diotsat anaiari,
iguriki nion ene maitaleari:
    Ez drauat edireten gainean kulparik.

Herri-bitartea
23.

Hatsa zitzaidan aienatu,
hodeiak ziren urratu.
Inor munduko hondarretan ez da hainbeste herratu.
    Nire gainean,
    nire atzean,
guztia zen akabatu.

Partiera
2.

Nire errai guztiak usteldu dirade:
Barrabilak, ugatzak, giltzurrunak ere.
Nire hezur oriak agirian daude.
Iluntasun honetan batera gagode
        Miren ta Joane;
        bakarrik garade;
        elkar dugu maite.
        Baina halaz ere
ilunpea ta biok ez gara adiskide.

Airea izanik ilunpe,
argirik ez da bat ere;
eta begiek bihotzetara
heriotzea dakarte.
Heriotzea, amorioa,
ezin elkartu litezke.

Judizioa
3.

Etsaien kontra nago erruz arnegari,
eman zidatelako hondiko ugari.
Aingeru Serafinek akerra dirudi,
deabru Belialek epetxa kantari.
Eta Dostoiefskii
jaio ez baledi,
ez nioke Prousti
barkatuko hori:
Zergatik gizonari ez dion jarraiki.
Picassok ere Goiari
Kentzen dizkio humilki
Mundu honetan bizi izateko
Izan zituen gurari
Guztiak, eta beste hainbeste
Gertatzen zaio Mozarti.

Mendekantza
11.

Nire gorputza eta odol berotsua...
Hezur batzuk... oraindik... Ez baitzen naikoa.
Hau da gizonak gandik dakardan kontua.
Gizateria izan dadin salbatua.
Naizela maisua...
Gauean itsua...
Ba dator ordua!
Nire herlojua...
Oraindikan aldean baitdaukat burua!
Bildots berria, mansoa!
Jainkoa bortitza, haltua!
Zuri eskerrak, ordu honetan
Dago geugana heldua
Joran bizian eduki nahi
Genuen salbamentua.

Ditxaren bitartéz
3.

Ahatzi dugu guztia
lurrean genkiena:
«Ni» ta «zu» hitzak, eta
«gurea» ta «zuena»;
Larruako laketa
ta amaren ditiena:
Maria Matxalena,
Maria Birjina;
azpikoa, gurena.
Orain bat gara biok:
Adarra ta Txortena.
Arraza berri bateko
animali lehena.

3.
PRIMERA VEZ EN CASTELLANO
(poesía para la sombra de un camello)

I.
CUERPO DEL HOMBRE

39.
El reino de lo justo

Implantarán el reino de lo justo,
el bienestar será su gran herencia,
pues no se jugará con el disgusto
de dejar defraudada una querencia.

La equidad e igualdad será la norma
de ese mundo preciso, equilibrado;
habrá un solo nivel común, de forma
que ninguno podrá ser desechado.

Pero al ser maniquíes de madera,
con ojos de cristal policromado,
y corazón y vísceras de cera,
ignorarán que sólo en el pecado

puede la criatura redimirse,
y en súplicas y rezos desvivirse.

II.
SOBRE LA SUPERFICIE DE LAS AGUAS

Nada jamás habrá más inhumano
que ese ser que amó y que me desprecia,
a quien yo quise amar como a un hermano.

La espera así continuamente arrecia,
se espesa, se culmina, se convierte
en la mayor desesperanza, y recia.

Y aunque parece enormemente fuerte,
y de todo poder y ciencia hablaba,
y me ha dejado aquí, en mi celda, inerte,

como para nadar bien se jactaba
de nunca haber necesitado piraguas,
no puedo comprender cómo flotaba
sobre la superficie de las aguas.

4.
HERRIAREKIN INKONTRU

I.
KOPLA GISA ERO BATZUK.

3.

Gatazka hamorratua,
burrukaldi hertsia.
Buztina hilaren kontra,

genbiltzan izakiak.
Ilunpeko erreinutik,
agertu zen bizia.

13.

Babilonian katibu,
baitgeunden euskaldunak.
Idiak uztarri-pean,
ziren gure pareak.
Hantxen genbiltzan gu nola,
astoak zama-pean.

22.

Zimiorik zaluienak,
utzi ditu zuhaitzak.
Hibaiondoko haretan,
markaturik behatzak.
Arrokartean gizonak,
ematen ditu urratsak.

30.

Eremuko harroketan,
armiarmak kantari.
Hare-arteko ziloan,
ez dago denborarik.
Mendietako errekan,
urak daude gaur gazi.

II.
EUSKAL KOMEDIA

Guduaren turuta, enzuten da hasi
Gurdi segadunak, karriketan datorza
Alza gaitezin nahi, badugu irabazi.

Hibaia malzurrak, irritu zuen horza
Eta Mendia berriz, negarrez zegoen
Bihotz bildurtia, ba dago nola bortxa.

Eta hirurak bertan, besarkatu ziren
Tenore haretan, egin zuten tratua
Bien odolarekin, eskribitu zuten.

Jaunaren herria, da benedikatua
Errege tiranua, lasai datza lotan
Bere jauregian, teilatuan katua
Bere laketeranza, dihoa narrastan.

EUSKAL TRAJEDIA

.....
Orduan jaditsi ziren hara nafarrak,
gurutz gorria ta bihotza berriz belza.
Debarzete zetorzan jainko onarekin.
Haiekin zetorzan: Etiopianoak,
Ligurietako zesar atorra belzak,
ta Atila berriaren barbaro krudelak.

Egia da ezen mozarabearekin
firmatu zutela tratua, ekartzearren
bakearen errege bat arbitratzera.
Ez nuen ikusi inundik erregerik.
Esaten zidaten errege zela ona,
hala nola ez balitz gizon bat hur ere.

.....
Orduan jaditsi ziren... nora?... nafarrak,
euskaldun guztien anaia nagusiak.
Haien anai guztiak iraindu zituzten.
Famili batean direnean hauziak,
ez da konprenitzen zergatik baketzera
etorri behar duten honbre-buenoak.

Eta nola Kahin eta Abel zaharrek,
eta nola zimu basatiek egiten
dituzten oihanean zima bategatik,
halarik euskaldun herri artean ere,
erdikoa zuen zihortu nagusiak,
anaia tikiaren begirada-pean.

.....
Orduan ez ziren ailegatu nafarrak.
Hurbildu zitzaien Franfran arlote hori
erreinuaren lege zaharrak kentzera.
Dohatsu lizake izanen Nafarroa
harmatuko balitz del monte che la fascia,
Bizkaiarekin balitz adiskidetuko.

Orduan Gaztelak eta Franko-herriak,
Aragoi-herriak eta Mauritaniak,
ez lukete Iruinean parterik ukanen.
Defendi dezagun arreba nagusia,
Espaini guztien prima lehen gusia,
primutasun hortatik deseretatua.

IV.
BIZKAITARRA:

Iretargi barriak ez dauko argirik
Ez gauerdiko eguzki otzak berorik
Ez da izango Bizkai maitea inoz penadu bagarik
Alan diragutsue Gabriel Arestik.

5.
HITZ ETA MINTZ

B): ARTXANDARI BEGIRA.
Odoleste frijitua eta tomate freskoa
afaltzen nuen artean.

Artxanda ikusten dut leihotik
eta pensatzen dut
hilek ez dutela ajola.
Biziek bai, haundia.

Gure hilak dira eta
haien biziak, baina
ez dio ajola.
Hilei lurra eman baitdiete,
eta biziei kendu.
Hogetalau urte honetan egon natzaio mendi
horri begira,
eta lehen baino txarkiago gaude.

J): ENZUN NAHI DIDANARI...

...esan behar diot ez nagoela konforme... nire protesta presentatu behar dudala, gizonaren alde nagoela, behin Zorrotzako portuan prometitu nuen bezala. Nik ez dut gauzarik asmatzen. Diodana egia da, eta ez naiz taktika zalea. Egia gurekin baldin badago, ez dadukagu zergatikan gezurrikan asma. Hala da, ni egiaren alde nago, gizona eta egia batera doazalako. Gizona egiatik aldaratzen denean, nik ez dakit zer den. Eta inork entzun nahi ez baldin badit, esanen diot hiriari, izarrari, zeruari, (oi hiri, oi izar, oi zeru), (seguru nago eranzutea kausituko dudala Getariar Mikel Lasa poeta berriaren alimoan), ez nagoela konforme, nire protesta presentatu behar dudala, gizonaren alde nagoela. Esan dut. Nik ez dut gauzarik asmatzen. Euskera Bilbaoko portuan ikasi dut, urdaiazpiko frijitua jaten nuenean, kafesne koinakatua edaten nuenean. Seguru nago gizona ere nire alde dagoela. Eta gizonak, agian, Mikel Lasa du izena. Batzutan pailazoz janzten da. Ifar agirre. Haize agirre. Hegoi agirre. Munduko haize guztien agirrean, agirian. Euskal Herria mundu agirre da.

L): NIRE IZENA.

Hiltzen naizenean egonen da
nire lauzaren gainean eskribu hau:
Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego.
Pérez y López. Marmolistas. Derio.
Bizkaiko Bibliotekan ere egonen da
(deskomekatzen ez banaute),
liburu bat (behar-bada, ez da seguru),

inork letuko ez duena,
nire izenarekin. Eta
gizon batek esanen du kardanberak loratzen direnean,
Nire aitak esaten zuen bezala, nik ere...
(Andre bat etorriko zait Done Santuru oro
lore-koroa batekin).
Jainkoak ez dezala nahi Bilbaoko karrika bati
nire izenik eman dezaiotela.
(Ez dut nahi bizargile hordi batek esan dezala:
Ni Arestin bizi naiz, anaiaren
koinata nagusiarekin. Ba dakizu. Maingua.)
Batzutan esan zaharrak erratzen dira.
Pensatzen dut nire izena
nire izana dela,
eta ez naizela ezer ezpada
nire izena.

6

ASTEPEKO SEKRETARIOAREN BERSOAK (1878)

1

Berriak

43.

Eldu berria naguan erri
Orrek ez dirudi dama
Beti prezio karu batian
Gordetzen duana fama
    Ori da nere ama
    Ta berekin darama
Odolian luzemia
Ala ta guzti deklaratzen naiz
Euskalerriko semia.

49.

Zerua dago goibelik eta
Lañua dabil ibaian
Alako egun asko ikusten
dirade sarri Bizkaian.
    Nekazariak laian
    Duaz azken amaian
Pobreza andi batera
Jainkuak eman bezaie laster
mejoratzeko aukera.

2.
Zaharrak

64.

Hemen nago garzela barnean,
honera naute sartu,
zerri eta zorri hoien kontra
ninzelako ausartu.

65.

Hemen pagatzen dut
nire errurik eza.
Ni naiz
Traketsa.

66.

Merezi dut
zihorra.
Ni naiz
idorra.

67.

Hemen
maiz
hiltzen
naiz.

68.

Haien
zai
diot
bai.

69,

Ez dut
indarrik,
gizontasunaren hondarrik.

7.
EZKUTU EDO DUKAT BANATAN SALTZEKO BERSOAK

Ezkutu banatan saltzekoak.
31.

Nire grazia Aresti da ta populuak beza tira
Franfran motzaren tiraniatik merezi duen satira
Haren dotrina nardagarria orain hamabi zati da
Hemen kantatzen diren egiak Arestiren gauzak dira.

68.

Nire grazia Aresti da ta honela da hazi enda
Gure lurrean pozoatu du belarra ta azienda
Orain bihotzez deseatzen du Madrileko Hazienda
Arrazu galdu duen min hori min guztirik bizien da.

Dukat banatan saltzekoak.
66.

Arestiren bihotzak goizaldean enbat
Gizon doilorren kontra egin zuen gonbat
Inork mundu honetan ez du egin hainbat
Garzelan merezia ba du atseden bat.

86.

Arestiren bihotzak daduka aski lan
Gerrilak egiteko franko Venezuelan
Haren etsaiak dira Lincoln ta K.K.Klan
Ahizpak direlako Kuba ta Dixieland.

8.

HARRI ETA HERRI

Aitaren etxea.

Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
Justiziaren kontra,
defenditu eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea
defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut.
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,

sorbaldik gabe,
bularrik gabe,
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.

Trikitiazko koplak.

apur dezagun katea
kanta dezagun batea
hau da fandango
biba berango

Munduan beste asko lez
Arta buruak oskolez
Atzo aspertu nintzaden maisuez eta eskolez.

Poeta naizen ezkero
Ez dut zerurik espero
Bederatzi kopla ditut lau zuhur eta bost ero.

Zerutik dator argia
Nundikan berriz harria
Gau ilun honetan dakust zure aurpegi garbia.

Martxoko oilar gorria
Inundik ez etorria
Goseak arintzearren judu batek igorria.

Eta hau nola ez bazan
Sar nerila kalabazan
Ipui txit barregarriak kontatu nituen plazan.

Egia bat.

Egia bat esateagatik,
alabak
hil behar bazaizkit,

andrea
bortxatu behar badidate,
etxea
lurrarekin
berdindu behar bazait;
Egia bat esateagatik,
ebaki behar badidate
nik eskribitzen
dudan
eskua,
nik kantatzen
dudan
mihina;
Egia bat esateagatik,
nire izena
kentzen badute
euskal literaturaren
urrezko
orrietatik;
inoiz,
inola,
inun,
ez naiz
isilduko.

Errondan ibiltzeko koplak.

Egun da Santi Mamina
Benetan egun samina
Goiko zeruak gorde dezala luzaro neure anima.

Esanen dizut egia
Hau ez da usategia
Erroi artean izan nintzaden benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra
Hari begira lizarra
Euskera salbo ikusi arte ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak
Argitzen dira belarrak
Agera gure martiriari motztu zizkaten bularrak.

Bularrak motztu zizkaten eta Euskalerriak diotsa
Solomo luze dultzerik gabe eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta ken berriz nahigabeak
Esan noiz garen izanen gure etorkizunen jabeak.

Kristo eta Lenin.

Hea
noiz demonio
adiskidetzen diren
Kristo
eta
Lenin,
hea
noiz demonio
deskomekatzen duten
kapital
alemana
eta
kapitol
amerikanoa,
baita ogitik ere
bizi baitda
kristaua,
eta ez bakarrik
Aita Santuaren
hitzetatik.
Amen.

9.

PROFETA BATI (JURGI OTEITZARI AZALDU NAHIRIK).

.....
ezpaitdidate esan
nor den
bietatik
emazurzago.

Egia da Oteitzaren eskultura ez dudala
nik konprenitzen,
baina ni eskolarik gabeko gizon bat naiz,
eta hori ez da harritzekoa.
Baina Jurgi Oteitzak nire poesia konprenituko du,
dudarik gabe,
gauza errezagorik ez baitda inoiz
gizonaren eskutikan
atera.
Jurgi Oteitzaren eskultura konprenitzeko
bista luzea behar da,
baina nire poesia konprenitzeko
ez da behar
belarri zorrotzikan,
agian
harek listoentzat eskulpitzen zuelako,
eta nik
tontoentzat
eskribitzen
dudalako.
Nire poesia oso merkea da,
herriaren ahotik hartu nuen
debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.
Orain Jurgi Oteitza
ez dakit nun
egonen den.
Ni hemen nago,
Basurtun;
gaur kontuak atera ditut
eta etxera bihurturik ikusten dut
oraindik
oraindik
telebista bat erosteko
ez dudala
aski
irabazten.
Bista laburra dut, eta nire sudurraren aurrean dagoena
ikusten dut
bakarrik.
Zer egin behar dudan

inork esan dizaidan
nahi nuke.
Hainbeste atetan jo nuen nire
denborako egunetan,
hainbeste esku bilatu nuen adiskidetasun
bila,
hainbeste andreren aurpegiei so egin nien
karino bila...
Baina orain ez dago bihurrerarik.
Jurgi Oteitzak ez du jadanik
eskulpitzen,
.....

10.
POESIA PARA AGUSTIN IBARROLA.

En Villa Arago.

Mira, César Vallejo, en pena y sombra,
mira y escucha lo que digo, y sigo
diciendo, amigo en sombra o sombreombra,
lo que digo a tu umbral, umbríamente.

Porque si bien cantaste de mi tierra,
de Durango, Guernica y de Bilbao,
qué bien cantaste, o casi bien cantaste,
cantando a la española, en español.

Con un canto que salga de tus labios,
bien rodado, limado o canteado,
me diera yo en los dientes, por cantar
tu tierra a cal y canto, o bien de canto.

Porque sucede, o dicen de ti, César
Vallejo, hispanamente apellidado,
que un buen nombre latino o bien cristiano,
cristiano hará a un buen hombre, o bien latino.

Porque ladinamente escuchas lo que
cretinamente hablando callo. César,
no de mármol romano, sí de barro
rojo quechúa, moldeado, Roja

tu sangre de hombre libre está; tu piel
quechúa roja está; tu convicción
también, mas no quechúa. Peruano.
Porque eres boliviano y monroviano.

Negro africano luto te prendieron.
Yo cantaré a Vasconia guerniquesa.
Tú cantarás a América, la zamba.
Donde serán los hombres colorados.

Homenaje de la Tierra al Hombre (el Señorío de Vizcaya por José María Iparragirre).

.....

la voz
de nuestro pueblo vasco encadenado,
EXIJO a todo el mundo, A TODO EL MUNDO,
en este día veintiséis de junio,
aquí, Gabriel Aresti, en Llodio, Alava,
EXIJO, digo: EXIJO, que se abra
una investigación que determine
cuáles fueron las causas verdaderas,
los motivos precisos, de la muerte
de Iparraguirre, el hombre vasco bueno,
del hombre que la tierra de Vizcaya
homenajea por mi boca abierta
en estos 413 versos.

Desagravio ante las ruinas de Sabinetxe en Albia.

.....

quisiera estar hablando todo el día,
quisiera estar hablando todo el año,
para decir quién eres, quién has sido,
y que lo sepan todos, capitán,
Sabino Policarpo Arana y Goiri,
no enmudezca jamás la voz que el pueblo

me pusiera en los labios, por cantar
la ruinedad del gobernalle roto,
la mudedad de los castaños altos,
la solidez de piedra del palacio
y la antena (no cruz) del viejo templo...
Sabino Policarpo Arana y Goiri...
padre mío... me escuchas...? óyeme...!

Séptimo soneto rebelado.

Otro soneto más, sin estrambote,
tan estrambótico que hasta el acento
no va a caer en esa sexta sílaba
tan necesaria; tan estrambótico

que hasta la rima fuera ya indultada,
que hasta el endecasílabo fuera de trece
sílabas, de trece sílabas, o de catorce,
de las que fueran necesarias para

saber que el pueblo entiende que ya es libre,
este soneto, digo libre, digo
mi pueblo vasco encadenado, pobre

mi pueblo, rico pueblo que no tiene
un mal poeta que llevarse el canto
del labio silenciado.

Cuarta vez Nerea ante el futuro.

A tus hermanas diles tú, pequeña,
por qué razón no hay pan en casa, diles
que el pan se compra, pero no, ni abriles,
ni el honor de tu padre. Voz sedeña,

cantarines murmullos de la aceña,
explícales que existen, viven, miles
de hombres desesperadamente viles,
en quienes el dinero me despeña.

Mas día llegará, quizá mañana,
en que la libertad, moza gañana,
os cantará en vascuence con la sopa,

y el árbol de Guernica amanecido,
ese cadáver hoy desconocido,
se colmará de fruto hasta la copa.

11.
MAILU BATEKIN

Errege Godoak.

Zuri, Dallas,
emanen dizut arrazoia,
gaurko Gomorra,
Palmira berriztatua,
Samarkanda tristea,
Eldorado zikina,
zuri,
legerik gabeko hiria,
saloonetan unaiak,
hemen emagalduak dira oso
andre prestuak,
lapurrak Jainkoaren izena darama
ahoan,
sazerdoteak
(kristau, judu, mahometano),
merkataritzatik ateratzen ditu
korritu onak,
gizon prestuak kondenatzen dira
judiziorik gabeko heriotze batera,
ikusgarria da hemen
bidegabea,
hitz bitan,
lur honetatik
munduko beste edozeinera
ez dago
alde haundirik.

Profezi-liburu zahar batean irakurria.

Eta zu, Treberis,
benedikatua izanen zara,
munduko
hiri guztien
artean,
zure sabeletik jaioko
baita...

Hibai zabal.

Hibaiek
erabaki hartzen dute:
hemendik.
Eta handik
ez dira mugituko.
Edo handik
mugitzen dira
geldi,
eta noizean behin
hasarraturik,
azkar,
itsasora.
Ni,
itsaso bat banenduka,
nora noan
banenki,
hibaia
banintz...
Ai, ene tristea!
Nora eta nundik
noan
ez dakidana...!

Harrika hildako Mitxeleta.

Pausa pilinpan,
pinpilin pausa,
txola txoleta,
mari txoleta,
mauri txeleta,
zer bidegabe kometitu huen,

hik,
koloretako mitxeleta,
baldin,
jada jaiorik,
(baina nori eskatu hion jaiotzeko
baimenik?),
lore baten gainean...
pausa...
bi pausa...
pausatu...
ba...
hin...?
tzen...?
Nola jakinen huen
lore hura
konkretuan landaturik
zegoela?
Uia Apia,
Zugarramurdi,
Dachau,
Gernika.
Ai, ene fede apurraren,
706.755 egunekin
jaioa,
eta
10,646 egun geroago
bir
hila!
Kripto ta kripto,
ni,
kristograma!

12.
EUSKAL HARRIA

Hiru urte luze.

Hiru urte luze.
Eta zu gabe
Bilbao

asko tristatu da.
Saguxarren hegaldaketa eten-gabekoak
gertatu dira
kale artean eta
plazarik plaza;
altzipresa
iduri du
Don Diegok;
gure errekak ere
isilean negar egiteko kurajea
eduki du
behingotz.
Lau uda motz
eta hiru negu luze
orritu ondoren,
Bilbaok
(sobera poztu gabe,
baina tristura bat
utzirik),
esan behar dizu,
la
gu
na
AG
OS
TI
la
gu
na
nola
kantoiek baso-erdi bat
eskeintzen duten,
Jardin txikerrak begitartea
irritzen duen,
Tutuluk hodei artean
irrintzi bat
botatzen duen,
berriz ere hasteko ordua dela
konprenitu
baitute.

Bihotz-Begiak.

(Bi partetan partitua eta berezia.)

Nola eskiribatuko dut
zure etxearen izena,
nola konponduko nuke
geroko utzi zenuen partea,
bigarren liburua?
Geroko esperantzan bizi gara,
baina hor nunbait esana dut
esperantzak
ez duela merezi.

Erretore zaharra,
zuk,
sorginekin nahasi horrek,
Erregerekin eta Aita Santurekin egonok,
egiazko fede eta legearen aldezkariok,
idatzle finok,
iturriari buru berri bat edeki zenion.

Begi bat utzi zenuen
Gorbeia mendiaren gainean
eta bihotza
nire barnean.

Gizonari geldi-arazitzeko bersoa.

Karrika okerrok korritu nituen
oparo,
luzaro,
emaro;
hemen urratu ziraden
nire zapatak eta
nire ametsak ere;
hemen apurtu ziraden
nire frakak eta
nire ilusioak ere.
Bilbao honetan,
Basurtutik Atxurira,
ni ere
izan nintzen behin,
orain urte asko,

herria,
eta orain konturatu behar izan
naiz ni...
Orain plaza batean haur batzuk
erderaz kantatzen
ikusi ditudala:

En un barranco de lobos
Hay una fuente que mana
Sangre de los españoles
Que murieron por España.

Hemen,
askotan esan dut,
ez dago herri bat;
hau da
herri baten kontra
alzatu eta zabaldurikako
hiria.
Hemen,
hainbeste ustelkeria,
hainbeste bizio likits,
hain merke saldutako izerdia,
negarra eta gosea,
baina hemen ere
haurtxo batzuren kantak,
dantzak,
koplak.

Ni me lavo ni me peino
Ni me pongo la mantilla
Hasta que venga mi novio
De la guerra de Melilla.

Tafernak utz,
kanpo-fobailak utz,
gizonak;
zinemak utz,
nobedadeak utz,
andreak.
Geldi bedi zuen urratsa
kalearen erdian,
hemen aurkitzen da
Bladi Oterok eskatu zuen bersoa,
kalearen erdian
gizonari geldi-arazitzeko

bersoa,
eta gainera,
alegere,
pobre,
Bilbaoko plaza batean
kantatzen,
dantzatzen,
koplatzen
duten
haur batzuren
ezpain freskoetan,
oraindik nagusitu ez den
herri baten
ahoan.

Melilla ya no es Melilla
Melilla es un matadero
Donde matan a los hombres
Como si fueran corderos.

Haurrak hurbil
bekizkigu,
oraindik ez baita akabatu
gizontzeko
(andretzeko)
garaia.

In memoriam.

Zezenaren adar hamorratuak
hildako
poetak,
arbola sustraitik
atereak,
lore
orrituak,
galburu
garanduak,
aberri
hezurtuak,
Frederiko,
Mikel,
Eztebe,
nik orain

diot
balioago duela poetarik tristeenak,
Donibane
monsieur le poète humil batek,
Mariaren alaba
edo
Josepe, Joane eta Jakoberen
seme guztiek
baino.
Mungia
ez da tristetzen.
Granada ez zen
enteratu.
Alicantek
beste bat
negarreztatzen du
urtero.
Maiatzeko lore
iharrak:
Frederiko.
Juan de Yepes langileen artean:
Mikel.
Lau haize:
Eztebe.
Zuengatik
orduoro
gordetzen dut minitu baten
isil
aldia,
niri tokatzen zaidan egunaren
zai.
Ai!
Bai.

Espainiako Poeta.

Antón,
Antón o más,
Antón no más,
Antonomás
Machado.
Espainia da

sabel izugarri bat,
doloretan,
odoletan,
hilori triste batez
erditzen
dena.
Zu,
aita,
zu,
Antonomas
Machado,
eta zure
hilori
emazurza:
Herriaren izenean
noiz barkatuko dizuet

Bizi-buruko testamentua (Azken bersoa).

Kansazioaren aitzakiarekin
nire gradotik
dimisioa presentatzen
dudalarik,
beste enplego
zoriontsuago bat
onartuko
nuke.

Firmatzen dut:

Gabriel ARESTI SEGUROLA.

OHARRAK:

1. Gabriel Arestik *Bere poesien antolojia laburra,* bere emazte Melitxuri dedikatzen dio. *Euskal Harria* deritzan poesi liburuko eskaintza ber bera da, ikus *Obra guztiak*-ren II. tomoan 12. orrialdea.

2. *Sagar zimelak* bildumatik hirugarren sonetoa (Hamalauduna eta ez Amolandun, *Obra guztiak* bildumaren lehen tomoko 114. orrialdean agertzen den bezala).

3. «Hariztia», *Maldan behera*-koa da, izenburu berdinez agertzen direnetarik lehen bertsoa. Ikus *Obra guztiak,* I, 186 orrialdea.

4. «Lizardia», *Maldan behera*-koa hau ere, izenburu berdineko lehen bertsoa. Ikus *Ob. guzt.,* I, 208.

5. «Iratze ederra», *Madan behera*-ko «Iratze ederra»-ren azken bertsoa da Ikus *Ob. guzt.,* I, 228.

6. «Lore mendia», *Maldan behera*-koan azken bertsoa. Ikus *Ob. guzt.,* I, 238.

7. «Herri bitarte», *Malda behera*-koaren izenburu bera du, baina bertso hori ezta agertzen *Ob. guzt.* bilduman, bai ordea lehen argitalpenean. Ikus *Euskera,* V, 1960, 212 orrialdea eta han agertuko zaigu «Herri bitarte» deritzan partearen azken bertsotzat; beraz, *Obra guztiak* bildumaren beste huts egite bat da.

8. «Partiera», *Maldan behera*-ko izenburu berdina duenaren bigarren bertsoa da. Ikus *Ob. guzt.,* I, 266.

9. «Judizioa», *Maldan behera*-koaren hirugarren bertsoa. Ikus *Ob. guzt.,* I, 284.

10. «Mendekantza», *Maldan behera*-koaren azken bertsoa. Ikus *Ob. guzt.,* I, 308.

11. «Ditxaren bitartez», *Maldaon behera*-koaren azken bertsoa hau ere. Ikus *Ob. guzt.,* I, 328.

12. «Primera vez en castellano» (poesía para la sombra de un camello) deritzan saileko «Cuerpo del hombre» eta «Sobre la superficie de las aguas» izenekoen bi zati dira. Ez dakit lehenago inon argitaratuak diren. Arestik, bere poesiagintzako aldi baten gaztelaraz idazteari eman zion eta beretarik zenbait gero euskaratu zituen; hala dira *Euskal Harria*-ko batzu.

13. «Herriarekin inkontru» - I. «Kopla gisa ero batzuk» 3 zenbakiz agertzen dena *Maldan behera*-koa da, «Sendan eginiko gogoeta eroak» deritzan atalaren hirugarren bertsoa da.

    13. zenbakia daramana, *Maldan beherako* «Estratan eginiko gogoeta eroak» sailaren seigarren bertsoa da. Ikus *Euskera,* V, 1960, 199 orr.

    22. zenbakiduna *Maldan beherako* «Maldan gora eginiko gogoeta eroak» delako sailaren lehen bertsoa eta 30. zenbakiduna sail bereko bederatzigarrena. Ikus *Euskera,* V, 1960, 232 eta 233 orr.

14. «Euskal komedia» izenburuz *Ob. guzt.* bilduman jasotzen direnean ez dira agertzen Antolojia labur hontakoak, ezta ere *Harrizko herri hau* deritzan liburuan. Behar bada aldizkariren baten argitaratuak izan daitezke, baina ezin da zihurtatu azterketa sakonago bat egin gabe.

15. «Euskal trajedia» izenburudun hauek *Ob. guzt.* bildumako I tomoaren 368-384 orrialdeetan datoz, baina ez dira era berdinean agertzen.

16. «Bizkaitarra», *Ob. guzt.*, I, 119. orr. lehen bertsoa.

17. «Hitz eta mintz», B): «Artxandari begira», *Ob. guzt.*, II, 280.

18. J): «Enzun nahi didanari...», *Harri eta Herri*-koa da eta ikus *Ob. guzt.*, I, 454 orr.

19. L): «Nire izena» ere *Harri eta Herri*-koa, baina ikus *Ob. guzt.*, I, 458 orr.

20. «Astepeko sekretarioaren bertsoak» ere *Harri eta Herri*-koak dira eta ikus *Ob. guzt.*, I, 592 eta 595 orr.

21. «Zaharrak», «Astepeko...» horren jarraipenezkoak, ikus *Ob. guzt.*, I, 616 eta 617 orr.

22. «Ezkutu edo dukat banatan saltzeko bertsoak» titulatzen dituenak argitara gabeak dira. Era hortako bertsoak *Euskal Harria*-ren azken partean argitaratu zituen, 1967an, gero *Ob. guzt.* bilduman jasotzen direnak. Ikus II. tomoaren 144-153 orrialdeetan.

23. «Aitaren etxea». Hain arrakasta handia izan zuten bertso libre hauek *Harri eta Herri* deritzan ilburuan argitaratu zituen, 1964an, 1969an birargitaratua eta gero *Ob. guzt.* bilduman I tomoaren 466-467 orrialdeetan.

24. «Trikitiazko koplak» ere obra berean argitaratu ziren, orain zatiak baizik ez dira. Ikus *Ob. guzt.*, I, 472 orr.

25. «Egia bat», *Harri eta Herri*-koa, ikus *Ob. guzt.*, I, 492 orr.

26. «Errondan ibiltzeko koplak». *Ob. guzt.*, I, 504-505 orr.

27. «Kristo eta Lenin» izenburuzkoen bigarren bertsoa da; ikus *Ob. guzt.* II, 274-276 orr.

28. «Profeta bati». Hemen ere zatiak baizik ez dira jasotzen. Ikus *Ob. guzt.*, I, 518-566 orr.

29. «Poesía para Agustín Ibarrola. En Villa Arago». Itxura denez, inon argitara gabeak dira poesi hauek garaiko zentsurak jartzen zituen eragozpenagatik.

30. «Homenaje de la Tierra al Hombre». Iparragirrei eskainitako hauek, bertso hontan ikustez denez, 413 zerrenda osatzen dituzte. Behar bada, hau bezala, gazteleraz idatziak daude, baina inon argitaratu gabeak dira. Non gordetzen diren ez dakigu.

31. «Desagravio ante las ruinas de Sabinetxe en Albia». Hauek ere erdaraz eta inon argitaragabeak dira.

32. «Séptimo soneto rebelado». Hau ere, itxura denez, inon argitaratu gabea da.

33. «Cuarta vez Nere ante el futuro». *Euskal Harria*-ren 149. orrialdean dator euskarazkoaren itzulpen bezala. Baita ere, ikus *Ob. guzt.*, II, 134-135 orr.

34. «Errege Godoak», *Euskal Harria* deritzan liburukoa da eta *Ob. guzt.* delakoaren II tomoko 98-99 orrialdeetan dator. *Mailu batekin*, Antolojia laburrerako kapitulu izena baizik ezta.

35. «Profezi-liburu zahar batean irakurria». Ikus *Ob. guzt.*, II, 94 orr.

36. «Ibai zabal». Ikus *Ob. guzt.*, II, 86 orr.

37. «Harrika hildako mitxeleta». *Ob. guzt.*, II, 248 orr.

38. «Hiru urte luze». *Ob. guzt.*, II, 230-232 orr.

39. «Bihotz begiak». *Ob. guzt.*, II, 42 orr. Hemen, egileak berak euskara batuaren grafiaz jarria da eta ez *Euskal-Harria*-rako asmatu zuen hartan.

40. «Gizonari geldi-arazitzeko bersoa». *Ob. guzt.*, II, 204-208 orr. Blas de Oterok inoiz agertu zuen eritziarekin G. Aresti oso kezkaturik zegoen eta kalean kantatu ahal ziren bertsoez gainera, edozein entzuleri zirrara eragitekoak egin nahi zituen.

41. «In memoriam». *Ob. guzt.*, II, 196 orr.

42. «Espainiako poeta». *Ob. guzt.*, II, 192 orr.

43. «Bizi-buruko» testamentua (Azken bersoa)».

J. S. M.

Gabrielek, hitzaurre gisa egin dudan sarrerako lerroetan jasotzen den gutunarekin batean, baita ere lanaren itzulpenak igorri zizkidan eta horien artean erderaz idatzi zituenak euskaraturik. Beraz, interesgarria iduritzen zait ber-berak euskaratu zituen poesiak ere hemen argitaratzea.

Bere ordena jarraituz, «Primera vez en castellano» deritzanetik hasiko naiz, poemen zenbakiak jarriaz, irakurleak aisago aurkitu ditzan.

J.S.M.

3.
GAZTELANIAZ LEHENIK
(Gamelu baten gerizarako poesia).

I.
GIZONAREN GORPUTZA

39.
Zuzenaren Erreinua.

Zuzenaren erreinua landatuko dute,
ongi-egona izanen da haien heredentzia haundia,
nahitasun bat atzipetzako nahigabearekin
ez baitda jokatuko.

Igualtasuna eta berdintasuna izanen da
mundu zehatz eta ekilibratu horren erregela;
amankomuneko arras bakar bat egonen da
hala inor ez dadin izan alde batera baztertua.

Baina nola izanen diren zurezko makinak,
kolore askotako begi kristalezkoekin,
ezkozko bihotz eta erraiekin,
ez dute jakinen bakarrik bekatuan

izakia erredimi litekeela,
eta eskari eta otoitzetan desbizi.

II.
URAREN AZALAREN GAINEAN

Inoiz ez da ezer izan hain giza-beheitiagoa
maitatu ninduen eta arbuiatzen nauen izaki hori baino,
anaia bat bezala nik maitatu nahi izan nuena.

Igurikiera honela tai gabe sarritzen da,
loditzen da, mukurutzen da, bilakatzen da
desesperantzarik haundienean, gogorrenean.

Eta eskergaitzki bortitza badirudi ere,
eta botere eta jakintasun guztiaz minzatzen bazen ere,
eta hemen, nire gelan, arimarik gabe, utzi banau ere,

nola iher egiteko ongi bantatzen zen
inoiz txaloparik behar ez izanaz,
ezin erran dezaket zergatik zegoen atinik
uraren azalaren gainean.

10.
AGOSTI IBARROLARENTZATEKO POESIA.

Villa Aragon.

Begira, Cesar Vallejo, penetan eta gerizan,
begira eta adi zer diodan, eta segitzen dudan
esaten, geriza-peko edo geriza-gaineko laguna,
zure ate-ondo itzaltsuan diodana.

Zeren, baldin nire lurraz kantatu bazenuen,
Durangoz, Gernikaz eta Bilbaoz,
zein ongi edo kasik ongi kantatu zenuen,
espainolez eta espainolen moduan kantatzen zenuela.

Zure ezpainetatik ateratako kantu batekin,
ongi arrodatua, erruberatua, landua,
joko nituzke nire horzak, zure lurra
karez eta adrailuz edo zeiharretara kantatzeagatik.

Zeren gertatzen baita, edo diote zutzaz, Cesar
Vallejo, hispaniaki deituratua, ezen
latin edo kristau izen on batek
gizon on bat latindu edo kristanduko duela.

Latinki aditzen baituzu
kristauki isiltzen dudana. Cesar,
ez erromar marmolez, bai buztina
gorri ketxuaz, moldatua. Gorri.

.....

zure odol gizon librearena dago; zure larrua
gorri ketxua dago; zure deliberamentua
bai halaber, baina ez ketxua. Peruarra.
Bolibiarra eta monrobiarra zarelako.

Zinzilik dolumin belz afrikarra jarri zizuten.
Nik gernikar Euzkadia kantatuko dut.
Zuk kantatuko duzu Amerika zanba.
Nun izanen diren gizonak gorriak.

Lurrak gizonari gorazarre (Bizkaiko Seinorioa Jose Maria Iparragirrerengatik).

.....

gure
euskal herri kateatuaren boza,
ESIJITZEN DIOT mundu guztiari, MUNDU GUZTIARI,
ekaineko hogei eta sei egun honetan,
hemen, Gabriel Arestik, Laudion, Araba,
ESIJITZEN DIOT, bai: ESIJITZEN DIOT, zabal dadila
azterketa bat, hola jakin dadin zeintzuk

izan ziren Iparragirreren heriotzaren
motibo zehatzak, bai, euskaldun gizon
on hura, zeinari Bizkaiko lurrak gorazarre
egiten dion nire zabala dela
medio, honako 413
berso hauen bitartez.

Albiako Sabinetxeren hondamendien aurrean irain-garbiketa.

.....

egun guztian egonen nintzake minzatuz,
urte guztian egonen nintzake mintzatuz,
esateko zein haizen, zein izan haizen,
guztiek jakin dezaten, kapitaina,
Sabino Polikarpo Arana eta Goiri,
ez dadin inoiz mututu herriak
ezpainetan jarri zidan boza, kanta nezan
gobernailu apurtuaren hondamendia,
gaztainondo haltuen mututasuna,
jauregiaren harrizko fermutasuna
eta eliza zaharreko antena (ez gurutzea)...
Sabino Polikarpo Arana eta Goiri...
aita enea... aditzen nauk?... Nanzuzu!

Zazpigarren soneto jazartua.

Beste soneto bat, estranboterik gabe,
hain bakan ezen azentua ere
ez da eroriko seigarren silaba hain
beharrezko horretan; hain bakan ez

dobladura bera ere izanen da indultatua,
ezen endekasilaboa izanen den hamairu
silabakoa, hamairu silabakoa, edo hamalaukoa,
edo gehiagokoa, baldin horrela badakigu

herriak entenitzen duela libre dela,
nire soneto hau, diot libre, diot
nire euskal herri kateatua, gaiso

neure herria, aberats herria ez duena
poeta triste bat emana dezan
ezpain isilduaren erzera.

Laugarrenez Nerea etorkizunaren aurrean.

Zure ahizpei esaiezu zuk, txiki horrek,
zergatikan etxean ez dagoen ogirik, esaiezu
ogia erosi egiten dela, baina ez apirilik
eta ez zure aitaren ohorerik. Zetazko boza,

erreteneko murmurio kantariak,
azal zaiezu esistitzen duela, bizi direla
milaka gizon esperanzarik gabe doilorrak,
zeinetara diruak hamiltzen nauen.

Baina egun bat etorriko da, agian bihar,
zeinean askatasuna, neskatxa lerden horrek,
zoparekin kantatuko dizue eskuaraz.

eta Gernikako arbola oilariteztatua,
hilotz gaur ezagutu gabeko hori,
mukururagino beteko da frutuz.

LEHENENGO EUSKAL-OLERKI SARIKETA URRUÑA-N (1)

YON ETXAIDE ITHARTE

«Ciudad de Irún» deritzan laugarren literatur sariketa dela-eta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko Julio Abad jaun prestu eta eragileak, euskal poesiari buruzko lantxo bat eskatu dit. Ni neu «Ciudad Irun»go euskal-olerki nor-gehiagokan mahaieko izan ohi naizenez, gogoratu zait lehendabiziko euskal-olerki sariketa honen berri ematea, alegia, 1853-gn. urteko Irailaren 6-an Antonio Abadia zaldun leinargiaren diru-hornitzez eta bere zuzendaritza eta ardurapean egin zena, aipaturik dugun Lapurdiko herri xarmantean. Honek ez du esan gura lehenago beste euskal-poesia sariketa bakanen bat izan ez zenik, zeren denok gogoan baitugu, esate baterako, Iruñean 1609-garren urtean ospatu zena Besta-Berriz, Antonio Venegas de Figueroa jaun apezpiku agurgarriak eraturik, Peru Ezkurrako, Mikele Aldazko eta Joane Elizaldeko olerkariak sarituak izanik. Besterik ez zait gogoratzen une honetan, baina, dena den, Antonio Abadia eus-

(1) Lan hau bi zatitan agertu zen: «Guipúzcoa 73»an lehen zatia eta «Guipúzcoa 74»an bigarrena, hots, 1973 eta 1974 urtetan, 10-gn. eta 11-gn. zenbakitan. Neure gogoa lumero batean etenik gabe publikatzea izan baldin bazen ere, ez zen posible izan aldizkari honen artikulu neurri laburragatik. Orduan ezin bete izan nuen gogoa orain bete nahi nuke aldizkari honetan osorik argitaratuz. Gainera, gaia txit ernagarria da euskaltzaleentzat eta aipatu dugun aldizkaria hauen artean gutxi ezagutua denez gero, on izanen da EGAN-en ezagutarazteko bide ematea.

kaldun ohoretsuak hasera eman ziòn hau izan zen, arrakasta handi baten ondoren, benetako jarraipena ekarri zuèn bakarra.

Olerkigaia behartua izan zen, alegia, bizi-beharrez Amerikatarat eta zeazkiago Montebideo-rat doazen hainbat euskaldun gazteen zori tristea. Frantsesez eman zutèn gai-tituluak honela ziotsan: «Les regrets d'un basque en partance pour Montevideo». Neurria: 50 bertso lerro gehieneko. Saria, «makhila» eta «untzako urhea» (euskaldun makila eta ontzako urrea) irabazlearentzat. Beraz, sari bakar bat.

Azter dezagun orain gai hau hautatzeko izan zirèn arrazoiak. Antonio Abadia berberak honela dio frantsesez (2): «Le sujet a été imposé et son choix est particulièrement intéressant, car il est d'une actualité brûlante. Depuis vingt ans en effet (vers les années 1830), l'émigration vers les rives de la Plata commence à sévir au Pays Basque» (Gaia behartua izan da eta hautapena txit ernagarria, gaurkotasun bete betekoa baita. Izan ere, orain hogei urtez geroztik (1830 ingurutsuan), La Plata-ko urertzetara joan beharrarekin hasi baitzitzaion zigorraldia Euskalerriari). Eta aintzinaxeago: «Bost mila pasaporte baino gehiago zabalduak izan dira Ahuñamendi Apaletako Prefekturan 1832-tik Uruguay-ko Errepublikarako. Gutxieneko beste bi mila jo daitezke muga igaro duten euskaldunak, Espainiara ontziratzera joateko, helburu berberarekin» (3). Horrialde berberan: «1832-tik 1843-ko Agorrilaren (Abuztuaren) lehenengora, 8.174 gizaki, esate baterako denak euskaldunak, Montebideoruntz atera ziren, hots, euskal-bizilagunen 20-tik bat». Eta liburu berberan, 453 horrialdean, Francisque Michel-i kopiatuz: «Euskaldunen herbesteratzeak Río de la Plata urertzetara... azken bolara honetan ikaragarrizko hedadura hartu du Ahuñamendi Apaletako departamenduan, bertako bizilagunak gero eta urritzenago ari direlarik. 1848-an joaile kopurua 672-ra iritsi zen; urrengo urtean 1.012-ra eta 1850-ean 1.807-ra. Ez dugu 1851-1852 urtetako txostenik, baina badakigu 1859-an 977 gizonezkok 299 emakumezkok, 1.206 gizaki orotara, Frantzia utzi zutela eta zifra hau 1854-an 2.838-ra igo zela, 2.133 gizonezko eta 105 emakumezko».

---

(2) «L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun», Haritxelhar-ena, «Euskera» aldizkarian, 1969-1970, 451 paia.

(3) Aipatu liburua, 452 p. Laburtzearren, frantses tekstua baztertzen dugu.

Guk laburturik eman ditugun dato hauen ondoren, Haritxelhar jaunak honela bukatzen du: «Gaia ez zen izan, beraz, nola-nahi emana. Aurkeztutako 37 lanen artean Etxahun-ena zegoen. Berak igorri zuèn esku-iskribua, 1853-ko Agorrilaren 2-an fetxaturik, Uztaritzeko Seminario Txipiko Bibliotekan datza Harriet-en paper artean. Seguru aski honek poema guztiak gordeko zituen» (4).

Haritxelhar jaunak dioen bezala, 37 olerki-lan izan ziren aurkeztuak. Ez zen garai hartarako eta lehendabiziko bertso-sariketa izateko kopuru makala! Saria, lehenago esan bezala, bakarra zen; alegia, irabazleak makila eta ontzako urrea bereganatuko zituen. Baina, ez bat eta ez bi, sariketa-jai bezperatan, «Le Courrier de Bayonne» egunkariak (Irailaren 4-koak) iragarri zuen saria zatitua izan zela: «Trente sept pièces ont été adressées au jury d'examen. Le prix a été partagé. Le *makila* (bâton) d'honneur a été accordé à l'auteur de la pièce intitulé *Garastarra*. L'auteur de la pièce adressée de Bardos sous le nom de *B. Celabe* a reçu en prix l'once d'or». Alegia, hogeitamazazpi olerki lan izan zirela igorriak epai-mahaira. Saria zatitua izan zen. Ohorezko makila *Garastarra* deritzan lanaren egileari eskaini zaio. *B. Celabe* izenez Bardozetik igorritako lanaren egileari ontzako urrea eman zaio saritzat. Badago lerro labur hauetan hutsegite larririk, zeren «Le Courrier»eko berri-emaileak «Garaztarra» egile izena, edo zehatzago mintzatuz, olerkigilearen gaitz-izena, obraren izenarekin nahasten baitu. Alegia, «Garaztarra» poesia aurkeztu zuenaren gaitzizena zen, eta beronek aurkeztutako poesiaren izenburua, geroago ikusiko dugunez, «Nahi nuke kantatu».

«Garaztarra», ordea, gezurra badirudi ere, ez zen sariketa jaialdira agertu eta orduan epai-mahaikoek erabaki zuten makila eta ontzako urrea Zelhabe-ri ematea. Honek bere bertso-sail garaitzailea kantatu zuen, hots, «Entzunik espantutan» letrarekin hasten dena, eta gero, ehun pertsonez osatutako koru batek jarraitu zion. Zelhabe honetaz dakiguntxoa hauxe da: Bardoztarra zela eta bolaratxo batean apezgai ibili zela, nahiz-eta gero Etxahun-ek, bere haserrean, saria jan ziolako, «Bardozeko aphez arnegata» deitu. 24/25 urte zituen garai hartan.

---

(4) Aipatu liburua, 453 paia.

Baina delako «Garaztarra», irabazkide gelditu zitzaigùn Garaziko seme hau, nor genuen? Haritxelhar-ek dio, Etxahun-i dagozkion zenbait xehetasunen artean, Parisko Bibliothèque Nationalen (Celte basque n.º 153) dagoen Duvoisin-en kantu bilduman, 25-gn. folioan, honek, «Garaztarra»ren poema dakarrela, nota honekintxe: «attribué à l'abbé Landerretche, curé de Mauléon». «Baina, hots! —jarraitzen du Haritxelharrek— 1801-eko konkordatuaz geroztik, Mauleko erretore izateak berarekin zekarren artzipreste izatea». Eta: «Landerretxe apeza, Donaphaleu-ko erretore izanik 1837-tik 1845-era, Maule-Lestarreko Artzipreste izendatua izan zen 1845-ean eta Maulen hil zen 1855-eko kolera izurrite ikaragarrian» (5). Ez digu esaten, ordea, Garaziko zein herritan jaio zen.

Horra orain galdera: zergatik ez zen azaldu Landerretxe jaun Artziprestea, «Garaztarra» alegia, zegokiòn saria jasotzera? Apaltasun hutsez? Bere burua gutxietsirik, agian? Espero ez zuelarik saritua izan zelako eta sariaren merezigarri ez zela pentsatu bide zuelako? Badago argi zirritu bat horrelako zerbait uste izateko. Dena dela, Martin Hiribarren Azkaindarrak, hots Bardozeko jaun erretoreak eta «Eskaldunak» poema famatuaren egileak, Antonio Abadia jaunari egiten dion eskutitz batean 1855-garren urtean, honela dio 1853-ko nor-gehiagoka komentatuz:

«Joan den urtean, enparantzan bertan, ausartu nintzaizun aditzera ematen, ez zegoela alderatzerik ere «Garaztarra»ren lana «Zelhabe»renarekin eta publikuak ene iritzia ontzat eman zuela. Utikan! atsegin egiteko sariak; publikuarekin ezin daiteke horrelako joku txirristakorretan ari, beronen konfidantza galdu nahi ezpadugu. Jainkoak bakarrik daki nik entzun ditudanak azken urteko epaia dela bide eta ez zeuden beti okerrean; baziren lehiaketa hartan hamar olerki baino gehiago «Garaztarra»renari aurre hartzen ziotenak» (6).

Hiribarren-ek zorrotz juzgatzen du erabaki hau: «Utikan! atsegin egiteko sariak» (Pas de prix de complaisance). Landerretxe Artzipreste jauna kategoriako gizona genuela inork ezin uka, eta epai-mahaikoek honi atsegin eman nahiaz mintzo zaigu, zalan-

---

(5) Jean Haritxelhar: «L'oeuvre poètique de Pierre Topet Etchahun», «Euskera» aldizkarian, 1969-1970, 468 paia.

(6) J. Haritxelhar, aip. lib., 464 p.

tzarik gabe, gure Azkaindarra. Beraz, badirudi epai-mahaikoen artean bazela interesik saria Landerretxe-ri emateko.

Nortzuk osatu zuten epai-mahaia? Haritxelhar-ek diogunez (aip. lib. 463 p.), hiru laiko eta bost apez izan ziren mahaiko: laikoak, Ducos Donibandarra, Leremboure (Lerenburu), Baionako lege-gizona eta Larralde-Diustegi, Urruñako alkatea (Urtubia-ko gaztelu-nagusia). Apezak: Martin Hiribarren, Bardozen erretore zegoena, eta aintzinetik Montebideorako joaileez poema bat egin zuena, Lissardy (Lizardi), Hazparneko erretorea, Pierre Nérée Dassance (Azantza), Baionako katedraleko kalonjea (lehenago Pamiers-ko apezpikutzari ezezkoa eman ziona), Goietxe, Urruñako erretorea, «Fableac edo alegiac» liburuaren egilea (La Fontaine-en itzulpena) eta Maurice Harriet (Harrieta), Baionako Seminario Handiko zuzendaria, euskal-gramatika baten eta euskal-hiztegi bikain baten egilea eta Haraneder-en «Testament Berria» P. N. Dassance-ekin batean txukundu eta berriro argitaratu zuena. Daitekeena da ere, kontseilari gisa, seigarren bat tartean egotea, alegia, Haranburu Bikario Nagusia, zeren Harriet kalonjeak bere ondoan eduki nahi baitzuen, honek Antonio Abadia zaldun leinargiari egin ziòn gutun batean ikus daitekeenez.

Beraz, baziren epai-mahaian bospasei apez eta hiru laiko. Hauek, ez dakigu zenbateraino zirèn jakintsu euskal-gaietan, baina, nolanahi ere jende landua eta euskaldun jatorrak ziren. Apez artekoak berriz, kultura handiko gizonak ziren eta euskal-gaietan aldi hartako jakintsuenetakoak. Uste izatekoa da, horretxegatik, jakite faltaz beinepein ez zutela huts egin. Bestalde, Mauleko Artzipresteari lagundu nahitxo bat izan zezaketen eragingarri, eta haren poesia txarra ez zenez gero, lehen sarirako hautatu zuten Zelhabe-renakin batean. Hontaz, Hiribarren-ek (mahaikoa hau ere) esaten diguna gogoan harturik, badirudi erabaki-emaileok, ez bekatu handirik, baina bai txipirik egin izan zezaketela, merezi gabeko puntuazino bat emanaz Landerretxe Artzipresteari. Dakigunez, ez zuen bere saria jasotzera azaldu nahi izan eta berari zegokion sari-partea Zelhabe-ri ematea beragandik sortutako proposapena izan bide zen. Bada guzti honetan zedozer.

Nor gehiagoka honetan bada beste zerbait aztertu beharrekoa: alegia, olerkiak hautatzeko erabili zutèn metodoa, eta hau bitxi samarra izan zen Haritxelhar-ek kontatzen digunez. Izan ere, batzaldira igorriak izan zirèn 37 olerki-lanak ez zituzten

epai-mahaiko guztiek aztertu. Lana azkarrago eta hobekiago egin ustez —Harriet kalonjeak Antonio Abadiari aitortzen dionez Agorrileko 23-an egindako gutun batean—, olerkiok epai mahaiko guztien artean zabaldu zituen. Horrela, epaikari bakoitzak lauzpabost olerki bakarrik aztarrikatu zituzten eta bakoitzak bere saileko onena aukeratu. Mahaiekoak zortzi zirenez gero, zortzi olerki lan gelditu ziren aintzina pasatuak (sail bakoitzeko onena) eta gainerakoak baztertuak. Hau dela-eta, zortzi aukeratu hauetan bereizi behar zen onena. Sistema honi ez diogu azkartasunik ukatzen, baina ez deritzagu onena denik, zeren —Haritxelharrek dioen bezala aipatu lanean (463 p.)— hogeitamartsu bertso-lan epaikari batek bakarrik aztertuak izan baitziren eta, denok dakigunez, zortzi begik, batek baino gehiago ikusten dute. Honela, ez da harritzekoa Hiribarren-ek dioena, alegia, bazirela lehiaketa hartan hamar olerki baino gehiago «Garaztarra»rena baino hobeak.

Olerki sariketa hartara aurkeztu zirèn lanetatik bost ezagutzen ditugu; lau, Francisque Michelek argitara emanak bere «Le Pays Basque» liburu hotsandikoan eta boskarrena Pierre Topet Etxahunena. Honatx hemen urrenez-urren:

1. B. Zelhabe-rena, «Montebidorat noha zenbait urterentzat» edo bertso haseraz «Entzunik espantutan» deritzana eta *Urruñako phestetan lehen premioa* eraman zuena (7).

2. Landerretxe Artziprestearena, hots, «Garaztarra», lehendabiziko saria Zelhabe-rekin erdibitzekoa zena, baina jaso ez zuena. Francisque Michel-ek, *Urruñako phestetan bigarren premioa* atera zuena dela dio hutsegitez. Bertso hasera: «Nahi nuke kantatu» (8).

3. Martin Egiategi Alduidarrarena, Montebideotik igorria eta 1953-ko Ekainaren 24-an fetxatua. Alabaina, Haritxelhar-ek dioenez (aip. lib., 464 p.), ez zen garaiz heldu lehiaketa egunerako (9). Beñat Estornes jaunak bere «Enciclopedia»n hutsegitez dio (Literatura, Tomo I, 613 p.) bigarren saria atera zuela. Olerki

---

(7) Irakurleak errezago aurkitzeko: «Poesías populares de los Vascos», Tomo II, 59 p. (Auñamendi).

(8) «Poesías populares de los vascos», Tomo II, 52 p.

(9) «Poesías popuares de los vascos», Tomo II, 54 p.

eder oni Eskualdun baten bihotzminak Montevideorat joanez» deritza. Bertso hasera: «Gazte nintzen oraiño».

4. «Pulunpa» deritzan olerkia. Ez dizu egilearen izenik ematen (10).

5. Petiri Topet Etxahun-ena. «Montebidorat juailiak» deritza.

Bukatzeko, Francisque Michel-en ustez onenak diren lau olerkiren iritzia aldatuko dugu, zinez kurios eta jakingarri baita (11).

«Konposapen hauetako lehendabizikoa —«Garaztarra»renaz ari da— oso ederra da eta ongi merezia du lerro batzuk eskaintzea; benetako literatur obra bat da eta edergintzak, arteak alegia, ez dizu baztertzen lainotasuna (12). Irakurriz, Sir Walter Scott-ek jasotako balada baten hasera gogorazten du, eta honela hasten den Casimir Delavigne-n honoko hau beharbada gehiago:

La brigantine
Qui va tourner
Roule et s'incline
Pour m'entraîner.
O vierge Marie,
Pour moi priez Dieu!
Adieu, patrie!
Provence, adieu!

«Bigarren konposaketak Martin Egiategi dizu egile eta Montevideon fetxatua dago 1853-ko Ekainaren 24-an. Sendimendu poesiaz benetan aipagarri deritzat, irudiz baino areago. Irakurriz, Taitien de Bougainville-z gogoratzen naiz. Europa zehar egin zuèn bidaia bitartean, txokagarri zitzaiòn guztia jartzen baitzuen

---

(10) «Poesías populares de los vascos», Tomo II, 62 p.

(11) «Bukatzeko» hitzetik hasita aurrerako guztia ez zen CAP-en aldizkarian publikatu leku faltaz. Beraz, Francisque Michel-en bertso kritika eta bost lehiaketarien lehenbiziko ahapaldiak orain agertzen dira aurrenekoz.

(12) Xalotasuna. Tekstuan: *naïveté* (ingenuidad). Konpara bedi iritzi hau Hiribarren-ek dioenarekin: «Baziran batzaldi hartan hamar olerki baino gehiago «Garaztarra»ri aurre hartzen ziotenak». Nola jaten da hau? Iritzi desberdinagorik ez da posible!

ahapaldi akonpasatuetan, berak inprobisatzen zuèn errezitagai behartua, inolaz ere.

«Hirugarren konposaketa —B. Zelhabe txapeldunaz ari zaigu oraingoan, gezurra badirudi ere—, euskarara (13) itzulitako frantsesa da. Ulergarri da, bestalde, nik esan gura dudana. Ezerk ez dio debekatzen Parisen hogei urte egin dituen Pirineotako seme bati Zuberoara edo Lapurdira itzultzea euskal-bertsoak egitera (14); baina bertsook ez dute izanen, inolaz ere, egiazko jatortasunik.

«Batere meritu poetikurik ez du erakusten azkeneko konposapenak —«Pulunpa» deritzanaz ari da—; erosta-kanta bat da, euskaldunen emigrazinoak dakarzkien zorigaitzen bilduma bat besterik ez duena» (15).

Ikus daitekeenez, bada, Michel-en iritzia eta epai-mahaikoena —Hiribarne har dezagun gogoan— oso liferenteak dira. Irakurlearen ezaugarri, alda ditzagun aipatutako bost lehiaketarien lehenengo ahapaldiak, premiazkoa irudi baitzaigu bakoitzaren estiloari eta kategoriari antzeman ahal izateko.

1. B. Zelhabe: «Entzunik espantutan» edo «Montebidorat noha zenbait urterentzat».

Entzunik espantutan Indien berria,
Beldurtu ere gabe ote den egia,
Montebidorat noha zenbait urterentzat,
Aisia bildu nahiz azken egunentzat.

---

(13) Tekstuan: «Est du français traduit du basque», hots: frantsesa euskaratik itzulia. Baina honek ez du zentzurik eta pentsatzen dugu «du basque» inprentako hutsa ez ote den «au basque»n ordez. Irigarai-ek ere (Poesía popular de los vascos, Tomo II, 52 p.) hala ulertu du nonbait, zeren honela itzultzen baitu: «es francés traducido al vascuence».

(14) Ez dakigu B. Zelhabe Euskalerritik kanpo egon zenez. Gainera 20 urte dio, eta Zelhabe-k 24/25 zituen saria jaso zuenean («beau jeune homme de 24 ou 25 ans»), Haritxelhar-en liburuan ikus daitekeenez («Euskera», 1969/70, 464 p.). Dakigun gauza bakarra, apezgaitegian zenbait urte egin zuela. Beraz, nondik atera zituen albisteak Michel-ek? Zelhabe-k 24 urtetatik 20 Paris-en pasa ote zituen? Badirudi Francisque Michel okerrean dagoela.

(15) Francisque Michel: Le Pays Basque, 340/341 pp.

2. Landerretxe Artziprestea («Garaztarra»): «Nahi nuen kantatu».

Nahi nuen kantatu,
Alegera partitu;
Bainan zer bihotz mina
Ene baitan da piztu?
Ene bihotza nola,
Nola daite konsola?

3. Martin Egiategi Alduidarra: «Gazte nintzen oraiño» edo «Eskualdun baten bihotzminak Montevideorat joanez».

Gazte nintzen oraiño,
Aski errana da,
Adin hartan gutiño
Gauza pisatzen da:
Aditu nuieneko
Montebiden fama,
Herriaren uzteko
Lotzen zaut su-lama.

4. «Pulunpa»:

Mila zortzi ehun eta berrogei eta bigarrena,
Uztail hilabetearen hamaseigarren eguna,
Kantu xarmagarri hauk eman izan nituena,
Suiet bat errekontratuik zitaken ederrena.

5. Petiri Topet-Etxahun: «Montebidorat juailiak».

Bi berseten huntzeko denbora düt hartzen,
Uskal Herri güzian nahiz khanta ditzen.
Montebidorat dira hanitx abiatzen,
Bere khartiel (16) huna beitie kitatzen (17),
Eta gaistuaguan fortüna txerkhatzen (18).

Hauxe izan zen, hitz laburretan, 1853-ko Irailaren 6-an ospatu zèn olerki sariketa famatua Urruñan. Hainbesterekin, bada, amaitutzat ematen dugu gure lantxoa.

Donostian, Jorrail-Apirilean, 1982

---

(16) Beren eskualde, herrialde.
(17) Baitute abandonatzen.
(18) Bilatzen.

OLERKIAK

EUSKALERRI ZARRARI

La, la, la...
Kantari natorkio
Euskalerriari;
gure mendietako
aize garbiari.
Katerik nai eztun
gure lurrari,
ta Jaunak eman zigun
askatasunari.

La, la, la...

Amesetan ari naiz
nere biotzean:
nausi izango gerala
noizbait gure etxean.
Bere jabe da
txoria aidean.
Ala zan gure erria
antziña zarrean.

Etxaniz'tar Nemesio

OHARRA:

Eurovision-eko jaialdira Arcusa eta De la Cava-ren *La, la, la...* aurkeztu behar zuen Espainiak eta Joan Manuel Serrat hautatu zen hortarako lehendabizi, baina honek katalanez kantatzea nahi zuelako baztertua izan zen eta bere ordez Massiel bidali. Gertakizun honek, bere garaian, hots handia atera bazuen ere, ez zuen gutiago izan Massiel-ek 1968ko urte hartan *La, la la...*-rekin Eurovision-eko lehen sari nagusia irabazteak. Bazter guzietan ez zen beste doinu hotsik entzuten *La, la, la...* baizik. Eta, gure D. Nemesio Etxaniz holako musika berriari beti adi eta letra hori jarri zion gazterian goraka zetorren abertzaletasunari kemen gehiago eman nahirik.

J. S. M.

IZANAREN OIHALETAN

LUIS MARI MUJIKA

NIRE HITZA

Nire hitza berea da,
nire hitza hazia bezela
udagoenaren sabelean,
katilu hotzaren ur asperrak
ez du niregan ikaspen,
nire hitzak gauaren itzalpea
harridurazko argiz,
astiro ta larriro
hitzok dabiltz
ederra kreatzen...

Nire hitzean,
nire irudimen ta pentsamenean
gauzak «dirade»,
gauzek «diraute»,
gauzek «izena dute»,
inguruak nire berban aurkitzen
goiduraren elkarte,
lexikoak eta legeak alferrik dabiltz
hesiak jartzen,
nik gauza itzalen mamiduran ere
ederdura topatzen,

ezaren geografiak
ez nau beldurtzen,
fruta helduaren amorrazioak
irudimena dit zigortzen,
hitzaren aizkorak
bertsoaren soina moldatzen,
verbum edo hitz honetan
gauzagoa, izanagoa
naiz etengabe sentitzen...

Nire hitza beti da goren...

JAIO NAIZ ZURE HEGALETAN

Jaio naiz zure hegaletan,
jaio ni ur urdin-beltzetan
nola harri gordina
putzu alferretan...

Harritzen naiz zure zurean
—zure beraldikotasunean—,
arratsak zigortu nau
suaren erauntsiz,
bakardadeak bete
guztiaren geografiz,
hasi nahi dut oso *izaten*,
hasi *izana* areagotzen,
bide fingabeetan abiatzen,
gauzak kontzientziaz —ezagumenez—
indartzen,
egiztatzen,
izanagotzen...

Hasi nahi dut oro *izaten*...

HIRU AMETS

Hiru amets lan da lan,
hiru amets
dolumina emanez...,
amore hau nola dan
—amorea gaitza al dan—
galde didazu maldan,
hiru amets
dolumina emanez...
Amorea dut nagi,

Amorea dut nagi,
amorea nik argi
nola soroan gari
(aih, aih, hainbeste ez hadi!),
hiru amets
dolumina emanez...

Amorezko mandatu
goizez eman didazu,
amorearen paguz
ezezkoa luzatu...,
hiru amets
dolumina emanez...

Hiru amets barrendik,
hiru amets...,
amodio hain etsi
etzaida gaur komeni
hainbesteko gaitzeriz
samintsua delarik,
hiru amets
dolumina emanez...

NORK ETSI

Lizar eder, lizar maite,
arrats-beherak dizu kalte,
udazken gorriz
adarrak zoriz,
arima ahultzen atsekabez
erorbehar mintsu batez
samina jalgiz
aih, noalarik...

Lehen gaztea zinen, berde,
orain berriz zahar ta zimel
—bihotz, zer habil
beheruntz hain amil—,
barneak dolu-sentimen
ta oroien erorkunde,
esan, jardetsi,
pena hau nork etsi...?

HITZEK NAUTE POPULATZEN

Hitzek naute populatzen,
hitzek barrenbiltzen gozo,
gauzen ertzak gorakatzen
asmo galanten erasoz
—haitzak, soroak, mailoak,
gari horiak eta arto—,
ikusia amorez nabil
birkreatzen egunero,
gauza isilen harridura
bihotzaldean kantu harro,
sabelpeko erasoa
uztaldian hitz gorengo,
nire inguruko giroa
ederraren ozeano...,
hitzek naute populatzen,
hitzek barrenbiltzen gozo!

SAGAR GEZA JATEN...

Txoria adar xumean
sagar geza jaten,
txoria zuhaitzean
morroin sagarraren,
xurga ta xurga nabil
muina *izatearen*,
«hau, hori ta bestea
gizonen etsipen»,
ah, jotzen ta kolpatzen,
hausten ta zigortzen,
igotzen eta jeisten
nabil etengabe,
«bizi behar nahitaez,
gauzak utzi ihesten...»,
txoria nagitu da
hainbat limoi jaten,
sagarraren mamiak
bigundura gailen,
«jaio ta bizi behar,
ikasi etsitzen...»,
ezinbesteak ez du
irteera besteren,
«zaidan hau *beste* izaten
ze zaila gertatzen»,
txoria adar xumean
sagar geza jaten...

LUR-AMAK HATSA LODIA

Lur-amak hatsa lodia,
lurrak hazia goren,
arto ta gari helduek
margo makurren plazer
(gozamen larriagorik,
esan, dasta al daiteke?),
uztaren sukar altua
odol gaiztoen kolpez,

bai, aleak hausten dabiltz,
ale gizenak lehertzen,
esperma tiranikoak
erauntsitan han-hemen,
goldearen zakil latzak
oparia ondoren,
izadiak erasoka
erditzearen ozen,
lurraren sabel biguna
goldearen oinazez,
—zer erditu da, zer eten?—
oro oihu ta goresmen,
lur-amak hatsa lodia,
lurrak hazia goren.
ta lurrarekin batean
ene kantua gailen...!

TXALAPARTAK GAN-DAN-BAN

Txalapartak gan-dan-ban,
txalapartak dan-ban-gan,
txalapartak ban-gan-dan...

Herio ta amorea
elkar borroka zaizkit,
arratsak jalgi itagiak
oraindikan zintzilik,
herioa zoro dator
maite-hariak hautsiz,
kosmoak basapizti ta
zezen beltzen erauntsi,
ekaitzen, ozeanoen
otzikarak ilundi,
azkazalen ahaleginak
setatiegi dabiltz,
altxairuen *altxagurak*
bizkorragotzen antsiz,

ozpin suminduak ere.
deadarka barrendik,
kolpeak, zartakoak ez
leunberatzen oraindik,
herioa ta amorea
elkar borroka zaizkit,
dena errape gizen ta
mahats bilduen lubizi,
izan, izan, izan nahi dut,
bainan ez *jasan* soilik,
borroka, agonia, lehia
ene hitzen geografi,
jo, hautsi, apurtu behar,
aih, jarraitzeko bizi...!

Txalapartak dan-ban-gan

PIKOKETA-KO PAGADIAN

Kolorearen hats sumin,
gorri basatiaren grin
—oro hori, beilegi, karmin—,
pagadiak
giza antsia
odol bizkor baten astin!

EGUZKIAREN SEMEA NINTZEN

Eguzkiaren semea nintzen,
eguzki olatuetan biltzen nintzen,
mendiak, asmoak, ibarrak, gogoak
ikara goritan nereganatzen,
eguzkiak mahatsaren ardo irakinaz
gauzak oro egosten...

Garitegiaren kalenturan
kolore gizenak altxatzen ziren,
eguzkiaren sukarrak artaburuen grinan
ezpain basatiak jartzen zituen,
eguzkiaren behatzak
gereziondoen odol-tantak
areagotzen zituen,
eguzkiaren gorrotoak
lurraren egarria
su eta zigor bihurtzen zuen,
eguzkiaren beso fingabeek
itzalaren izena alferrikakoa egiten zuten,
eguzkiaren argitan gauza oro
labe eta arrago gertatzen zen,
ene izadia, ene natura
larriagoa, handiagoa, *izanagoa* bihurtzen zen,
eguzkiaren erauntsi goritan
gauzen *noiz-a*, *nora* eta *nongo-a*
argiagoa bilakatzen zen
eta poeta honen gogoa eta unea
zutiagoa, altuagoa itzultzen...

Bai, eguzkiaren semea nintzen...

HARKAITZAK HANDIAGO

Harkaitzak handiago,
aparrak beraldikoago,
ur berdeen eragina
barnera bizkor,
zeruen beruna
itsasoan zigor,
mila artasoro
gauzen soroan mozkor...

Lerroen ihesiak, soroen joanak
oihua sakonago,
mahats ernegatuen mozioak
bultzada gorago,
hondartzaren egarrian
txirla zuriago...

Haitz borobilak zartatzen zeuden
nola suharria desertuan,
ekitearen —izatearen— tormentuak
niregan mailuaren setamen...

0

GIZON KOSMIKOA

Han zebiltzen ekiten
basurdeen haginak,
han zebiltzen jarduten
asmo zitalen doinu makurrak,
han zorigaitza ta erorbeharra
setaz sumintzen.

Hitz bizkor-geometrikoak
asmoaren gelatan borrokan,
arrubioek seme ernegatuak
erditzen zituzten,
galburuaren mozkor lodiak
burua apaltzen zuen,
ezinaren aurka ekiten zuten,
labe, sabel ta zakilen lehiak
adatsak —dena makal, dena baldan—
arratsari eskaintzen ziren,
mundu bolkantsu, arrazoingabeak
gizonen adimenetik ihes egiten zuen,
ni *hilargiki, eguzkiki*
gauzetan isladatzen nintzen,

begien sua izarren dardaizoz
nahasten zitzaidan,
ozpin irainduen hitza
astinagoa gertatzen zen
eta itsasoak kristalen irakinean
gizon kosmikoa
legarik gabea,
legerik gabea,
mugarik gabea
experimentatzen zuen...

NIRE ESKUA DOA HUTSUNEAN

Nire eskua doa hutsunean
—hutsune betean—,
nire eskua doa
isildura izkutuan...

Izakien zokoa barrenbetetzen ari naiz,
gauzen eza ta gabezia
barrenbiltzen ari naiz,
nire eskuz aztatzen eta populatzen
itzalen desargia,
nire eskuz (*tasunaren* ozeanoz)
ezdadea baiezkoa egiten,
gizonaren asmoa
emankorragoa bihurtzen...

Su bejetal-izugarrien itsasoak
giza bakea zigortzen,
laben bultzada agonikoa
haragien metalean hausten,

basakatuen zain zapalduak
une oro ematzen,
hilargiaren hitz ludikoak
lubizitan higitzen
eta gesalaren asmo gazia
urpean gozatzen...

Bai, eskuok lan da lan ari dira
hitza izateari ematen,
tasuna ezari eskaintzen,
ur gaziari
katilu nagusia opaltzen...

HARITZEZKO HILKUTXA

Udazkenaren ondasun
horia adarretan beheruntz,
barren-arratsa
—asper-narratsa—
zeru gordinetik haruntz
(bihotz, oraindik egik bultz!)
sentimen zaharra
penaz baidatza...

Zainak, enborrak ta gerri
haritzak herio-opari,
goi-adarretan
hil-oholak zehatz,
nere hilkutxa haritz hontatik
ene gorputzaren neurriz
sor ditekean
nabil galdean...

Bai, gau batean nahigabez
lurra emango didate...,
ta adar bereak
(berdez hezeak)
ene gorputzaren jabe
bilakatuko beharrez
baratz hotzean,
gau fingabean...

Soin honek nagi eta hotz
bere besotan amoros
duke atseden,
begion eder
haritz onak (maite arrotz)
bilduko du asmo gozoz
zentzunon neke
eginaz bere...

Begi bion eder-loa,
ene koplen goi-bertsoa
bere oholetan
—ilun-beltzetan—
geldituko da osoa,
horregatik, bada, noa
bidean beherantz
hartzen bere antz...

«Laster datorke aizkora
txikitzera zure enborra,
adarren pena
—altu-gorena—
ene bertsoen axolaz
berkutsatzera gerora
pozezko kezka
ta itxaropenaz...»

ERTZAK, HITZAK IDEIAK

Ertzak, hitzak, ideiak
ezarmen sendoez,
paisajeak dasaida
«naizela» zihurrez
(gaur bidean dabiltzenak
ohardun balitez!),
ederrak lizarrean,
otaloran amets,
koloreen hats bizkorrak
hesietan trakets,
oraingo ederdura
lehen ilun baino ez,
intuizioz bakarrik
dezaket nik mirets,
ederraren mozkorra
zentzunotan minez,
ederdura maitatzen
ikas behar zinez,
gauzak, ertzak, haitzak
maita eta gores,
poeta naizelakoz
zuria zaida beltz,
dena harridura gozo,
kantu eta promes...

ZATOZ

OTSALAR

N. Alzola «Markue»ri, olerkaritzako bide berrietara ongi-etorria emanaz.
EGAN aldizkarian «Kantuz eta itxaropenez» sailari hasiera eman zionean. 1966. urtean.

Otsalar-ek

Denok gara nekatuak,
denok,
kanta urratu horrekin.
Baina zure ta nere
gure
zorionak ez du mugarik
libertate haizeeri aterik
irikitzen ez zaion artean.

Oinaze minaren kantak
beti
persegituko gaitu zu ta ni ta
guziok
oro, tristeziak hatzemanik.
Munduko izakera, beltza eta
tristea denez.

Zer dela uste bizitza bat?
Seigarren sentituaren mututasunean
ez zait ezer nabari.
Nere zentzugabetasuna

oso handia da,
edozein aberek,
edozein landarek
konprenitzen duen
arrazoi xinplearekin jabetzeko.
Deusik ere ez dakit bizi
beharrez. Eta ogia eta
libertatea beharrezkoak
ditut iraun ahal izateko.
Edozein aberek,
edozein landarek
bezala nik ere,
guk ere, bizitza
bizi ahal izateko.

Eskuz-esku,
besoz-beso
urratuko ditugu
bide berriak
oihaneko
gogo zaharretik
hornituaz.

Gogoaren muina
izanaren iturburutik
jasoaz, mundu zabalari
aurrez-aurre:
«soiña zaar,
berri gogoa;
... muin betirakoa».

Minezko kanta zaharra
amaituko da zure ta nere
ezpainetan,
eta ez ordea gure herkideenetan.
Iraungo du muinez kideko
direnen artean. Iraungo du...
amodiozko kanta erroz
sustraitu artean alor helkorrean.
Larraka, luberri hezez
bihurtzean jarririk esperantza.

Iluntzi gorrizko
udagoieneko
arrats
hura
Itxaropenezko bide berrira:
zorionekoa izan bedi.
«Arrats gorri, eguraldi»,
landare
berrien
ongarri.
Minezko kanta
amoriozko baita.
Bide landuak utziaz
ekin kemenez berriari.
Zatoz, adiskide;
zatoz, anaia
alor helkorren bidetik
eskuz-esku,
besoz-beso,
maitasunean
besarkaturik
inoiz ilunduko
ez den egun
sentiruntza.

1967ko otsaila.

CANTIGA DE MEENDIÑO

(XIII. mendeko galego olerkia Otsalarrek euskaratua)

San Simonen ermitan nengoenean ni
eta uhinak inguratu, zein diren handi.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

Ermitan nengoela aldare aurrean,
itsas uhin handiak ingura nindutenean.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

Eta uhinak inguru, zein diren handi:
ez dut (hemen) txalupari ez arraunlari.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

Eta itsas zabaleko uhinak inguratzean:
ez dut (hemen) txalupari, ez dakit arraunean.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

Ez dut hemen txalupari ez arraunlari:
itsas handian, ederra, hilko naiz ni.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

Ez dut (hemen) txalupari, ez dakit arraunlari:
itsas zabalean, ederra, hilko naiz ni.
Nire lagunaren itxaroan ni!
Nire lagunaren itxaroan ni!

NEBULAE

Remi LARRAÑAGA

Gurutzez josítako
ate zaharraren oroimena.
Amaika sorgin ibilitako ataria.
Beren orma zaharrak, belarrez eta
mahatsez jantzitakoak.
Itza ixiltasuna, ezin uka maitasuna.
Pago bat dauka begira aurrean erne.
Zur-aitz zaharra bizi zendun zuk
ekaitza.
Apaingarriak aizeak, eraman ondoren
berriro ere eguzkiaren irteera,
eta berarekin batera txorien abestia.

Lasai eta Paketsu izan dadin bizia
baratza onetako landareak, indartsu
hazi dira
Nere biotz gorrian
dagoen odolak
izan dezala, lurrarentzat bizia.
Egoerako bidean agertu gera
luzea eta arina
gorputz gabea.
Aurrera begiratuz

oztopoz jendea
burua saldu dute zerrautsez betea.
Udazkena joan zaigu
negua ihesik doa
zuaitzak apainduta
agertuko dira.

IZARRAITZ

Sorgin! Zaldiz biurtu nairik
hor zabiltz mendian,
haitz baten gainean
gau erdiko ilargitan.
Doinu berezia aizeak emana
ilargia bizia
dagoela esatea.
Zuk eman diozu bizia
lurrari eskainita
mendiko edertasunaren
jabe egin zera.
Entzun izar
haitz bakoitzean
eseri luzaroan.
Haitz-Ko
Haitz-Pe izarra dute! erne!

Ez nuen uste
gaur egun horrelakorik
egongo zenik,
bainan agertu da bat
gizarte berri ontan.
Bai, zuri ari naiz; bai, zuri.
Egoera larriak zure bizian,
Zure bihotz gorria laztandu nuen,

Orduan zure begietan
irripar bat azaldu zen.
Olatu handi urdin batek esnatu ondoren
ikusi nuen ametsa. Gaua luzea izan zela
ilargia nintzala,
bainan izarrik ez zegoen inguruan, eta
orregatik itsasora erori nintzen.
Itsasoko urak bihotza garbituz
maitasuna indartu.
Euskalerriko mendietatik
eguzkiaren argi gorria, orduekin batera
su gorria.
Berriro ere ilargia, bainan gaur gauean
izarrak ikusten dira. Eskerrak itsasoari
eskerrak eguzkiari, bihotzez Euskalerriari.

Oi! MARI, Aitorren artaldetikan
irtendako sorgina.
Anbotoko euria, Ernioko izotza eta
Gorbeako ekaitzaren jabea.
Hor zabiltza zuriz jantzirik,
Baso-Jaunaren heriotzaren bila.
Ura, aizea, eguzkia, ekaitza, itsasoa eta
mendiak zure menpean dabiltza.
Zure bihotzaren berotasunak
epeltzen du euskaldun giroa.

KONTU KONTARI

TXAN FANTASMAREN ETENGABEKO ISTORIOA

ASUN LANDA

(1982. urtean Zarauzko Udalak eratu zuen «Xabier Lizardi Saria»n, haurrentzako ipuinaren lehen saria irabazi zuen.)

Ni Txan fantasma naiz. Farol honen gainean ikusten banauzue ez zaitezte harritu, ez zaitezte beldurtu! Fantasma bakarti eta triste bat bihurtu naiz, badakit, bainan nire istorioa entzuten baduzue, agian ulertuko duzue nire egoera tamalgarri hau... Badakit, baitaere, egunak iragaten direla eta ez naizela etxe handi, ilun honen ondoko faroletik mogitzen, bainan ez da kasketosoa naizelako ezta haserre edo zigortua nagoelako ere. Ez! Karmentxu itxoiten ari naiz. Ia etxe horretatik inoiz ateratzen uzten duten zai nago, horren esperantzan nago farola honen gainean, untzi batetako zelatari bat bezala, dena ondo begiztatzeko, ondo ikusteko... Bainan inork ez dit kasorik egiten, inor ez da nitaz jabetzen, inork ez nau ikusten Karmentxu etxe horretan sartu zutenez geroztik.

Karmentxuk bai ikusi ninduela bere gelan bizitzen hasi nintzenean! Hark bai, bainan Karmentxu neskatila berezia zen, aparta, lilugarria... «ARRAROEN ETXE» izeneko leku zatar, handi horretan sartu zuten aspalditik eta geroztik ez dut inorekin jolastu ahal izan. Jolastu, bai! Zeren niri harekin jolastea gustatzen zitzaidan. Horregatik utzi nuen fantasma talde hura; haiei ez baizitzaien izutu, ikaratu eta beldurraraztea besterik gustatzen. Nire lagun fantasma haiekin nazkatu nintzenean, haur

baten edo baten etxean bizitzea erabaki nuen. Gainera, beste fantasma petral haiek isekaka aritzen ziren txikia eta potoloa nintzelako. Zer demontre! Jendea ikaratzea aspergarria egiten zitzaidan, gainera ez nuen horretarako balio, ikusten ninduenean, beldurtu beharrean, jendea parrezka hasten zen eta... Horregatik, jostatzea gustatzen zitzaidalako, nire fantasma taldea utzi eta bakar bakarrik airean abiatu nintzen, haur bat edo baten bila.

Karmentxuren gelan sartu baino lehen, handik eta hemendik ibili nintzen nire txokoa aurkitu ezinik. Batzuetan algaraz uxatzen ninduten, besteetan ez ninduten ezta ikusi ere; egitan ez zen erreza izan, ez, haur jator eta atsegin bat ezagutzea!

Karmentxurekin, berriz, ez zen prolemarik izan. Bere gelako leiho zirrikitutik sartu eta zapatila batetan loak hartu ninduen, hegaka nekatuta bainengoen...

— Ai! Minez eta sustoz esnatu nintzen Karmentxuren oinak zapaldu ninduenean.

Nire garrasia entzutean, zapatilari begira gelditu zen bera adi adi...

—Ja, ja, ja! Zer egiten ari zara nire zapatilan, fantasmatxoa? —esan zidan berak arpegi alai batez—. Non eta nire zapatilan sartu! Ez al duzu beste leku egokiagorik aurkitu ala?

Txikia eta potoloa izatez aparte, fantasma lotsati samarra naizelako, salto batez, zapatilatik aldegin eta itsas karakola handi baten barruan izkutatu nintzen...

—Hor ez! Hor ez! —zioen berak—. Irten zaitez hortik fantasmatxo! Itsasoko burrunbak mareatuko zaitu eta!

Arrazoi zuen. Ordurako karakola handi hartan zegoen itsasoko oihartzun etengabeak guztiz aztoratu ninduen. Gainera leku berri hura, bihurria zenez gero, tirabuzoi baten itxura hartua nuen eta benetan ez dela oso ederki egoten, e?

Karmentxuk, bere ingurua begiztatuz, apal batetan zegoen bonboi kaxa bat erakutsi zidan:

— Hor ez zara gaizki egongo! Bonboi usaina du oraindik kaxa horrek. Niri bonboiak asko gustatzen zaizkit eta zuri?

Fantasmok ez dugu inoiz hitzegiten eta ezer esan gabe, bainan nahiko lan berak proposatutakoa onartuz... Fssssst! kaxa ko-

loredun haren tapa azpian irristatu nintzen. Arrazoin zuen Karmentxuk. Leku egokia zen oso. Bonboiak egin ziren tokian koltxoi txuri, bigun antzeko zerbait aurkitu nuen eta usain gozo eta eztitsu batek inguratu ninduen.

— Lagunak izango gara hemendik aurrera, ezta? —jarraitu zuen berak—. Hemen ikusten dituzun gauza guztien partaide izatea proposatzen dizut, nirekin gelditzen bazara...

Nire adostasuna adierazteko, itzulipurdika hasi nintzen airean eta neskatila hark berehala ulertu zuen:

—Ederki! Uste dut oso lagunak izango garela! Nik Karmentxu izena dut. Eta zuk...?

Izena? Fantasmok ez dugu izenik! Nire harridura somatu behar izan zuen Karmentxuk zeren ohe gainean etzan eta marmarka hasi zen:

—Ummm... Kiski izena? Ez! Pailaso batena dirudi... Txuri? Txakur bati gehiago dagokio fantasma bati baino... Txanpa? Trunba? Kruski? Ximi? —eta horrela zenbait izen aipatu zituen.

—Buruaren partez, txano bat duzula dirudi! —esan zidan bapatean—. Txano!... Txano! —oihukatu zen poz pozik—. Txano! Gustatzen al zaizu izen hau? Niri? Horixe ezetz! Eta haserre bizian salto egin, sabaiko lanparatik zinzilik geratu nintzen...

—Beno, beno, ez zaitez horrela jarri! TXAN deituko dizut eta kitto!

—Karmentxu! —Norbaitek deitu zion eta ohetik salto bat eginez, atea zabaldu eta bakarrik utzi ninduen.

.....

Handik aurrera, egun zoriontsuak ezagutu nituen. Karmentxuren gela, argitsua eta alaia zen, txoko askotakoa, panpin eta jostailuz betea, niri gustatzen zaizkidan bezelakoa.

Lehenengo egunetan, nahiko lana izan nuen nire etxebizitza berria ezagutzen. Den dena begiratu nuen: urrutixeagotik, gertuxeagotik, aurretik, albotik, gainetik, azpitik... Ikaragarri gozatu nuen gauza guzti haiek ikuitzen, aditzen, jirabiratzen, usaintzen, laztantzen, miatzen, arakatzen, zeren txikia, potoloa eta

lotsati izatetik gain oso kuriosoa naiz. Gelako zenbait jostailu berehala hasi zen nirekin hizketan:

—Neska jatorra da Mentxu! —esan zidan marioneta batek—. Ondo tratatzen gaitu... Ikusiko duzu zein ondo aurkituko zaren gela honetan!

—Nahiko narratsa da! —marmartu zuen panpin zahar batek, bere soineko urratua laztantzen zuen bitartean.

—Hi ez hau Mentxuk inoiz maite izan! —erantzun zion mahain gainean zegoen bukatu gabeko puzzle batek—. Hi, izeba Edurnek ekarri hindunan eta badakin ze mania dion Mentxuk atso zahar horri!

—Izeba Edurnek uste baitu opariz beteko duela Mentxuk duen hutsunea, kariñoren zuloa! —gehitu zuen serioski ormako erlojutik noizbehinka irten ohi zen kukuak.

—Eta nik zer kulpa dut? —kexatzen zen panpina bitartean.

—Mentxu umezurtza da eta izebak ez daki nola maite neskatxa hau —jarraitu zidan informatzen kukuak—. Nahiko bakarti aurkitzen da hemen neska gajoa!

—Izeba horrek beti sartzen nau armario ilunean! —erantsi zuen lurrean zegoen baloi txuri urdin batek—. Ezin dut inolaz ere Karmentxu nirekin jolasten ikusi! Kristalak puskatuko direla eta ez direla, ez dio inoiz nirekin jolasten uzten!

—Ba, gogoratzen al zarete ormatik kendu nindutenekoa? —galdetu zuen poster batek—. Zer negarrak egin zituen Mentxuk! Orduan ere izebak ormetan ezin zela edozein gauza ipini eta... Ni al naiz edozein gauza ala zer uste du horrek!

—Kariño falta... kariñoa falta da etxe honetan! —jarraitzen zuen esanaz kukuak.

Horrelako berriketa ugari izan ohi zen gela hartan, bainan Karmentxu iristeko desiatzen egoten nintzen eta harekin bai pasatzen nituen benetako mementu onak: kartetan jolastu, dantzan, gorde-gordeketan, txingoka, aide-aideketan, txorro morro piko tailo ketara, partxisean eta ikastolatik ekarritako etxeko lanak egiten ere aritu ohi ginen:

—Lau bider sei? —eta nik 24 saltotxo egiten nituen ohe gainean.

—Zortzi bider zortzi? —eta orduan haserre bizian lanparatik zinzilikatzen nintzen zeren 64 saltotxo egitea faena handia iruditzen zitzaidan. Fantasmak ere nekatzen gara, ze arraio! Eta Karmentxuk parre egiten zuen eta biderketa errezagoak ipintzen zizkidan:

—Bi bider bat? Bat bider hiru?

Egun batean, Karmentxu sorpresa batekin gelan agertu zitzaidan:

—Txan, begira zer ekarri dudan! —eta globo gorri handi bat airean askatu zuen. Ai ama! Sustoz eroriko nintzela uste nuen! Zer ote zen hura? Zer fantasma moeta izan zitekeen? Baina Karmentxu, nire ikara somaturik, parrez hasi zen:

—Globo bat da, tontolio! Globo arrunt bat! Ikusiko duzu zeinen ondo jolasten den honekin! —eta hau esanaz, globoa gora eta behera, eta niregana eta airean kolpeka eta bultzaka hasi zen, saltotxoak emanez gelan zehar. Sustoa pasa ondoren, ni neu ere hasi nintzen globoarekin jolasten eta hain ederki eta hain gora non Karmentxuk ohe gainera igo behar izan zuen:

—Tira! Bale! Iufi! Orain zuri... Ederki! Ja, ja, ja! Buelta! Tori berriro!

—Karmentxu!

Bapatean atea zabaldu eta izeba Edurne agertu zen:

—Zer habil? Bainan zer habil ohe gainean! Zer dela eta algara hauek! Erotu al haiz? Hik zer uste dun etxe hau zirko bat dela?

—Txanekin jolasten ari nintzen...

—Txan... —Emakume hura harriduraz beterik, ahozabalik gelditu zen. Arpegi zorrotz eta haserrea zuen une hartan—. Zer dion? Non demontre dun Txan delako hori? Non zegon?

Ni beldurrez, ahal nuen azkarren buruki azpian izkutatu nintzen. Karmentxuk ez zuen erantzuten. Globoa eskuetan zuela, bueltak ematen zizkion urduri...

—Txan, zera da... fantasma txiki bat... —erantzun zuen emeki emeki azkenean.

—Zeeeer? Fan-tas-maaaa? Beno, hau gehiegi dun! Gaur bertan Don Peliperi deitu behar diot! Fantasma bat dagoela! Hori bakarrik falta zitzaidan aditzea! —eta Karmentxuren eskuetatik globoa kenduz, ateari danbateko bat emanez, gelatik irten zen.

Karmentxu oso triste gelditu zen. Ohe gainean etzan eta isil isilik negarrez hasi zen. Ez nik ez beste jostailuk ez genuen kontsola ahal izan.

.....

Etxeko tinbrea aditu zuenean, dardar batek astindu zuen Karmentxuren gorputza. Korapilo bat eginik, inorekin hitzegin gabe, ohe gainean jarraitu zuen...

—Arratsaldeon Karmentxu!

Bere aurrean agertu zena, gizon argala eta bigoteduna zen. Eskuan maleta txiki bat zuen eta irripar batez begiratzen zion Karmentxuri. Bere atzetik, izeba zetorren, arpegi kezkati batez, eskuetan musuzapi zuri bat bihurrituz urduri...

—Ez al zara gaur ikastolara joan? —jarraitu zuen gizon hark—. Ia potola honek eskutxoa ematen didan...

Baina Karmentxuk ez zuen mogimendurik egin. Ni harrituta nengoen. Gizonak eskumuturra hartu zion eta pultsoa hartzen hasi zen:

—Zein da Txan lagun berri hori, Karmentxu? Ez al diozu Don Feliperi istorio hori kontatu behar?

Begiko zuria begiratu, mingaina aterarazi, belaunetan golpetxo batzuk eman eta halaere Karmentxuk mutu eta hila bezala jarraitzen zuen:

—Bihar etorriko naiz berriro! Gaur ez bait duzu nirekin hitzegiteko gogorik... Gaur ez al duzu jolastu behar? Ohe gainean ez duzu egun guzia pasako, ezta?

Ate ondoan zegoela, sendagileak keinu bat egin zion Edurne izebari eta biak irten ziren, Karmentxuk hitzegin gabe jarraitzen zuen bitartean. Atea itxi zen momentuan, Karmentxu ohetik jaiki eta nirengana zuzendu zen:

—Txan, joan zaitez azkar horien atzetik mesedez! Ia zer esaten duten!

Tximista bezain azkar irristatu nintzen ate azpitik.

—Beldurrez nago lehenago bezala hasi ote zaigun, Don Felipe! —zioen izebak itxuraz oso kezkaturik—. Berriro bakarrik hitzegiten du eta ikastolan ez omen du lanik egiten dio bere maisuak... Jan oso gutti, beti begirada galdua bezala, beste mundu batetan biziko balitz bezala, isil isilik etxean eta ikastolan eta gero bakar solasaldietan bere gelan... Ez al da kezkatzekoa hori? Oraingo honetan fantasma bat dagoela dio...

Ni hau adituaz ikaratu egin nintzen eta kortinen atzetik begira adi adi gelditu nintzen.

—Beno, badirudi kasu «reinzidente» baten aurrean aurkitzen garela —erantzun zion sendagileak—. Zenbait kasutan lagun imaginario bat dutela iruditzen zaie eta benetan ikusi eta sentitu egiten dute bere presentzia... Okerrena da guzti hau ez dela lehenbiziko aldiz, lehenago ere horrelakorik gertatu zaiola nahiz eta fantasmarena berria izan... Hori da okerrena!

—Nik ez dakit zer egin! —zotinka izebak—. Nik ahal dudana egiten dut, neskatila maite dut bainan ez dut asmatzen berarekin, ezin diot lagundu, ez dut ulertzen eta...—. Eta hau esatean egia ziola iruditu zitzaidan.

—Zer esango dizut nik! —erantzun zion Don Felipek—. Kasu honek estudio sakon bat eskatzen du... espezialisten eskuetan utzi beharko genukeela derizkiot...

—Berriro «Arraroen Etxe»-ra? Hori esan nahi al duzu? —moztu zion izebak arpegi larriturik...

—Han baino hobeto ez da inon egongo —Don Felipek hotz, hotz—. Espezialista onenak hor daude, ondo tratatzen dituzte kasu hauek eta zenbait kasutan ondorio oso onak lortu izan dira!

—«Arraroen Etxe»ra berriro! Ai, ez esan hori, Don Felipe! —murmurikatu zuen izebak—. Ez du joan nahiko gainera! Eta niri ere pena handia ematen dit! —unkiturik izebak.

—Beno, esan dizudanaz pentsa ezazu! Nik bitartean, zenbait gestio egingo dut eta bihar hitzegingo dugu berriro...

Garbi zegoen sendagileak handik aldegiteko premia handia zuela, zeren hori esan ondoren etxeko atea zabaldu, agur esan, eta desagertu zen. Ni hegaka, Karmentxuren gelara bueltatu nintzen:

—Zer? —galdetu zidan ni ikusi bezain laister—. Aditu al duzu zerbait? «Arraroen Etxea» aipatu al dute?

Baietz keinu egin nion buruaz. Ez genuen gehiago egoterik izan, une hartan izeba agertu zen gelan:

—Karmentxu! —esan zion samurki—. Ez al dun ezer jan behar? Goserik ez al dun?

Bazirudien lehenagoko oihu eta haserreaz damutzen zela. Karmentxurengana zuzendu zen eta esku bat ipini zion kopetan. Nik uste nuen laztandu egin behar zuela, bainan Karmentxuk ez zion aukerarik eman. Berriro ohe gainean etzan, makurtu, begiak itxi eta hila bezala gelditu zen.

Izebaren ahaleginak alferrikakoak izan ziran. Izeba irten arte ez zuen hitzik ere esan. Gero, berriz, nirengana begiratuz, abots berezi batez zera esan zidan:

—Bidai bat egin behar dut. Nahi al duzu nirekin etorri?

.....

Ez zait inoiz ahaztuko Karmentxu eta biok etxetik aldegin genuen gau hura. Oraindik oso ondo gogoratzen naiz zeinen emozio handiz zabaldu genuen etxeko atea, isil isilik izeba ezertaz kontura ez zedin... Karmentxuk poltsa txiki bat zeraman, itsulapikotik hartutako diru mordoska eta linterna bat. Herritik kanpo abiatu ginen lapur batzuk izango bagina bezela. Halaere ez dut uste Karmentxu triste zegoenik. Alderantziz, bide guztian ihardun zitzaidan ikastolako kantu guztiak abesten, bromak egiten, txisteak kontatzen... Bidean ez ginen inorekin topatu. Orain ezin dut esan zenbat denboran ibili ginen. Linternak gure aurretik argitzen zuen bideari jarraitzen genion, atzera begiratu gabe, bestetan pentsatu gabe, arratsalde hartan bertan gertatutakoa aipatu gabe.

Herriska batetan sartu ginenean, sorpresa handi batekin topatu ginen:

—Txan, festetan daude herri honetan! Ze ondo! Hementxe geldituko al gara? —proposatu zidan berak. Eta horrela egin genuen. Kalean sekulako giro alaia zegoen, nonnahi txarangak eta kalejirak eta egia esanda, nahiko lana izan nuen jendetza

haren artean Karmentxuri jarraitzen. Edozeinekin hasten zen hizketan, gero hura uzten zuen kalejira batetan saltoka egiteko, gero niregana bueltatzen zen berriro, bainan denbora gutxirako orduan ere:

—Begira, begira... zer erroskila sorta ederrak!

Gosea zuen nonbait Karmentxuk eta barraka hartara hurbildu ginen. Han, panpin handi batzuk zeuden ilaran jarriak eta pelotaz panpin haiek lurreratu behar ziren erroskila sorta irabazteko. Guretzat ez zen zaila izan: Karmentxuk pelota pare bat eskatu zituen eta botatzerakoan, nik beste aldetik panpin haiek bultzatzen nituen, horrela beti irabazle ateratzen zen eta erroskilak lortzen zituen. Erroskilaz hasetu zen Karmentxu gau hartan.

Gero, beste barraka batetan sarturik, parrez lehertu ginen han zeuden ispiluetan gure irudi deformatuak ikusiz... Batean luze eta zorrotzak agertzen ginen, bestean txingurriak bezain txikiak, bestean potolo eta borobilak... Karmentxuri, malkoak ateratzen zitzaizkion nire irudiak ikusiz eta niri ere, ez bait nuen inoiz horrelakorik nire bizitzan ikusi.

Gero tonbola batetan jokatu genuen, bainan han ez genuen suerterik izan. Halaere, Karmentxuk esan zuenez, horrela hobe zen ez bait genuen gure bidaiarako beste zama gehiagorik behar... Arrazoin zuen eta poz pozik, txokeko autotara abiatu ginen.

Han bai pasa nituela une larriak! Lehendabizi, Karmentxuk nola egiten zuen ikusi nuen eta gero ni ahalegindu nintzen... Zenbat golpe eta bultzakada hartu behar izan genuen kotxe zahar hartan sarturik! Jendeak, harriturik begiratzen gintuen ez bait ninduten ikusten eta Karmentxuri ezer egin gabe kotxea mogitzen zitzaiolako... Txokeko autoena ez zitzaidan gustatu. Ez nuen ulertzen jendea elkarri bultzaka eta golpeka, min emanez, nola dibertitu zitekeen.

—Honek bai harrituko zaituela! —abisatu zidan Karmentxuk zaldi multzo bat zegoen toki batera zuzentzen ninduen bitartean. Hainbat zaldi ikusirik, zeharo ikaratu nintzen ni. Eta gainera, zergatik zebiltzan denak bueltaka, etengabe, bata bestearen atzetik? Zaldiak koloredunak ziren eta horrek berak ahozabalik utzi ninduen. Gainera, gora eta behera zebiltzan aurrera zihoazen

bitartean! Ez nuen uste munduan horrelakorik esistitzen zenik! Karmentxu, zaldi talde hura gelditu zenean, batera igo zen eta maitekiro zaldiaren burua laztandu zuen:

—Ai, Txan! Imaginatzen zara zaldi hauek egan egingo balute noraino joango ginatekeen? —oihukatu zidan zaldi haiek lehenago bezala, gora behera eta bueltaka abiatzerakoan. Hegan egitea baino bitxiagoa nerizkion nik zaldi talde otzan hura denbora guztian bueltaka, nekatu gabe, mareatu gabe ibiltzea! Badaezpadaere, ni ez nintzen horietako batera igo. Karmentxuren atzetik jarri nintzen eta hara non sentitu nuen sensazio atsegin eta unkigarri bat... Ez nuen ulertzen zergatik Karmentxuk ez zuen zaldi hartan aurrera egiten, zergatik ez genuen zaldian, brinkoka, bidea egiten... Aldiz, zaldiak geratzen zirenean, Karmentxuk, handik jaitsi gabe, txanpon bat ematen zion han zebilen andre bati eta berriro hasten ginen bueltaka...

Nik ez dakit zenbat buelta egin genituen gau hartan! Ehun baino gehiago izan zirela zihur nago, zeren ehun arte kontatzen badakit eta hortik paseak asko eta asko izan ziren... Bitartean, jendea kaleetatik desagertzen joan zen. Poliki poliki, barraka guztiak ixten zihoazen, urrutian argi zurigorri, epel bat, azalduz joan zen. Zaldi gurpil haretan, gu bakarrik bueltaka eta Karmentxu jaitsi ezinik:

—Ia halako batetan hegan hasten den eta urrutira eramaten gaituen! aitortu zidan, logureaz begiak ixten zitzaizkiolarik. Ni ere loak hartzen ninduela sentitzen hasia nintzen eta lehendabizi kuluskaka eta gero lo sakon batetan errealitatearen konszienzia galtzen joan nintzen.

.....

—Zaldira igo zen eta ez genuen jaitsiarazterik izan!

Bapatean, abots arrotz hark esnatu ninduen. Goiza zen. Zaldiak, geldirik, paralizaturik bezala zeuden gure inguruan. Nire ondoan Karmentxu lo zegoen, bere arpegia zaldiaren arpegiari itsatsirik, bere besotxoak zaldi geldi haren lepoari gurutzaturik...

—Norbaiti abisatu bear geniola pentsatu dugu, ez baita oso normala ordu hauetan neska bat bakarrik kalean ibiltzea! —jarraitu zuen andre batek esanaz...

Amen batetan, egoerataz jabetu nintzen! Ai, ama! Hortxe, gure inguruan genituen izeba Edurne, don Felipe eta beste bi gizon ezezagun. Eta Karmentxu lo, agian amets polit bat egiten...

—Karmentxu, Karmentxu! —izeba Edurnek, arpegia malkoz urratua, astindu zuen Karmentxu... esnatu zen... Ez zuen ezer esan. Zalditik jaitsi, begiak inora zuzendu gabe, buru makur, amets zoragarri batetik infernuan amildua aurkituko balitz bezala.

—Maitia, hator gurekin... hator! Bainan zer egin dun neska! —izeba Edurnek bere besoetan harturik, eskuaz burua igurtziaz, arpegia laztanduz...

—Eskerrik asko denagatik! —gehitu zuen Don Felipek andre hari zuzenduz eta ondoan zegoen kotxe batetara abiatu ziren.

Kotxean, bi gizon ezezagunak aurrean eseri ziren, atzean, izeba Edurne eta don Felipe. Eta bien artean, Karmentxu txori zauritu baten antzo. Nik ez nuen zalantzarik izan. Kotxe barrura irristatu nintzen eta Karmentxuren patrika batetan sartu nintzen. Disimulo handiz, Karmentxuk burua laztandu zidan:

—Txan, Txan! —murmurikatu zidan ia aditu ezinezko abots apal batez—. Eramaten nauten lekura ezin zara etorri... Hobe duzu hortik kanpo gelditzea. Ez zaitut ahaztuko! Itxoingo al nauzu ni irten arte?

—Karmentxu, zer diozu? —moztu zion don Felipek.

Ez zuen erantzunik izan eta geroztik Karmentxuk ez zuen ahoa berriro zabaldu. Kotxea abiadura handiz zihoan, bidea jakingo balu bezela... Zeruan eguzki eder bat berotzen hasia zegoen eta nik ez nuen gertatukoa sinesten. Ezin nuen sinetsi Karmentxu nirengandik urrundu behar zidatenik.

Kotxea geratu zen. Ni orain nagoen leku honetantxe. Etxe handi honen parean. Hasieran kosta egin zitzaidan hor dagoen letrero hori irakurtzea: ARRAROEN ETXEA. Karmentxu neska arraroa al zen bada? Eta zer? Zer kalte egiten zuen bada? Zer egingo ote zioten hor barruan? Nire bihotza hestutzen eta larritzen zihoan. Kotxetik irten ziren denak. Don Felipek, etxe hartako tinbrea jo zuen eta atea zabaldu zenean, ni Karmentxuren patrikatik irten nintzen...

—Agur Txan! Laister arte! —hau esanez, Karmentxu ordurako igota nengoen farola honetara begiratu zuen eta eskuz agurtu ninduen. Besteak, harriturik begiratu zioten Karmentxuri, gero farolari, eta gero elkarri. Neskatila eskutik heldu eta barrura sartu ziren.

.....

Karmentxu bahitu zutenez geroztik egun asko pasa dira. Ni, utzi ninduen lekuan bere zai nago, txakur zintzo baten gisa. Bainan ez zait axola. Itxoingo dut. Fantasmek astia soberan dugu. Itxoingo dut, bai! Karmentxu azaldu arte eta bitartean, etengabe, bere historioa kontatuko dut, norbait geldi dadin eta ni ikusi eta entzun ondoren, betirako Karmentxu itzul diezadaten.

HONDARTZA ERTZEKO HARKAITZETAN

IÑAKI SARASUA

(1982. urtean Zarauzko Udalak haur ipuientzat eratu zuen «Xabier Lizardi Saria»-n aipamen berezia izan zuen ipuin honek.)

Hondartza ertzeko harkaitz gain hartan hasi zen guztia. Bai. Haitzen aurka lehertzen ziren olatuei begira, pentsati nengoen, bera agertu zenean.

Kainabera eskuetan nuela, nire gurasoek osabarengana zergatik bidali ote ninduten galdezka nenbilen neronen buruari; aitak zergatia ulertarazi zidanean oso ongi iruditu zitzaidan, izan ere, beti hiri-zuloan sarturik egon gabe, komeni zitzaidan itsasertza ezagutzea, bertan denboralditxo bat igaroaz; arrantzan ikasi, etab. Baina orduan amestu nuenak ez zuen gertatzen ari zenarekin antz haundirik. Astebete neraman dagoeneko osabarekin bizitzen, eta ez nuen ia deus berririk ezagutu eta ikasi. Gainera, itsasoa eta arrantza nazka ematen hasi zitzaizkidan, aspertu egiten bait nintzen han, bakarrik, osabak erositako kainabera berriarekin, nondik heldu ere jakin gabe, osaba bere arazo garrantzitsuetan murgildua zegoen bitartean, edota bere lagunekin parrandan. Ederra laguntza: arrantzan erakutsi beharrean, erabiltzen ez nekien kainabera garesti bat erosi eta bakarrik utzi.

Dena den, nere albotik pasa zen agureak aurki antzeman zion zeharo ezjakina nintzela, herriko arrantzale gehienek zutena baino kainabera hobea ikusi arren nere eskuetan.

Harkaitz gainean denbora luzez ia inor ikusi gabe egon izan ez banintz, ez zitzaidakeen hain atsegina egingo aitona bizartsu haren etorrera. Izan ere, ez bait zuen oso itxura txukuna. Hala ere, txapel lizundu haren itzaletan babesten ziren begi zimurtuei, on tankera hartu nien. Hargatik, beldurrik gabe agurtu nuen; berari, ordea, arraroa egin zitzaion nonbait nik oles egitea eta begira gelditu zitzaidan.

Ez dakit zergatik, arrantzan ongi jakingo zuela iruditu zitzaidan eta, nolabait, erakuts ziezadala eskatu nahi nion. Konturatu zen ba agurea nire egoeraz eta, une batez zalantzan egon ondoren, nire alboan eseri zen. Kainabera baliotsua hartu zuten esku zartatu haiek salatu zidaten arrantzalea edo arrantzale izandakoa zela, eta irribarre batek ihes egin zidan. Luzaro tresna garestiari begira egon ondoren, bere erabilpena erakusten hasi zitzaidan. Hasieran, nondik hasi ez zekiela zirudien, baina behin nik ulertzen niola ikusi zuenean, lasaitu zen eta, orden egoki batetan, zatika, kainaberaren berezitasun guztien berri eman zidan. Karretea, haria, kortxoa, berun-pisua, amua, ... Hitzez lehenbizi, eta ereduaz erakutsiaz ondoren.

Ordurarteko arratsalde atseginena han igaro nuen, eta probetxugarriena ere bai, zalantzarik gabe, ilunabar hartan bertan lupi eder bat eraman bait nion izebari, afaritarako. Honek, ordea, jateko balio ez zuen arrai zikin bat zela esanaz, bota egin zuen, niri desilusio haundia sortuaz. Dena den —hori bai— gustora egin nuen lo gau hartan.

Biharamonean, goiza neskamearekin merkatuan igaro ondoren, gogo biziz joan nintzen berriro arratsaldean harkaitz gainera, agureak bera egunero inguru hartan egon ohi zela esan bait zidan. Bi haitzen arteko zulo batetan aurkitu nuen eseria, galtzak belaunetaraino jasoak eta kainabera zahar bat eskuetan. Agurtu bezain laister, agureak atzoko lupiagaitik galdetu zidan. Ixiltzea pentsatua neukan arren, izebarena kontatu behar izan nion, eta, bidebatez, nire istoria guzia: nola nengoen osabarekin, ... etab. Ez zitzaion nonbait asko gustatu osabaren jokaera, baina ixilean gorde zuen. Ezer esan gabe gelditu zen, eta, pixka bat pentsati egon ondoren, kolpetik eta bapatean, arrantzale on bat izatera iritxi arte erakutsiko zidala esan zidan. Salto bat egin nuen nik pozez, eta agurea besarkatzera nindoan, oraindik ezagutzen ez nuelako lotsaz atzeratu izan ez banintz. Dena den, bihotzez eskerrak eman nizkion. Orduan ikusi nuen lehenengo aldiz

irrifarre bat bere aurpegian. Hasi ginen ba, aurreko egunean bezala, kainaberaren erabilkera ikasten, baina, amua aztertzera heldu ginenean, beita falta zitzaidala konturatu zen. Joan zen egunean, ogi mamia erabiltzen nuela ikusi zuenean, berak eman zizkidan dozenerdi bat loior (xixare), ogia beita kaxkarra zela esanaz. Baina une hartan ez zitzaion loior bakar bat besterik gelditzen, eta hargatik, bere etxera joatea proposatu zidan, han bait zeuzkan pila bat, lurretan jasoak.

Lehenbiziko aldiz txabola hura ikusi nuenean, miseri kutsua hartu nion. Berak egina omen zen dena, bai «lau horma haiek» eta bai barruko haltzari eta tresna gehienak ere. Ladrilu arruntez egina zegoen, eta gaina teila zaharrez; gainera, hauek eusteko, haizearekin eror ez zitezen, harri pusketa batzuk zeuden gainean jarrita. Barrua oso xinplea zen; ohe azpian zetzan katu zikin batek bakarrik deitu zidan atentzioa. Denera, zikintasun eta miseria kutsu bat salatzen zuen txabola hark.

Hurrengo goiz guzian ez nuen agurea ikusi. Baina arratsaldez bere «etxera» joan nintzen berriz, han ote zegoen ikusteko. Harriturik gelditu nintzen benetan: Txuriz pintaturik zegoen txabola. Atea eta leiho bakarra, orlegiz. Tximinia, berriz, beltzez margotua. Orduan ulertu nuen zergatik ez zen agurea goizean, ni joan nintzenean, betiko bere txokoan agertu. Barrura sartu nintzenean, leihoaren kristala garbitzen zebilen. Armiarma-sare denak kenduak zituen, eta etxe barruak, kanpoak bezala, beste orden eta beste itxura bat zeukan. Katuak berak ere harritua zirudien. Begi haundi-haundiekin alde guztietara begiratzen zuen. Txabola hura gero eta gehiago gustatzen hasi zitzaidan, balore haundia ematen nion guzti hura norbere eskuz egiteari. (Neronek ere, haunditan, halakoren bat egingo nuela pentsatu nuen).

Dena berak egina: su-toki bitxi hura, mahai sendoa bere aulkiarekin (hurrengo egunerako neretzat beste aulki bat egina zeukala gogoratzen naiz), ohe koxkor hura, bere gaineko apala, ... Aurreko egunean zikintasun eta miserian soilik fijatu nintzela konturatu nintzen. Ez nion etxe harek zeukan lanari behar bezalako balioa eman. Apal hartan finkatu nituen begiak; hutsik zegoen: liburu bakar bat zegoen gainean etzana, eta ikusteko gogoa sartu zitzaidan. Bertso-liburu zahar bat zen, denbora askoan ireki gabe egon zela nabari zitzaiona.

— Atsegin al zaizkizu bertsoak? —ausartu nintzen galdegitera.

— Jakin bazenu zer-nolako afizioa izan nuen gaztetan! Geroztik ere askotan irakurri ohi nituen bertso paperak eta etxeko liburu hau. Baina ikusmena nekatzen hasi zitzaidanean utzi egin behar izan nion irakurtzeari.

— Eta ez al duzu betaurrekorik?

— Inoiz bururatu izan zait erostea, baina ... (geroago jakin nuen oso diru gutxi zuela; eta betaurrekoek asko balio dute).

— Ba ... —esan nion— niri asko gustatzen zaizkit bertsoak. Ikastolan egin ohi izan ditut batzuk ...

— Neronek ere egiten nituen makina bat. Hain abots izorratua izan ez banu ...

Bertsoak hainbeste maite zituelarik, suplizio bat izan behar zela konturatu nintzen liburu hura irakurri ezina, eta neronek irakurtzea bururatu zitzaidan, berak ere entzun zezan. Bilintxen «zaldi zuriarenak» irakurri nizkion, eta ahozkatzen hasi orduko antzeman nion nola emozionatu zen. Bukaeraraino, lanean balebil bezala itxurak egiten zituen arren, adi-adi egon zen. Orduan, abestea oraindik hobe izango zela pentsatu nuen, eta horrela pasa nituen Xenpelarren «gerratearenak», Otañok «Ameriketara dihoan semeari» jarriak, Bilintxek egindako «Juana Bixenta Olaberenak», etab. Konturatu gabe, ia ilunabar osoa igaro genuen horrela. Berandu zela konturatzean, afaltzen han geldi nedila eskatu zidan, baina ezetz esan nion, izeba onezkero urduri egonen zela, itxaroten. Etxeruntz nihoala, pasa zena gogoratuaz, agurtu nindueneán zorionezko malko-arrastoak nabari zitzaizkiola iruditu zitzaidan.

Goiz batzuk herrian igarotzen nituen, eta lagunak ere egin nituen mutilen artean; baina hauekin baino gustorago egoten nintzen Joxerekin (izen hori zuela esan zidan agureak). Eguerdinguru gehienetan arrantzan jarduten ginen, eta dagoeneko asko ikasi nuela esaten zidan. Izeba bera ere harritua gelditu ohi zen, gauero aurreko egunekoa baino arrai haundiagoa ekartzen nionean. Hori bai: hain berandu etortzeagatik errita egiten zidan, eta ez zitzaion atsegin ni Joxerekin egotea; baina behar bada horrexegatik, oraindik gustorago joaten nintzen nire lagunaren-

gana, bai bait nekien horrela behintzat nigatik arduratuko zirela osaba eta izeba. Bestela, ez zidaten kasurik ere egiten. Eta ezagutzen ez duzun toki batetan inor gabe egotea ez da batere atsegina izaten. Eskerrak Joxe nerekin nuela...

Arrantzan genbiltzanean ez zen oso hiztuna, batez ere lehenengo egunetan. Asko kostatzen zitzaidan elkarrizketa bat sortzea. Baina, egunak igarotzean, gehiago eta lasaiago hitzegiten genuen elkarrekin. Oso gustoko nituen bere azalpenak eta solasaldiak.

Behin, ezagutu nituen beste aitonen antzik ez niola hartzen esan nion. Haiek, aulkian ixilean eserita edota beren gaztaroko gertaerak kontatuz igarotzen zuten denbora. Berak ordea, ez zuen horrelakorik egiten. Horrelako istoriorik ba ote zekien galdetu nion.

— Bai motel, bai. Batzuk zer kontaturik ez dute izaten; beste batzuk, berriz, nik bezala, nori kontatu eduki ez...! Bestela, istorio eta gertaerak, makina bat bai. Batez ere gertakizunak, benetan pasatakoak.

— Zuk gerratean parte hartu al zenduen?

— Bai ... hamaika oroitzapen baditut garai hartakoak. Ni, gudari talde berezi batetako buruzagi izendatu ninduten gudua hasi bezain laister. Lehenbizi kostaldean burrukatu genuen, besteekiko atzerapide haundiz jokatzen zuten gure itsas-indarren laguntzan.

Baina, oso denbora gutxira, beste eginkizun bat eman zitzaigun: Iratiko basoetan erresistentzia indar bat mantentzea. «Han azkeneraino iraun», hori zen eman ziguten agindua. Alde hartatik etsaiak sar ez zitezela lortu behar genuen.

Hamabi gizon nituen nere aginduetara. Komando arinak izanik, ezin genuen gauza haundirik eta gehiegirik eraman gurekin, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugaraino kamioi zahar batek eramango gintuen arren, handik aurrerako bidea oinez egin behar bait genuen.

Zortzi motxiletako batetan, dendak atontzeko oihal gogorra generaman. Beste batetan, berriz, tresneria guzia: haizkorak, ze-

rrak, iltzeak eta mailuak... Beste bi zorrotan, lehergai guztiak zihoazen. Bi motxila janariz beteak zeuden, kontserbak batez ere. Baina aste pare bat baizik ez ziguten iraungo bizigarri haiek. Arma kontuan, bakoitzak bere fusila eta mendi-haiztoa generaman, eta hortaz gainera ametralladora bat, izenez «arina» deitua, baina gure medioengatik astunegia egiten zitzaiguna. Munizioak bi motxilatan zihoazen, eta bakoitzaren gerrikoan baita.

Iritxi ginenean, aurrez pentsatua nuen plana martxan jartzen hasi ginen berehala. Sagastizabalek ongi ezagutzen zituen inguru haiek (horregatik izendatu nuen nere laguntzaile) eta bion artean basoaren kanpo aldeko hiru puntu estrategiko nagusiak aukeratu genituen, zaiketako postuak ezartzeko. Gero, erdian kanpamendu basea jarriko genduen.

Lehenbiziko aste osoan zehar, periferiako hiru postuak antolatzen ibili ginen. Bakoitzean, bago lodi baten gainean txabola bat eraiki genuen, zurezkoa noski, adar nagusiak oinarritzat harturik.

Postu bakoitzean hiru gizon geldituko ziren. Heuren lana, etsaiaren etorrera zaintzea zen. Inguruko artzaiekin hartu-emanetan egongo ziren eta hauek abisua pasa bezain laster, hiruretatik bat kanpamendu basera abiatuko zen, gu jakinaren gainean jartzera. Bitartean, beste biak etsaiaren etorrera atzeratzen saiatuko ziren (gu guztiok han bildu arte) bidean lehergaiak ezarriaz eta etsaiari ahal zuten kalterik haundienak sortuaz. Etsaiari, basoetan itxaroten gizon asko aurkituko zituela pentsa-arazi behar zitzaion. Beldurra sartzea zen gure alde genduen armarik egokienetako bat, baso haien ezagupen hobeaz gainera. Baina abantaila hauen aurka, gure gudari kopurua zegoen, beren gudaroste haundien aurrean farregarri ikusten zena. Dena den, bigilantziako posturik abisatu eta talde osoa etsaiaren bide aurrean bildu ezkero, kalte gogorra sor geniezaiekeen. Inguru-marietako postuak baso barruko kanpamendu nagusiarekin komunikatzeko, kea erabiltzen genuen, seinaleak eginaz. Egoera larrietan, ordea, hiru gizonetatik bat etorri ohi zen basera, guri egoera jakinarazteko, eta denon artean zer egin ikusteko.

Hori gertatu zen egun hartan ere, Mendebal aldeko postutik zetorren «Zankos» mutrikuarra, arnas-hestuka eta izerdi-patsetan. Aste bete igaro zen oinezko fusilero talde hura uxatu genuela, eta mutrikuarrak zioenez, gudaroste oso bat zetorren orain, seguru asko mendeku gogoz. Guztiok mendebaleko postuan bil-

duta ere alferrik izango zela iruditzen omen zitzaion berari, jendetza haundi hari aurre emateko. Beraz, luzaro eztabidatu ondoren, postu hartatik erretiratzea hobe zela erabaki genduen, eta, basoaren barru-alderago (denbora gehiago hartuaz etsaia haraino iristen zen bitartean) erresistentziako posizio batetan indartsu egin. Oraingoan ustekabean heuren gainera erortzea komeni zitzaigun, aurrez, asko ginela pentsa-arazi beharrean. Horretarako, mendebaleko postua deseginik utzi genuen, burruka latz bat egon izan balitz bezala, eta lurrean gurutze batzuk josi genituen, gutako asko erori zirela uste zezaten. Horrela, basoan sartzen ziren bitartean, barruko bidexkak lehergaiez bete genituen eta tranpa ugari eraiki. Baina tranparik haundiena bukaeran jarri genien. Hor menderatzen ez ba genituen, gureak egin zuen. Basoaren zati trinko batetan sartu zirenean, aurrez ebakiak baina eror ez zitezen ongi eutsiak genduzkan pinu lodi pila bat utzi genituen erortzen heuren gainera, eta, harridura pasa baino lehen, sei toki ezberdinetatik tiroka hasi gintzaizkien. Etsaiak guztiz erotuak aurkitzen zirenean, nora jo jakin gabe, gutako hiruk ihes-bidea hertsi genien, gutxien uste zutenean ametralladora erabiliaz. Munizioak bukatzen hasi zitzaizkigunean, konturatu ez zitezen, azken lehergaiak jarri genituen martxan, gelditzen zirenak ihesari eman ziezaiotela lortuaz.

Asko poztu ginen garaipenaz, gure medio urriak kontuan izanik egiazko azaña bat iruditzen bait zitzaigun. Baina ez zuen luzaro iraun gure pozak, denok beldurrez espero genuen berri iluna artzain batzuen ahotik jakin bait genuen: Bilbo erori zen; Euskadi osoa frankisten eskuetan zegoen beraz. Dena galdua zegoen, eta gure ahaleginak ez zuen ezertarako balio izan. Hori ulertu genduenean, denbora luzez gure atzetik ibiliko zirela jakinik, sakabanatu egin ginen. Batzuk Frantziara aldegin zuten. Beste batzuk, berriz, beren etxeetara itzuli ziren, borreroen eskuetan erortzeko arriskua haundia zen arren. Ni, aldiz, hantxe bertan gelditu nintzen. Iratin. Tokirik seguruena iruditzen zitzaidan. Hango artzaiei lagunduaz ibiltzen nintzen, goardia frankistak azaltzen ziren arte. Orduan, basoan izkutatzen nintzen, aurrez kanpamendu nagusi bezala erabilitako zuhaitz gaineko txabolan. Horrela, artzantzan eta izkutuan, igaro nituen urte batzuk. Berriro herrira itzuli nintzenean, etxerik eta familiarik gabe aurkitu nintzen, eta «etxetxo» hau eraiki behar izan nuen hemen.

Ordutik oso gutxi aldatu da nire bizitza, ez bait naiz batere berrizalea eta aldaketen aldekoa, batez ere behin zahartu ta

gero. Pentsa zazu: txabola honek, jaso nuenetik zu etorri arte ez zuen oraindik pintura bainu bat hartu.

Eta irrifarre bat irten zitzaion. Apustu egingo nuke denbora askoan ez zuela horrenbeste hitzegin, eta hain gustora ere ez. Hitz-jario hari isilune batek jarraitu zion, eta hau hamar bat minutuz luzatu zen, baina ez zitzaigun batere astuna egin, alderantziz baizik. Bera barne-hustua eta bidebatez ulertua sentitzen zen, eta ni ere bere pozaren partaide nintzen.

Ez dakit gau hartan zer ordutan hartu nuen lo, baina badakit ametsetan murgildu aurretik gauza asko igaro zirela nire burutik. Otoitz egin ondoren, Joxetaz pentsatzen egon nintzen luzaroan. Gertaera haiengatik ez balitz, ez litzaidake, seguru asko, inoiz burutik pasako ni bezalako mutil bat agure baten adiskide izan zitekeenik.

Ongi pentsaturik, ordea, gerturatze kontua zen soilik. Ez zegoen berezko trabarik. Ni behintzat, ordurarte, ez nintzaion inoiz agure bati hurreratu. Lagunak egin nahi nituenean, norbait neureganatzeko ahaleginak egiten nituen. Baina nola egingo nintzen ba agure baten lagun, hortan saiatzen ez ba nintzen? Beraz akatsa ez zegoen «agure» izatean. Heuren lagun egiten ez ginelako (ez bait ginen ahalegintzen), hori ezina zela pentsatzen genuen, konturatu gabe geronen adinekoekin ere ez ginela adiskide egiten saiatzen ez ba ginen. Dena den, Joxerekin oso gustora aurkitzen nintzen. Hasieran hain itxia zirudien arren, orain konfiantzaz hitzegiten zidan, eta neroni ere, berari nire gauzak kontatzeko gai sentitzen nintzen.

Osabarekiko egoeraz ere pentsatu nuen gau hartan. Etxe haundi hartan galdua ikusten nuen nere burua, eta bakarrik. Osabak bere arazoetatik ez zuen burua altxatzen. Izebak egun guzia beste atso aberats haiekin berriketan igarotzen zuen herrian, eta gauez, etxera itzultzen zenean, berandu etortzeagaitik niri erritan egiteko astia izaten zuen soilik. Neskamea, berriz, etxe hartan bere lana betetzera mugatzen zen, ahalik lasterren aldegiteko. Noizean behin, ni oharkabean nengoela uste zuenean, errukizko begirada batzuk zuzentzen zizkidan, baina besterik ez. Behin, bakarrik bainatzen ere uzten ez zidala ikustean, hasarretu egin nintzen berarekin, oraindik ume gisan hartzen ninduela uste nuelako, baina, geroago, bere errua ez zela konturatu nintzen, izebak agindu bait zion ni bainatzeko.

Merkatura joaten nintzenean nahi haina diru izaten nuen gogozko nuen dena erosteko, hori bai. Baina ez zen nahikoa. Azkoz pozikago nengokeen nire «zaintzaileak» aberats beharrean maitakor balira, eta hainbeste diru beharrean niretzako asti gehixeago izan balute. Baina...

Pentsamentu hauek denak pasa ziren burutik, gau hartan, eta ondoren batetara iritxi nintzen: niretzat ezezaguna zen herri hartan arrotz sentitzen nintzen (osabaren etxean bertan ere bai) eta aita eta amaren gertutasun hura gabe. Ez neukan sendirik, ez eta lagunik ere. Beren laguntasuna falta zitzaidan. Bakar-bakarrik Joxe neukan nerekin.

Biharamonean, ez nuen goizetik neskamearekin herrira jo; Joxerengana joatekotan gelditu bait nintzen aurreko egunean. Izan ere, lehenbiziko aldiz itsasora eraman behar ninduen bere ontzitxoan. Iritxi nintzenean, hondar gainean eseria zegoen eta guztia gertu zeukan. Pentsatu nuen bezala, batel zahar bat zen, motorrik eta oihalik gabekoa. Bi arraun zituen soilik eragiletzat. Baina poztu egin nintzen hala izateaz. Egia esan, ez nuen gehiago espero, Joxerena zela jakinda. Baina ondotxo nekien, Joxek, margoa ere joana zeukan ontzitxo harekin hobeki erakutsiko zidala arrantzan (eta arrai gehiago harrapatuko genituela) osabak bere yate ederrarekin baino.

Joxek oso ongi aukeratu zuen egun hura, itsasoa bare-bare bait zegoen. Horrela, ia goiz guztia alde batetik bestera ibili ginen, arraunean, itsasotik toki ezberdinak ikusten: hondartza, harkaitz zulatuen txokoa, etab. Arraunak tajuz erabiltzeak lan asko ematen zidan, baina konturatzen nintzen gero eta hobeki eragiten niela.

Lurra urruti samar ikusten zen tokira iritxi ginenean, arraunak barrura sartu genituen, eta nekea arintzen genduen bitartean, ekarritako ogibitartekoak jan genituen, eguerdia bait zen. Goiza arraunean igaro genuen; bazkalostean, arratsaldez, arrantzari emango genion. Eguraldi zoragarria zegoen eta, Joxek zioenez, hura askoz toki egokiagoa zen eguzkia hartu eta beltzaran jartzeko, hondartza baino, itsasoak eguzki-izpiak isladatu egiten bait ditu, gure gorputzera zuzenduaz bestela uretan galduko liratekenak. Izebak jakin izan balu...

Joxek ongi ezagutzen zituen inguru haietako arraitokiak, eta gure aparejuek horrela baieztatu zuten, jasotzen genituen bakoitzean arrairen bat bait zetorren amutik zintzilik. Hala ere, asko eta asko Joxek uretara bueltatzen zituen, bizi zitezen, berak zioenez gazteegiak bait ziren oraindik, eta utzi egin behar zitzaien hazitzen. Niri, berriz, amorrua ematen zidan harrapatutako arraiari agur esan beharrak, eta hala esan nion berari, nik jasotako sabiroi eta kabrarrokak izebari erakustea nahi nuela, naiz eta txikiak izan.

— Motel —erantzun zidan— hori denoi gertatu ohi zaigu, baina ongi pentsatu ezkero, harrokeria hutsa da: norberak egindako gauza onak besteek ikus ditzatela nahi izatea. Begira, niri pasatako gertaera bat kontatuko dizut, orain dela urte asko gertatua (10 edo 11 urterekin, uste dut) baina sekulan ahaztuko ez dudana.

Ikastetxeko lehiaketarako marrazki ederra egina neukan, ideia polit batekin; eta nire gelako guztiek goraipatzen zuten nere lana. Baina kanpoan andereinoa beste gelako maixuarekin hizketan ari zen, eta nik beste irakasleak ere goraipatu nintzala nahi nuen. Hargatik, galdera bat aitzakitzat nuelarik, andereinoarengana joan nintzen marrazkiarekin. Beste maixuak ere ikusi zuen nire lana, eta goraipatuz bere ikasle denei erakutsi zien. «Tonto hori —esan zidan orduan nere andereinoak— orain beste gelakoek zure ideia kopiatuko dute». Eta hala izan zen: beste gelako batek, nire ideia berdinarekin, lehenbiziko saria irabazi zuen, eta ni bigarren gelditu nintzen. Nire lana ezagutua eta goraipatua izan zedila gustatzen zitzaidan eta hortik etorri zen nire galbidea. Izugarrizko amorrua eman zidan; baina gertaera horrek asko balio izan dit, ordutik aurrera gogoan izan bait dut beti hau, harrokerian ez erortzeko. Zuk ere, zerbait ona egitean nahikoa duzu zerorrek jakitea, pozik gelditzeko. Orain ere, arrai asko harrapatzen badituzu, izebari erakutsi edo ez, neurri berdinean izango zara arrantzale ona. Bestalde, arraitxo hoien bizitzaz pentsa ezazu apur bat. Txiki hoiek errukia sortzen dute.

Joxek arrazoi guztia zeukala ulertu nuen. Gainera, txikiak utzita ere, nahiko arrai bagenuen otarrean, ni «harro» sentitzeko haina, eta, behar bada, izeba aho zabalik uzteko haina ere bai.

Itsasotik bertatik eguzkiaren izkutatzea ikusi eta miretsi arte, ez ginen etxera itzuli. Baina oraingo honetan ez zidan batere

axola berandu joateak, izan ere, hain egun zoragarria pasa genuen...

Ordutik aurrera ere, beste askotan eraman ninduen Joxek bere batelean. Arraunean asko ikasi nuen, eta sarri nor-gehiagoka ibiltzen ginen «txanpan», bakoitzak arraun bana hartuta, nork bestearen aldera okertu txaloparen zuzenbidea. Hasieran hainbeste aspertzen ninduten itsasoa eta arrantza berberak ziren orain nire bi gauza gogozkoenak. Katua, beste alde guztietara gurekin etortzen zen arren, ez zen batelean sartzera ausartzen, Joxek zioenez, behin uretara erori bait zen ontzitik, itsaso zakarreko egun batetan, eta aurrerantzean izugarrizko beldurra hartu zion. Lagun egin ginen «Beltz» eta ni. Dagoeneko, nire belaunetara igotzen ausartzen zen eta «burruketan» ibili ohi ginen. Harrigarria zen: bapatean, nahi zuen tokiraino egiten zuen salto eta zulo edo zirrikiturik txikienetik aldegiten zuen.

Bi hilabete eramaten genituen jadanik elkarrekin eta nahiko ongi ezagutzen genuen elkar; bat goibel noiz zegoen antzemateko haina bai behintzat. Horrela, Joxek igarri zidan azken egun haietan ez nebilela ohi bezalako alai. Nik ez zela ezer esaten nion, baina berak, behin eta berriz, beldur gabe esateko aholkatzen zidan.

— Ez al daukazu nigan nahiko konfidantza hori esan ahal izateko? Hala baldin bada, egon zaitezke isilik. Horrela aditzera emango didazu ez naizela zuri laguntzeko gai. Baina, niri ez bada ere, ez ibili norberarentzako gordeaz, buruan bueltak eta bueltak emanaz beti. Horrela pertsona arrarotu egiten da. Ustez «norberaz-nahiko» bihurtzen da, eta denboraz erre egiten da barrutik, bera bakarrik ez baita gai bizitzako traba eta nahigabe guztiak gainditzeko. Arazo guztiak zure barnean gordeaz bazoaz, barrena gero eta gehiago beteaz dihoa, eta gainera, nahigabe hoiek denak elkarrekin nahasten dira, nahaspila arriskutsu bat sortuaz. Horrela, barrena betetzen eta erretzen dihoakizu, lehertzen den arte. Ulertzen duzu horrela azalduta?

Denok behar dugu laguntza. Hargatik, oso garrantzitsua da konfiantzako adiskideak edukitzea —bat, gutxienez—. Eta hori lortzen ez baduzu, ez zaitez behintzat (horrelakoetan gehiene-

tan pasa ohi den bezala) Jainkoaz ahaztu. Bera izango bait duzu babes bakarra, zure arazoen aurrean ez erortzeko izango duzun laguntza.

Niri ere hori gertatu zait: herrira itzuli nintzenetik, ez naizela konfiantzazko lagunak egiten saiatu. Eta, behar bada, horregatik bizi naiz orain hain bakarrik, beste herritarrekin hartu-emanik gabe. Hala ere, Jainkoa nerekin izan ez banu, guztiz jota nengoke onezkero; erreta. Bera izan dut behar nuen euskarria. Hargatik, laister, deitzen nauenean, lasai joanen naiz Beragana. Eta ez dut asko itxaron beharko, gibel honek ez bait dit asko gehiago iraungo.

Horrela, kontatu nion Joxeri goibeltzen ninduena. Konturatzen nintzen, guzti hori niri naigabe hura kontarazteko esan zuela, baina banekien baita, egi borobila zela esan zuen guztia. Beraz, kontatu nion nola ez nintzen gustora aurkitzen han, eta etxera itzultzeko gogoz nengoen. Garbi ulertarazi nion ez zela beragaitik, alderantziz baizik: berak egin zuela han pozik senti nedila askotan, eta berarekin nengoen bitartean zoriontsu nintzela. Baina egunaren zati haundi bat etxean igaro behar izaten nuen, osabaren etxe haundi hartan, eta han bakarrik sentitzen nintzen. Egia esan, aita eta amaren, sendiaren, berotasuna falta zitzaidan. Joxerekin nengoen bitartean izugarri ondo ibiltzen nintzen, baina etxean egon behar nintzenean, behin eta berriz, giro hotz harek beldurra sortzen zidan. Eta egoera hura orain arte, berari, Joxeri eskerrak eraman ahal izan nuen, baina jadanekoz ezin nuen gehiago jasan. Etxera ahalik lasterren itzultzea nola lortu ez jakiteak goibeltzen ninduen.

Pentsati egon zen Joxe une batez. Ondoren, aitaren etxean telefonorik ba ote genuen galdegin zidan. Ezetz esan nion, eta isilik gelditu zen.

— Eta zure gurasoei eskutitz bat idatziko bagenie? —esan zuen bapatean—.

Horrela, hurrengo egunean han geunden biok bere txabolako mahai gainean besoak jarrita, zer idatzi pentsatzen. Nik ez nekien nola hasi, eta berak ere ez zirudien lan haietan oso ohitua. Dena den, azkenik, bi ordu igaro ta gero, horrela gelditu zen gure eskutitza:

«Guraso maiteok:

Lehenik, ni hemen ondo aurkitzen naizela esan nahi dizuet, eta zuek hor?

Pentsatuko duzuen bezala, ez dizuet ondo nagoela esateko bakarrik idazten eskutitz hau. Esan nahi nizueke, zuek nahi bezala itsasaldea ezagutu eta arrantzan ikasi dudala. Baina, egia esateko, behin hau lortu ezkero, hemengo bizitza oso aspergarria egiten zait eta beti berdina iruditzen.

Gainera, zuetaz asko gogoratzen naiz, eta etxean egotearen falta somatzen dut. Hargatik, ahal izan ezkero, zuengana itzuli nahi nuke ahalik lasterren. Horrela, beraz, zuen erantzuna itxaroten gelditzen naiz. nola joan behar naizen jakiteko. Laister ikusiko geralakoan, bakoitzari besarkada haundi bat emanaz, agurtzen naiz».

Horrela ba, gure ustez, lortu genuen etxeratzeko arrazoi batzuk ematea osabarena aipatu gabe, Joxek nahi zuen bezala; hori esatea ez zela komeni pentsatzen bait zuen, gurasoak hestutu ez zitezen. Gero, etxera itzultzean edukiko nuela nahiko denbora guzia kontatzeko, esaten zuen Joxek.

Eskutitza bukatu genduenean, egun gutxi gelditzen zitzaizkidala eta, ezagutzen ez nituen inguruko azken zatiak erakutsi behar zizkidala agindu zidan.

Horrela, hurrengo egunean, goizetik irtenda herriaren ezkerraldeko basora joan ginen. Ez zitzaidan inoiz burutik pasako itsasertz batetan halako baso haundi bat egon zitekeenik, baina hala zen. Garai batean baso osoa pagadi izugarri bat izan omen zen, baina orain zati batzuetan pinudiak ikusten ziren. Egun guzirako ogibitartekoak generamatzan, eta nire poltsatxoa Joxeren motxila haundian sartu nuen. Harriturik gelditu nintzen zenbat gauza eramaten zituen motxila hartan: soka luze bat, linterna, haizto bat, manta pare bat, beste poltsa bat... Basoan ibilalditxo bat soilik egiteko horrenbeste gauza ekartzea ere... —pentsatu nuen—, piztiren bat agertzeko beldurra ote dauka?

Dena den, goizeko hamaikak aldean sartu ginen zuhaizti mardul hartan. Dena oso itxia zegoen, sasiz eta larrez eta inoiz

ikusi ez nituen landare bereziz baita. Baina, zirudienez, Joxek izugarri ongi ezagutzen zuen alderdi hura, eta beti aurkitzen zuen zirrikitu edo bidexka izkuturen bat aurrera jarraitzeko.

Horrela eraman ninduen inora jotzen ez zutela ziruditen bideetatik, toki bitxi batetan gelditu ginen arte. Baso trinko eta larrez josiak, basoaren beste zati garbi hura inguratzen eta gordetzen zuen. Hargatik, Joxek esan zidan bezala, oso jende gutxik ezagutzen zuen paradisu hura. Pagadi zabal bat zen, batere larrik eta sastrakarik gabea. Aurrez, baso itxiaren zatian, Josek kabi izkutu batzuk erakutsi zizkidan, baso hura hain ongi ezagutzen ez zuen beste inork ikusiko ez zituenak; baina han, paradisu hartan, begi aurrean ikusten ziren nahi haina kabi, katagorri zulo, piztien egoitza, etab.

Zirudienez, han ez zeukaten gizonaren beldurrik, ezagutzen ez zutelako, agian. Gainera, bago haien itzal zabaletan, inoiz inork ukitu gabeko perretxiku-tokiak aurkitu genituen. Joxek, poltsa bete arte hartuz joan ginen perretxiku bakoitzaren izena esaten zidan. Kabiak ere zein txorirenak ziren bazekien. Berdin animalien hots edo ujuekin, edota beren aztarnekin. Itsasoa bera baino hobeki ezagutzen zuela basoa konturatu nintzen. Iratiko bere ibilerak gogorarazten zizkidan harek.

Toki bitxi hartan bazkaldu ondoren (ondo kontuan izan zuen Joxek han janari, paper edo plastiko arrastorik ez uztea), berriz baso itxian barrena sartu ginen, oraingoan beste aldetik (paradisu hura baso trinkoz inguratua bait zegoen alde guztietatik). Lehen bezala, bide-txiur zailetatik abiatu ginen, azkarrago joateko. Jadanik guztiz nekatua aurkitzen nintzenean, iritxi ginela esan zuen Joxek. Nik, berriz, ez nuen pinua eta larra besterik ikusten nere inguruan. Baina Joxeri jarraituz, hogei pausotara basoa bukatzen zela konturatu nintzen. Harkaitzezko mendixka bat zen basoa bukaarazten zuena eta begi aurrean genduena. Joxek berari jarraitzeko esan zidan keinu batez, eta harkaitzera igotzen hasi zen. Nik, harriturik, zertarako igo behar ginen hara galdegin nion, izan ere, guztiz ahuldua bait nengoen, eta gainera zerua oso ilun jarria zen, ekaitz igarle zelarik. Hargatik, gogo gehiago nuen etxera itzultzeko hara igotzeko baino. Harkaitzean zer zegoen ikusgarria galdetu nionean, berari jarraitzeko eta ikusiko nuela erantzun zidan. Horrela, gain batetara iritxi nintzenean, nere aurrean ikusi nuen igokera haren arrazoia: leize zulo bat. Orduan ulertu nuen zergatik ekarri ninduen haraino.

— Hau ikusteko bi arrazoi daude —esan zidan Joxek—. Bat, benetan ikusgarria dela; hau ezagutzea zen gaurko ibilaldiko helburu nagusienetako bat. Eta bigarren arrazoia da, ekaitza gainean dugula eta etxetik urruti gaudela. Leizea izanen da gure babesik onena, atertu arte behintzat.

Sartu eta ordu-laurdenera hasi ziren tximista eta trumoiak, eta beraiekin euri zaparrada galanta. Leize barrua iluna zenez, sua piztu genuen adar lehor batzuk bilduta, eta gure azken ogibitartekoak jan genituen.

Han geldik egonda hotza sartzen zitzaigun eta, beraz, kobazuloaren txokoak ezagutzea erabaki genuen. Horretarako, motxilan zekarren soka gerrian lotu eta linterna hartu genuen. Toki ikusgarriak begiztatu genituen benetan. Hura pixka bat konponduta, bizitzeko ere ez zela gaizki egongo esaten nion nik Joxeri, eta honek, garai batetan seguru asko hartz batzuk han bizi izango zirela esan zidan, eta agian, gizonak ere bai. Hala ere, ez genuen ezeren aztarnarik aurkitu. Leizearen akatsik haundienak, bizitzeko noski, hezetasuna eta hotza omen ziren, Josek zioenez. Eta guk ere edukiko genuen hauek ezagutzeko aukera, behar bada gaua han pasa beharko bait genuen, ekaitza bukatzen ez ba zen. Eta hala izan zen: leizean gelditu behar izan ginen, gau guztian ez bait zuen atertu. Ezkotasun eta hotzetik gorde ahal izateko, Joxek ekarritako mantekin bildurik egin genuen lo. Oso postura egokia ez zen arren, gau zoragarria igaro nuela iruditu zitzaidan. Lo hartu aurretik, egun hartan egindako guziaz pentsatzen egon nintzez; eta orduan konturatu nintzen ume bezala jokatu nuela Joxe beldurtitzat juzgatzean, motxilan gauza hoiek guztiak zekartzalako. Gero pentsatuta, ordea, eskerrak ekarri zituela! Poltsa hura perretxikoz bete zen; soka, linterna eta mantak, berriz, leizean gaua pasa ahal izateko balio izan ziguten. Nola juzgatu ahal izan nuen Joxe hain errez, gauza haiek zertarako ziren jakin gabe... Buru-arinkeria galanta, jakin gabe hitzegitea.

Dena den, egun zoragarria izan zen hura. Beldurtzen ninduena ere ez zen gertatu, izebak bai bait zekien Joxerekin egun guzirako basora joan nintzela, eta gauean etorri ez nintzenean ez zen gehiegi larritu, ekaitz harekin ezin izan nintzela etxeratu pentsatu bait zuen, eta Joxeren etxean gelditu nintzela gaua igarotzen.

Egun hartan bertan, arratsaldez (goiza etxean igaro behar izan bait nuen, leizetik etorri ondoren) Joxeren txabolan agertu nintzenean, begiondoa haunditurik neraman, eta negarrari ozta-ozta eusten nion.

Joxeri gero azaldu nion bezala, haruntza nindoala, herriko mutil batzuk zebiltzan zelaian futbolean. Nora nindoan galdetu zidaten eta Joxerengana erantzun nien. Orduan farrez hasi ziren, eta, «eskale mozkor horren lagun» al nintzen esan zidaten. Ni harritu egin nintzen, eta ez nien sinistu, noski, baina irain haiek hasarretu egin ninduten eta eskarmentu bat eman nahi izan nien. Denon artean, ordea, jipoitu egin ninduten.

Joxe isilik gelditu zen. Gero, berriz, bapatean, arratsalde hartan lana zeukala esan zidan, eta hobe nuela etxera joatea kolpe hura sendatzera. Ni oso goibel gelditu nintzen gertaera harengatik.

Hala ere, bizkor pasa zitzaidan hura, aste hartan bertan beste sei bat toki berri gehiago ezagutu bait genituen. Ia egunero txango bat egiten genuen; behin hondartza osteko harkaitz-tarte arriskutsuetara, muskulu bila, hurrengoan antzarren irlatxora, batelean...

Baina, hurrengo astean, aitaren eskutitza iritxi zen... ostegun hartan bertan nere bila etorriko zela esanaz. Ni, alde batetik asko poztu nintzen, baina bestetik pena ematen zidan guzti hura uzteak. Eta Joxe? Ezin nuen ahaztu bere kalterako zen gauza batetan nola lagundu ninduen, etxera itzultzeko era bilatzen, alegia, berak ez bait zuen nahi ni joaterik. Azken egun haietan ez nuen hori behin eta berriz pentsatu besterik egiten. Biok nekatuak geundela zirudien: ez zitzaigun ideia berririk bururatzen, nonbaitera joateko edo...

Horrela ba, iritxi zen osteguna, agurtzeko eguna. Aita arratsaldez zetorren, berebilez, eta goizean Joxeri azken bisita egitera joan nintzaion. Berak esan zidan goizean joan nedila, arratsaldean ez zela agurtzera joango eta, despedidak ez bait zitzaizkion atsegin. Horrela, goiz hartan, azkenengo aldiz bertso batzuek irakurri nizkion. Berak, liburua eman nahi izan zidan, etxean eduki nezan, oroigarritzat. Nik ezetz esaten nion, etxean beste bertso liburu asko neuzkala; baina azkenean onartu egin behar izan nuen bere oparia.

Goiza aurrera zihoan, eta agurtzeko unea iritxi zen. Joxe zer esan jakingabe gelditu zen: niretzat egindako aulki hura hutsik geldituko zela esan ahal izan zidan soilik. Gero, azkenean, ia hurrengo urtean berriz etorriko nintzen galdetu zidan, galdera eta eskari arteko tonu batez. Ez nekiela erantzun nion. Agian baietz; hurrengo urtean ez ba zen, besteren batetan izango zela. Horrela agurtu ginen. Orduan, ezagutu nuenetik bigarren aldiz, malkoak ikustea iruditu zaitzaidan bere begietan. Neureak ere ez ziren urruti.

Egia esan, orduan ez nuen pentsatzen berriro hara inoiz itzuliko nintzenik. Baina... geroago, nire herrira eta etxera heldu eta gero, ezin nituen ahaztu Joxerekin pasatako egun haiek. Gelditzen ziren opor egunetan, eta ikastaro berria hasi ondoren ere, ideia hori neukan beti buruan.

Horrela berriz, oporrak heltzean, aurten ere itsasaldera joan al nintekeen eskatu nien gurasoei. Eta, izan ere, horixe da gehien kosta izan zaidana: aita eta ama neureganatzea eztabaida hortan, ez bait dute ulertzen nola etorri nahi izan dudan berriz, hain gaizki pasa nuela esanda. Esaten nien nik erru guzia osabarena zela. Herrian bertan bilatzea besterik ez zegoela, dena konpontzeko. Eskerrak azkenean ados jarri garela denok: sendi osoa etorri gara, ni bakarrik beharrean; osabak beste etxe bat bait dauka herriaren kanpoaldean, inork erabiltzen ez duena (lehen errentan utzia zeukan), eta han jarri gara gu.

Hainbeste amets egin dut eta hainbeste ardura jarri hona berriz etorri ahal izateko, eta orain... hau. Hemen nago, bakarrik, bere hilobi aurrean, oraindik guztiz sinistu ezinik. Ezin sinistu bera joan dela, eta berarekin nere amets guztiak. Berriz arrantzan egiteaz amesten nuen; Joxerekin arraunean ibili, estropada apustuan; katuarekin burruka-jolas haietan jardun...

Katu gixajoa, hemen dago orain, bere jabearen hilobi gainean, etzanda, burumakur, nik bakarrik uler diezaizkiokedan sentipenetan murgildua, bere begiek tristura konpon-ezin bat adierazten dutelarik. Bere saminkide naizela jakinik, «zergatik?» galdegin nahian dabilkit gixajoa. Tamalez, ezin diot erantzun.

Joxerekin batean, bere etxetxo hura hobetu eta itxuraberritzeko asmoa ere baneukan, eta plana ere bai, ongi pentsatua.

Izan ere, aurrez eman zion pintura bainuaz ez zen naikoa, eta asko apaindu zuen arren, gauza asko zeuden oraindik konponketa bat eskatzen zutenak.

Gainera, Joxeri mesede bat eskatzeko asmoa nuen: bion artean, itsasertzeko baso hartan txabola bat egin genezala, zuhaitz gainean kokatua, adar nagusiak oinarritzat harturik, berak Iratin egin zituenen gisan. Izan ere, ideia hark txoraturik nindukan.

Beretzat oparitxo batzuk ere baneuzkan gertu: betaurreko batzuk, eta... neronek moldatutako bertsotxo batzuk, berari eskeiniak. Betaurrekoak jarri eta irakurri ahal izan balitu... niri bizkarra emanda leihora begira jarriko litzatekeen, emozionaturik zegoela ikus ez nezan.

Bertso hoiek bidali ahal banizkio, berak, bere eskutitza irakur dezadala lortu duen bezala, bera hilda gero ere...

Bai, hala izan da. Atzo, etorri eta bere heriotza jakin nuenean, osabarengana jo nuen, nola izan zen jakiteko. Osabak, Joxeri azken sakramentuak eman zizkion apaiza ekarri arazi zuen (hileta eta lur-ematearen gastu denak berak ordaindu zituela esan ondoren), bere azken hitzak kontatu ziezazkidan. Eta apaiz hau izan zen idazkiarena esan zidana, nola Joxek neretzat eskutitz bat utzi zuen, noizbait itzultzen banintzen irakur nezan.

«Lagun maitea» —hasten zen esanaz— «Zuk hau irakur dezazunean, ni lurpean egongo naiz, jadanik oso izorratua bait nabil gibeletik, eta badakit nere ordua heldu dela. Hargatik, eskutitz hau idatzi nahi izan dizut, nitaz oroitu zaitezen behar bada, edo lehen esaterik izan ez nizkizunak esateko, agian. Lehenik adierazi behar dizut, mutil haiek kontatu zizutena, eskale mozkor bat nintzela, alegia, egia zela. Etxera begiondoa haunditurik etorri zinen hartan, ez nintzen zuri hau aitortzeko gai izan, nuen lagun bakarra galtzeko beldurrez. Baina hala da. Gerrate ostean, berriz herrira itzuli eta bakarrik aurkitzean, ezer gabe, eta inoiz baino gehiago behar nuen laguntza hura gabe, edariari eman nion. Mozkor bat nintzen, eskale ez ba nintzen ere (jantzi zarpail batzuekin ibiltzen nintzelako esango zuten haur haiek hori); baina eskale izatera iritxi ez ba nintzen, besteei ezer eskatzeko apaltasuna falta zitzaidalako izan zen. Bai, hori ere egia da. Behin zuri esan nizun bezala, arazo guziak eta nahigabeak norberarentat gordetzeak, bat «norberaz-nahiko» eta bakarti bihurtzen du. Eta hori gertatu zitzaidan niri. Tamalez, nire esperientzia

tristetik atereak ziren zuri eman nizkizun erakuskizun gehienak. Behintzat, niri gertatu zitzaidana zuri gerta ez bekizun balioko zutela pentsatzen nuen.

Eta gizatxar hori besterik izan ez ba naiz, zuk zer paper jokatu duzu nere bizitzan? Ba, zugatik lortu dut edaria uztea (osasunean bere aztarnak gelditu ba zaizkit ere), eta baita «norbere-nahikotasun» hori ere. Beste froga bat nahi baduzu, zergaitik edo norengatik uste duzu berritu nuela nire etxetxoa? Zugatik, batez ere.

Lur jota nengoen, baina errauts hoien gainean bizitza berri bat jasotzea lortu dut... zuri esker. Norbaiti hori axola zaiola jakiteak, indarra eman dit aldatzeko. Hargatik, zuk ezagutu duzuna beste Joxe bat izan da, Joxe berri bat. Lehenbizikotik, adiskide egin ginenetik, zuri ez hutsegiteko, desilusionatu ez zitezen, gizon on bat bezala agertzen saiatu nintzen. Eta, denborarekin, posible zela konturatu nintzen. Horrela ikasi nuen. Gainera, orduan arrazoi bat neukan edari uzteko, eta bizitzeko ere bai.

Hargatik, neure bizitza konpontzeaz gainera, zuri nekien apurra erakusten ahalegindu naiz. Zuk, uste ez duzun arren, asko erakutsi didazu, eta nik ere, bizitzari ikasi diodana azaldu nahi izan dizut.

Azkenik esan nahi nizukena da, nere bizitzan alai baino goibel denbora gehiagoan bizi izan naizen arren, pozik hiltzen naizela. Pozik bizi izan dut nere bizitzaren azken zati hau, eta neronekin eta Jainkoarekin pakeak egin ditut. Bere errukian uste osoa jarriaz hiltzen naiz. Oraingoz nahiko mesede eskatu diot, baina zugaitik eskatzeko ere bilatuko dut une aproposa. Orain, bukatzeko, bakar-bakarrik gauza bat nahi nuke: zuk, ezagutu zenduen Joxe hura bezala gogora nazazula.»

Zure adiskide,

Joxe

Karta hau irakurri ondoren ere, ezin dut ahaztu ekarri dizkiodan gauza guztiak ezingo dituela hartu, baina hala ere gustora gelditzen naiz, bere bizitza ezagutu... eta pozik hil dela jakin ondoren. Utzi ziezadakedan testamenturik hoberena, egokiena,

utzi dit: eskutitz hau. Ondo dakit zenbat kosta zaion Joxeri guzti hau idaztea, alde batetik ez zegoelako idazte lan hauetan oso ohitua, eta bestetik, bere barruko gauza hauek inoiz inori kontatu ez zizkiolako. Hargatik, pozikago irakurtzen dut, eta nigatik egin duen azken ahalegina bezala jasotzen dut.

Zure hilobi hotz honen gainean ere ongi legoke, Joxe, horri hau, «azken hitz» bezala, baina horretarako beste zerbait ekarri dizut... Gaur gauean, zure eskutitz hau irakurri ondoren egin dudan bertsotxo bat. Katuak zainduko dizu, haizeak edo beste norbaitek eraman ez dezan. Hor uzten dizut...

Hementxe datza bizitza latz bat
igaro zuen gizona
garai batean ardi galduen
gisan galdurik egona
azken orduan aldatuz jakin
zuen lortzen zoriona.
Erruki zaitez eta zurekin
gorde zazu Jainko ona.

IÑAKI SARASUA
17 urtekoa

HIRU EGIAK

(Elezaharretik)

J. EGIGURENTARRA

Inguruko herriak izuturik zituen Aizbeltz zeritzan lezako gertakari misteriotsuak. Zer zen Aizbeltzek zuena, bere inguruetan mendez-mende zahar eta gazte hain izuturik edukitzeko? Mamu izugarri bat bizi zela, aintzinatik ahoz-aho zabaldua zetorren eta inor ez zen ausartzen lezaren sarrerara hurbiltzen.

Aizbeltz, Otarre mendiaren mendebaldeko hegian, Kilimon deritzan errekaldeko sakonera begira, oihan ilun baten tokirik malkortsuenean kokatzen da. Aizbeltz izena, nonbait, bertako karaitza hegoalderago dagoen Aitzuri deritzanarekin bereiztearren deitzen zaio.

Bada Aizbeltzen haitzulo bat, zaharrak diotenez, aintzina jentilak bizi zirena. Baina, haitzulo hori baino gorago eta ifarralderago, Erentzatik ez hain urrun, arru baten erdialdera dago Aizbeltzeko leza. Lezaren ahoan bertan aginondoa dago, urrutitik ere garbi nabari dena. Hura da, hain zuzen, toki beldurgarria, inguruak izuturik dituena. Batzuen ustez, laminen gorde lekua da; baina bertatik hurbilen dauden baserri eta auzoetan, bai Lastur eta bai Mendaro partean, laminak baino zerbait izugarriagoa gordetzen zen uste osoa zuten.

Inoiz trabesak ere eginak omen dira, lezaren sarrerako aginaren hostoa ezetz ekarri. Baiezkoa ematera ausartu eta Aizbeltzera irten zirenetarik inor ez omen zen itzuli. Beraz, zer zen han gertatzen zena? Inguruko atso-agure zaharren oroitzapenez, hara

heldu denetarik ez da inor itzuli, han bizi den mamu izugarri batek irentsi dituelako.

Aizbeltz, benetan beltz. Toki misteriotsuagatik ba zen esaera bat ere: Nahi ez duenak biziaz etsi, hobe Aizbeltzeko lezara ez iritsi.

Hala ere, nonnahi eta noiznahi agertzen dira mutil ausartak, arrisguari aurpegia emateko prest. Eta, behin batean, Mendaroko Garagartzako ostatuan, Aizbeltzek zuen izugarrizko fama aipatzeaz, han zen mutil arrotz bat ausartu zen bera baietz heldu Aizbeltzeko lezara eta lekukotasunez baietz ekarri aginondoaren hostoa. Han zirenek, desafioaren hitza jaso zuten. Gizonek ordea, behin hitza emanezkero, atzerarik egin gabe, hitzari oratzen dakite. Ostatuko mahai inguruan hainbeste lagun adi zeudelarik, han ez zegoen arrio egiterik, eta trabesa lotu zen biharamunerako.

Hitza emana zen bezala, goizean goiz agertu zen mutil arrotz ausarta Aizbeltzeko leze ahora joateko prest.

Auzoan hainbeste aurpegi harriturik begirale zirela, arrotzak hartu zuen Kilimon errekan gorako bidea. Irabanetara arte ez zen inolazko eragozpenik. Handik gora, Eguzkitza barrenean hasita aurkitzen ziren toki latzak. Aizbeltzen mendebaldeko sakonetik, harizti batetik goruntza, basoa geroago ta ilunagoa, gorago ta zerratuagoa. Zenbat eta gorago eta hertsiagoa ta zikinagoa; txara ta sasia besterik ez bai zen, inor ibiltzen ez zen goi parte haietan. Mutil arrotz harek, aurrerantzean, ahal bezala jarraitu behar izan zuen, txaramela sasitsuan goraka, oso nekez eta soinekoak urratuz, makila batekin ahal bezala bidea idekiz. Erentza azpikaldea hartu zuenean, une garbiago bat aurkitu zuen, Otarreko goihegalak gaindi, maldak zeharka hegoalderuntz joaz, Aizbeltzeko harpera hurbilduz eta bertara heldu baino lehen itzuli bat eginaz, zeharka ifarraldera, beti maldan gora terrenoa irabaziaz. Azkenik, arru batetik zuzenean goraka heldu zen leza ospetsuaren sarreraraino. Iristeaz bat, arnas estutik bere bularrak zerbait lasaitu baino lehen, bihotz taupadak ez zitzaizkion baretu, lezearen sarreran bertan ur-jauziaren antzerako furrustada hotsak barne aldetik sentitu zituenean. Barnetik goraka, geroago eta indartsuago zetorren hots hura. Bat-batean, animali izugarri bat agertu zitzaion lezaren barrutik bere aurrekaldera. Zakur handi itsusi bat zen. Baina, zer zen hura? Benetan zakurra ote? Sinestea ere! Zakur erraldoi haren aurrean zeharo kukilduriik azaldu zen mutil ausarta. Prizti handi hark mutilari gorpu-

tzean sartuarazi zion zarrarak, belaunak dar-dar jarri zizkion eta bat-batean bere gorputza izerdiz blei-blei jarri zen. Hura zen beldurra, hura. Zer egin? Aintzitziketari ematen bazion, bera baino bizkorragoa izango zela iduritzen zitzaion; eta, lasterka ez irabaztekotan, zer egin?

Noraezean zegoela, zakur handiak hitz egin zion, esanaz:

—Zerk ekarri hau hona?

Hori entzuteaz, mutila lehen baino izutuago jarri zen. Kostata atera zituen bere ahotik hitzak, animali izugarriari ihardetsiz:

— Aginaren hostoa hartzera etorria naiz.

Zakur handiak erantzunez:

— Honeraino etortzeko ausardia izan duenak, hainbeste beldur?

Isilalditxo bat ondorean. Biak elkarri begira, aurrez-aurre. Mutila, zurbil; zakur handia, serio, mutilari begiradarik kendu gabe.

Berriz ere, zakurrak hitz egin zion:

— Hemendik bizirik irtetzea nahi baldin baduk, oraintxe bertan hiru egi asmatu beharko dituk; bestela, irentsiko haut.

Mutilak eukan beldurra, ezer asmatzeko baino handiagoa zen. Hala ere, asmakizunari heldu zion, eta lehen ihardespenean bi egiak aski erraz lortu zituen; era hontara:

— Hilargia, argia da, baina eguzkia argiagoa. Sua, beroa da, baina eguzkia beroagoa.

Izuaren larritasunez ezer asmatzeko baino estuago aurkitzen zen mutila, eta ondoezen bat egin beharrean azaldu zen hirugarren egia asmatu ezinik. Ikaraz eta txorabioz bertan erortzeko zorian zegoela, hara zer bururatu zitzaion:

— Nik, zakur handiak, asko ikusi ditut, baina zu bezain handirik ez.

Hori entzuteaz, zakurrak, ahoz hartu zuen aginondoarean hosto zati bat eta mutilaren eskuetan ipiniaz, esan zion:

— To. Hiru egiak esan dituk eta har zak hosto hau. Libre uzten haut. Baina, arren, ez berriz hurbildu toki hauetara.

Mutila, hostoa hartzeaz, noraezean doanaren antzera abiatu zen leze ondotik itsumustuan, mendian behera, deabruak daroan arima balitz bezala. Basoko sasiarteetan urratuz beterik, gorputz, anka ta besoak soineko apurtuetatik odola dariola, gau ilunez heldu zen Garagartzako kalera, agoniako kanpai hotsa hasteaz batera. Arnas estuz eta beldurrak eraginik sartu zen ostatuan. Han zain zeudenen iduriz, ez zirudien atzoko ber bera, begirada lauso aurpegi zurbil harek. Ostatukoek galdezka hurbildu zitzaizkion; baina bere erantzun soila, aginaren hostoa mahai gainean utzi, eta isil eta izu gelara igo zen eta oheratu. Handik ez omen zen berriro jaiki. Sukarrez, inguma irudiak bere inguruan somatzen zituela, amets zoroetan edo zoro ametsetan, ahorik ideki gabe, han bertan hil zen bizpahiru egunen buruan.

Geroan ere, Aizbeltzeko zakur handi itsusi edo mamu izugarriaren misterioak hor jarraitzen du, lezaren barru ilunaren erraietan gordeta. Aizbeltz, benetan beltz. Otarre mendiaren mendebaldeko oihan malkortsuan iraunen du misterioak mendez-mende estalirik.

NEURRIA

(Ipui antzera)

J. EGIGURENTARRA

Gauza guztiak omen dute beren neurria eta jenero berdintsuan neurri ber berak ziren ustekoa zen on Maximo. Nola ez? Neurri berekoak direlako, pertsona guziak dituzte lurrerainoko ankak, eta alturaz buruko ileetarainokoak izatez; burua lepo gainean jarrita dutenek behintzat. Jakina ez dela gauza bera buru soilen artean. Kalbodun horiek, beren burua tximino ipurdia bezala dutenek, ez ordea. Baina, horiek ere buru kaskoaren larru azalera artekoak dira; on Maximo bezalako iletsu normalak zer esanik ere ez. Aski da neurtzea. Hala ere, buruko ileak baino altuago jartzen da nornahi eskuak gora, habea bezala ipintzeaz. Hortara, eskuetako behatz puntak dira gorena hartzen dutenak, baina naiz gizon edo naiz emakume, guziak berdin berdinak dira. Bai, neurri berekoak direlako. Eginahalak egin, inor ez doa hatz-mamiak baino haruntzago. Naturaren berdintasunak hala eskatzen bai du. Hala behar ere, azkenak izango badira lehenak. Zutik, ankak eta besoak zabalik, X forman, edo *Quattrocento*-ko asmo guzien oinordeko zen Leonardoren irudi ospetsua bezalatsu jarriz ere, alperrik San Andresen gurutzea izan, gauza bera; solairuan oinak eta eskuko behatzak zeru aldera zabalik jasota, gurpilaren erradio edo trabesak balira bezala, neurria beti neurri, oinetako behatzetatik eskuetako behatz-mamiak arte. Neurri berekoak garelako. Ez gehiagorik eta ez gutiagorik. Hala zehazten zuen on Maximok. Bestela har dezagun beste neurkera bat, eta gauza bera ziurtatuko dugu. Adibidez, besoak aurrera eta biri-

bilean jarriz, upela bere gerritik besarkaturik edukitzearen arabera, eta hutsune biribilaren ingurua soil soilik agertuko zaigu besartean: izatearen dena eta ezer eza, izan edo ez izanaren biran jartzen duelarik gure gogoeta. Oteitzaren espazio hutsa gizonaren barruan harturik, gizon bakoitzak bere baitan eduki dezaken hutsa. Hori da hain zuzen on Maximok gogoaren ustean oinarriturik ikerketazko zentzutasunari aurkitzen zion huts soila. Zeren, hutsak ere ba omen du bere neurria; neurri bene benetakoa, huts hutsa denean. Horregatik ez omen zen galtzen on Maximo hutsaren ezer ezean. Hutsaren sofismak ere bazuen bere neurria. Egia esan, koloreak ez du neurriarekin zer ikusirik, baina gizonak bai. Horren ondorioz, gizonek kolore desberdineko txaketak aldatzen omen dituzte, neurri berekoak izanik aukera desberdinetarako ere balio dutelako. Baina, hatan horretan, on Maximo beti baikor. Buruan bertan ere azaletiko itxurak gehiago. Aurpegi erdian, goitik behera sudurraren marra luzea, surtziloetan bukatuz. Ahoaren lerroak bi alderdietara berdinak eta gainerakoan gauzak parezka: bi begi, betazalak, betileak, kopeta edo bekokia, lokiak... guziak beren neurri jakinez mugatuak. Hala ere, izango dira noski hori guziori betetzen ez dutenak; begi okerrak edo bat baizik ez dutenak ere bai, itsuak ere izango direnez, ezbeharren ondorioz. Horregatik esan ohi da «itsuen herrian, betokerra nagusi». Hori ere ongi frogatua zuen on Maximok. Baina, buruaren barrukaldeko mikrokosmosa zen prolema larria. Arazo guzia hortxe zen. Buru barneko garaunak gizakiaren laberintoa. Garaun zelula neurkaitzak, gizon suntsikorraren baitan, izakera guztiaren muina. Buruko mikrokosmos hortan datza gizakiaren gakoa. Gauza taiugabea dela? Hori eztu inork ukatzen. Nahi baldin bada, absurdua. Mundu hontan, alegia, on Maximorentzat, neurririk gabeko guzia zen zentzugabekoa. Gizakiak, berez, bazuen bere neurria; baina, buruaren mikrokosmosak, ez nonbait. Eta hor kokatzen da bakoitzaren kontzientzia, on Maximok egiten zituen neurketazko elukubrazio ondorioen arabera. Eta, askoren baitan, neurriaren ordez, horoskopoaren galga daiteke kontsolagarria. Hala ere, on Maximoren ustez, gogoeten neurketa zen funtsean gizakien itxaropena, lagun urkoaren alderako maitasunez. Gizartearen oreka zainduz bakoitzaren askatasuna gordetzen zuena. Buru-belarri neurtuak, lurrerainoko anketatik buruko ilietarainokoak direla ahantzi gabe. Bai, ankak lurrean ipinita eta burua bere lekuan jarrita; gauzak behar bezala eta izan behar diren bezalakoak direnean. Zalantzazkorik izatekotan, buruaren barrukaldeko mikrokosmosetikakoa izanen

da, hor denez buru haina aburu. Hala ere, asko ziren sinetsi ezin zutenek eta horiek ziren on Maximoren neurketak irrigarriak zirela esaten zutenek. Une horietan, on Maximok ordea, bere esaldia aterako zuen: «ridikulua egiteaz ez izan beldurrik; ipui antzerakoa zer diteken, bakoitzak atera kontuak ipuia besterik ez den munduan» Mundu hontan nekez lortzekoa: eskubide neurrien sena. Zeren, maiz, zibilizatuenak direla uste dugunak heurak egiten bai dituzte ridikulurik handienak, eta axola gutikoak lirake beti balira pekatu tipiak. Hara hor, begi guztien aurrean, beren nortasunaren jabe direla usterik, argentinarrak eta inglesak elkarren balentriak frogatuz, kosmos orekatik landa, zer nolakoak egiten dituzten Malvinas aldean, neurri bereko gizonak izanik. Behar bada, neurri berekoak direlako agertu dituzte beren balentriak aurrez-aurre. Horiek ere, on Maximok entzutea zuenez, laster egin dute zibila militarizatu, baiña ezin militarrik zibilizatu. Hor zituen on Maximok bere teorien zalantzak: ipui antzekoa ote? Hala bada, sar dadila kalabazan, baina ez dadila irten Otxandioko plazan.

1982. urteko maiatza.

BERRIZ ERE UNAMUNOREN INGURUAN

JUAN SAN MARTIN

Berriz ere Unamunoren inguruan eta oraingoa ere ezta azkenaldiz izango bilbotar pentsalariari buruz. Bere gogoetak hain maite ditudalarik ere, maiz gertatzen zait, maizegi behar bada, bere zenbait eritziren aurka jardutea, beti euskararen arazoa auzi dela, gure hizkuntza defenditu beharrak eskatzen duen neurrian. Izan ere, ideak eta auziak oraindik ez dira zahartu. Gorputz gehiago eta gehiegi hartu dutela esango nuke. Hala gertatzen zaigu, mende hontan Euskal Herrian sortuetatik mundu zabalean ospe handia eta hots gehien izan duen gizona dugunez.

Gure artean ere, Unamunok, behar zuen lekua egin du. Euskaltzaleon artean esan nahi dut. Agiri berezia izan genuen *Zeruko Argia* bera ere, sortze ehunurteburuan, Azkue eta Txomin Agirreri baino orrialde bat gehiago eskaintzez. Ohore bat? Hala dirudi. Dena dela, argi dago Unamunoren eragina eta kezken itzala zabalduaz eta sakonduaz dijoala erresuma guzietan. Jakina, euskararen aldetik Azkuek eta Agirrek ohore handiagoak dituztela, gure gogorako behinikpehin. Baina, Unamuno hor dago zutik eta erraldoi mundu guziaren aurrean. Beraz, ez ahantzi.

Unamunori buruzko saiakerak gogozko ditut; baina, egia esan, ez dakit nondik hasi ere. Alde askotatik jardun ditzakegu Unamunoz, eta jardunak jardun, ezin agortu berari buruzkoa, hain zabala denez bere itzala. Gaurko hontan, neurri handi batean lehen esanak berrituz, har dezadan anekdoten alderditik eta euskaltzale ikuspegitik.

Unamunoren arlo zabalak gaitz dira sistemazko aburuz juzgatzen, eta gainera, era askotariko paradojak haintzat hartzera, metodismoak zeharo hausten dira. Beraz, handik eta hemendik nahasian arituko natzaizu, irakurle.

Jainkoak, Jainkorik baldin bada, ez dakit nola juzgatuko zuen gure Unamuno, baina mundu hontako katolikorik gehienek sutaratu dute bere izena, hortan Jainkoari esku-hartzea den ala ez oroitu gabe. Horrelakoak dira ikuspegi hertsi baten begiramenez epaitzearen ondoreak. Eta, Unamunoz, bere obra irakurri ez dutenek ere, inoren ahotik entzundakoaz ari dira epai emaile. Baina, gizona juzgatzeko, gizona den aldetik ekin behar zaio, beste inondikako prejuizio gabe, obraren frutuak ezagutuaz. Era hortan, uste dut, Unamunogandik inork gaizki esatekotan, ateoak esan behar dutela. Unamunok konprenitzen zuen duda edo federik eza, baina zigortzen zuen gai horietarako axolarik eza. Ateotasunaren etsai borrokatua genuen. Valencia-ko estudiante gazte batzuei hitzaldi bat eman zienean, Jainkoa arrazoi bidez erakutsiaz eta eternitatea ukatzera hurbilduaz zijoala, ohartu zen entzule gazte haiek gerorik ezarena entzuteaz pozten zirela, eta, orduan, esan zien, bere iritziak zeharo aldatuz, nahi ta nahiez egon behar zela, mundu honek legezko juztizia beharrezkoa zuelako. Betiko ezer-eza zela tristeena. Eternitatearen ezer ez hutsa baino hobe zela betiko sua. Eta, hortariko hitz gogorrekin barreiatu zituen estudianteok.

Luis Martín Santos zenak, bere «Baroja-Unamuno» saiakeran (La Academia Errante, *Sobre la generación del 98*, 107 orrialdean) zion: «Unamuno es un erudito, es un hombre de gran cantidad de lectura, es un hombre que domina un amplio bagaje de conocimientos filosóficos, literarios, etc.»... eta aurrerago jarraituko zuen: «Unamuno, en lo más fundamental de sí mismo, es un hombre religioso, un hombre atenazado por la preocupación religiosa». Zein urruti dauden gure arteko batzuen iritziak.

Lain Entralgo-k egin zion biografian dionez —Unamunok berak kontatua noski—, Primo de Rivera-k herbesteraturik gure filosofoa Paris-en zegoela, joan omen zitzaion Blasco Ibáñez idazlea eta honako hau proposatu: erlijioeri buruz horrebeste zekielarik, joan zedilla Ipar-Ameriketara eta han «seta» edo erlijio berri bat sortu; gaurko izateari egokiago zetorkiona, ta bere izenaren ospea betikotasunera eramanaz, era askotako ondasunak izateko bidea zuela. Unamunok ez omen zuan bere ahotik hitzik

atera; beste gabe, paparretik oratuta kalera atera omen zuen. Bere gizontasunak ezin zuen oinarri faltsurik finkatu. Gaiñera, egintza hortatik agiri zaigu, ez zela askok uste bezala, bere izenaren goresmenak betikotasunean jarri nahi zituena.

Uste oker asko izan ditu bere buruaren kalterako. Espainian, izan ere, ez da gehiegi sustraitu, oraindik ere, filosofia kritika. Jakintuntzat joten ditugunak ere ez daude hortarako behar bezala gertatuak, ta iritzi okerrak, iritzi ustelak aisa zabaltzen dira bazterretan. Dugun egoeran Unamunori onik egingo ez dioten iritziak. Hala holako aburu arinak. Horrelako iritziak adierazten digute beste gertakari hura ere. Behin, Unamunoren okertasuna era zuzenetik ulertu ez zuan bat, usterik don Migel ateo burrukatua zela; kontatu omen zion Jainkoaren aurkako eztenkada bat, pentsaturik parre eragingo ziola. Bukatu zuanean, isillik eta serio gelditu omen zen bere betaurrekoen atzekaldetik begira, ta handik une batera esanez: «Zeuk esango didazu noiz irri egin».

Horrela zen Unamuno heterodoxoa, sinisgabeen etsai burrukatua.

* * *

1960-ko udaran, Alpes mendietako Les Bossons inguruko errefujio batean arkitzen nintzan, atzerritar artean, bakarrik. Ater gabeko ekaitzak zerua-goibel eta elurra maiz zekarren. Han arkitzen ginenok, behera egitea nekeza genduen eta gora ezina. Egoera horretan neramazkin hiru egun. Laugarren egunean, Grands Mulets-ko errefujiotik heldurik, amerikano bat sartu zen. Nungoa zen esan zuenean; gazte batzuek esan zioten han geudenetarik hirugarren kontinentea osatzen zuela. Orduan galdetu zuan ia nontarrak zeuden eta frantsez gazte alai harek jarraitu zion, geuden bakoitzari apuntatuz: alemanak, holandresak, suizoak, italiarrak, argelinoak (ta neri apuntatuaz) espaiñola... Eta, entzuteaz bat zuzenean etorri zen neregana, ta Cuba aldeko erdera batean galdetu zidan: «Espaiñola ahal zara?» Esplikazio gehiegirik ez ematearren, «bai», erantzun nion. Eta, berak: «Baina, Frantzian edo biziko zara noski». Ezetza agertu nion. «Baina, posible ahal da Espainian alpinismoa egitea? Han bai ahal da zezenak eta fobailletik aparteko deporterik?»

Orduan behartu nintzen ihardespenez esplikazioak ematera: «Espainian ere bada alpinismoa. Ez asko, baina bai zenbait tokitan; baina Espainia zeharo desberdina da alderdi batetik bes-

tera. Han, toki batzuetatik beste batzuetara, Europako mutur batetik bestera hainako aldeak daude. Ta ni naizen aldean, iparraldean, anitz mendizale da». «Eta, zelan deitzen da zuen alde hori?», galdetu zidan. «Euskal Herria (Pays Basque edo Vasco)», erantzun nion. Orduan ikaragarrizko erreberentzia egin zidan: «O!, Unamuno handiaren lurra. Unamunorena! Beraz, haren herritarra zaitugu». «Ba, bai. Ta, gainera Unamuno zalea». Bera ere Unamuno zalea zela esanaz jarraitu zuen. Bere idazlerik maiteena noski. Ta Bibliaren ondoren gehien irakurrita zeukan liburua *Del sentimiento trágico de la vida* omen zuen; lau aldiz inglesez eta behin batean espaiñolez. Filadelfia-ko estudiantea zela, eta han, Unibersitate hartan, bazuela maisu jakitun bat Unamunoren lanak zehatz ezagutzen zituena, beragan Unamunoren alderako zaletasuna txertatu zuena. Baina, lehen aldiz ezagutzen zuela Unamunoren herkide bat.

Egun haretan berandura arteko alkarrizketa izan genduen. Hark uste zuen Unamunoren herritarrok bere obra guztia ezagutu ta maitatu behar genuela. Baina irakurle euskaldunok dakizutenez, hemen ez da holakorik. Pena handia eraman zuen hemen Unamuno, askoregandik gaizki ikusia zela esan nionean. Hala ere, pozten zen lehen herkidearekin topo egitean Unamuno zalea arkitzeaz.

Harentzat, Jainkoan ondoren, gizonen artean lehendabizikoa zan Unamuno. Eta solas luze haietan aztertu ederrak eman genituen bere pentsaerari buruz. Baita ere berak baztertzeko eskatzen zuen euskarari buruz ere. Harritzen zen, amerikanoa, euskaldunon hizkuntza oraindik bizi zela jakiteaz. Bai, zorionez; eskubide guztiak galeraziarren. Esaten nion, katuak haina bizi zuela gure euskarak; aintzina latinak menperatuaz, bere estutasun guztian ere latinak baino gehiago iraun duela.

Biharamunean, ozkarbi zen eta goizean-goiz atera nintzen Mont-Blanc-erat. Bigarren egunera itzuli nintzanean, joana zen errefujio hartatik, eta pena hartu nuen; zeren Espainia alderat etortzeko asmoetan zenez, pozik emango nion bizpahiru egunetan gure etxean ostatua, Unamunoz mintzatuaz bere herriko lurraldeak ezautarazteko Baina gauzak bestaldera irten ziren. Gaur, bere solas-eztitsu gogoangarriekin batean, Unamunok mundu zabalean duen itzalaren oroitza gelditzen zait. Bada zerbait.

* * *

Horraitiok, gure artean ere dena ez da izan Unamunoren kontrakoa. Eta, asko ta askok ez konprenditzea ere ez da harritzekoa. Beren buruak pentsalaritzat dituzten anitzek ere ez bai dute zehatz ulertu bere pentsaera. Gehiago da, Pio Baroja berak zion Unamunoren heriotzean: «Ya después de muerto, sin el brazo poderoso que sostenía el armazón de su obra, ésta se desmorona». Baiña ez zuen igarri. Hori gainera, Baroja bezalako batek jakin behar zuela heriotzaren inguruko misterio-kezkak gizonak bere muinetaraino sartuak daramazkiala, eta Unamunok kezka hoiek dituela bere pentsamenik sakonenen inguru. Eta, urteak igaroaz haunditzen dator, zabalduaz eta sakonduaz, Unamunoren irudi intelektuala; batez ere *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo*-ko Unamunorena.

Gure euskaltzale inguruko giroan lehenengo ezagutu nuen Unamuno-zalea, Isidoro Fagoaga izango zen noski, Berak argitaratzen zuen «Gernika» aldizkarietan eman zituen zenbait berri, geroago *Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos* (1964) liburuan bildu dituenak. Behar bada, lehenengoko euskaltzalea Unamuno maitekiro tratatu zuena.

Geroago Txillardegiren hitzaldi bat ere ezagutu nuen, *Unamuno eragille* izenekoa (ikus, *Egan*, 1957, 3-4). Han esaten zuen: «Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztutzerik, eta alde batera ala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukeritan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, eta berari eskerrak arkitu degu askok gure burua».

1958-an argitaratu zen *Unamuno ta abendats*, euskaraz Unamunori buruz egin den lanik onena. Gaiñera euskeraren aldetik eta Euskal Herriko semea zen aldetik begiratuta egindako saiakerak. Egille bezala, «Iñurritza» izenordearen azpian Salbatore Mitxelena zena gordetzen zen. Argitara bezin azkar nahi nion hemengo aldizkariren batean erreseña bat egin, baina beste giro bat zegoenez, ez zan posible isilpe antzera atera zen liburu hau aipatzea. Ta, hara hemendik ere gure artean kultur gaurkotasuna lortzeko edo girotzeko trabak. Amaika holako gerta zaigu gure belaunaldikoei. Gaur ordea, berandu da bertako irizpideak aztertzen hasteko. Hala ere, bertako orrialde anitzek freskura ederra dakarte euskeltzaleon hesi estu honetara.

Esate baterako, hara zer dakarren 21-garren orrialdean: «Unamuno'ren euskaltasuna ta eusko-zale iritziak sakonki aztertu nai ba'dira, eztugu aski arek gu'ri buruz berariz ditugun liburu gutxi

batzu oiek irakurtzea: *Paz en la guerra, De mi País, La cuestión del vascuence...* Oetan ez bezin sendo ta jator nabariko dizkiogu beste enseiu nagusien'otan: *Vida de Don Quijote y Sancho, El sentimiento trágico de la vida, La crisis del patriotismo, La crisis actual del patriotismo español, Más sobre la crisis del patriotismo...* ta beste abarretan».

Are gehiago 50-garren orrialdean: «Ta onatx emen, yadanik, irakurle erabera, *Del sentimiento trágico de la vida*'ko etnika xurgatzen asmatzeko araua, euskaltzaleontzat urrezko araua nik uste, ziurkienik inortxok ez emana, baña baitare euskal biotzentzat benetan unkigarri bezin anpagarria, ta, aldi berez, gure «gogape»-albistariaren euskal-sustraiak sumaraziko lizkizukena: Unamunok diñon bakoitzean: «ni ta ni», zuk irakur: «gu ta gu», eskubide duzunez; edota Euskalerri zarrari entzun aldarrikatzen: «Ni ta Ni».

«Bilbotarraren euskal-muñ izkutu sendoa jo nai dunak zuzen bait-luke fede auxe eramatea aren liburuetara, ok irakurri al izatekotan: auxe, alegia, batez beste: Euskalerri berberaren agonia dugula Unamuno'rena, ta aretxen Egia, ta aretxen Miña, ta aretxen Eroa, ta aretxen Ezilkor-gosea.»

«Ta baitare, geienetan edo ia beti, Unamunoren Españia geure Euskalerri berbera dugula, ari gainka eta ernalka, bere euskal buruaz eta izenaz ia erabat aztutzeraño.»

Unamunok holako hitz gozorik ez zuen jaso inoiz euskaltzale bategandik. 1918-an Oñatin egin ziren Euskal Jakintza Batzarretan ez zuten lekurik izan ez Unamunok eta ez Barojak, naiz ta hara deituak izan ziren asko ta asko euskara eta Euskal Herriaren etsai ikaragarriak izan, geroago argi ikusi zen bezala (Une hontan Esteban Bilbaoren hitzaldi hura datorkit oroitzapenera). Hara nortzuk joan ziren ikusirik ez da egiztatzen Unamuno ta Barojaren euskara ta euskal-kulturagana maitasunik eza. Bi hoiek, hara joan ziren askok baiño meritu gehiago zuten hordurako ere; ta geroztik ez ziren agertu han izan ziren zenbaitzuek bezala, zapaltzaile, ta bai ordu larrietan laguntzaile. Unamunoren heriotza holakoa izan zen gorputzez mainku eta buruz mainkuago zen Millan Astray hark gu bezalakoak, espainoltasunaren aurkakoak, guztiok tiroz hil behar ginela erran zuanean. Momentu hartan bere bizia arriskuan jarririk defenditu ginuzen. Berdin Barojak Valladolid-go *speaker*-ak esan zuanean gure dialektutxoan mintzatzera gehiago ez zela inor ausartuko: «¡Qué categoría

más cómica! El dialecto, creo yo, es una de las variedades de un idioma. El francés, el italiano y el español son históricamente dialectos del latín, es decir, hijos del latín... Del vascuence no se conoce su ascendencia; decir que es un dialectucho es una necedad para un arriero de la Mancha o para un vendedor de botijos de la sierra de Cazorla». Ta bestalde, E. Bilbao-k bezala gure alde hitz egokiak esan zituenak, gero zigorra.

Unamunok ez zuen izan gure mintzaira ta gure herriaren alderako gogo onegirik, baina gureganatzen baino guregandik uxatzen gehiago alegindu zirela esango nuke.

Ideen aurrerapenezko iritzietan salto haundia eman zuen S. Mitxelenak, batez ere Unamunoren lanetarik *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo* orandik indizean zeuden denbora haretan. Gure praile liberalarentzat ohore haundia da.

* * *

Baina, Unamunori buruz, zer iritzi dute erdaldunek? Orotarik noski; baiña, ez beti hemengoekin bat datoztenak. Euskal Herria ta Gaztelania biak batera maite bazituen ere, han ere ez zeuden guztiak kontent.

Ikuspide bikain bat da «*Este donquijotesco / don Miguel de Unamuno, fuerte vasco, / ...*» asten den A. Machado-ren poema. Baiña beste poeta bat datorkit orain burura; gerotikoagoa eta aburu berriz ari dena: León Felipe. Ta, bere esanak bai ez direla gurina ta eztia.

1966ko udaran, «Indice»k (219-220 zenbakia), Manuel C. Santonja-k León Felipe-ri egin zion *interview* bat zekarren, ta beste zenbait gauzaren artean Unamunori buruzko iritziak. Hau zion L. Felipek: «Mira, yo me siento molesto con don Miguel. Estoy releyendo su *Vida de Don Quijote y Sancho* y me indigno. Claro, como él era vasco nunca entendió a Cervantes. No, señor. Además le envidiaba terriblemente ese precioso castellano fluido, que corre. Los vascos nunca han podido dominar el idioma de Castilla y además carecen de sentido del humor.»

Horrelakoak ziren Quevedo ta beste zenbait erdal-idazlek esaten zituztenak denbora haietan ere, erregeen sekretario edo bestelako idazle ta kaligrafo ziren hemengo semeegaitik. Exenplu

asko dakarzki Legardak bere *Lo «vizcaino» en la Literatura castellana* liburuan. Ez legoke gaizki horrelako aburuekin bildumazko liburu bat gertatzea, hemengo euskaldun erdalzaleen lotsarirako. Ordua da izatez euskaldun diren hoiek beren jatortasunetik lantzea, norperarena ahuldu eta besterena aberastutzen jarraitu gabe.

Vida de Don Quijote y Sancho. León Felipe-rentzat mingarria bada ere Salbatore Mitxelenarentzat bestera da. Ez baita berdina hango batek ikusi edo hemengo batek ikusi.

Baiña, ideak alde batera utziaz, Unamunoren erderaz errazoia ematen diot León Felipe-ri. Erdeldun batek juzgatu behar du erdera. Hemengo askok uste izanarren bertako erdera bezin onik ez dala egiten Espainian, ni ez nago horretan. Gaztelerak Gaztelania bere kabi, ta alde hortatik heurak dute hitza. Baiña euskal umorea juzgatzeko ez dut uste L. Felipe denik gizonik egokiena. Bera ez baita gauza hemengo barne-muinean sartzeko, euskararekin jabetu gabe. Gure auzoko Plaentzia haiñako herri umoretsurik nekez arkituko da Espaiñia guztian. Eta, ziberutarrek ere ez dira atzean gelditzekoak. Hortik aparte, Pio Baroja urte askoan bizi izan zen Río Tinto aldean eta hark zionez andaluzak ez omen zuten euskaldunak bezalako umorerik. Jakiña, mailla honetan esan behar da Pio, Serafin Baroja euskal idazle umoretsuaren semea zela, eta dudarik gabe Unamunokoak baino anitz gehiago zekiala euskal umorearen berri, ta ez gutxi bere barnean, aitagandik kutsatua edo. Ta zer Pernando Amezketarra?

Ikusten danez, bakoitzak, berari gerta zaizkion edo dagozkion bezala kontatzen ditu gauzak. Ta Unamunoren umorerik eza ez da adibiderik prestuena hemengoak duten ala ez duten juzgatu ahal izateko.

Baina, hala ere, hizkuntzari buruz, lezio ederra da Leon Felipek hemengo idazle erdeldun ta erdelzaleeri ematen diena.

1967ko urtarrileko «Insula»k (254 zenbakiak) ostera, Leon Felipe beraren beste elkarrizketa bat dakar, Maria Enbeitakin egiña. Gogozko zaidan poeta honen jardunak atsegingarriak zaizkit berak hemengo gauzak gogozkoak ez izanarren ere. Guk beti dugu heurak baino parte hobe bat; gu sar gaitezke beren munduan, eta ez beraiek gurean. Ez da azaletik ere, zeren iñoiz ez bai dira gure gauzak seriotasunez, ta batez ere maitasunez estudiatzera jarri; ta guk heurenak bai, eskolatik harat, nahi ta nahi

ez, gaztelera ikasi beharra izan dugunez eta beraiek inoiz ere ez euskararik.

Solas hortan hara zer dion: «¿Y tú te llamas María Embeita? Te voy a llamar María. Todos los apellidos sean vascos o ingleses me molestan.» Ez da hori gertatzen zaion erdeldun bakarra, eta behar bada hortik ere baditu bere sustraiak gure mintzaira ondo ikusia ez izateak. Baita ere juzgaduetan euskal izenak horrenbeste gorrotatzeak. Ongi probatua nuen esperientzia hauxe ere. Karanba! Ez da gero erreza euskaldunok umorea gordetzea. Baina hala ere...

Eta, Leon Felipe-k, alkarrizketa hortan ere berriz zion: «Don Miguel era un vasco que se había empeñado en escribir bien en castellano. Era un gran filósofo; sabía mucho: griego, latín..., manejaba muy bien el hexámetro griego. Pero quería escribir con la naturalidad, con la gracia, con el ritmo, con la magia de un castellano...» Eta, aurrerago, berriz hau esaten du: «No aprendió nunca a hablar castellano. Esto no les gustará a los eruditos que lo diga yo, ¿verdad? Yo traté mucho a don Miguel... No tuvo el ritmo ni la magia del castellano. Se le veía siempre la mecánica del hexámetro. Estoy hablando como un gran profesor, ¿no?, y va a parecer una blasfemia, pero don Miguel no tenía gracia. Ningún vasco tiene gracia». Hau esatean, jakiña, Leon Felipek ez zituen gogoan izan Amezketarra, Serafin Baroja, Xenpelar, Txirrita, Urruzuno, Manezaundi ta abar. Euskaldunok euskeratik kanpora graziarik ez izatea ez da harritzekoa; hori ez da axola zaiguna ere. Herriak mintzaerak bereizten ditu gehien bat, eta inglesak eta frantsezak ere grazia gutxi dute espaiñolentzat, guretzat heurak haina, hor-horren baten. Baina, batez ere, hemen grazia gutxi egiten digutenak, ta hemen bai Leon Felipe-rekin gaudela, hemengo euskaldun eta «euzkotar» erdalzaleak dira, L. Felipek irakurri ahal dituen hoiek; baina, hala ere, derrigorrez aguantatu beharrean arkitzen gera, gernua ontzitik kanpora egiten diharduen hoiek.

Hortik aparte, Leon Felipek ez zituan maite «Generación del 98»koak. Beren artetik, gizon bezala, begirapenik gehien Pio Baroja'ren alde bazuen ere. Gaizki portatu zirala dio. Ta seguru asko ez du errazoi faltarik. Gazteri guztia liberalismora bultzatu ondorean eta Espainia burruka bidetan jarri ondorean, egizko ordua iritxia zenean, dezisio sendo bat hartu behar zen orduan, heurak eskuak garbitu zituztela ta... Baiña, hemen ere, ikusten

denez, ez du gogoratu nahi izan Unamunoren azken profezia: irabaziko duzute baina konbentzitu ez. Ta, hortarako ere, une haretan, umorea edo zerbait holako behar zen, ta ez gutxi gaiñera.

Dena dela, «98»koak mugimentu eraginkor bat sortu zuten, gauzak alderantzi zituzten, Espaiñia lokartua martxan ipini zuten. Ta mugimentu horren eragintzaileen artean zer ikusi haundia izan zuten Euskal Herriko intelektual batzuek.

* * *

Unamunoren «ni ta ni»kin, «gu ta gu» biurturik argitaratu nuen lantxo bat *Zeruko Argia*-n «Euskaldun zertako?» izenez (ikus 209 zenbakia, 1967-ko otsaillaren 26-koa), Azurmendi adiskideari gutun ideki lez egin nuen, ta berriz ere esan beharra dut Joxe Azurmendi «Unamuno-zale» jotea aitzakia bat besterik ez zela, ideok agertzeko; eta ez berari min ematearren. Ondotxo dakit Azurmendik, nik bezala, Unamunoren pentsamentuak ez dituela maite euskarari buruzko irizpideetan, baizik gainerako filosofian. Eta gaiñerako pentsamen filosofikoetan ere, ez bera eta ez ni, ezin gindezke danean Unamunorekin bat etorri.

Orduan esaten nuen oraindik inundik ez zuela izan erantzun sakon-sakonik Unamunok euskarari buruz eman zituen iritziegatik. Baiña orain beste gauza bat da. Orduan argitara berri zen Martin Ugalderen *Unamuno y el vascuence* (Buenos Aires, 1966), baina oraindik hemen zabaltzeke. Taxuz egindako saiakera. Bertan, lehenengo aldiz erantzuten zaio Unamunori behar dan bezala. Unamunoren eskariz euskara baztertu beharrak lehendabizikoz arkitzen du oztopo nagusi bat. Hemendik aurrera, Unamunoren iritziekin euskararen kontra jokatu nahi duenak, nahi ta nahiezkoa du Ugalderen lana ere bereziki aztertu beharra.

Hori, gainera, nere irudiz, bere agiri ugarietan ez dela gehiegi baliatu zenbait eskubide berezikin. Zeren ez da berdina gizon batek esana edo munduko interesen alde sortuak diren alkarte neutral batzuena. Hau da, esate baterako, Ugalde ez da behar bezala baliatu ONU-ren *Munduko gizonen eskubide agiria*-kin (1948), ez da *Unesco*'aren *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* (1953), ez da ere *Pacem in Terris* (1963) agiriak hain garbi ta zehatz jarri zituzten errespetatu beharrezko agiriak ziotenakin. Agiri hoietan esaten direnak ez dira gizon

soil baten esanak, erakunde batzurenak baizik. Eta, erakunde bezala, aurraz soziologo, hizkuntzalari ta irakasle ekipoak egindako estudioak dituzte oinarritzat. Unamunoren usteen kontra joateko ez ziren hain beharrezkoak, noski; baina bai gure mintzairaren alderako euskubideak non-nahi eskatu ahal izateko. Gaurkoz, agiri hoiek bai ditugu gure mintzairaren alde jokatzeko armarik onenak. Ez dira guk esanak, baizik munduan hortarako jarriak dauden erakundeenak, nazio bakoitzaren interes partikularraren gainetik daudenenak, eta mundu hobeago bat lortu nahirik egiñak. Itsu ta gor azaldu nahi dutenei ere nolabait adieraztera heldu beharrezko agiriak.

Norbaitek esango du gehiegi begiratzen diodala hizkuntzaren alderdi honi, baiña nik uste argi ta garbi jarri beharrezko gauza dela; zeren, euskararekin jarraitzeko errazoirik ez badugu, orduan alperrik gabiltza.

Unamunok dionean: «La sangre de mi espíritu es mi lengua y mi patria es allí donde resuena soberano su verbo»... Eta beretzat hizkuntzak horrelako garrantzia bazuen; zergaitik ez guretzat?, galdetuko dio Ugaldek. Orain amaika urte esan nuenean, «Euzko-gogoa»n, euskera zala nere aberria, ez nekizkin Unamunoren zenbait esan-gura, ta orain ikusten dut bat gatozela; berak erdera bezala nik euskara ikusita. Nik uste euskarari bilatu nizkiola gun hoiek, berak gaztelerari bezin ongi, eta behar bada, Leon Felipe-ren aburuak bere esate juxtuan hartuko begenitu, ez jakin bakoitza bere bidean nor gehiago guneratu den. Erderagaitik hainbeste arduratu zen Unamunok ez bai du erdaldunen begirapen onik.

Unamunok, bere tesis doktoralean, *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* (*Obras completas*, t. VI, 85/142 orr.) hizkuntza soila arkitzen du, euskera hutsa, bestelako jatorrizko kulturarik gabea, eta ez da hori egizkoa, zeren gure literatura landua (kultista) hain ona ez bada ere, den txikian ere, gure geurea izatez gainera, gure herri literaturak ez dio zorrik beste hizkuntzetakoeri. Baina, ahozko herri literatura hau ez zuen ezagutzen Unamunok, edo arintxo ezagutzen zuen eta ez zuen behar haina baliatu. Ugalde bera ere ez da baliatzen hontaz, bere liburuaren bosgarren kapituluan azkenaldera gauza honi ikutzen dionean: «...el lenguaje es uno de los elementos más importantes de la condición humana de la gente»..., «el respeto a la lengua es de alguna forma el respeto a las gentes mismas,

y su irrespeto es irrespeto para ellas. Los recuerdos de sus antepasados están atados a su lengua. Su poesía está en su lengua. Sus ideas y su moralidad y justicia están expresadas en su lengua». Eta puntu honetan gogorazi behar zuen gure herri literatura, gure kanta zaharren aberastasuna, garbi ta zehatz adierazteko hizkuntza huts bat baiño gehiago dela, ta alde horretatik Unamunok zuen ezjakintasuna ez da euskararen erruz. Berak, gauza hoiek esan zituanerako, mundu guztiak baliatzen zuen edonongo herri literatura egile ezagun ospetsu edo *élite*-ko literatura landuaren mailan eta inoiz gorago ere bai. Kulturazko literatura landu hori edozein hizkuntzatan egin daiteke eta egiten da, baina aitzinatiko erroetan oinarritzen den herri literaturak aspaldi eginak diranez, herrien eta hizkuntzen bereizkuntzak handiagoak ditu. Ia, hizkuntza pentsatzeko tresna danez, herriaren pentsatzeko egiturak garbiago gordetzen ditu herri literaturak Beiñipein, gurearen balioa hor dago; baiña, berak ez zuen ikusi; ta ikusi ahal izateko beste prisma batetik begiratu beharra zuen Unamunok, berak inoiz behar bezala menperatu ez zuen euskararen prismatik noski. Baina, hizkuntzaz, jatorrizko euskara galdurik, erdera txertatua hibridoa izaki. Eta, hemen zegoen Unamunoren kakoa, Unamunoren prolema nagusia.

Unamunok uste zuen alkarrekin eraman eziñezkoak zirala kultura berria eta euskara zaharra. Eta kultura berriarekin jabetu ahal izateko eskatzen zuen, bere *La cuestión del vascuence*-ko hitz-jario luzeetan, euskara baztertzea. Nere ustez, txarrenean ere, batertzea baino hobe da behar duen mailan gaurkotze hortara igotzen laguntzea; zeren, baztertzearekin geure nortasunik bereziena galtzen bai dugu. Uste horrekin jokatu izan balute gure aurretikoek, latiña bere indarrez Europa guztian zabaldu zanean, ta bere bultzadari amor eman, gaur ez zen euskararik izango, ez euskal deiturarik, ez Euskal Herririk. Gaur ez ginek euskaldunak izango eta behar bada ez da «vascos» ere. Gure nortasunaren bereizkuntza guzi hoiek mintzairatikakoak ditugulako. Eta, non da orain, denak menperatu behar zituen latin indartsua? Auskalo!

Euskarak estudioetarako haurreri kalte egiten diotela uste duten beste arinkeri horiegatik hobe da ezer ez esatea. Unamunok ere, bere euskararen kontrako indar guztietan ere ez zuen holakorik aipatu. Umeeri eskolarako euskerak kalte egiten diotela uste duten guraso guztientzat, hori hola izatera, Eskandinabia, Suiza, Alemania eta Rusia-ko parterik gehienetan denak

tontoak izan behar ziren; baiña ez da hori gertatzen, baizik, bestalde, haurreri gutxienez bi hizkuntza irakasten dioten herri haiek direla munduan aurreratuenak. Eta, ia zenbat jakitun ezagutu ditugun hizkuntza soil baten jabe bakarrik direnak. Eta, gizonik jakituneneri trabarik ez egitera, nori kalte? Ez guri. Gainerako Espainiak guk baino askozaz ere gizon jakitunagoak eman behar zituen gauza hoiek egiak balira; baina ez da horrela gertatzen. Holakoak ere asmatu zizkiguten. Baina, gogoan izan holako astakeriarik Unamunok ere ez zuela haintzat hartzen.

Beste batean, Unamuno, «solidaridad humana»ri buruz mintzo zenean (ikus Ugalderen liburuaren 178-garren orrialdean), badirudi euskaldunok geu izateari utzi behar diogula mundukoak zintzo izateko. Hau ere ez da astakeri makala! «Solidaridad» (= elkartasuna) beharrik ez dago guztiok berdinak bagina. Elkartasunak, berak esaten du ez dela batasun monolitikoa. Beraz, jakin beza «solidaridad» guztion artean egitekoa dela, euskaldunok euskaldun izatetik gainerakoei elkarturik osatzen den gauza; besteak heurak izanaz gurekin elkarturik. Zeren Unamunok esaten duen erara ez baita elkartasuna (=solidaridad); baizik, «lotutasuna» (=sometimiento); inperialismoa bera, nahiz lur edo nahiz hizkuntzarena.

Ugaldek 204-garren orrian jartzen dituen hitzak, Wyn Griffith-ek gales idazleeri buruz esan zituenetarik hartuak, argi ta garbi ipintzen dute herri batentzat hizkuntza zer den: «La poderosa fuerza que los mueve hacia la creatividad en su propia lengua, no es ni raro ni artificial. No surge de una simple determinación de ser diferente, sino de una convicción de que de ninguna otra manera ellos pueden ser enteramente ellos mismos».

Pániker-ek bere *Conversaciones en Cataluña* liburuan José María Espinas katalan idazlearen ahoan jartzen duena oso ongi dator kasu honetan: «Katalanez idaztea suertea da —dio Espinas-ek—. Katalan idazleok suerte bat dugu, munduko beste idazleek ez dutena; zergaitik burrukatu badugu: gure lurra. Hau, ez da gertatzen beste herrietan... (nik esango nuke gurean ere hala behar duela). Nik ez badut gaztelerak idazten, ez da askok esaten duten bezala, sakrifiziozko ispirituagaitik, ez. Hau problema ez ezagutzea litzake. Besteekin adierazi ahal izateko nik edozein hizkuntza erabili nezake; baiña sortzeko (ideak kreatzeko) nere hizkuntza bakarrik erabili nezake. Hizkuntza ideen sorketaren iturburua da eta ez bestaldera». Noiz konturatuko dira

euskaldun izanik erdal idazle ditugun hoiek? Ordua da konturatzeko beren jokaera kaxkarra dela eta beren herriaren kontrarakoa. Gernua ontzitik kanpora egiten ari diren txepel hoiek gure arimaren indarrak murrizten ari dira.

Gehienetan esan ohi da euskaldunak ez dakitela euskaraz irakurtzen, edo oraingoz ez dugula euskera orokor bat euskaldun gehieneri era berean adierazi ahal izateko; baiña hori lortzen alegindu behar gara, eta ekintzatik lortzen ez bada, beti leku berean geldi jarraituko dugu. Fedeak obrekin behar du, ta euskaldun izanik erdera hutsean idazten duena ez da euskaltzalea, ta gutxiago egiazko abertzalea. Euskaldunak euskaraz irakurtzen ikasteko eta beste euskalkiak ezagutuaz gure literaturaren giharraren berri jakiteko, zorionean hasi ziren euskaldunen alfabetatze kanpainak. Erderaren bidez euskararen alde mintza baino hobe dugu euskara bera bakoitzak bere baitara landuz erabiltzea, zein mintzatzean ala idaztean.

Beti erderaz idazten duen euskaldun euskaltzaleren batek min hartzen badu, usterik beragaitik ere ari naizela, errazoia du, hala da ta.

Erderarekin eta erdera landuaz arrotu zen Unamuno gurea; arestian aipatu dugunez, aza onak jaso ditu León Felipe bategandik. Ikusia dago hobeto gaudela geronetik, geron muinetik kultura landuaz hobeto goazela.

M. Ugalderen saiakera liburua berriz, erderaz egotean hobeto dago, ze, euskaldun euskaltzale konbentzituak ez dituzte beharrezkoak bere saiakera hortako esanak, baiña bai gaiñerakoak etxe ta kanpo, auzi hoiek beregan direlako. Ugaldek taxuz eta helburu batera begira agertzen du bere lana. Ez ditu gauzak askaturik eta nahasmenduz uzten. Azterketa sakona da.

Unamunoren jokaerak gauza asko ditu konprenitu ezinezkoak. Behar bada bere amorrazioak zituen euskara behar bezala ez sakontzean, ez menderatzean.

Baita ere bada bestelako errazoirik, ta hau ez duk uste Ugaldek ondo ikusi duenik. Unamuno ez zen «garbizale» hoietakoa, ez zitzaion gogoko hitz berririk. Beretzat, euskarak, bere kolkotik behar zuen, eta bera euskaltzale agertu zan une haietan Bilbo aldeko giroak bestera ziren. Hango neolojismoak ez zuten akaburik, eta horren kontra egona zen. Beraz, alde horretatik, Unamunok ez zuen arkitzen bere gogozko girorik bera bizi zen inguruetan, eta erreakzioz beste muturrerat zijoan.

Era berean gorrotatu zituen Chaho ta Navarro Villoslada'ren ondoren sortu ziren gezurrezko historiak (ikusi *Obras Completas*, t. VI, 135 or.). Faltsua zeritzan guztiaren aurkakoa zen, eta gauza faltsurik aski arkitu zuen gure alorrean. Aipatzen dedana, Madrilen 1884-an doktoradurako tesisean dakar. Tesis beraren bukaeran dionez, oinarrizkotzak zituan gauzak estudiatzerakoan, gezurrezko bihurtu zitzaizkion. Eta ordutik, une hartatik hain zuzen, esango nuke bere lehendabiziko jokabidetik aldatzen hasi zela. Eta ez askok uste izan duten bezala, 1888-an Bilboko euskal katedra irabazi ez zualako. Euskara baztertu behar zela, zenbait aldiz esaten bai du *Revista de Vizcaya*-n 1885-1886 urteetan argitaratu zituen «*Del elemento alienígena en el idioma vasco*» artikuluetan (ikusi *Obras completas*, t. VI, 143/167 or.). Kontu hau argi laga zuen L. Akesolok bere «*Dos notas autobiográficas*»en (*Boletín de la R.S.V.A.P.*, XXI, 57 or., 1965).

La cuestión del vascuence, euskara baztertzearen eskariz egindako lanik sakonena, askoz geroagokoa da, 1902-koa. Bere denboran, Julio de Urkijok, erantzun egokia eman zion *RIEV*-en, XI (1920), 72 or. Baina hura soil gelditzen zen eta Ugalderen *Unamuno y el vascuence*k bete du behar bezala.

Unamunok, bere iritzi nagusitzat, sentimentuak utzi eta arrazoi hutsa hartu behar dugula zion; eta arrazoiz, Euskal Herriak aurrerapen bidea jarraitu ahal izateko, euskara utziz. Baina, Villasantek ongi zion bezala (bere *Historia de la Literatura Vasca*, 342 or.), arrigarria da Unamunok hori eskatzea, zeren bere filosofian dionez maiz jarraitu behar dela sentimentu hutsez arrazoiaren kontra.

Luis Mitxelenak zionez, maitasunak errukituaz nahi zuela Unamunok gure euskararen heriotza horren besteko etsipen larria luzatu ez zedin, zein eta maite den bat etsipenean sufritzen ikusi nahi ez den bezala (*Gran Vía* aldizkaria, IV urtea, 140 zenbakia, 20 or. - Bilbao, 1959).

Nik uste dut, Unamunok, euskara ez zuela behar bezala benderatu eta euskaltzaletasuna ez zela bere barnean indarrez piztu. Bere kaxara ikasitako euskara, beti erdi-hillik bizi izan zen beregan, legortean landare maxkal bat bezala. Eta batetik, indarra emango zion iturburuaren faltaz eta gure «garbikeria»ren erotasunik biziena bestaldetik. Berak «terminacho» izenez bataiatu zuen giroak lagundu zuen bere barneko gartxoa itzaltzen.

Bestela harrigarria zen, Sören Kierkegaard bere errotik ezagutzearren danes hizkuntza ikastera behartu zenak, berea uztea. Konturatu behar zen edozein hizkuntak duela gaurko munduari zerbait berri eskaintzeko ahalmena, eta eskaintzen ez duenaren hutsa ez dagoela hizkuntzan, baizik bertako kulturadun gizonetan.

* * *

«98»koen adigarririk bereziena, erromantizismuak utzi zituen kutsuak kendu eta idea ta kultura-bideeri berritze eragina eman. Literaturan eta politikan era berritze bat ekarri zuten eta jakintza bideak aurreratuaz ikerketari ere bere giroa eman nahi zioten. Espainia bere lozorrotik iratzartu nahi zuten. Hemen, Unamunorentzat ametsak egi bihurtzeko lanean aritzea ere baliozkoa zen. «*De razones vive el hombre / Y de sueños sobrevive*». Esango zuen bere *Sobre la filosofía española*n. Eta ez dugu esan nahi sentimenak ez dutela ezer balio. Gehiago da, iñoiz, sentipenak gainez egiten dio gizonari eta bere burua lantzen du sentimenen eragiñez, eta igarri gabe sentimenarentzat arrazoiak arkituaz.

Baina inoiz ere ez gera ahaztu behar, Unamunok, bere izen haundia, bera mundu guzian hain entzutetsua izatea, bere jakituria bakana, hain zuzen ere, ez zituela euskarari buruz lortuak, baizik filosofo bezala, pentsalari bezala. Eta *Del sentimiento trágico de la vida* eta *La agonía del Cristianismo* liburuegaitik ezagutzen da mundu zabalean. Kierkegaard-ek ekin zion bideari gorakada eman zion, existentzialismoaren bideetara eramateko. Eta, alde hortatik beti izango du toki berezi bat munduko pentsalarien artean. Gaiñera, pentsalari bezala, «Generación del 98»koen artetik aipagarrienetakoa da. Horregaitik, gauzak ez ditugu alderantzi behar. Batean gizon handia izateak ez du esan nahi bestean ere hola izan behar denik.

Erlijio problemak ziran Unamunok gehien aztertu zituenak. Arrazoiaren eta sentimentuaren burrukaz, zalantzazko fede batean larri-mindurik bizi zelarik.

Eta, hor ere, baditeke, Unamunok, dudagabeko fededuna zalantzazko fede batera eramatea; baina, baita fedegabea dudan jartzea ere, Jainkoaganako kezkak larritzen zuen gizona. Dudaren kezka beharrezkoa iduritzen zitzaion.

Horregaitik, Santamariak, Unamunori katoliko aldetik begiratzen dio, berak aurrez horrela aitortuaz. Ez baita bide zuzena askok egin diotena, katoliko aldetik gizon bezala juzgatu (ikus *Zeruko Argia*, 84 zenbakia, 1964-ko urrillaren 4-koak, Unamunori buruz Santamaria, Artetxe, Lezo eta Etxaniz-en lanak dakarzki). Gizona den aldetik, ez dago ondo kritika alderdi batera begira egitea, berekiko irizpidea bakarrik dela egiazkoa usterik. Gaztaroan mistikaz grinatua zen gizonari ez dago gehigarririk zertan jarri. Ez zuen harek iñork esan beharrik nundik irtena zen, jo batera ta jo bestera zebilenean. Berak esana zen: «Nerekin ditudan pentsameneri hur ematen dioten liburuak ez ditut maite, uste dedalako, nik pentsatzen dedana bera esango didatela». Eta, egun batean Kierkegaard arkitu zuen, teolojiari buruzko gauza berriak esaten zituena eta beragana abiatu zen egi bila. Alemanez irakurtea nahikoa ez zuelarik, dinamarkarra ikasi zuen hizkuntzaren iturburutik hobeto edatearren. Ai! euskaran holako egileren bat arkitu izan balu. Baiña, guk gure pentsamenik eta irudimenik gehienak gramatikak, etimolojiak eta haueri ta neolojismoeri buruzko eztabaidetan eman ditugu. Indar hoiek testuko liburuen alde eman balira besterik izango zen.

Gauza hauegaitik, euskarari buruzko arazoak dira Unamunoren lanetarik gutxien haintzat hartzekoak. Bestelako pentsamena da, pentsamen teolojikoa mundu guztian bere izena ospez zabaldu duena. Askoz ere garrantzizkoagoa: betikotasunaren egarria; izan edo ez izanarena. Hizkuntzen gainetik arkitzen zuen problematika hau.

Behar bada, Unamunok, erlijio kezkak eta bere inguruko prolemak, erlijioaren kanpokaldetik barnera begira ikusi ditu, eta ez da harritzekoa barnekoak mindurik arkitzea. Hala ere, meditazione bide bat direla esango nuke.

Puntu honetan gure Nikolas Ormaetxea «Orixe» bururatzen zait. Beste norbaiti ere entzun diot; baiña, nik «Orixe»ri Unamunoren antz handia hartzen diot; eta ez biak burugogorrak zirelako, baizik «Orixe»k ere antzerako prolemak zituen, naiz ta erlijioaren barrukaldetik ikusi, eta inoiz barrutik kanpora begira. Behar bada, nik hemen aipatzen dudan «Orixe» gutxiago ezagutzen dena da. Ez «Orixe-zaleak» kementsu ezagutaraztera alegintzen diren *Euskaldunak, Aitorkizunak, Aditz lanak, Salmutegia* eta horrelako lanetakoa —guri sudurretatik derrigorrez sartu nahi diguten hoietakoa ez— baizik «Orixe» mistikoa; zeren

olerki-mistiko hoiek beste guztiok batean haina edo gehiago balio dute noski. Aspaldiko *Barne-muinetan* liburuari geroztik aldizkarietan argitaratu zituenak erantsirik, hor bilduma ederra «Orixe» ta euskal literatura goratzeko. Bestela, intelijentziaz ez jokatzea da, eta urteak aurrera ere Unamuno bezalakoei arrazoia ematea, euskaraz ezer baliozkorik ez dugulakoan.

Hauek dira Unamunoren inguruan nabaitu ditudanak. Filosofian, Unamunok, bere pentsamenekin, ez gaitu eramaten helburu ziur batera, ez dugu bilatzen absoluto segururik, bere nahia hori izanik ere; baina, zer pentsa eta zertaz kezka erakutsiko digu. Bere pentsaeraren zati asko atzean gelditu badira ere, oraindik ez da agortu. Eta, behar bada, gizonak inoiz ezingo duelako bere izatearen arrazoizko helbururik aurkitu, ez dago azken hitzik.

Kontradizioz beterik nabaitzen den Unamuno paradojikoak, *El sentimiento trágico de la vida* eta *Agonía del Cristianismo* ditu lanik nagusienak esistentzialismo gaian, eta landuenak hoiek dituenez, kontradiziorik gutien ere horietan ageri da. Hala ere, eztabaidagarriak dira, baina, gutienez, norperekiko pentsaeraz eta kontzientziaz jabetzera eta jokatzera bultzatzen gaitu. Pentsamenaren eta sentieraren arteko gogoeta iratzartzen digu. Esnatu ezik, ezin ba norperekiko barne-gogoa landu.

* * *

Lehenago erabili nituen gogoetok nahikoa atzeraturik gelditu zaizkit. Eta, oraingoan beste ageri batzuk gaineratu nahi ditut. Hala ere, behin eta berriz aitor dezadan, Unamunoren jakituria, bere ospe handia, erudizioz betea, bizitza beraren arrazoia bilatu nahirik urratu zituen pentsamenezko literaturan dagoela, esistentziaren filosofian. Hor, gure begiramenik onena merezi du. Baina, gauza baten jakitun zelarik beste batzutan ere hala behar zuela, batez ere igarle mailan, ezta gauza seriosa.

Unamunok, gaur egun, munduko erakunde nagusiak ez ezik gizarte eta linguistika berriaren aburuak ditu bere *La cuestión del vascuence* tesiaren kontra. Duela urte batzuk, euskaltzaleok kezkatuak geunden, gure gogoak eta gure ahaleginak zertan geldituko ziren ez genekiela. Ez bai genuen datorik herriak berak zer nahi zuen. Orduan, Euskaltzaindikoak arduratu ginen Euskal

Herrian ikerketa eratzen, herriaren baitan zer nolako gogoa zegoen jakiteko, eta Siadeko elkartearekin inkesta bidez lan sakon eta zabal bat ere burutuz: *Estudio socio-lingüístico del euskara*, eta horren laburpena besterik ezta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979an argitaratua) 1975era arteko egoera hartzen duena. Lanaren sarrera gisa, aldez aurretik espezialistek gertatua, *Euskararen liburu zuria*, urte bete lehenago agertua. Azterketa horien arabera, badirudi, Unamunok ez ziola igarri gure hizkuntzaren etorkizunari. Hor dago herri baten nahia, hor gizarte baten ustea. Berriz ere, argi nabari da, ezin garela izan unibertsalistak unibertsoko hizkuntza bat baztertu nahi badugu.

Bestalde, euskarak, hizkuntzarik gehienak bezala, soluzio politikoak behar zituen eta horiek bideratzen doaz. Esan beharra dago, politikaren mailan, euskararen etsaigoak ere bere lan maltzurra egiten duela; baina eskubidezkoa baldin bada zintzotasunez jokatzea, Unamunoren izena euskararen kontra jarri nahi dutenek, azter bezate *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* deritzan liburua. Hori baita herri baten gehiengoaren erantzun agiria.

Unamunorentzat gure hizkuntza tipiegia zela? Larriminaren kontzeptuen egileak ere hizkuntza tipia erabili zuen. Sören Kierkegaard gabe zer izango zen Unamunoren esistentzialismoa? Hara, hizkuntza tipi batean oinarritu zenak zer eman zuen. Izan ere, teoriaz, edozein hizkuntzak ditu zer-hartarako ahalmenak.

Gauza bat da kanpokoen harremanetarako beste hizkuntza zabalago bat erabiltzea, eta beste bat norperanean pentsatzea eta sortzea. Azken batean, gizona, borondate hutsa da, eta gogoan hartzen duen guzia egin ahal lezake, baita hizkuntzaz aldatu ere, eta baita ideal baten ondorean berea edo besterena landu ere. Dena da posible.

Mila arrazoi dira hortaz, baina zalantzarik ez duguna, zera da, egungo Europan gizona bi, hiru edo gehiago hizkuntza menderatu beharrean aurkitzen dela.

Baina, hizkuntzak, hizkuntza bakoitzak, kultur berezi bat du bere inguru, Unamuno ber berak ongi esan zuen bezala: «Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepto abstracto del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía» (*Obras completas*, t. III, pág. 765).

Unamunok euskara berea bezala hartzen ez bazuen, arrazoian faltarik ez zuen izango, baina prolemarik inon izatekotan beragan zegoen. Zeren, euskaldunok, gure bizitzako, ispiritualitateko, pentsatzeko, negar egiteko edo naiz barre egiteko, geure hizkuntzaz baliatu gara mendez mende, eta hizkuntzaren bidez gure aintzinako asabaren errueri lotuak gaude, ber berak ez zuen alperrik esan: «La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu» (*Ob. comp.*, III, 1081 orr.) Hizkuntzarekiko gun hori bai zen Unamuno maiz arduratzen zuena, arrazoi faltarik ez zuen izango, baina arrazoi bera jarriko genioke gure euskararen alde ere. Zer esaldi hoberik honako hau baino?: «Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales». (*Ob. comp.*, t. VI, 957 orr.). Baina, ispirituzko gauzak neurkaitzak ditugu. Era askotako eritziak atera genezazke ispirituzko arrazoietatik.

Unamunoren pentsamenetatik ere era askotariko eritziak jaso genezazke, zeren bere pentsamena zabala haina bide eta bidexka ugariduna bai ta. Horregatik, Unamunoren ideiak egungo politikaren jokoan baliatu nahia, ezta zintzoa, ez arrazoizkoa, ezta ere asmo garbizkoa. Kultur munduan zerbait dela uste duenak, horrenbeste badaki.

ONDARROA

(ABIZENAK)

AGUSTIN ZUBIKARAI

Euskal odol garbia igarri eta ezagutzen da Ondarroa'n erri legez sortu aurretik eta sortu ondoren ia gure egunakarte.

Emengo txertuak eta nasteak, emengo ezkontzak eta emaitzak, denpora luzetan, gizaldien gizaldietan, euskaldunak dira.

Erri maite eta odol garbiaren zaintzaille igarten da Ondarroa. Ogeigarren gizaldirarte erri euskaldun kutsu bagea odolez eta gogoz.

1550 garren urtean asten dira erriko liburuak, obeto esanda, eleizako liburuak bertan jaio eta bataiatzen ziranen izenak agertzen. Trento'ko eleiz konzilioak agindu eban bataiatuen nortasuna artzen joan eta liburuetan ipinteko. Erri liburuak ez ziran Registroa egiten asi 1876 urte arte.

Origaitik, gure erria ikasteko, guretarren joan etorriak ezagutzeko, Ondarroako jaiotzak ezagutzeko, eleizako liburuak doguz ziurrenak eta zeatzenak, eta egia esateko, bakarrak, gizaldi askotan.

1550 urtean amar ume jaiobarrien bataioetako agiriak irakurtzen dira.

Auzo eta baserrietako abizenak, apelliduak dira geienbat eurenak. Etxeetako ezaugarriak ditue abizentzat.

Ara:

Pedro Asterrika.
Maria Mizkia.
Madalena Gorozika.
Pedro Ubea.
Domingo Unda.
Nicolas Ayardia.
Maria Gorozika.
Gabiola.
Puerto Amallo.
Zelaia Berrosasi.

1551 urtean ez dago iñoren agiririk.

1552 urtean seirenak dagoz. Seitik bi dira akatsik bagakoak. Au da, izen eta abizen, aita eta ama, garbi agertzen dituenak. Besteak... Ikusi bat, eta au da lenena: «En 26 días del més de Febrero de 1552 baptizé una criatura de Virriatua, sabe Dios de los padres. Pusímosle por nombre Madalena a la dicha criatura. Ha por padrinos a Pedro de Zaldua y Madalena de Astayeta.»

Beste bat: «Item in Prima de Junio de dicho anno baptizé una niña a Sancho de Lexardi y su mujer, Teresa. Pusímosle por nombre...» Izena ipintzea aaztu edo gogoratu ez.

Beste bat: «Item en 5 de Junio de dicho anno baptizé un muchacho de San Juan de Barrenechea, y la madre de dicha criatura era de Amoroto. Al dicho nombre pusímosle por nombre Miguel.»

1553 urtean iru agiri bakarrik dagoz.

Iramategi Ozoillo, Ochoa.

Goicoechea Gorocica, Maria.

Eta guraso bagako bat. Nicolas izenean bataiatu eben. Beste goraberarik barik.

1554 urtean ba dira amalau. Ba dago euren artean abizen edo apellidu bagakoa. «Inglesa» ipini eutsen izentzat. «De una señora de Motrico» jartzen dau ezaugarri bakartzat.

1555 urtean amabost bataio agertzen dira.

1556 urtean amasei. Urte onetan be ba dago aita eta ama zeintzuk diran agertzen ez dan partida bat. Au be mutrikuarra, bataiatzera eskutuan ekarria. Domeca ipini eutsen izentzat.

Gizaldi aretan ba dagoz ainbat Domeca izentzat ipiniak, baiña beti emakumien izentzat.

Ondarroa'ko liburuak zabaltzen diranetik 1900 bitarterako ondarrutarren abizendegi edo apelliduen zerrenda bat egiteko ardura eta gogoa artu nebazan. Au da 1550 urtetik 1900 era.

Aldi orretan, denpora orretan, Ondarroa'ko parrokietan bataiatutako umeak, amalau milla inguru dira. Orduko sinismena, bildurra, fedea eta giroa ezagututa, ezpai barik esan geinke jaiotako guztiak bataiatuak izango zirala.

Bataiorik geienak gaur be gure eleiz nagusi edo parrokian egiñak dira. Batzuk, batez be amabost eta amaseigarren gizaldian, Antigua'ko eleizan. Bear ba da Antigua'ko eleizak oraindik parroki giro eukiko eban askorentzat. Beste batzuentzat, eraspen edo deboziñoiko ondorena. Antiguan bataiatzera garai aretan etorten ziranak, erritarrak baiño geiago inguruetako erritarrak ziran. Itxastarrak geienak eta titulodunak.

Sasoi aretako agiri batzuk, partida batzuk, ulergaitzak dira, zeaztasuna galduak. Liburu batzuk zeenak eta sitsak janda dagoz, batez be 1647 eta 1670 bitartekoak. Eun inguru; garbi esanda, 97 dira orrela agertzen diranak.

Beste jakingarri bat: 1608 urtetik eta 1617 urtean sartu arteko agiriak falta dira, ez dira agertzen.

Antxiñako bikarioak eta arduradunak ez ziran beti zeatz eta esku zabal euren zertzeladak beteten. Orduko denporak, orduko giroak ba euken pekatu berezi bat, sasoiko pekatua, kurtzailluen pekatua: argi gitxi, illuntasuna. Pekatu orretan bikario asko jausi ziran eta origaitik sarri irakurten dira liburuetan Calagorritik etorten ziran gotzain (obispo) ordezkari eta ikuslien asarre eta gaitz irizpideen agerpenak.

Ez daukagu oiñarririk edo biderik edo motiburik orduko bikarioen aurka ezer esateko. Gure-gurez ezin geinke esan alperrak edo nagiak edo ardurabakoak ziranik. Bestera pentsatea obe litzake. Baiña, bear ba da, sasoi aretan arriskutsua izango

zan zeaztasun askotan sartzea. Errezago, beti be, txikikeriak eta jakin bear ez ziranak irribarrez estaldutea, bikarioak euken aitatasunez eta itzalez zela-ala ezkutatzea. Alata ta be, sasoiko biguntasun orrek, denporetako premiña orrek, gerokoentzat, irri mintsua agertu eraziten dau. Ezin jakiñaren etsi bearra.

Len zerbait aitatu ba dogu be, gure liburu zarretan, garai aretan, era onetako esakerak irakurri eta billatu laikez sarri, bataiatzera eroandako umien jatorriari buruz:

...«Dios sabe de qué padres».

...«Por mucho que averigüé no dí con sus padres».

...«Me lo trajo la serora de Motrico, de una señora de Motrico».

...«Hija de un mancebo forastero».

Sinismen itsu bateko ondorenak? Fede estuegi baten urratuak? Lege zorrotz eta estuegi baten bildurrak eragiñak? Sorgiñen denporetako ezaugarriak?

Gure lanetik urteten daben ikasbideak izango litzakez orrelako sustraiak billatzea. Baiña giroa igarten da, orduko giroa, agiri eta paper guztietan.

(Orduko giroaren agerpen batzuk)

Len esan dogun lez, XVI garren gizaldian, gizaldiaren erdian asten dira erriko ezaugarriak, jaiotzei buruz.

1550 urtetik 1600 bitartera, 859 joitzen agiriak irakurten dira.

XVII garren gizaldian, au da, 1601'tik 1700 bitartean, 1611.

XVIII garrenean, 2371.

XIX garrenean, 9084.

Ikusten danez, gizaldi batetik bestera aldakuntza andia, aurrerapide ugari ikusten da.

Sendiak ugaritu? Familiak geitzetik datorren ondorena? Edo ta giro areitako gerra, itxasote eta abarren barealdien bat?

Ezin besterik esan.

Ume bakoitzaren, mutil nai neska jaioten dan bakoitzaren aitaren abizena edo apellidua bakarrik eukiko dogu kontuan. Au da lenengo abizena, gure kontuak aterateko.

Orrela, aitaren abizen ori kontuan eukita, abizen ez berdiñak, gizaldi edo eunkada bakoitzean, onetxek ziran:

XVI garren gizaldian, 859 jaiotzatik, 188 lenengo abizen ez berdiñak. Beraz pentsatu bear da, oker andi barik, beste ainbeste famili biziko zirala, gitxienez, gure errian.

XVII garren zigaldian, 1611 jaiotzetatik, 240 lenengo abizen ez bardiñak.

XVIII garren gizaldian, 2371 jaiotzetatik, 297 abizen ez bardiñak.

XIX garren gizaldian, 9048 jaiotzetatik, 445 abizen ez bardiñak.

Emen esan lei, familiak geituagaz batera, famili bakoitzak seme geiago ekarri ditula mundura, lengo gizalditik ez-bardintasun asko dagolako, ugaritasunaren mesedean.

Ba dira beste abizen batzuk, aurreragoko gizaldietan, bestelako ibillera, paper eta kontuetatik dakigunez, ondarrutartzat emoten ziran abizenak, baiña bataiotako liburuak idazten asi ziranetik agertzen ez diranak, aitaren sustraian beintzat galdutzat emon leikezanak.

Alaxe, *Aboitiz* abizena. Bein ere ez da agertzen, lenengo abizentzat, 1550 urtean asi eta 1500 bitartean. Eta liburu zarrak Ondarroan billatzen dabe eta ipintzen dabe bere sustraia eta bere bizi-tokia, ikurdi (eskudo) eta guzti.

Era berean esan geinke *Albiz* abizenari buruz. Amaseigarren gizaldian amaren aldeko abizentzat, bigarren abizentzat billatu lei, baiña ez aitagandiko zuzen lez.

Bardin baita Agar, Afeteria eta abar.

ERDERAZKO ABIZENAK

Erderazko abizenak, Ondarroan, bana-banakak agertzen dira XX garren gizaldirarte.

Orrelako abizenakin Ondarroan jaioak, lengo mendetan, gizaldietan, banakak ziran. Eta agirietan igarten da ze eratako bidez emen agertu eben jaiolekuko eskubidea.

Ikusi batzuk:

Oliveros-Margueras. 1627 urtean.

Fernandez Velasco. (1667 urtean agertzen da). «Pobres bagantes».

Gonzalez Santisso (1696 urtean) Lugo'tik etorriak.

Gonzalez-Nuñez (1696 urtean), «portugueses».

Orretxek dira XVII garren gizaldian agertzen diranak.

Aurrerago, XVI garren gizaldian, ain zuzen be 1561 urtean, egon zan ume bat, baiña ezin geinke esan ziur erdalduna zanik. Bikarioak bere partidan au ipintzen eban: X, (ezelako abizenik ez) X Maria. De un mancebo forastero y Maria de Gorozika. «Un mancebo forastero» ori, kanpotarra izanarren, ez dakigu euskalduna izango ez zanik. Beraz ezin erderazkotzat artu, gaiñera abizenik ez eutsen ezarri be ta.

XVIII garren gizaldian oneik billatzen doguz:

Fuelles. (1705). «De Madrid, pobres que andan pidiendo».

Valle. (1710). «Pobres, de Henares de este Obispado».

Trujillo. (1746). «Pobres mendigos».

Geroago, euskal eskubideak galtzen juan ala, eta errietara zaindari barriak etorri-ala, karabiñeruen semeak asten dira gure errian jaio eta abizen barriak ekarten, edo itxas zaindari edo cabo de mar zeregindunen semeak eta ondorenak.

XVII garren gizaldian, gorago aitatutakoen gaiñez, erdal abizen bat geiago sartu bear gendun: Vega, Asturias'tik etorria. Lenengo ondarrutarra, lenengo Vega ondarrutarra, 1618 urtean jaio zan. Gizaldi orren barruan, guztira bost Vega jaio ziran. Urrengo gizaldian, XVIII garrenean, beste amabi. Eta emeretzigarrenean euren aztarrena galdu zan. Bat bakarrik ez.

XVIII garren gizaldian, 1768 urtean, Ruiz de Dulanto bat agertzen da, Errioxatik etorrita, Naxera aldetik. Ruiz de Dulanto, Dulanto Ruiz edo Turanto Ruiz be irakurten da agirietan. Baiña danak sendi bateko. Esku langilleak.

1750 urtean Trizio bat jaioten da, Cenicero"tik etorriko semea. Jaiotza bat bakarra. Eta geiago ez da agertzen agirietan.

1784 urtean, Villafria'tik etorritako Martinez de Llano. Iru jaiotza eta erraztua galdu.

1799'n Palentzia'ko odoldun Perez bat jaioten da. Bakarra gizaldi onetan. Urrengoan agertuko dira beste lau.

XIX garren gizaldiko lenengo 50 urtetan, beste sei famili erdaldunen menduak ezagutzen dira.

Jimenotarrak datoz Brivisca't'ik. Deituta etorri be. Organistatzat. Organista, sakristau, maixu, dana izan zan. Gizaldiaren barruan 35 Jimeno bataiatu ziran bertan. 1803 urtean jaio zen lenengua.

Lau urte geroago beste abizen ugari bat agertzen da: Mejias. Ez jakin nundik etorriak diran. «Se ignora» irakurtzen da partida baten, gurasoen jatorriari buruz. 16 jaio ziran gizaldiaren barruan.

Besteak, Salamanca'tik etorritako Talon, bat bakarra jaio zan 1814 urtean.

Gomez, San Roque'tik etorriak, 1841 urtean bat eta geroago beste bat.

Urte berean jaio zan Ramos bat, Valdepeñas'tik etorria. Oneik be bi izan ziran gizaldi guztian.

Bi izan ziran, baita be gizaldian jaiotako Ruiz, Ciudad Real' dik etorriak.

Gizaldiaren erditik aurrera, ugariago datoz erdal abizenak, baiña geienak seme bakarren bat edo bi agertzen dira ta gero galdu. Ba dira orraitio Santander aldetik etorritako saltzailleak, Abascal, Lavin, bertan gelditzeko asmoz, batak lau seme eta besteak iru munduratu zituelako gizaldiaren barruan gure errian.

Erdal abizenen agerraldi oneitan argi ikusten da famili orreik ez zirala bertara etorri, zeregiñen bat betetara baiño, eta denpora gitxi egiten ebela emen. Alaxe abizena bertan sustraitzeko denporarik ez eben artu ez emon.

Ba dago erdal abizen bat Euskalerritik Ondarroa'ra sartua: Rodriguez. 1887 urtean agertu zan eta Azpeiti'tik. Jakin egin bear Azpeiti'ra noiz eta nundik joan zan.

Gure Fueroak galtzeak ba dauka zer ikusi erdal abizenak agertzeakin. Karabiñeru eta abar ez ziran euskaldunak, erdaldunak baiño.

ONDARRUTAR ABIZEN JATORRAK

Zeintzuk ote dira ondarrutar abizen jatorrak?

Nire ustez, amasei garren gizalditik Ondarroan ezagutzen diranak, ondarrutartzat artu bear dira eta ala deitu leikioe. Jator jatorrak. Eskubide guztiz. Orrela, gizaldi orretan, erriko jaiotzak irakurri edo jakin eta an agertzen direnak, atakotzat artu eta aitatuko doguz:

Abaitua, Agirre, Alipasolo, Aliri, Alzaga, Anakabe, Andonegi, Ansola, Apallua, Aranzibia, Aransolo, Aretxaga, Areskurenaga, Arezmendia, Armenza, Arregia, Arriaga, Arriola, Arrizurieta, Askube, Assurra, Asterrika, Ateguren, Aulikiz, Ayerdia, Askartza, Azkarretazabal.

Baraiko, Barrenechea, Basas, Basterretxea, Basterrolaza, Beitia, Belendiz, Bengoetxea, Bermeo, Berriatua, Bidagorri, Bidezabal, Burgaña, Burgoa, Bustinzuria.

Kareaga, Karquizano.

Etxaburu, Etxano, Etxebarria, Egia, Eizagirre, Elexpurua, Elordi, Elorriaga, Endaidi.

Gabiola, Galartza, Galbei, Galdua, Garduza, Garro, Gasturua (Gastuna), Goikoetxea, Goitia, Goitiniz, Gorozika, Gillestegi.

Ibarra, Ikuza, Igara, Illoro, Iramategi.

Jarrolaza.

Laka, Larraga, Lejardi, Likona.

Makoaga, Mendiola, Miskia, Muguruza, Murube.

Nafarmendi.

Obekola, Olabarria, Olabarrieta, Olabe, Olarra, Onda, Ondarroa, Orobio, Oriosolo, Orueta.

Portu, Puerto, Patroi.

Renteria, Romo.

Sagarraga, Santa Cruz, Sasturri, Sustaeta.

Torrealdea, Txurruka, Txopite.

Ubea, Ubilla, Ugarte, Unda, Uriarte, Urkiaga, Urkiagabaso, Urkiola, Urriola, Urrunaga.

Yarza.

Zaldua, Zamora, Zapatarikoa, Zezermendia, Zelaya.

Ez dira danak. Baiña ez doguz aitatu nai gizaldi guztian jaiotza bat euki ta gero, ondorengo gizaldietan be agertzen ez diranak.

Abizen onetako asko gaur be ezagun dira. Ezagun-ezagunak. Etxekoak. Geienak Ondarroan bertan. Ba dira, orraitio, gizaldi orreitan ugariak izanarren, gero bertatik laster urrundu ziranak. Oneitako bat da Likona. XVI garren gizaldiaren bigarren erdikadan 24 jaio ziran abizen orretako. Urrengo gizaldian bi bakarrik eta emendik aldendu.

Portu, Puerto, askotan ez da garbi irakurten. Amasei jaio ziran beintzat aitatzen dogun denporan. Urrengo gizaldian, XVII'n bat bakarra, eta orain ezagutzen diranak, Usurbil'dik agertu ziran 1874 urte inguruan.

Beste ondarrutar ezaguna zan Sasturri. 11 agertzen dira XVI garren gizaldian, 41 XVII'an, 27 XVIII'an eta XIX'an iñor ez.

Unda abizenari be bardintsu gertatu yakon. 15 abizen XVI garren gizaldian, 23 XVII'an eta geiago ez.

GEROAGO AGERTUAK

Bidezkoa da abizen barriak inguruetatik agertzea, erririk urrenetatik. Gizaldi askotan ez dira gaur lako artu emonak euki izan. Bakoitza bere erriari lotuago biziten zan len. Ori zan euskaldun izatea.

Gaurko aurrerapiderik ez, ibillaldietan erriz-erri ibilteko; alkar ezagutzeak dakarren traturik ez, bizibide aukeratsuen irabazpiderik ez, abiderik be ez aukeran norbere etxetik edo erritik aldenduteko.

Origaitik bidezko da urren dagozan erriak izatea odol barria ekarri dabenak, familia barriak sortu eta batu eragiñaz.

Alaxe, Berriatua eta Mutriku, auzorik urren lez, eurak izan dira Ondarroari izen barriak ekarri dautsezanak.

Berriatua'tik etorriak dira: Agirre-Amalloa, Albissua, Aldasolo, Antxustegi, Armenza, Azumendi, Bereikoa, Burundarena, Kalzakorta, Korostola, Elu, Garramiola, Gojenola, Ibarloza, Irureta, Itola, Iturriaga, Mancisidor, Orobio, Oriosolo, Utxupi, Ugalde eta Ugartetxea abizenak.

Mutriku'tik: Ajarrista, Amutxastegi, Aristondo, Astigarraga, Azkarate, Basabe, Basurko, Etxea, Egaña, Epelde, Gabilondo, Iriondo, Idoeta, Imaz, Iturriza, Lezea, Lezeartua, Lekube, Legarda, Lezarzaburu, Mendizabal, Mendibeltzua, Osa, Pagoaga, San Martin, Urkaregi, Urkidi eta Zubizarreta.

Lekeitio'tik: Akarregi, Atxa, Argintxona, Koskorrotza, Garalde, Maruri eto Otxoa-Antezana (gero oarra).

Zabaldu gaitezan geiago. Geiago eta obeto zeaztu. Onela ikusiko dogu Ondarroa'ri eskua luzatu eutsen erriak oneik izan zirala:

BIZKAIKO ERRIAK

Amoroto: Atxurra, Agirreoa, Ajubita, Aldekoa, Arrasate, Txakartegi, Goigana eta Markuerkiaga.

Arteaga: Obieta eta Ozamiz.

Abadiño: Arginzoniz, Garitaonaindia, Ortuzar eta Salazar.

Amorebieta: Artabe, Belaustegigoitia.

Arrakundiaga: Korta.

Akorda: Gandarias.

Arratzua: Zaldunbide.

Aulestia: Ibañez-Aldekoa, Legarra.

Barinaga: Aranzeta, Pagate.

Bolibar: Olea.

Bermeo: Arrospide, Artaza eta Belaustegi.

Bedarona: Zarakondegi.

Berriz: Arteagagoitia.

Bilbo: Arenaza, Kortesena, Eskoriaza, Gimon, Iraragorri, Iturrioz, Larrea eta San Antonio.

Deustu: Artola, Zarraga.

Durango: Lasuen, Olano.

Ea: Endeiza, Jauregi, Urzaa.

Ereño: Iduriaga.

Ermua: Alegria, Zengotita.

Erandio: Arauko.

Etxebarria, San Andres: Azpillaga, Ibarrola, Igartua, Lejardi, Zigaran.

Gernika: Mendibe.

Gorliz: Areaga.

Guerena: Ibaibarriaga.

Gizaburuaga: Okamika.

Galdakano: Astegia.

Ibarrangelua: Bakeriza.

Jemein: Agirretxea, Aulestiarte, Azumendi, Berroetabeña, Beristain, Gazagaetxebarria, Ibarrolaza, Larruskain, Urrosolo.

Mendeja: Abaroa, Amallobieta, Amesti, Egiguren, Goitiandia.

Munitibar: Urrutia.

Mallabia: Amillategi.

Mundaka: Bedialauneta, Launeta.

Mungia: Larrauri, Madariaga, Zuazaga.

Markina: Aldazabal, Arkotxa, Aulestia, Azpiri, Barinagarementeria, Garmendia, Idueta, Ituarte, Balenciaga.

Otxandio: Aspe.

Muskiz (San Julián): Saras.

ARABA aldetik etorriak be ba dira. Ez asko. Baiño batzuk bertan gelditu ziran eta gaur be jarraitzen dabe.

Aramaiona'tik: Aginagalde.

Retolaza'tik: Martinez de Luco.

Urrunaga'tik: Nafarrate, Ortiz de Zarate, Zaitegi.

Zalduendo'tik: Garzia.

Legutiano'tik (Legutiano=Villarreal): Izarza.

Otxoa-Antezana, Lekeitio'tik sartu zala esan dogu. Alaxe da, baiña Urrunuga aldekoak ziran, beraz jatorriz arabarrak.

NABARRA'tik:

Azpiroz'etik: Otermin.

Illarraga'tik: Itxaso. XIX garren gizaldian 23 jaio ziran emen. «Napar txikixa» nekuak.

Elizondo'tik: Elexondo. XVII garrenean lau jaio ziran eta geiago iñor ez.

Lekumberri'tik: Agirre-Baliere. XVIII garren gizaldian 6 jaiotza agertzen dira. Gero, bear ba da, Agirre utsakin nastatu edo obeto esanda, geldituko ziran. Origaitik gertatu lei familia aldatzea be, XIX garren gizaldian laguntzat Beliere daroan Agirre'rik ezagutzen ez dalako.

Orbaizeta'tik: Bereterbide.

Saldias'tik: Berrio.

Santesteban'dik: Etxaide.

Sesma'tik: Garrafa.

Urrunago joan eta Benabarra'tik etorria da gaur be oraindik gure artean ezagutzen dan abizen bat: Korpeon.

GIPUZKOA. Gipuzkoa'koen jatorria aitatzeko dogu, len Mutriku'koak agertu ba doguz be, auzoerri lez.

Eta Gipuzkoa ez da izan Ondarroarentzat azitegi makala. Gaur emen ezagutzen diran abizenik ugarienak, ain zuzen be, Gipuzkoa'ko erri batetik etorriak dira. Azkoitia'tik. Odol barri, bero eta ugaria etorri zan bertatik. Eta ez txori antzera, gaur pikoka egin eta gero iges egiteko. Azkoitiarrak etorri ta gelditu egin ziran emen eta abizen bakarren bat kenduta, besteak ondarrutar jator lez uste dira.

Abizen bakoitza noiz etorri zan ikusteko, bear ba da Azkoiti'ko inmigrazioa ezagutzeko balioko dabe, abizen edo apellidu bakoitzaren atzean, onera etorritako edo emen lenengoz jaiotzetako liburuetan agertzen diren urtea agertuko dogu:

Ara, ba, Azkoitia'tik etorriak: Alberdi, 1712 urtean; Albissu, 1684; Alkorta, 1817; Aranburu, 1790; Aresti, Aristi, 1719; Argoitia, 1764; Arrizabalaga, 1758; Artetxe, 1821; Arzamendi, 1682; Azpiazu, 1777; Badiola, 1729; Beristain, 1814; Etxaniz, 1745; Irueta, 1784; Izurrategi, 1813; Joaristi, 1655; Landa, 1837; Larreandia, 1741; Lete, 1770; Makibar, 1698; Uzin, 1853; Unanue, 1701; Usobiaga, 1732.

Zelako aizez etorri ete ziran azkoitiarrak? Ez jakin. Bear ba da Ameriketara emendik joateko tartea billatzen? Kantu a gogoratu: Habana'ra joan nitzan zentimurik bage, andik etorri nitzan, maitia, bost milloen jaube. Jarraitu daigun beste gipuzkoa erriekin:

Ataun: Barandiaran, Urrestarazu.

Aretxabaleta: Agirre-Elejoste.

Amezketa: Gorostegi.

Angiozar: Belarroa.

Alzola: Bernedo, Ondarza.

Alegria: Larrauri.

Azpeitia: Bikandi, Elustondo, Gereketa, Odriozola eta Rodriguez.

Asteasu: Gaiztarro.

Astigarribia: Lekue.

Aizarna: Ulazia, Zulaika.

Elgoibar: Abadea, Alzolabeia, Arano, Arraskaeta, Basaguren, Elgoibar, Guenetxea, Larrañaga, Larrinaga, Lizundia, Osoro, Urizar, Urruzuno.

Eibar: Lasarte, Unzueta.

Ondarrabi: Landaribar.

Getaria: Etxabe, Uranga, Zendoia.

Idiazabal: Abendaño.

Itziar: Esnaola, Galdos, Guenaga.

Lasarte: Treku.

Legorreta: Irigoien.

Lizarza: Olarreaga.

Mendaro: Balzola, Irueta, Makuso, Odria, Zubikarai.

Orio: Berridi.

Oñate: Arregi, Elorza.

Pasai: Aldanondo.

Plazentzi: Laskurain, Maiztegi, Sajarrista.

Errexil: Usandizaga.

Donosti: Durana.

Urbieta: Barrena.

Bergara: Gallastegui, Iturbe, Uribe.

Zarautz: Agirresaroe, Areizaga, Ostolaza, Solabarrieta.
Zumaia: Agirrezabalaga.

Tartean Deba galdu yaku. Eta Deba'tik etorri ziran, Aizpurua, Arakistain, Arrue, Berastegi, Elezgaray, Idiakez eta Irala.

Orra, gain gaiñetik, zeaztasun geiagotan sartu barik, Ondarroa'ra bizi nairik eta erriari odol barria emoten etorri ziranen sorlekuak.

Ondarroa itxas erria izanda, arrantzale erria izanik, esan zeinkean itxas ertzetik etorri bear zirala bertarako lagun barriak. Ez da ala. Gorago ikusten danez, banakak dira Lekeitio, Elantxobe, Bermeo, Mundaka, Getari, Orio, Ondarrabi, Pasai eta beste portu errietatik etorriak. Geientsuenak barrutik datoz, baserri errietatik. itxas arnas barri billa. Bear ba da, garai aretan, itxas ertzak bizi-modu amesgarriago eukiko eban, urteera geiago, ogibide errezago.

Gure erri oneik bizi ziran estutasun eta premiñen beian be, bear ba da, baserri erriak baiño arintsuago izango ziran gizonarentzat.

Gertatu eikean barruko lagunak, baserrietako lagunak, itxas zeregin eta arrantzara barik, meatz lanetara, burdiñ lanetara etortea.

Ezin dogu aztu, Bizkaia'n, Enkarterri ingurua kendu ondoren, Markiñalde onetan egozala burdiñ-olarik (ferreriarik) geienak, Artibai gure errekaren inguruan.

Ikus zer diñon Jose Angel Garcia Cortazar'ek bere «Vizcaya en el Siglo XV» liburuan: «La conclusión sobre el tema de la producción de mineral de hierro en Vizcaya es evidente y sencilla: El Señorío basó en el siglo XV toda su fuerza económica, derivada del comercio, en el hierro. La entraña de su territorio, hecha de mineral, favoreció al desarrollo de innumerables ferrerías en todo el territorio de Vizcaya. Las más importantes, con todo, estaban localizadas en la zona donde aún continúa explotándose con éxito el mineral: Somorrostro. Y de ellas es, junto a las situadas en las cercanías de la Rentería de Amallo, en Ondárroa, de quienes la historia ha guardado noticias más concretas.»

Aita Henao'ren esanetan (bere Antigüedades de Cantabria'n), Ondarroa'ko ibaian beera, urtero, larogei milla kintal burdiñ-gai

baiño geiago liorreratzen ziran, inguruetako amar burdiñola andi eta beste ainbeste txikien lanerako.

«Le Commerce marítime normand» liburuan be igarten da sasoi aretako Ondarroa'ren burdin mineralaren irabazpidea. Normanditik koipea eta eun-zuria, tela zuria ekarten eben inguru oneitara. Eta emendik burdiña eroan.

Beraz Ondarroa'ren inguruan esku-lanaren premiña egoan, esku-biarraren premiña, eta lan orrek, segurutik, gizonen eskabidea eukiko eban. Elitzake arinkeriz pentsatea, Ondarrura etorri ta bertan gelditutako asko, orrelako lanetara etorriak izatea.

Ortik gaiñera, sasoi aretan, arrantzatik kanpora be, itxasoak gizon premiña eukan. Barriro be «Vizcaya en el siglo XV» liburuak agerbide pixkat emoten dau onetan: «Barcos de Guetaria, Lekeitio, Bermeo, Ondarroa y Bilbao llevan trigo y sal a Génova, iban a Córcega o Cerdeña, y transportaban a Barcelona el trigo de Arlés. También era intenso el comercio con Génova. Incluso formaban parte los vizcainos como tripulantes de naos genovesas.»

Bear ba da, geroago, ondarrutarren ibillerak gogoratzean, esaera edo uste au zigurtateko era izango dogu.

MITXELENAREN EKARPENEZ

JUAN SAN MARTIN

Ekainaren 15ean, Bordeleko Unibertsitatean «*Doctor honoris causa*» izendapena hartu zuen Koldo Mitxelenak, eta ongi deritzat bere ekarpenez zenbait gauza aipatzea. Labur baino luzaz jardutzeko gairik badu gure gizon honek, baina artikulu batera errenditu beharrez, laburkiro azalduko dut bere nortasunetikako zerbait. Bere jakintza oso zabala da. Bere irakaskintzaz zenbait berri eman nuen duela zazpi urte, Piarres Lafittek Baionako *Bulletin du Musée Basque* deritzan aldizkarian lehenik argitaratu zuen lan bat, gero gazteleraz *Boletín de la R. S. V. de los Amigos del País*-en argitaratu zena (1965) komentatuaz (1).

Aintzinako denboretan galtzen da gure kulturgintzarako ahulezia eta zaila zaigu jakintza mailak neurtzea. Mitxelena, heldu den mailara heltzeko iragan behar izan duena sineskaitza ere bada. Martin Ugaldek elkarrizketaz jasoa eta *Hablando con los vascos* (1974) deritzan liburuan argitaratua dugu lekukorik jakingarriena. Gure hizkuntzaganako maitasunak eraman zuen ikerketara, bere ideetan zegoen zaletasuna ogibide bihurtzeraino. Mailarik apalenetik hasita, lanaren eta nekearen bide mingotsak ezagutuaz, hizkuntzalaritzaren goren mailetara arte. Bere garaia heldu den arte, gure herrian hizkuntzaz zerbait jakitun zirenek, kanpoko linguistegandik zetozten irakatsieri begira zeuden; baina, geroztik, kanpokoak dira bere ikerketeri adi eta bere

(1) Aipatzen den lan hori ikus *Gogoz* liburuaren 444-447 orrialdeetan.

esanetara begira. Gure historian lehen euskalduna dugu linguistika gaiean zientifikoki ari dena.

Indoeuropar hizkuntzez espezializaturik diren irakasleak oso guti dira Europa guzian eta horien arteko bat da Koldo Mitxelena. Horregatik, jakintzaren goimaila horietan guti batzuri interesatzen zaien hizkuntzen sortzeaz, hazkunde eta bilakaeraz arduratu da. Guzien gainetik bereziki euskararen fonetikaz, morfologiaz, joskeraz, hiztegiaz, euskalkiez eta abar. Kanpora begira idatzi ditu gairik gehienok erdaraz. Baina, ez uste izan euskaraz idatzi ez duenik. Oroi Patxi Altunaren bilketa lanez, ohar argigarriz eta *Mitxelenaren Idazlan hautatuak* izenburuz argitaratutako liburuaz. Liburu hori aski mardula bada ere, adierazpen bat besterik ezta aldizkarietan eta zenbait libururen hitzaurreetan eman duen lanarena. Izan ere, literatura mailako saiaeraz zer ez du idatzi? Pentsalari dugu, batibat. Euskalari den aldetik, badakit berak esatekotan ere «pentsatzaile» esango lukeala, baina hori ere ez bere buruagatik, zeren hori baino apalagoa bait da.

Egan aldizkarian eman ditu —eta ematen ari da— bere lanik gehienak eta hoberenak. *Egan*-en dugu gure literaturarako eskainiaz bere gogozko ekarpena. Gauza bat denez ikerketazko adierazpena eta beste bat gogoetazko sorketa. Biak ongi berezirik daude Mitxelenaren baitan. Hitzaurre mamitsuez gainera, zenbait pertsona ospetsukin izan dituen elkarrizketak, idazle zaharreri buruzko artikuluak, liburu aburuak, zinema aburuak eta abar. Beren garrantzia ez dago euskaraz ere zenbait gai berri lantze hutsean, baizik esan dudan sorketa eta hontaz gainera bere hizketa jator eta aberatsean.

Literatur lan guzi horiek neurtzea ezta gauza erraza. Behar bada, filmeen kritikaz burutu zuen lanez, justiziarik bikainena Amaia Mugikak egin zion, Mitxelenaren aburuak bildu eta bere omenez *Denbora bateko zinema paperak* deritzana argitaratzeaz. Hortik ikus daiteke gainerako lanetan ere zer nolako gogoeta eta idea mailak erabili dituen.

Bestalde, hainbeste urteren buruan *Egan* literatur aldizkariaren zuzendaritzaz arduratzea ere ezta guti. Horrek, bilketan eta zuzenketan zenbat lan eman dion bertatik hurbil ibili garenok bakarrik dakigu. Eta, hori aski ez balu, M. Agud-ekin batean *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*-ren zuzendaritza daroa. Esan beharrik ez dugu horien zuzendaritzaz gainera, bi publikazioetan lankide ere badela, eta ez nola-

naikoa. Eta, beste aldizkari espezializatuetan idatzi duenaz gainera hamar bat liburuen egile dugu.

Esan beharra dago, gizon bati dana eskatzerik ez dagoela eta Mitxelenak ere, guziak bezala, izango ditu bere akatsak. Akats horietako bat izan daiteke ber berak inoiz aitortu duen jenio txarra eta haserratze erraza. Baina, hori, beti ez dago norperaren baitan. Hiztegi espezializatuak zirela-ta, aburuetan neurritik landa joan zela? Bai. Badakigu gizarte batean moduak ere gorde behar direla. Baina, gaiaren funtsean arrazoirik ez zitzaion falta.Moduak ez gordetzearen lehendabiziko hutsa, kasu hortan, ez zetorren beragandik. Baina, hobe dugu trapu zaharrik ez mugitzea hizkuntza zanpatuaren onerako. Hala ere, bada gauza bat isildu ezinezkoa, euskaraz guti eta azkenaldian erdaraz ere urri idatzi duen salakuntza hura. Hori irakurriaren, gu isilik. Lotsagabeak, mundua bere. Holakoari, nork eta Inglaterrako Liverpooldik Robert Lawrence Trask hizkuntzalariak eman behar Mitxelenaren alde ihardespena, euskara jatorrez gainera, gure lehen hizkuntzalariaren balioak eta langintzak goraipatuz eta azken lanen zerrenda adieraziz. Anitzek, beraiek ematen ez dutena nahi lukete bestek ematea.

Argi ikusten da gure kultur maila aski behean dela holako gizon jakitun baten balioa behar bezala neurtu ahal izateko, eta ezjakinaren ausartasuna latza da. Aurrean duenaz nekez ohartuko da itsumustuan dabilena.

Dakienagandik dator erakutsia. Eta, azken batez, bakoitzak dakar bere uzta eta Mitxelenak hizkuntzalaritzazko eskola sortu du bere katedraren ingurutik.

Zorionak Mitxelenari! Baita ere, eskerrak eta zorionak Bordeleko Unibertsitateari, bere jakintza baliatuz «*honoris causa*» doktoradutzat izendatu duelako. Han, tituluz jabetzean, kelta eta keltiberiaz erakutsi zigun bereizkuntza, Baskonia eta Gaskuñiaren kidetasuna eta Pirineoetako bi alderdietan zen herriaz, berriz ere irakaspen ederra jaso genuen.

Azkenik, jakin nahi baduzu gure gizon ikasiaren jarrera zer den, sentipenetatik gogozko sorketara eta hemendik ideiak lantzera, hara bere liburu batean dakarren aitorpena: «Gizartean lotzen eta askatzen gaitu hizkuntzak, hizkuntza honek naiz horrek, bakarkako amets gogoetetan baino areago».

MUXIKA GREGORIO'REN ESKUTITZ BAT «BERTSO BERRIEI» BURUZ

Bertsolarien leiaketak geroago eta entzute aundiagoa artuz doazte, urtean-urtean zaratatsu eta diztiratsu egiten bait-dira azken urte ez-gutxitan.

Eta gertakizun ori dala bide, irar-paperetan ere, asko idatzi oi da areitaz; eta gaurko egunean, bertsolariak gora aundian daude.

Ala ere, baten batzuk uste dutenez, mende onen beraren asieratik mende onen beraren erdiraiño, etzitzaien ain ondo begiratzen.

Orduan asi zala bertsolarien izena obetzen eta gora artzen.

Bainan leenago ere izan ziran, bertsolariak iritzi aundian zituztenak.

Orreitariko bat Muxika'tar Gregorio, 1931-n il zana bere berrogei eta bederatzi urtetan.

Gazterik galdu zuan Euskalerriak ainbeste balio zuan bere seme maitagarri, yakintsua eta idazle dirdiratsua.

Orra, lekuko bezela, bere eskutitz bat irarri gabe dagoena eta 1927-an egiña eta nere paperen artean izkutaturik, gorderik izan dana.

Eskutitz orretan maitasunez eta biotzez oso ondo mintzo da bertsolarietaz.

Garai artan zabaldu zan zurrumurrua, berak egin gogo zuela eta egiten zebillela bertso zaarren edo «berrien» bilketa; berak zionez, aberastasun andiak zituztela barruan gorderik; eta gero argitara emango zituala, Pernando Amezketarraren kontuak eta esanak batu eta argitara eman zituan bezela.

Donosti, 1927-Garagarrilla, 4

Yurre'tar Julian A. ri

Iruña

Agur ta eskerrak zuri: Uste ez nuala, bertso berri polit batzuek bidaldu dizkidatzu. Politak bai... txarrak izan arren. Onak izan, txarrak izan, nik guziak bildu nai ditut eta ez neuzkan bi bidaldu dizkidatzu. «Politagorik» ezin izan. Eskerrak bada zuri.

Naparro aldekorik ez nuan bat ere. Orain bi baditut zuk bidaldutakoak. Eta geitxo eskatzea ez balitz, eskertxo bat eskatuko nizuke. Dirudienez, Naparroko errietan ibiltzen zera zu, ta ibillaldi oietan bertso bat edo beste arkitu edo salgai ikustea baliteke. Ala bada, erosi itzazu neretzat, eta pozik ordainduko dizkitzut. Askotxo dauzkat, Gipuzkoa aldetik geienak, Bizkaikoak gutxi, ta zuk bidaldutako biak Naparro'koak. Oraindik askoz geiago izango dira, ta galdu ez ditezen biltzen alegiña egin bear degu. Onak izan, txarrak izan, gureak dira beintzat...

Zuk bidaldutako oietako bat, or, Iruña'n argitaratua da, Bengaray'ren irarkolan. Geiago ere izango ditu noski, ta galdetuko baziozuke...

Oiek irarkoletan saltzen ez dirala, badakit. Baña norbaitek eginerazten dituanetik, ale batzuek gorde-

tzen dituzte, ta or ere izango dituzte noski. Neronek eskatuko nituzke, baña ez ezagun baten idazkiari praille bati baño errezago esaten zaio ezetz...

Orra bada: esker bat egin didazu, ta beste bat eskatu. «Engañagarritzat» nik ere bi liburutxo bidalduko dizkitzut: bat neronek erderaz egiña, eta beste bat, au bera, nere adiskide batek euskeraz jarria.

Eskerrak PERNANDO'gatik diozunagatik. Nik ere ala uste det: euskera zabaltzeko orrelako liburuak bear dirala: errexak eta alaiak. Ni ere arro-xamarra naiz batzutan, eta orain arrotasun au daukat: liburutxo ori baña obeto idatziak eta jakintasun geiagokoak, eundaka dauzkagu, baña orrek aña euskara ZABALDUKO duanik ez det uste danik. Eta nere asmoa ori da beti: Zabaldu.

Beste bertso berriren bat arkitzen badezu. ez zuk ezer zuzendu; utzi dagon bezelaxe. Ta zuzendu dezun orren beste ale bat zure eskuetara irixten baldin bada, bidaldu ezer ikutu gabe.

Agur, adiskide. Ondo bizi, eskerrak berriz ere, ta agindu nai dezun bezela zure adiskide ta mendeko oni.

G. Mujika

Eskutitz ori artu-ta gero, Euskalerrian izan nintzen denpora laburrean, badakit LEITZA ondoko ERASUN errian billatu nuala bertso-paper pillo bat. Baita beste pillo aunditxoa LEKUNBERRI aldean. Areik ERASUN'go etxeetan neronek eskatuak. Oneik berriz, orduan apaizetarako ikasten zebillen eta gero EZKURRA'ko parroko izan zan Perez eta Goikoetxea'tar Juan yaunak eskura zizkidan. Ni Txina'ra yoan nintzan orduan eta Muxika'tar Gregorio ere laster il zan gazterik.

Altzasu'tik, 1982. Dagonillaren 20-ean.

YURRE'tar JULEN

1982 Dagonillak 20

Irigaray'tar Aingeru yaun txit agurgarriari.

Agur, ene yaun eta adiskide ori:

Orra lantxo bat igortzen dizut.

Zuri atsegin bazaitzu, zure aldizkari eder «EGAN»'en argitaratzea poztuko naiz.

Zure menpeko.

YURRE'tar JULEN

A. Yurrek eskatu bezala igortzen dut EGAN-erako bere izkribua, baieta Mujicarena ere.

A. IRIGARAY

LIBURUAK

LIBURUAK

ANTONIO ZAVALA. - *Jan-edanaren bertsoak.* (2 tomo) 18 x 10,5 zm., 142 eta 147 orr. Auspoa Liburutegia. Tolosa. 1982.

«Jan-edanari buruz, literatura ugaria dago hizkuntza guzietan. Euskaraz ere zerbait badugula, liburu honek erakutsiko digu», hala aitortzen du. A. Zavalak berriki argitaratua duen obraren hitzaurrean. Egia esan, gure literaturarik ezagutzen ez zen garaian ere, gure edanerako grina argi utzi zuen Rabelais berak 1535ean argitaratu zuen *Gargantúa* zeritzan liburuan. Bertan lehenengo agertzen den euskaldunaren ahoan jarri bai zuen: «Laguna, edatera». Janariz berriz, zer esan? J. A. Aboitiz lekeitiarraren Txantxon pipirri deritzan kanta aski dugu lekukorik.

Gure gizartea ezagutzeko ez ezik gaur egungo gizartea bera lehengoaren erroetatik ikusteak ere merezi du. Zavalak, bi liburuxkatan bildu ditu jan-edanari buruzko bertsoak, heuren azalak I. Zuloaga pintorearen otorduzko irudiz aurkeztuaz. Liburu hortako bertsoak hiru ezaugarri omen: gaia, jan-edana; egilea, ez-ezaguna; eta Bidasoaz hegoaldekoak izatea. Bada bertan jan-edanak kantatzen jarriko duena ez ezik goseak kantari jarri zuenik ere. Baina baite ardozale eta ardoaren aurkako.

Bertso horietan dira L. L. Bonaparte printzeak lehengo mendean bilduak edo, baita ere, Fr. Michel-en *Le pays basque* liburuan argitaratuak.

Zenbait bertsok izan zuten eragina, biltzaile desberdinak tokian tokiz hain lurralde zabaletan jasoak izatea dugu adibide. Hortik ikus ditzakegu oraindik zenbat lan dugun egiteko, bai

bilketaz eta bai bilduak behar den ordenamenduz jartzen, kanta edo bertso bakoitzak bere jabetasuna edo nondikakoa izan dezan.

Baina, biltzaileak izenburua hala eman badio ere, ez da guztia jan-edan kontua. Argi ikus daiteke lehen liburuaren 100. orrialdetik 112.era bitartean, hiru bertso sailetan, kolore marroidunik ere badela. Txokolatea kolorez, guztiz bestelakoak izanik ere. Bilketan eta ohargintzen arduratu denari inolazko gomendiorik ematekotan, lehenagoko beste Jesulagun bi haien gisara, bertso marroidunen bilketa bat egitea, Aita Vinuesa-k egin zuen *Coprógenas*, Aita Coloma-ren hitzaurrez argitaratuko zenaren erara.

103. orrialdean Eibarren bildutakotzat dakarrena oso ezaguna zitzaigun gure haurtzaroan, baina tartean bazuen euskaritxo edo errepika jakin bat ere, era hontara:

Kaka zuretako ta
kaka neretako;
haixen da gauza ederra
mundu guztian dako.

Egia esan, jan-edanak berez dakar ondoreko marroitasuna; eta hori omen da osasuna.

Bilduma horietan, inoiz, aintzinatasunaz gainera tokian tokiko aldakuntzaz agertzen ditu, «Mahatsaren zaiñetik dator» direlakoak bezala. Gainera, Azkue eta A. Donostiaren bilketetakoak baino lehenagoko lekukotasunak ere ematen ditu. Adibidez, Xabier Munibek 1764an aurkeztu zuen *El borracho burlado* delakoan agertzen diren pare bat bertso ere bai. Behar bada, biltzaileak ongi dion bezala, G. Munibe berak herrikantetatik hartuak izan zitezkean.

Ahatea eta katuaren bertso zelebreak irakurtzean Eibarko Dorrepeko asto janarenak zetozten nere burura (*Karmel*-en argitaratu ziren 1975eko 4. zenb.). Jatunak jataile direnean; zer ez jan?

Edarien alde edo zein kontra, badira liburuotan hoietarikoak ere, eta ez guti. Behar bada edaria da gure herriaren izurriterik handiena, eta honen kontra Eusko Jaurlaritzak hartu dituen erabakiak ez daitezela ondore gabe gelditu, zeren herri batentzat ez baita holako zigorrik.

Oso polita da bigarren tomoko 47. orrialdean datorren «Ardaotxo baltza, zer dakak hik?»; baina beste kanta bat zen guretzat 52. orrialdean Elgoibarren jasotakotzat datorrena. Bigarren honek, hor bertan ikusten den bezala, aldaketa asko ditu. Bada hor aipatzen ez denik ere. Ikus Manuel Lekuonak Elgetan jaso zuen hura «Cantares populares» haietan (*Anuario de Eusko-Folklore*, X, 1930, 49 eta 87. orrialdeetan). Guk Eibarren ikasia ordea, era hontara zen:

Bart arratsian beranduan
nekez etxera jo genduan;
bixamonian sutonduan
panparreria bagenduan.
Duan, duan, duan,
panparreria bagenduan. Ja-jai!
Duan, duan, duan,
panparreria bagenduan.

Ohar jakingarri askorekin eta doinu pentagramaz aberats datoz bi liburuok. Gaur egungo bertsolariak ere badute ikasbiderik horietatik. Baina, edariarekin kontuz ibili beharra dugu euskaldunok, maiz aspaldiko bertsoa oroituz:

Lagun: kalte haundiak
ditu edariak,
ordenaren kontrako
astakeriak;
sudurra luzatu ta
gorritu begiak,
errezelo txarrian
tente belarriak,
neketan gerriak,
juntura elbarriak,
beti egarriak;
hoik dira ibillera
negargarriak.

JUAN SAN MARTIN

ANTZERKIA

ARTURO CAMPION / YON ETXAIDE

PEDRO MARI

(Arturo Campión-en kontakizunetik Yon Etxaide-k antzerkiratutako trajedia)

Bigarren iskribaldi hobetua

Lehenen iskribaldia: 1939

Donostia 1981

ARI DIRENAK

PEDRO MARI	22 urte
NESKATALDEA	16/24 urte
MATTIN ETA HONEN BI LAGUN	20/22 urte
MARTIN JOXE	28/30 urte
BI SOLDADU LAPUR	28/30 urte
ERNESTO KAPITANA	40 urte
AGAPITO TENIENTEA	35 urte
XURIO, JOANIS, BARNETXE ETA ISTEBE ARRETXEA	20/22 urte
PELLO LARRALDE	12 urte
MENDIRI KAPITANA	30/35 urte
RUIZ SARJENTOA	30 urte
SAGARMINAGA JENERALA	60/70 urte
SOLANO KORONELA	40/45 urte
APEZA (KAPEILAUA)	35/40 urte
ATIENZA KAPITANA	40 urte

PIKETEKO SOLDADUAK.

SOLDADU BAT, alegia Ruiz sarjentuak mandatuz bidaltzen duena Sagarminaga jeneralarengana.

ARTURO CAMPION-en

PEDRO MARI

Yon Etxaide Itharte-k antzerkiratua eta euskaratua

LEHENBIZIKO EGIKERA

Gertalekua Ulzama ibarrean, Olague deritzan hirixkako plazan edo zumardi tankerako espaloidun kale zabal batean. Kale-iturri bat edo kale-banku bat edo bi gauzak ager daitezke, Pedro Mari-k bere ogiartekoa patxadan jandezan boskarren agerraldian. Iturria eta bankua karrika espaloi zabalean kokatuak (oin hartuak) egotekotan, hiri gibelean mendia eta oihana ikus daitezke.

LEHENENGO AGERRALDIA

PEDRO MARI ETA NESKATALDEA

(Hamabi neska gazte galsorora doaz gari jorran egitera, beren jorraiak eskuetan. Eskuin aldetik sar bitez.)

NESKATALDEA.—(*Kantari eta jostalari.*)

1. *Iruten ari nuzu*
Kilua gerrian,
Ardura dudalarik
Nigarra begian.

2. *Nigar egiten duzu*
Oi! suspirarekin,
Kontsolaturen zira
Bai, denborarekin.

3. *Ezkon mina dudala*
Zuk omen diozu;
Ez dut amore minik,
Gezurra diozu.

4. *Ezkon-mina dutenak*
Seinale dirade:
Matrel hezurrak seko,
Koloriak berde.

NESKA BAT.—(*Hogei urteko neskatxa gazte eta liraina. Taldeko batzuek Pedro Mari herriko festetatik ezagutzen dute, batipat «Neska Bat»ek*). Hara! ikus nor datorren hortxe; Errazu-ko Pedro Mari da. Zerk ote dakar honontz?

NESKA BATZUK.—Nork esango? (*batek*). Bera da-eta (*beste batek*). Bai, ez da dudarik, Pedro Mari Errazuko da (*hirugarren batek*).

NESKA BAT.—Kopla bat kantatuko al diogu zirika antzean?

DENAK.—Hori! Hori! (*Kanta bezate, «Neska Bat»ek hasera emanik*):

Arreba, nahi duzuia
Gizonik erosi?
Eliza bazterretan
Bi sosetan zortzi.

PEDRO MARI. — (*Hogeitabi urteko nekazari gazte eta sasoikoa. Ezker aldetik sar bedi, fardela bizkarrean*). Ez dakarzue aldarte (umore) txarra, neskatxa panpoxak. Nik ere badakizkit, ordea, kopla zaharrak, eta berriak asmatzen ere ez naiz hain kamotsa (motela).

NESKA BAT.—Bota, orduan, pozik entzungo dugu.

PEDRO MARI.—Horra, bada:

Anaia, nahi duzuia
Emazterik erosi?
Baratze kantoinetan
Sosian hemezortzi.

(Hamasei urteko neskatila lirain batek dantzatuz jarrai bekio Pedro Mari ren bertso doinuari. Dantza inprobisatu honen ritmoa doinuari aplikatzea zuzendariaren gain geldi bedi.)

NESKA BATZUK.—Txit ongi! Bejondizuela bioi! (*txaloak eta algarak neskatilen artean*).

NESKA BAT.—(*Pedro Mari-rengana alderatuz*). Dantzari onarentzat ez dago ttun-ttun txarrik. Ez ote?

PEDRO MARI.—Ez zaitez hurbil, maite.

NESKA BAT.—Zergatik?

PEDRO MARI.—Esaeragatik: «Olague-n (1) baxera urrez, ni harat orduko lurrez».

NESKA BAT.—Nik ere badakizkit esakun zaharrak... Esakunlaria deitzen naute (didate).

PEDRO MARI.—Esan iezadazu (esadazu) bat. Zure ahoan ezti gozo izanen da.

NESKA BAT.—«Asto handiak, Baztango» (*neskek leher gaizto egin bezate farrez*).

PEDRO MARI.—(*Lotsakor*). Neure lepotik ederki farre egiten dakizue. Berriketak utzita aurrera segitu beharko dugu.

NESKA BAT.—Aurrera? Nora baina? Zu ikustean esaten ari ginen norako martxa ote daramazun zure fardel eta guzti.

PEDRO MARI.—Pagogaina-ko baserri (borda) zaharrera lotzen ninduen lokarri bakarra hautsi da. Amona hil zait. Zer egin behar dut Errazu-n?

NESKA BAT.—Izpegi-ko mendietan eta Urbizi-ko erreka ondoan baino hobeto eta erosoago hizitzen da hirian. Ez ote?

PEDRO MARI.—Ez da horregatik. Esan bezala, amona hil zait. Gurasoak ere hilak ditut, amona baino lehen. Arreba zaharrena Berrueta-ra ezkondu zen, urrengo biak Arizkun-era, eta gazteena, Errazun bertan, borda (baserri) aberats batera. Nik ez dut oraingoz ezkontzeko pentsamendurik. Zer egin dezaket? Nere bazterrak saldu eta martxa.

NESKA BAT.—Iruñe-ra, noski?

PEDRO MARI.—Bai, zera!

NESKA BAT.—Nora, bada?

PEDRO MARI.—Ameriketara.

NESKA BATZUK.—(*Sineskaitz*). Ameriketara?

---

(1) Tekstuan: «Baigorri»n, esaera zaharrak dioen bezala. Gu, ordea, Baigorri-tik Ulzama-ko Olague-ra aldatu gara lekuz eta, honetxegatik, herri izena trukatu beharrean aurkitu gara.

PEDRO MARI.—Bai, gaztetxotatik daukat gogoa Ameriketarako, zenbait herritar bezala aberasteko. Soro eta tresnak Leokadi ene arreba gazteari saldu dizkiot, Errazu-n ezkondua dagoenari, alegia. Etxea bakarrik gorde dut neretzat, aberastua natorrenean bertara joateko bizitzera.

NESKA BAT.—Abagune polita duzu orain hanka egiteko. Diotenez, Espainia eta Frantzia arteko gerla (gudatea) sortzear (sortzeko zorian) omen dago. Baztango gudari-taldearekin joan beharko zenuke gerlara eta agian Frantzian barrena. Ez da giro oraintxe.

PEDRO MARI.—Ez horixe, odei beltzak gero eta biltzenago ari dira. Gudaletxea eta gerla ez dira neretzat eginak. Gorrotagarri zaizkit. Orain banoa Iruñera dilijentzia hartzera eta handik astebetean edo iritxiko ahal naiz Cádiz-era ontzia hartzeko.

NESKA BAT.—Bidaia luze eta aspergarria.

PEDRO MARI.—Hala da. Baina gauzak dauden bezala daudelako, ez naiz ausartu Bordele-tik joaten, gerla gainean baitugu eta frantsesek preso har nintzakete.

NESKA BAT.—Norbaitek izango du pena bihotzean zu joaten ikusita.

PEDRO MARI.—(*Igarriz*). Nork? Kattalin Eiharaldekoak?

NESKA BAT.—Horixe! Iaia moztu zizkizun zure Ameriketarako asmoak.

PEDRO MARI.—Ez zen hainbestekorik izan gure artean. Atzo joan nintzaion agur esatera Izpegi-ko atean barrena, baina ez nuen etxean arkitu neure Kattalin Baigorriko.

NESKA BAT.—Jakina! zure zain egongo zen, bada!

PEDRO MARI.—Dena dela, ez nintzen oso alai etxeratu. Badakizu, bihotzean beti zerbait gelditzen baita.

NESKA BAT.—Ja, jai! Amodioa ahazteko ardoa, Pedro Mari.

PEDRO MARI.—Eta mutil gazteak aberasteko Amerika.

NESKATALDEA.—(*Ezker aldetik atera bedi talde guztia kantari.*)

Ezkondu nahi dutenak
Seinale dirade:
Matrel hezurrak seko,
Koloriak berde.

BIGARREN AGERRALDIA

PEDRO MARI, MATTIN ETA HONEN BI LAGUN

(Hiru mutil gazte eta sendo sartzen dira ezker aldetik, hauek ere, Pedro Mari bezala, beren fardelekin eta makilekin. Mugaz bestaldetik datoz, Frantziako Iraultzaren hatzaparretatik ihesi. Horietako bat Pedri Mari-ren laguna da. Baigorri-koa da eta Mattin deritza.)

MATTIN.—Kaixo, Pedro Mari, zer habil? Ez nian pentsatzen hi hemen ikusterik.

PEDRO MARI.—Ameriketarako martxa diat, Mattin, inoiz esan nian bezala. Eta zuek Olaguera, aberetara edo?

MATTIN.—Bai, zera! Frantziatik ihesi gatozkik (gatozek), zalaparta hauek igaro artean Espainian egoteko asmoz.

PEDRO MARI.—Nongoak dituk lagunak?

MATTIN.—Bat Urepelekoa eta bestea Aldudekoa. Hirurok nafarrak gaituk hi bezalaxe.

PEDRO MARI.—Bai, ondikotz! muga zikin horrek zatitutako nafarrak... Eta norako martxa duzue?

MATTIN.—Lana aurkitzen dugun tokira. Ahal badugu inguru hontan gelditukо gaituk, gure etxetatik hurbil egoteko. Baina, ezinbestean, Iruñeko lurretara, Erriberara edo Erriojara jo beharko diagu.

PEDRO MARI.—Beharbada, neure arreba Leokadi-k beharko du morroiren bat, neure lurrak hari saldu baitizkiot eta morroirik gabe ezin dizkitek denak eraman. Dena den, esan nere lagunak zaretela eta berak lagunduko dizue lana bilatzen.

MATTIN.—Ez legokek gaizki. Etxetik hurbilago ezin. Mila esker Pedro Mari. Saiatuko gaituk, eta Baztan-en lanik aurkitzen ez badiagu, denbora izanen duk beste norabait joateko.

PEDRO MARI.—Eta zer berri Frantzian? Nola zebiltzak gauzak?

MATTIN.—Ezin okerrago. Beldur nauk, etxeratzen garenean dena azpikoz gainera aurkituko ez ote diagun. Bizirik uzten badizkitek behintzat gure familiak...

PEDRO MARI.—Hainbestekoa ote, Mattin?

MATTIN.—Izugarria, motel, izugarria. Nazinoaren lagunak gure ibarraz nausitu dituk. Elizak itxi dizkitek eta belarrez bete; kalizak, patenak eta eki-sainduak (eguzki-sainduak, kustodiak) ostu (ebatsi, lapurtu). Arbolatxo bat ipintzen ditek enparantzaren erdian eta dantzari ekiten ziotek bere inguruan, orroaka eta birao beltzenak esanaz. Haiekin zebiltzak Pinet frantsesa eta apez gaiztoak: Mariturri, Duronea, Sorondo-Txaldun, zerriak! ezkondu nahian; guztiok Galtzagorri-ren besotik.

PEDRO MARI.—Horiek horrela, eta apez, fraide eta serorarik gehienak, zuek bezala, ihesi. Errazu-n, eta Baztan-en non-nahi, baduk horietako ihesliar ugari beren etxetara noiz bueltatuko zain. Gizajoak!

MATTIN.—Eta predikuak egitea apezei baino gehiago gustatzen zaiek. Ez dituk isildu ere egiten hitzontzi aho ustelok. Tabernak dizkitek beren kulpito. Entzun beharra zaiek ardoz bero-bero eginda gero. Horiek esaten dituzten astakeriak esateko ez zegok latina ikasi beharrik. Horrela nerau (neroni, ni neu) ere nintzatekek sermolari! Sasi maisuok erregeren ordez jarri diguten Errepublikari obeditzera behartu nahi zigutek. Tokitan zeudek! Gizonek agintzen ez badakite, jar ditzatela emakumeak. Ez liketek gaizkiago egingo.

PEDRO MARI.—Eta denok diotenez, Espainia eta Frantzia arteko gerla egun batetik bastera hasteko omen zegok.

MATTIN.—Iadanik (honez gero) sortua ez bada, ez zaiok asko faltako. Frantsesek diotenez, Errepublika Madrilera eraman behar omen ditek eta ez omen duk fraide eta inkisidorerik bizirik geldituko Espainia guztian.

PEDRO MARI.—Hobe diat, bai, Ameriketara lehenbailehen alde egin, asta-kirten horien hatzaparretan eror ez nadin.

MATTIN.—Ez ezakela dudarik egin. Gure egoera tristean erori nahi ez baduk hanka egin ezak aguro. Ez diat kontatu oraindik gure ihes egitea nola izan den. Entzun: oraintsu, euskaldun bolontarien batailoi bat eratzen hasi dituk gure eskualdean. Jakina, inor gutxi apuntatzen duk eta ezin osatu ditek behar luketen soldadutza. Orduan mutil ehizean hasi dituk eta bai gure bila etorri ere. Gaitzerdi, garaiz ezkutatu gaituk. Baina luzaro kukutua egoterik ez zegok eta, gure fardelak eginda, muga pasatzea erabaki diagu. Gaur goiz-

ean, egun sentian, jendarmeek ikusi gatxiotek eta mendizmendi jarraitu tiroka. Larri ibili gaituk, horixe bai, baina muga onez pasatzea lortu diagu Jaunari esker. Orain Espainiko partean gatxeudek. Libro gaituk! Bai, Libertate, Berdintasun eta Anaitasun izeneko tirania gorrotagarriaz libratu gaituk. Gorde bezate berentzat gezurrezko Trinitate (Hirutasun) hori. Gu ez gatxiotek azpian hartuko.

PEDRO MARI.—Zuek nahi duzuenean joan zaitezkete. Nik, hemengo adiskide min batekin egon beharra zeukat, ez bainuke Ameriketara joan nahi hartaz despeditu gabe; baina, ez zekiat non bizi den. Norbaiti galdetu beharko.

MATTIN.—Bai, oraintxe joango gaituk... Baina, ahantzi baino lehen: Ez al dakik berria?

PEDRO MARI.—Zer berri?

MATTIN.—Kattalin Eiharaldekoa Mixel Elorga-rekin ezkontzen dela. Noski, lehenago soldadu eramaten ez badute.

PEDRO MARI.—Ez nekiken ezertxo ere. Zorionekoak izan daitezela.

MATTIN.—Pentsa! Nik ez nekiken gizongaia zuenik ere. Duela hiruzpalau egun esan zidateken. Nonbait, bat-bateko kontua izan duk. Mixel beldur omen zuan soldadu eramango zutela, bere bila joango zirela mehatxu egin baitzioteken, eta ez bat eta ez bi, ezkontza tratua egin ziteken, zeren, diotenez, ezkonduak nekezago eramaten omen dizkitek soldaduskara eta batez ere gerlara. Beraz, ezkontzen delarik, bakean utziko ditek bere etxean, momentuz. Gero, gerokoak.

PEDRO MARI.—Ez duk gaizki pentsatua. Bakoitzak ahal duena egiten dik. Gainera, begi zorrotza izan dik andrea aukeratzen, zeren Kattalin neskatila on eta gustagarria baita.

MATTIN.—Ez huen, noski, gaizki hartuko albistea (notizia). Nik bederen ez diat esan minik egiteko asmoz.

PEDRO MARI.—Ez gizona, ez. Horrela lasaiago galditzen nauk. Biotza penez (penatan) nian agur esatera joan nintzaionean etxean aurkitu ez nuelako. Orain ikusten diat horrela hobe izan zela, zeren ezkontzekoa zela jakin izan banu, ez ninduken joango eta berak, bestalde, ongi egin ziken ez agertzen.

Beraz, joanak-joan: iadanik neure buru-bihotzetan ez duk pentsamendu bat besterik gelditzen: Amerika.

MATTIN.—Pozten nauk hire bihotza ez mindua.

PEDRO MARI.—Hago trankil, Mattin... (*bat-batean, begiak urrutira luzatuz*). Baina, zer ikusten diat? Ene adiskide ona bidez-bide zetorrek.

MATTIN ETA LAGUNAK.—Agur, bada, Pedro Mari eta segi ondo (*lagunek*: izan ongi, ondo joan). Bidaldi (bidaia) on Ameriketara.

PEDRO MARI.—Zuek ere suertea izan dezazuela lanarekin eta lehenbailehen etxeratu zaiteztela. Badakizue non duzuen ene arreba. Joan beldurrik gabe; berak lagunduko zaituzte (dizue).

(Mattin eta bere lagunak atera bitez eta Pedro Mari geldi bedi bere adiskidearen zain.)

HIRUGARREN AGERRALDIA

PEDRO MARI ETA MARTIN JOXE

(Agerraldi honen bitartean, agertokiaren atzeko adetik, espainar gudariak iragan bitez alde batetik bestera, gaizki jantziak, zikinak eta itxura txarrekoak eskuarki. Hauetako bi, bizpahiru edo hiruzpalau aldiz igaroko dira Pedro Mari-ri begira zenbait keinu edo jestu adierazkor eginaz. Erregeordekoa eta gudalburu batzuk igaroko dira eskuin aldetik ezker aldera, Pedro Mari-k bere lagunari haien nortasunaz galde egiten dionean.)

PEDRO MARI.—Hauxe halabeharra, Martin Joxe! Oraintxe nindukan joatekoa hire etxera despeditzeko.

MARTIN JOXE.—(*28/30 urte. Errazuarra da, baina urtebete darama ezkondurik Olague-n bertako alaba batekin. Pedro Mariren ahaide egiten da, bestengusu edo zerbait halatsu. Ezkondu aurretik kontrabanduan ibiltzen zen Errazu-tik Baigorri-ra eskuarki eta zenbait aldiz Pedro Mari-k lagundu zion lan hontan urte pare batean. Horietako ibilaldi batean ezagutu zuen Pedro Mari-k Baigorri-n bere Kattalin Eiharaldeko. Martin Joxe, atxurra bizkarrean, sorora lanera doa. Artzanora ere eraman dezake berarekin, arratsean ardiak bildu behar baititu*). Kaixo Pedro Mari, ba al hoa?

PEDRO MARI.—Bai, azkenean banatxiak, hemen gauza onik ez zegok-eta. Lehenago joan behar nian. Baina badakik, bi gauzek lotzen nindutekan: Kattalin-ek eta amonak. Bi lokarriok puskatu dituk eta baniak.

MARTIN JOXE.—Ongi egiten duk. Ameriketan lana eta bakea aurkituko dituk eta dirua egin ahal izango duk. Nerau ere pozik joango nidukek hemen datorkiguna ikusita. Zein kaitan (portutan) itsasoratzen haiz?

PEDRO MARI.—Buenos Aires-era joateko non nahi har daitekek, baina nik Txile-ra joan nahi diat, han lagunak baitzeuzkat eta berek lagunduko zidatek lehendabiziko pausoak ematen. Txilerako ontziak berriz Bordeletik eta Kadiz-etik bakarrik ateratzen omen dituk. Bake denboran Bordele-tik joango nindukek, hurbilago baitzegok, baina gaurko egoeran Kadiz-era jo beharra zeukat.

MARTIN JOXE.—Gerla gainean diagu eta ikusten duanez herria soldaduz bete zaiguk. Ez zegok oraintxe giro.

PEDRO MARI.—Frantziako mugetara ote zihoaztik?

MARTIN JOXE.—Bai, Frantziako muga defendatzea lehenik eta gero, diotenez, Frantzia konkistatzera Pariseko tronuan erregea jartzeko.

PEDRO MARI.—Hori al diote? Bitxi da, zeren frantsesek diotenez Errepublika Madrilera eraman behar omen ditek eta ez omen duk fraide eta inkisidorerik bizirik geldituko Espainia guztian.

MARTIN JOXE.—Bakoitzak bere gisa hitz egiten dik. Geroak esango nork duen arrazoi. Dena dela, soldaduok bartarratsean heldu zituan Olague-ra. Logroño-tik bi ekitalditan etorriak dituk noski eta nekatu xamarrak beraz. Hemen errejimendu bat kokatu duk, baina Iruñean eta inguruetan gehiago omen daude Nafarroa eta Frantzia arteko mugetara ateratzeko prest. Hemengoak Baztan-era zihoaztik.

PEDRO MARI.—(*Soldaduei begira*). Jende narratsa eta traza txarrekoa.

MARTIN JOXE.—Halakoa ohi duk koko jendea, gaztelaua. Argi ibili horiekin Gaztelako lurraldetan zehar hoanean.

PEDRO MARI.—Eta horiek nortzuk dituk? (*Errege-ordezkoagatik eta gudalburuagatik*). Buruzagitakoak ziruditek.

MARTIN JOXE.—Bai, errege-mandataria (ordezkaria) eta errejimenduko koronela. Sekula ez diat ikusi gure Nafarroa soldadu arrotzez zapaldurik. Frantsesei ateak itxi beharrez, gaztelauak sartu zaizkiguk. Nahiz batak, nahiz besteak kaltea eta ondamena besterik ez zigutek ekarriko.

PEDRO MARI.—Hi behin batez Gaztelako lurretan zehar ibilia haiz. Esplikatuko al didak zer moduzko parajeak diren haiek?

MARTIN JOXE.—Tristeak, motel, tristeak. Mendi soilak, haitz gorriak, lerradi (pinudi) ilunak eta ordeka nabar azkengabeak, lur idor eta autsez beteak. Gizonak, argalak, zarpatsuak, iletsuak eta kolore maxkarrak. Haien ezpainetan ez duk farre-antxik somatuko, ez eta haien eztarrietan kanta alairik; dena duk han goibel eta ilun, dena tristura jario.

PEDRO MARI.—Eta ostatuz nola zegok?

MARTIN JOXE.—Hango ostatuak txerritokiak dituk hemengoen aldean. Bazirudik erratza (eskoba) urtean behin pasatzen dutela gehieneko eta janariak ere pertsonarentzat baino txerrientzat egina hobeto zirudik. Ostalariak axolakabeak dituk, neskameak txima-jario, zatar eta narratsak. Ez duk hemengo ostatuetan bezela jenderik biltzen jai arratsaldea igarotzeko, baina zamalzainak etortzen badira, ospa! kalera denok haiei tokia egiteko. Logela armiarma sarez eta bestelako zikinkeriez mukuru eta ohean maindirerik ez. Gainera, euskaldunentzat burla eta destaina, gatelaniaz ongi ez badakik behintzat. Gogora hadi «Erdal herriko bizimodua» deritzan gure kanta zaharrak dioenaz:

Hango sukal bazterrak ikustekoak:
Laratzikan batere, falta auspoak;
Alki sendoak:
Hiru edo lau harri kintalekoak;
Hango zokoak:
Ezkonduz geroztikan garbitzekoak.

PEDRO MARI.—Zer egingo zaio? Ameriketara joateko hortik pasa beharra zegok.

MARTIN JOXE.—Bai, Pedro Mari, segi ezak beldurrik gabe. Hire bizitzan lanak eta nekeak pasa beharko dituk, baina merezi dik aberastuta etxeratzekotan... Baina, presaka nabilek, Pedro Mari eta utzi beharko haut. Soroan bazeukat zer-eginik franko, egur pittin bat ere moztu nahi nikek eta arratsean artaldea bildu.

PEDRO MARI.—Nik ere pixka bat zuzpertzeko otordu koxkor bat egin eta abiatu beharko diat.

MARTIN JOXE.—(*Sorbaldako sendo batzuk elkarri emanaz*). Agur, bada, Pedro Mari; ongi joan eta ea Amerika hortatik ontzako urrez mukuru etortzen haizen urte asko baino lehen (*bihoa emeki emeki*).

PEDRO MARI.—Ahaleginak egingo dizkiat. Lanerako gogoa eta sasoia bazeukat. Gainerakoa berez etorriko duk. Ongi bizi Martin Joxe eta noizpait —hogei edo hogeitamar urte barru?— elkar ikusi arte.

LAUGARREN AGERRALDIA

PEDRO MARI ETA BI GUDARI ESPAINAR

(Eskuin aldetik, lehenago aipaturiko bi gudariak, Pedro Mari-ri begira keinuka zihardutenak alegia, sartzen dira. Pedro Mari ogiarteko bat jaten hasiko da. Bi gudariak, halaber, ogiarteko bana janaz eta zato bat ardo dutelarik sartuko dira. Agerraldi hau, nahita nahiez, gaztelaniaz egin beharrean aurkitu gara, bi soldadu gaztelauak euskerarik ez dakitelako eta bertan esaten direnak esanda, absurdo bat litzatekeelako gure mintzairan hitz egitea, entzuleari (edo irakurleari) suposa-arazi beharrez gaztelaniaz ari direla. Erdaraz emanda berriz, berezkotasuna eta errealitatea bizi-bizirik gordetzen ditu.)

GUDARI (1).—Buenos días, amigo, ¿con que almorzando, eh?

PEDRO MARI.—(*Erdalgaitzean*). Sí, un poco comiendo o así.

GUDARI (2).—Pues que aproveche, muchacho.

PEDRO MARI.—También bosotros buen probecho.

GUDARI (1).—Buen tiempo tienes para ir de viaje.

PEDRO MARI.—Ya lo creo.

GUDARI (2).—¿Hasta dónde vas, si no es indiscreción?

PEDRO MARI.—Primero, Pamplona, luego diligentzia Cádiz, coger barco y hasta las Américas.

GUDARI (1).—¡Cáspita! ¡Menudo viaje!

GUDARI (2).—¡Quién pudiera ir a América!

GUDARI (1).—Sobre todo ahora, en los tiempos que corremos.

PEDRO MARI.—Sí, malos tiempos, mejor ir América.

GUDARI (2).—¡Pero, hombre, si estás comiendo a palo seco! Echa un trago de nuestra bota (*eman biezaio zatoa*).

PEDRO MARI.—(*Soldadu gaztelauen atsegintasunaz harriturik*). Grazias, muchas grazias (*edan beza*). Buen bino.

GUDARI (1).—Tú verás, compramos en Logroño, así que auténtico vino de La Rioja.

GUDARI (2).—Pues ya puedes beber tranquilo todo lo que quieras, que para eso está. Además, con algo hay que celebrar tu viaje a América.

GUDARI (1).—Toma, echa otro trago sin miedo, que en América podrás hacer mucho dinero pero no vas a tener este vino.

PEDRO MARI.—(*Edan ondoren*). Grazias, amigos, grazias, pero estoy un poco abergonzado. Además, yo no sé hablar bien castellano.

GUDARI (2).—¡Pero si hablas estupendamente! No tienes por qué avergonzarte.

GUDARI (1).—Además, vosotros, los navarros y los vascongados, tenéis una lengua maravillosa. ¡Quién pudiera saberla!

GUDARI (2).—Yo estuve de guarnición durante un par de años en San Sebastián y Fuenterrabía y aprendí bastante. Sé decir *neskatxa polita, ardo ona, ekarri dirua, eman musu bat, asto koskorra, arraio pola* y así otras cosas.

PEDRO MARI.—Pues sabes mucho.

GUDARI (2).—¡Qué va! Solamente para defenderme un poquitín. Pero bebamos, muchachos, que este feliz encuentro con un honrado vascongado hay que celebrarlo. Yo en mi profe-

sión de soldado he recorrido muchos países, pero en ninguna parte he hallado gente tan honrada y servicial como la vascongada. (*Edan bezate hirurek.*)

GUDARI (1).—Tienes razón, amigo mío, todos los navarros y vizcaínos llevan la honradez y la nobleza en la sangre.

GUDARI (2).—Amigo vizcaíno, puedes estar orgulloso de llevar sangre vascongada en tus venas. ¡Quién pudiera llevarla! Vuestra nobleza es universal y no estáis contaminados por las razas impuras, como son los judíos, moros, agotes y demás ralea. Ante vuestros venerables Fueros el Rey tiene que doblegar su orgullosa cabeza acatando el Pase Foral que proclama solemnemente: «Se obedece pero no se cumple». Sois un pueblo libre que a través de su historia supo mantener a raya a romanos, godos, francos, moros y demás invasores. Los vascones derrotaron al malvado rey franco Carlomagno en la gesta de Roncesvalles. Vuestro Rey Sancho VII el Fuerte derrotó definitivamente a los moros en la batalla de las Navas de Tolosa; un vizcaíno, Juan Sebastián de Elkano, dio el primero la vuelta al mundo, etcétera, etcétera.

PEDRO MARI.—Sabes mucho más que yo, soldado.

GUDARI (1).—Es que mi amigo es Bachiller, para que lo sepas. Tiene una cultura superior a los oficiales, quienes le consultan a menudo. Por lo tanto, no te extrañe nada de lo que has oído. Pero, amigos míos, brindemos por el noble pueblo vascongado, y a falta de copas echemos un buen trago del Rioja de nuestra bota (*edan bezate bana bana eta Pedro Mari edaten ari den artean, haizto bereizi batekin edo guraizeekin motu biezaio trebetasun handiz gerritik zintzilik daraman diru-boltsa eta ezkuta beza bere txamarraren barruan*).

GUDARI (2).—(*Danbor hotsa entzun bedi urrutian*). ¿Pero qué sucede? Sin duda llaman a filas. Tenemos que incorporarnos rápidamente. Vayamos. Agur, noble vizcaíno, buen viaje y que Dios te ampare (*atera bitez korrika*).

PEDRO MARI.—(*Bakarrik*). Zer gertatu ote zaie hain larrituak joateko? Sekula ez dut entzun hain ederki hitz egiten dakien gizonik. Zoraturik nengoen berari entzuten. Zer goraipamenak ez ote dizkigu egin euskaldunoi! Gaztelau guztiak

ez dira, nonbait, Martin Joxe-k esaten zuen bezain makurrak eta doilorrak... (*Bat batean, igarriz*). Baina boltsa askatu edo erori egin ote zait? (*Eskuak gerrira eramanaz*). Ala Jainkoa!... (*dena izu eta amorru*). Lapur zerriok! Ebatsi (ostu) egin didazue! Koko urdeak! Gaztelau zapoak! Arrazoi zian, bai, Martin Joxe-k. ¡Man errobau!, ¡Man errobau! (*Irtetzen da lapurren atzetik*).

BOSKARREN AGERRALDIA

KAPITANA ETA TENIENTEA

(Agerraldi hau ere gaztelaniaz emanen dugu ezinbestean. Pedro Mari-ren oihuak eta dehadarrak entzun bitez gero eta apalago, «lapurrak!», «gezurtiak!», «maltzurrak!», «doilorrak!» eta holako esanaz euskaraz eta «man errobau» gaztelaniaz.)

KAPITANA.—(*Agertokira azaldu gabe eta Olague-ko kaletan dabiltzan gudariei hots eginaz*). ¡Eh, soldados! ¡Detened a esa fiera alocada y traédmelo aquí que yo la amansaré! ¡Si resiste dadle una buena zurra! (*Agertokian sartuz*). Es un locó de atar, lo demás no se entiende. Pero ¿te has fijado? Vociferando y rugiendo como un endemoniado. Vete a adivinar lo que iba diciendo en su lengua de perra vizcaína.

TENIENTEA.—(*Pedro Mari atera zen aldera begiratuz*). Creo que ya le han cazado, aunque parece ser que se resiste el muy bravucón.

KAPITANA. (*Begiratuz eta jestoka*). ¡Duro con él, sargento! ¡Zúmbalo hasta que se achante! ¡No tengáis compasión de ese hijo de perra! Ya le enseñaré yo a ese vizcaíno de Barrabás lo que es la disciplina. Lo que gozaré domando a ese potro salvaje.

TENIENTEA.—¿Acaso piensas enrolarlo en el ejército?

KAPITANA.—¿Por qué no? Me lo llevo a granaderos. Buen mozo, por otra parte, comparado con esta morralla. Pienso hacer de él un buen soldado. ¿No lo crees?

TENIENTEA.—No digo que no. Pero se da la circunstancia de que por su condición de navarro o vizcaíno, como quieras lla-

mar, podríamos vulnerar los Fueros del Reino de Navarra. Ya sabes que los naturales de este País están exentos de servir en el ejército castellano.

KAPITANA.—¡Qué Fueros ni qué narices! No me vengas a mí con esas historias. Ya que lo hemos pescado en nuestras redes no le vamos a soltar tan fácilmente. Caso de que hayamos cometido un acto ilegal, ¿a quién va a recurrir el desgraciado si ni tan siquiera sabe hablar? No te preocupes por tan poca cosa, hombre; además, respondo yo.

SEIGARREN AGERRALDIA

KAPITANA, TENIENTEA, PEDRO MARI, SARJENTOA ETA BI GUDARI SOIL

(Agertokian sartu baino lehen Pedro Mari-ren mintzoa entzun bedi. Hau, bi soldaduren baioneta artean dakarte, sarjentu baten agindupean.)

PEDRO MARI.—(*Desesperaturik*). ¿Man errobau y yo preso? Pero ¿por qué? Yo conozer soldados ladrones. Bosotros coger hazer.

SARJENTUA.—¿Con que los soldados somos ladrones? Toma esto (*masaileko bat eman biezaio*) para que aprendas. Y cállate de una vez que con tu lengua de trapo vizcaíno me sacas de quicio.

KAPITANA.—Por fin ya están aquí (*sar bedi Pedro Mari bi soldaduren baioneta artean eta sarjentuaren agindupean*).

SARJENTUA.—(*Diosala militarki eginaz*). Aquí le tiene a su prisionero, mi capitán.

KAPITANA.—Gracias, sargento, has cumplido con tu deber. (*Pedro Mari-rengana zuzenduz*). ¿Cómo te llamas?

PEDRO MARI.—Pedro Mari Belarra.

KAPITANA.—¿De dónde eres?

PEDRO MARI.—De Errazu.

KAPITANA.—Se contesta «de Errazu, mi capitán». ¿Y dónde está ese maldito pueblo?

PEDRO MARI.—En el Balle de Baztán, zerca de Elizondo.

KAPITANA.—Elizondo, ya conozco. Allí íbamos destinados, pero acabamos de recibir contraorden. Volvemos a Pamplona. Pero ya te he dicho que siempre tienes que decir «mi capitán», o por lo menos «señor».

PEDRO MARI.—Sí, señor.

KAPITANA.—Y cuádrate, so imbécil.

PEDRO MARI.—¿Qué es eso?

KAPITANA.—¿Pero todavía no has aprendido a decir «señor» o «mi capitán» y encima no sabes lo que es cuadrarse? (*Sarjentuarengana zuzenduz*). Enséñaselo, sargento (*erakuts biezaio*).

SARJENTUA.—Así se cuadra, tonto del higo.

KAPITANA.—Bien, así me gusta. Ahora que has aprendido a cuadrarte, en lo sucesivo serás soldado de Su Majestad el Rey.

PEDRO MARI.—¿Yo soldado? Yo ir América...

KAPITANA.—Haz el favor de no chistar. El sargento Hernández se encargará de darte la instrucción.

SARJENTUA.—A sus órdenes, mi capitán. Será para mí un placer.

PEDRO MARI.—Es que tú no entender, yo ir América...

KAPITANA.—No quiero saber nada de tu vida y haz el favor de no tutear a tu superior. Y aprende a decir «señor» o mejor «mi capitán», si no quieres que te arreste. Contesta: sí, señor; sí, mi capitán.

PEDRO MARI.—Sí, señor; sí, mi capitán. (*Bat-batean, desesperatuki*). Pero yo nabarro ser, yo derechos tener. Yo obligazión tener serbir Nabarra contra frantsez, pero no serbir en ejértzito castellano. (*Ahots ozenez, beldurra galduta*) Nabarros Fueros tener, Derechos tener. Nabarra Cortes tener, Virrey tener. Yo a ellos serbir.

KAPITANA.—(*Sutua*). ¡Cállate, hijo de perra, vizcaíno del demonio!

PEDRO MARI.—Yo nabarro ser, no bizkaino.

KAPITANA.—¡Me da lo mismo! ¡Sois tal para cual! Y por tu insolencia vas a ir al calabozo. Estoy hasta las narices de vuestros Fueros. Para mí no tenéis ningún derecho. Sois lo mismo que los demás españoles y tenéis que pasar por el mismo rasero. Además, si te dejáramos libre tendrías que servir con los tuyos, porque supongo que los navarritos no pensarán comer a la sopa boba, mientras los demás españoles nos descrismamos con los franceses. Con los tuyos o con nosotros es lo mismo. Por lo tanto, no pienses que te hacemos una injusticia. (*Sarjentuarengana zuzenduz*) Sargento, puedes llevártelo. Empieza a enseñarle la instrucción militar y en cuanto lleguemos a Pamplona...

SARJENTUA.—(*Moztuz*). Perdón, mi capitán, ¿ha dicho usted Pamplona?

KAPITANA.—Sí, volvemos a Pamplona. Son órdenes. Digo que en cuanto lleguemos a Pamplona le meteréis en el calabozo del cuartel a pan y agua durante ocho días. Y soy condescendiente, porque su insolencia merecía un mes de arresto.

SARJENTUA.—(*Tentetuz eta militarki agurtuz*). A sus órdenes, mi capitán. ¿Desea usted alguna cosa más?

KAPIIANA.—Que cumplas a rajatabla lo que te he ordenado. Nada más.

SARJENTUA.—Pierda usted cuidado, mi capitán (*berriz agurtzen du militarki eta joaten da bi soldaduekin eta Pedro Marirekin*).

TENIENTEA.—Al fin te has salido con la tuya, Ernesto. Ya sabes que a mí no me gusta atropellar a nadie. Soy temperamentalmente pacífico y no me agradan las acciones ilegales. Sin duda somos muy diferentes: tu carácter violento a veces me asusta. Espero que no nos traiga una mala consecuencia el atropello que hemos cometido, porque indudablemente hemos violado los Fueros de Navarra y esto nos podría costar un arresto o algo peor.

KAPITANA.—No temas, amigo Agapito, que nada sucederá y, en todo caso, como te he dicho antes, asumo toda la responsabilidad. Pero ten presente que esos perros siempre llevan los Fueros en la boca para no servir al Rey. ¡Cualquiera diría que san de otra casta! ¡Puesto que ha caído uno en

nuestras uñas, te juro que he de domarlo! Eso sí, son hombres valientes, y a ninguno ceden en funciones de guerra.

TENIENTEA.—Hablando de otro asunto: ¿es cierto que volvemos a Pamplona?

KAPITANA.—Es lo que nos comunicó el comandante anoche. Partiremos mañana o pasado mañana.

TENIENTEA.—¿Pero no íbamos a Elizondo? ¿A qué se debe, entonces, la contraorden?

KAPITANA.—Parece ser que el Virrey de Navarra se hace cargc de la defensa de su país con tropas autóctonas (1). Es lo que han decidido las Cortes de Pamplona. Según ellos, Navarra es un reino soberano y por lo tanto dueño de su destino. Dime ahora si tengo razón o no para odiar los Fueros. Por lo tanto, nosotros sobramos en Navarra y nuestro destino inmediato será Huesca, aunque parece ser nuestra misión será defender la frontera franco-catalana.

OIHALA JAITSI BEDI

(1) Erretordeari (errege-ordeari) Sangro-ko Jaun Handia eta Castelfranco-ko Printzea zeritzan, eta berehalakoan zazpi batalloi nafar altxatu zituen gerlarako (Manuel Lekuona, Idazlan guztiak, La guerra de la Convención en Oyarzun, 5 Tomoa, 347 p.).

BIGARREN EGIKERA

Agertokia, Rosellon-go Pirineo mendietan kokaturik dagoen Perthus-ko karrika edo etxadi bat, Catalunya-ko muga ondoan. Frantses armadaren (gudostearen) destakamendu bat dago bertan. Herri hontan, Narbona-ko batalloi bat eta hiru konpainia baxenabartar (ehiztaritakoak) bakarrik zeuden. Desflers-en «dibisioko» parte txipi bat ziren. Hau, Ceret-en zegoen armadaren parte nagusiarekin. Agertokian zortzi gudari baxenabartar ager bitez umore onez, zatoa lagun dutelarik, euren artean Xurio, Joanis, Pello Larralde eta Barnetxe. Gudariok, sasi-militarki jantzirik beude, hots: txamar urdinak, galtza grisak, txapel gorri handiak, abarkak edo botak eta puntozko hiru koloredun frantses gerrikoak, «Zabalkundea» liburu sortako Narraciones Baskas III tomoan ikus daitekeenez. Pedro Mari, berriz, armada espainoleko uniformeaz jantzirik ager bedi. Hau ere, aipatu liburu azalean ikus daiteke. Zortzi soldadu euskaldunak Baigorri eta inguruetakoak dira. Joanis-ek eta Pedro Mari-k elkar ezagutzen dute kontrabandu denboretatik. Destakamendu hontan, gezurra badirudi ere, lizifrinak jai du. Arratsaldea aintzina doa eta Pedro Mari agertzean ilunabarra da.

LEHENENGO AGERRALDIA

XURIO, JOANIS, PELLO LARRALDE ETA BARNETXE

ZORTZI GUDARIEK (*Kantuz*).

1. *Iruten ari nuzu,*
   Kilua gerrian,
   Ardura dudalarik
   Nigarra begian.

2. *Nigar egiten duzu,*
   Oi! suspirarekin,
   Kontsolaturen zira,
   Bai, denborarekin.

3. *Ezkon mina dudala*
   Zuk omen diozu,
   Ez dut amore minik,
   Gezurra diozu.

4. *Ezkon mina dutenak*
   Seinale dirade,
   Matrel hezurrak seko,
   Koloriak berde.

XURIO.—Ixo, mutilak. Han, urruti hartan, norbait mugitzen ote den irudi zaidak (*denak ernai jarri bitez punto hartara begira*).

JOANIS.—Bai, eta honontz zetorrek pausoz-pauso pinadiaren aldamenetik. Aurki hemen diagu, saihesten ez bada.

XURIO.—Badaezpada ere eutsi eskopetei, ez baitakigu nor den.

JOANIS.—Espainiako mugaldetik zetorrek. Etsaia ote?

BARNETXE.—Trazak bazirudik. Beharbada gibeletik (atzetik) gehiago dizkik. Pello, kapitanari abisu emaiok norbait datorrela mugaldetik eta espainola izan daitekeela.

PELLO.—Baniak salto batean (*bihoa katagorria bezain bizi*).

XURIO.—Makur gaitezen eta apunta dezagun, hemen duk eta.

JOANIS.—(*Etorkinari euskaraz*). Nor da hor? Eskuak gora!

BARNETXE.—(*Umoretsu*). Burutsu jokatu duk euskaraz oihu egiten. Ezetz gauza zuzenik erantzun (*ez da etorkinaren erantzunik jasotzen*).

XURIO.—Beharbada ez dik entzun. Galdetu berriz.

JOANIS.—(*Ozenki*). Nor zaitugu! Erantzun edo disparatuko dugu!

BIGARREN AGERRALDIA

LEHENGOAK, PEDRO MARI ETA ZENBAIT SOLDADU EUSKALDUN GEHIAGO, BEREN ARTEAN ISTEBE ARRETXEA TXIROLARIA

PEDRO MARI.—(*Agertokian sartu baino lehen, isilune baten ondoren*). Euskalduna naiz, ez disparatu!

BARNETXE.—(*Harri eta zur*). To! Ederra eman ziguk erantzuna!

PEDRO MARI.—(*Eskuak gora sartuz*). Esker mila, anaiak. Mendian lainopetan galdu naiz. Hontan, zuen euskal kanta ederrak entzun ditut eta kantuari jarraiki zuenganatu naiz.

JOANIS.—Baina (*hizketara joaz*), hi ez al haiz Pedro Mari Pagogainakoa?

PEDRO MARI.—Eta hi Joanis, Bordaberrikoa?

JOANIS.—Hau duk, hau! Besarka dezagun elkar! (*Besarka bezate*). Baina, nondik eta nola? Hi ere soldadu?

PEDRO MARI.—Espainolek preso hartu nintxiotekan Olague-n Ameriketara nihoala eta beren armadan bortxaz sar-arazi. Honetxegatik niok soldadu jantzita, fusil eta guzti.

JOANIS.—(*Lagunei aurkezpena eginaz*). Errazu-ko lagun zahar bat, mutilak! Izpegi-ko mendatean dagoen Pagogaina etxaldeko semea, nerekin kontrabandu lanean ibilia. Betor zatoa neure adiskide onarentzat. (*Eman biezaiote*). Edan lasai, Pedro Mari. Gero kontatuko dizkiguk hire ibilerak (*zatoa eskuz-esku pasa bezate eta denok trago bana egin*).

ISTEBE ARRETXEA.—(*Bere txirolarekin sar bedi beste gudari euskaldun batzuz lagundurik*). Zer dela-eta hainbeste iskanbila?

JOANIS.—Errazu-ko adiskide hau espainolen lerroetatik gure artera heldu dela-eta.

ISTEBE.—Hori ospatu egin behar duk! Betor ardoa eta biba (gora) euskaldunak!

DENOK.—Biba! (*Berriz ere zatoa pasa bezate eskuz esku*).

ISTEBE.—(*Pedro Mari-ri*). Baina jakin nahi diagu nola izan den hori. Mirakulua (miraria) baitirudi hemen beste aldeko euskaldun bat agertzea, orain batipat, gerla zikin honek bereizten gaituelarik.

PEDRO MARI.—Kontatuko dizuet, mutilak, hain gogotsu bezarete neure ibilera tristeak jakiteko (*jendea Pedro Mari-ren inguruan jar bedi, batzuk tente, besteak eserita edo pikotxean, baina gure mutila estali gabe*). Entzun: Neure ogasun guztiak salduta, irten nintzen Pagogaina-ko bordatik (baserritik) Ameriketarako asmoz. Olague-n jakin nuen Espaina eta Frantzia arteko gerla sortu zela eta bertantxe topo egin nituen espainolen lehenbiziko tropak. Bi soldaduk, gezurra eta zikinekin, boltsa ebatsi (ostu, lapurtu) zidaten nere diru guztiekin eta ondoren kapitan batek preso hartu ninduen eta bere granadero konpainiara soldadu eraman, gure Foruak hankapean hartuz. Olague-tik, Iruñea zehar, Huesca-ra eraman gintuzten eta hemen egin genuen hilabetean instruzino pixkabat ikasi nuen. Kapitanari nere kontrako amorrua pasa zitzaion, istimua hartu zidan, mehatxu egin zidàn astebeteko kalabozua barkatu eta nik salatu niz-

kiòn bi soldadu lapurrak preso hartu zituen, ostutako (ebatsitako) dirua kendu eta neri eman; baina ez ninduen soltatu. Bere soldaduei justizia egitea bidezkoa zeritzaion, baina ni libre uztea ez. Beti lelo berbera errepikatzen zidan: gurekin gerla egingo ez bahu, hire anaiekin egin beharko huke. Beraz, ez diagu injustiziarik egiten. Gurekin edo haiekin berdin duk. Huesca-tik Catalunya aldera ekarri gintuzten eta Perthus-eko mendatean leku hartu genuen. Bellegarde deritzan gaztelu fortifikatuan ikusten genuen hiru koloreko bandera frantsesa: etsaia zen. Gaur goizean goiz, gure konpainiako soldadu batzuk, teniente baten agindupean, Frantzia-ko lurretan sartu gara, etsaia bistatzen ote zen eta zein puntotan zegoen jakiteko. Hontan laino trinkoa sartu zen eta mendian galdu ginen. Orduan, bidea bilatu ustetan (mendiko lainotan nere lagunak baino ohituago bainengoen) nere taldetik gehiegi separatu nintzen eta konturatu gabe bakarrik aurkitu nuen nere burua. Bazterrik bazter ibili nintzen mendian ene lagunok topatu nahian, baina, hurbildu beharrean, aldendu egin nintzen nonbait. Hontan, zuen kantu hotsak entzun nituen eta haiei jarraiki zuen artean aurkitu naiz. Orain badakizue nere etorreraren berri.

JOANIS.—Hi hago lasai gure artean, Pedro Mari. Gure arrantxotik jango duk eta gurekin lo egin. Guk ez haugu preso hartuko. Ni mintzatuko nauk kapitanarekin. Euskalduna duk, Azkarate-koa, apezgai izatetik militar izatera etorria. Erreboluzionario gogorra duk, baina bihotz oneko gizona.

PEDRO MARI.—Milesker, Joanis, zuen harrera onagatik. Eta zuek nola heldu zarete bazter hauetara?

XURIO.—(*Lasai asko eta umoretsu*). Honera ekarri gintuzten eta hemen gaude. Izenez bolontariak gara, «Nafarroako bolontarioak». Izanez, beste kontu bat da. Ehiztaritako hiru konpainia osatzen ditugu euskaldunok eta Mendiri kapitanaren agindupean gaude.

PEDRO MARI.—Baina, bolontariak zarete ala ez?

JOANIS.—Xurio-k esplikatuko dik hori, berak dakien bezala.

XURIO.—Bolontariak deitzen gaituzte eta hala errepikatzen dugu (*irribarre maltzur bat eginaz*). Hala ezartzen zuen bederen geure herritik atera baino lehen erakutsi ziguten kan-

tak. Mutilak irtetzea ala ateratzea ote zen? Ez dut oroitu nahi. Baigorri-tik irten baino lehentxeago.

«Biba Nafarroako
Bolontarioak.»

Baina, ni, jendarmeek, muga-mugara iristen nintzelarik, atzeman ninduten lepotik. «Bolontario» ote naiz? (*Farre algara biziak*).

JOANIS.—Orain, esplika dezala «aferra» bere gisa Barnetxe-k, hots, Banka-ko jakintsuak.

BATZUK.—Mintza dadila, mintza dadila!

BATEK.—Bai, hitz egin dezala. Ez zaio arrazoirik faltako, beti bezala.

BARNETXE.—(*Mutil luze eta flakuxta, sudur luze, belarri handi*). Zakurrak kateaz lotuta zaintzen dik etxea. Bere gogoz al zegok han? Alabaina, nahi duelako zaunka eta hozka egiten dik. Hala guk ere.

PEDRO MARI.—Nik aditzea nuen zuen eskualdetik bolontari mordoa atera zela.

BARNETXE.—Askotxo izan ziren aurrena balontari apuntatu zirenak: bixka ezarleak. Horiek, ordea, han gelditu dira. Norbaiti iruditu zitzaion gure fusilek ez zutela su egingo euskaldunen haragian eta bazter galdu hauetara ekarri gaituzte.

XURIO.—Istebe Arretxea lekuko, gaztelau beltz horiek barrenak kiskaltzen zizkidatek. Behiak eta loturak (paketeak) ebasten dizkiguten guardak ere, gaztelauak dituk denak: madarikatuak!

JOANIS.—Eta lepotik heltzen duten jendarme ile gorriok, Xurio?

XURIO.—Gaztelauak bezelaxe, zer arraio! Egia esateko, atsotitz zaharrak: «Zozoak beleari, ipur beltz».

JOANIS.—Hil ditezela elkarren artean borrokatzen ilegorriak eta ilebeltzak hala nahi badute. Beren arteko auziak bost axola guri. Haserretzen baldin badira, gu bakean utz gaitzatela. Jainkoak jarri zuen mendian libro euskalduna.

BARNETXE.—Horrela duk; baina, ondikotz! loak hartu gintuen, eta esnatu ginelarik, Frantziaren eta Espainiaren mendean aurkitu ginen. Horregatik estutzen gaitu tenezak. Gaitz txarra! Bi suren artean harrapatu gatuzte eta baten etsai izan behar, biena ez izateko. Baina, zer eginen dugu, mutilak; hemen gaude eta hemen egon beharko.

PELLO LARRALDE.—(*Mandatutik bueltan sar bedi agertokian arnas-estuka. Danborraldi bat jo beza eta ondoren oihu egin*). Biba Nazionea!

BARNETXE.—Zer esan dik kapitanak?

PELLO.—Oraintxe datorrela, eta delako hori preso hartzen baduzue, hementxe eukitzeko bera etorri arte.

PEDRO MARI.—(*Pello-ri begira atsegintsu*). Nor duzue mutiko alai hau?

BARNETXE.—(*Mutil koskorrari eskua buru gainean ezarriz*). Hau, Pello Larralde da, konpainiako danborlaria (danbor-jotzailea), guztiok asko maite dugun Irulegi-ko umezurtz bat; semetzat daukagu.

PELLO.—(*Barnetxe-ri*). Aizu, ez zaitezela ahantz (ahaztu) zure aginduaz, eh?

BARNETXE.—Ez, motel, ez; ez nauk ahaztuko! (*Lagunengana zuzenduz*). Pentsa! Mila bider eskatu zidak fusila disparatzen utz diezaiodala aurreneko gudaldian. Pisuari igarriko balio!

PELLO.—Baina, zeuk eutsiko didazu, tontolo! Balaz kargatua egonen da, noski (*soldadu guztiek samurkiro eta atseginez begira biezaiote mutikoari, gozoro farre eginaz*).

PEDRO MARI.—(*Eskua sorbalda gainean jarriz Pello-ri*). Jostailu txarra duk hori gizonarentzat, Pello. Hobe izanen duk hire bizian atxurrarekin saia eta ez fusilarekin.

(Hontan, karrikan, agertokitik kanpora, zarata izugarria entzun bedi: zakurrak zaunka, haurrak garraisika, atekadak, kolpeak eta dehadarrak edonun. Emakume, haur eta gizatalde handiak entzun bitez —ikusten ez direlarik— bastidorez kanpora «Marsellesa» eta «Ça ira» kantatuz (1). Lagunabarrak oihu egin beza: «Vive le citoyen representant!», «Vive Fabre!», «Vive la Convention Nationale!». Jendetza igarota gero bi dehadar handi entzun bitez eta ondoren atakera doan gudari-talde bat pasatuko da «Marsellesa» ozenki kantatzen dutelarik. Gure baxenabartar gudariak, gizatalde luzeari begira egon bitez, jendearen hotsa emeki itzali artean.)

---

(1) Jendea agertoki zehar pasatzen ere egin daiteke, teorian behintzat, baina izugarri garesti joko luke, hainbeste jazki, arma eta jende biltzen. Gainera, agertoki handi bat behar litzateke. Beraz, praktikan ez da posible. Egitekotan, ordea, jazkiak zarpailduak eraman bitzate, gizaseme eta haur askok alkandorak eta galtzak urraturik, hiru margodun bandera frantsesa aintzinean daramatelarik. Gizonezko askok pistolak eta ezpatak eraman bitzate gerrian. Gudari taldea fusilez armaturik et baionetak erantsirik iragan bedi.

PEDRO MARI.—(*Gudari saila igarota*). Nora doaz soldadu horiek hain mehatxukor?

JOANIS.—Perthus-eko lepora lehenik eta gero, diotenez, Espainia menderatzera.

XURIO.—Espainian zenbat sartuko diren ez zekiagu, baina bai horietako asko ez direla etxera itzuliko.

PEDRO MARI.—Hala uste nik ere: bat baino gehiago beleen janari bihurtuko dituk. Dena den, ez nikek horien larruan egon nahi.

BARNETXE.—Baina aurki egonen gaituk.

PEDRO MARI.—Euskaldunik bai al da horien artean?

XURIO.—Ez, Narbona-ko batalloikoak dituk. Languedoctarrak oro.

PEDRO MARI.—Gerla nahi duena, bihoa, baina utz gaitzatela euskaldunok bakean geure Herrian.

HIRUGARREN AGERRALDIA

LEHENGOAK ETA MENDIRI KAPITANA

(Mendiri kapitana urrats sendo eta biziz sar bedi agertokian. Gizon txipi samarra da, bekoki estu eta txordoa (cejijunto). 30/35 urte. Fanatiku hutsa izanarren, ezin disimulatu ditu apezgai izanaren manerak. Denek militarki agurtu bezate.)

JOANIS.—(*Pedro Mari-ri ahots apalez*). Mendiri kapitana duk. Lehenago esan bezala, Azkarate-ko semea eta apezgai ibilia.

MENDIRI.—(*Aginkor*). Ekar iezadazue aguro mahai bat edo kadira (jarleku) bat, bertatik hitz egin diezazuedan. Etsaia gainean dugu eta denborak urrea balio du. Non da gure aldera heldu den gizasemea?

JOANIS.—(*Pedro Mari aurkeztuz*). Hemen duzu, ene kapitana. Pedro Mari deritza eta Errazuarra da. Espainolek bortxaz eraman zuten soldadu Nafarroa-ko Foruak urratuz, eta abagunea sortu zaion bezain laster gure aldera pasatu da. Esan beharrik ez neure aspaldiko laguna dela.

MENDIRI.—(*Pedro Mariganantz urreratuz*). Bejondikela, adiskide! Beraz, siniskeriara eta despotismura lotzen hinduten kateak hautsi dituk! Aurki ulertuko ditek beste espainolek, Errepublikak erregeei egiten diela gudu eta ez herriei. Borboiez, fraidez eta inkisidorez libro gelditzen zaretelarik, Espainia bihozkoiak betiko esker ona gordeko ziok Frantziari. Hik betiko ospea edukiko duk, hire herrikideei aurreratu hatzaielako, hauek sineskerien mende baitaude oraindik. Zer egiten ditek orain? Dardariztatzen zeudek? Beldurrak ihesi zihoaztik gizadiaren mendekatzaile (bengatzaile) frantsesak eta arrazoiak Pirene burgoiaren ateak puska ditzaten baino lehen?

PEDRO MARI.—(*Apalki*). Jauna, prediku ederra egin duzu, baina nik ezer gutxi ulertzen dut gauza hauez.

MENDIRI.—(*Pedro Mari-ri bizkarreko atseginkor bat emanaz*). Ah!, adiskide, ez duk ulertzen? Alegia, esan nahi nikek, espainolek, frantses soldaduak ikusi bezain laster, sakabanaturik, lotsagarriro ihes eginen dutela.

PEDRO MARI.—(*Lotsakor eta apal*). Ba, entzun dudanez, jauna, espainolek ez omen dute ihes egiteko asmorik, erasotzeko baizik.

MENDIRI.—(*Antustez*). Eta sinesten al duk hori? Taju gabeko erokeria! Errege Katolikuaren jarraitzaile bilauak (doilorrak) Errepublikaren mugalde hauek ikutu bezain laster, apurtuak geldituko dira, zingiretako lurrin kiratsa eguzkiaren printza (izpi, errainu) indartsupetan bezala. (*Pedro Mari isilik geldituko da, eta Mendiri-k, sorbaldan besoa ipiniz, amultsuki hitz eginen dio*). Hi gurekin etorriko haiz, eh? Leku bereizi batean jar hazatela aginduko diat, hire kate-urratze borondatezkoaren saritzat. Gaurdanik gizon libroa haiz!

PEDRO MARI.—(*Pozkiro eta xaloki*). Libro baldin banaiz, bihar bertan agurtuko ditut adiskide hauek. Ez sutegi, ez ikaztegi, ez zaizkit gogoko.

MENDIRI.—(*Haserrekor*). Uste al duk libertatea gurekoikeria dela? Sozial paktora (gizarte itunera) ez hauela lotzen? Hire zigorra (kastigua) gure egintza hilgaitzak (hilezinak) ikustea izanen duk, beroietan parterik hartu gabe, lanik makurrenak eginaz; jopuak (esklabuak) ergastulatik (ziegatik) begiesten zituen hiritarren egite gailenak.

(Bitartean bi soldadu heldu bitez mahai batekin, Mendiri-k agindu bezala. Bietako batek hitz egin beza.)

SOLDADU BAT.—Hona hemen mahaia, kapitan jauna.

MENDIRI.—Ongi da, utzi bazter hortan (*ondoren, salto bat eginaz igo bedi bertara*). Herritarrak! Imita ezazue Marsellatarren bertutea (onbidea). Aberri maitasun garbienaren sukarrez dauzkate bularrak! Abertzaletasunaren gunak elikatzen (mantentzen) ditu etengabe. Euskaldunak! Aitonen jakinduriak argiturik, legeak zuhaitz sakratuen itzalpetan egiten ditugun Herri zahar eta bihozpera! Gure arbasoen duin azal gaitezen! Haiek ez baitzuten sekula bururik makurtu erregeen aintzinean, nahiz Cesar, Karloman edo Luis XVI-garrena deitu. Guk, jatorrizko libertatea beneratzen dugularik, benera dezagun orobat hiritarra eta errepublikatarra. Foceotar argien jarraitzaileei elkarturik, hemengo mendi basati bakoitza Termopila berri bihur dezagun, bertan azken arnasa eman dezaten espainar borbontar despoten ingurukoak eta Inkisizinoaren gizeraile ikaragarriak. Plutarco berri batek kontatuko ditu zuen egite gailenak; Fabre aurkezleak eramanen du Konbenzinora (Herri-elkartera) zuen hiritasunaren lekukotza (zibismoaren testigutza) eta Frantziako nazino libroaren Areopago argitsuak (disdiratsuak) iskribatuko ditu urreko letretan zuen izen onbidetsuak (bertutetsuak) Aberriaren aldare sakratuan.

(Mendiri kapitanaren hitzak isilik eta errespetuz entzun bitzate gudari euskaldunak, baina, amaitzean, ez diote txalo bat ere joko, ez aurpegi gozorik jarriko, eta samindua alde egin beza.)

XURIO.—(*Mendiri aldentzean, Pedro Mari-ri*). Arratsoro eman ohi ziguk horrelakoxeko hitzaldi bat; delako Jean Jacques batek iskribitutako liburutxo bat irakurtzen hasten ez zaigunean. Ez zekiat nor den jaun hori, baina haren liburua beti soinean eramaten dik.

BARNETXE.—Dena gezurra! Euskalerriko Biltzarrak desegin dizkitek, Eliza hankapean hartu ditek, libertateak oro kendu zizkigutek eta Libertatearen izenean mintzatzen ausartzen dituk. Hipokrita alenak!

JOANIS.—Izan ere, predikari zelebreak heldu zaikiguk. Erbiak bezala ehizatu eta kateatu gatxiotek eta libertatearen defentzaile omen! Noizdanik ote duk libertatea gizonak kateaz lotzea?

ISTEBE ARRETXA.—(*Bere txirola jotzen hasiaz*). Tira, mutilak, utz ditzagun berriketak eta filosofiak alde batera eta goazen dantzara, oraindik denbora badiagu eta. Gaur dantza gaitezen, bihar ez baitakigu biziko garen (*mutil-dantzaren doinuari ekin biezaio eta agertokiko soldadu euskaldun guztiek hartuko dute parte dantzan*).

LAUGARREN AGERRALDIA

LEHENGOAK ETA MENDIRI KAPITANA; AZKENEAN ESPAINAR SOLDADUAK

(Mutil-dantza amaitzen dutenean, Mendiri kapitana estu eta larri sartuko da agertokian lehenago irten zèn lekutik eta salto batean igo bedi berriz mahai gainera.)

MENDIRI.—(*Soldadu guztiak isil-araziz*). Gudariak! Espainolak erasotzen (atakatzen) ari dira. Errepublikak inoiz baino gehiago zuen beharra dauka, Frantziaren Ebanjelio berria lurbira osoan zabal dadin. Lehenago igarotzen ikusi duzuen Narbona-ko gudari-taldea, ospez eta odolez betetzen ari da Perthus-ko gainetan. Gutxi dira eta deabruzko espainol horiek zeharo inguratu dituzte. Orain gure laguntza eskatzen dute, burdinazko hesi hori puska dezagun. Euskaldunak! Ez gaitezen Narbonatarrak baino gutxiago izan eta odolez iskriba dezagun gure kondairaren (historiaren) horrietan, Orreaga-ko geure arbasoak bezala, libertatearen zanpantzaile diren Borbontarren aurka iritsitako garaitia (garaipena, gurenda)! Biba Frantzia eta biba Errepublika! (*Inork ez beza erantzun. Berehala mahaitik jaitsi bedi eta bere soldaduengana zuzendu bedi aginkor*). Har zuen fusilak eta zarraizkidate (jarrai zakizkidate). Oraintxe bertan atera behar dugu. (*Pedro Mari eta Pello Larralde-ri*) Hi, Pello, geldi hadi bertan Pedro Mari-rekin eta jo ezak deia atseden gabe, inguruetan sakabanaturik dabiltzan gudariak bil daitezen eta Ceret-era bialdu errejimendura batzeko. Hik, Pedro Mari, laguntza egin iezaiok Pello-ri lana amaitu arte eta gero presenta zaitezte biok Ceret-en gure errejimenduan. Han esango dizue zer egin.

PEDRO MARI.—Ez al didazu esan ni libro gelditzen naizela, kapitan jauna?

MENDIRI.—Bai, libro gelditzen zara, baina libertateaz ez zaitezke balia nahi duzuna egiteko. Gure agintariek erakutsiko dizue zer den gizon libro baten eginkizuna. (*Ondoren bere soldaduei*) Errepublikaren soldaduak: Martxan! Aintzina! *(Irten bitez Mendiri buru dutela. Pello deia jotzen has bedi eta horrela ariko da luzaro samarrean danborra atertu gabe jo eta jo, leher egin artean.)*

PEDRO MARI. (*Pello-k tarte batean atseden hartzen duenean*). Ederki jotzen dut, mutiko, baina hemen ez duk inor agiri.

PELLO.—Egia diozu; ez didate entzuten, nonbait. Neure ahalmen guztiaz ari naiz, baina alfer-alferrik. Badaiteke hilak jaikitzea, baina biziak... (*Pedro Mari-ri farre-antxa irten bekio Pello-ren ateraldi hau entzutean eta mutikoak deia joka jarraituko du. Hontan, gudari talde baten hotsak eta zaratak entzungo dira, gero eta ozenago, hurbiltzen ari ala. Bat-batean tiro bat entzungo da bertatik bertara eta Pello Larralde hilotzik eroriko da odoletan blai, tiroa begi batetik sartu diotelarik buru zehar.)*

PEDRO MARI.—(*Amorru bizian, haurraren hilotza begietsiz eta fusila hartuz haren heriotzea mendekatzeko*). Eraileok! Zaretenok zaretela! (*Apuntatzen du disparatzeko, baina, bat-batean, bere gibeletik sartutako soldadu batzuek kenduko diote fusila eta preso har bezate. Begiratzen ditu soldaduen jazkiak eta ikusten duena sinetsi ezinik„ ondorengo hitzok esan bitza gogoetsirik*). Espainolak; galdua nauk!

BOSKARREN AGERRALDIA

PEDRO MARI ETA SOLDADU ESPAINOLAK. BEREHALA, SAGARMINAGA JENERAL ZAHARRA ETA SOLANO KORONEL GAZTEA, BIAK EUSKALDUNAK

(Soldadu sartu berriek, sarjento baten aginduz, Pedro Mari preso har bezate eta eskuak lotu, bi soldadu ezarriz katigua (presonera) zaintzen. Gogoan har Pedro Mari-k franko gaztelania ikasi duela armadan; honegatik, lehendabiziko ekitaldian baino hobeki mintzatuko da hizkuntza hontan, zeren, orain ere, gaztelaniara jo beharra baitaukagu euskaldunen eta eraldunen arteko kontrastea deuseztu ez dadin.)

SARJENTUA.—(*Pedro Mari uniformearen solapatik helduz*). ¿Con que prófugo del ejército español, eh? Tu uniforme te de-

nuncia. Y no satisfecho de tu infame traición querías disparar contra tus compatriotas, contra tus propios hermanos. ¿Qué respondes a esto?

PEDRO MARI.—Bosotros matar este niño y yo defenderme he hecho.

SARJENTUA.—A este chaval lo hemos matado por ser francés y a ti te vamos a matar por traidor. ¿A qué regimiento perteneces? ¿A qué batallón? ¿Y a qué compañía?

PEDRO MARI.—Al erregimiento Córdoba, terzer batallón, compañía de granaderos.

SARJENTUA.—(*Soldaduei*). Retirad el cadáver del chaval (*erretira bezate*). (*Pedro Mari-ri, zorrotz*). ¿Por qué te pasaste al enemigo?

PEDRO MARI.—Nosotros salir con un ofizial a erreconozer campo enemigo. Coger niebla y perdernos. En esto, yo solo, perdido, oír cantar y siguiendo canto llegar aquí.

SARJENTUA.—Pero tenías que darte cuenta que cantaban en francés y que por lo tanto estabas en terreno enemigo y en lugar de acercarte a ellos tenías que huir en sentido contrario.

PEDRO MARI.—No cantaban frantses, mi sargento.

SARJENTUA.—(*Sutua*). ¿Me vas a decir que cantaban en español, mentiroso? (*Soldaduengana zuzenduz*). Soldados: arreadle unos buenos culetazos de fusil a este granuja que me ha tomado por bobo (*jo bezate*).

PEDRO MARI.—(*Jotzen duten bitartean*). Yo no mentiros, mi sargento. Yo dezir berdad. Cantaban basko, hablaban basko, igual que yo. Ellos no enemigos, ellos amigos míos.

SARJENTUA.—Este hombre delira o yo no entiendo nada. ¿Es que tratas de enredarme en tus redes con esas patrañas? ¿Desde cuándo hablan vascuence los franceses? ¿O es que eran vizcaínos prófugos y traidores como tú?

PEDRO MARI.—No, ellos ser baskos, yo también basko, ellos ser nabarros, yo también nabarro, ellos hablar y cantar baskuentze, yo también. Todos ser hermanos, pero ellos ser frantseses...

SARJENTUA.—Y tú español... A ver cómo se come eso. Con que tú siendo español eres navarro y aquéllos siendo franceses son también navarros. ¿Pero dónde carajos está Navarra, en España o en Francia? O este hombre está loco o yo estoy mareado. ¿Desde cuándo los franceses son vascongados y navarros? Voto a Satanás que este hombre está embrujado y me quiere volver loco. (*Pixkabat lasaitu ondoren, soldadu bati*). Mira, por ahí les veo en la plaza al general Sagarmínaga y al coronel Solano. Ellos son vascongados y hablan el mismo idioma que nuestro prisionero. Díles que hemos capturado a un prófugo vizcaíno.

PEDRO MARI.—(*Ebakiz*). Perdón, mi sargento, yo nabarro sí, bascongado también, pero bizkaino no.

SARJENTUA.—¿Es que me quieres volver loco, hijo de perra? Si eres vascongado eres vizcaíno. ¿O es que no es igual? Y no me interrumpas más. (*Berriz, soldaduari*). Diles que se acerquen a mí por favor, que tenemos prisionero a un navarro prófugo del Regimiento Córdoba y a ver si se entienden con él en vascuence, ya que hablando cristiano no hay forma de entenderle.

SOLDADUA.—(*Militarki agurtuz*). A sus órdenes, mi sargento (*bihoa*).

SARJENTUA.—(*Pedro Mari-ri*). Supongo que en vuestra jerga os podréis entender, si es que en ese dialecto se pueden entender las personas, que lo dudo mucho. De todas formas, ya sabes lo que te espera. Ningún prófugo se libra de ser fusilado como reo de alta traición, con la agravante de que tú has disparado contra tus compatriotas, lo que supone tu sentencia de muerte.

PEDRO MARI.—Eso no es verdad. Yo no llegar a disparar.

SARJENTUA.—Cállate, insolente, ¿me tomas a mí por mentiroso? Además, si no llegaste a disparar no es porque te faltaban ganas. La intención es suficiente. Si nosotros no te hubiéramos cogido por la espalda, hubieras hecho una verdadera sarracina entre los nuestros. Así que más te vale callar.

SAGARMINAGA JENERALA.—(*Sar bedi Solano koronelaz eta abisua ematera joandako soldaduaz lagundurik. Zaharra da eta jau-*

regitan luzitzeko uniforme dotorez jantzirik bego eta burua Federico-erako pelukaz estalia berama. Euskaraz hitz egin biezaio Pedro Mari-ri, baina zorrotz eta zakar). Egia al da nafarra haizela? Nafarra! Nafarra! Gezurra! Heriotzearen beldur hintzen. Ez dakik ohorerik (ondrarik) eta satisfaziorik handiena Erregeren alde odola isurtzea dela? Kristoren izenean! Nafarra eta desertorea! Nafarra eta etsaiarekin bat egin! Esan didatenez Córdoba errejimendukoa omen haiz. Hire armakideak San Lorenzo de Cerdá-ko gudu zelaietan ospez betetzen ari dituk orain; eta hi hemen, eskuak loturik hire krimenegatik. Oraintxe bertan ordena emanen diat fusilatua ian hadin. Hi ez haiz nafarra; hire ama, noski, etorkinen batekin joango zuan. Zapoa, halakoa! Solano koronela eginen duk hire argu momentuz. (*Solano koronelari*) Voy a cumplir con mi deber. El desertor queda a tu cargo hasta que vuelva (*bihoa eta denek militarki agurtu bezate*). (*Bihurtuz*) Se me olvidaba: tómale las declaraciones oportunas.

SOLANO KORONELA.—(*Gaztea, altua, itxura ederrekoa, sendoa eta aurpegiz on tankerakoa. Koronel jazkia txit apain eta egoki darama. Gozoro hitz egin biezaio*). Nola duk izena, mutil?

PEDRO MARI.—(*Ustekabeko gozotasunaz harriturik*). Pedro Mari Belarra, jauna; baina Pedro Mari Pagogainakoz ezagutzen natute.

SOL. KOR.—Eta nongoa haiz?

PEDRO MARI.—Baztandarra, jauna.

SOL. KOR.—Zein herritakoa?

PEDRO MARI.—Errazu-koa, jauna. Ez dakit aditzea duzunez (duenez).

SOL. KOR.—Bai, Baztan-go arana ondotxo ezagutzen diat. Paraje ederra. Kalekoa ala baserrikoa haiz?

PEDRO MARI.—Baserrikoa, jauna. Frantziako mugatik hurbil dagoen Pagogaina bordakoa (baserrikoa).

SOL. KOR.—Eta nafarra izanik, nola erori haiz Gaztelako Córdoba errejimenduan?

PEDRO MARI.—Hara, jauna: neure aspaldidaniko gogoa kunplitu nahian Ameriketara nihoan dirua egitera eta Ulzama-n

tropa gaztelauekin topo egin nuen. Hauek atzeman ninduten zakur baten gisa, aitzakia jarririk berekin joaten ez banintzen gerlara, Baztan ibarreko herritar gudariekin joan beharko nuela. Alferrik izan nuen esatea, nafarra nintzelako ez nuela gaztelarrekin gudariztatu (zerbitzatu) behar eta gure Foruak doilorki urratzen zituztela. Horrela, «Córdoba» errejimenduko granaderoetan sartu ninduten, eta Huesca-n hilabete bat egin ondoren instruzinoa ikasten, Catalunyako frentera ekarri gintuzten. Hemen, egun batez, lainopean galdu nintzen, eta ibili eta ibili, nora ez nekiela, gure herriko euskal kanta eder batzuk entzun nituen eta nork kanta zitzakeen batere pentsatu gabe, kantuen sorlekura jo nuen eta Baigorriko soldadu batzuekin topo egin. Bihotzak eraman ninduen ene benetako anaien artera. Haiek nere odolekoak nituen, neure mintzaira berbera zerabilten ezpainetan, «Córdoba»ko errejimendukoak ez bezala...

SOL. KOR.—Laidokeria bat egin ditek hirekin! Foruak urratu dizkitek bidegabeki! Nik salatuko diat zapalketa Erreinuko Gortetan. Bidezkoa den huts-zuzentzea lortuko ahal diagu nor baldin banaiz! Baina... (*Isilune baten ondoren*). Familiarik bai al duk?

PEDRO MARI.—Bai, arreba ezkonduak.

SOL. KOR.—Nahi al duk hire partez zerbait esatea, ala ematea?

PEDRO MARI.—(*Hitz horien garrantzitasunari igarririk burua makurtu beza malko bat ezkutatu nahian*). Zertarako, jauna? Hobe da ezer jakin ez dezatela... Baina, eskertuko nizuke nioke) beste mandatutxo bat egingo bazenit (balit). Hau, beste ixtorio bat da. Olague-n nerau (neroni) atzeman baino lehentxeago, bi soldaduk Ameriketara neraman diru poltsa lapurtu zidaten. Bidaia egiteko eta han fulamentuz irabazten hasi arte defendatzekoa neraman. Soldadu izateko ehizatu nindutenean. jakinarazi nion kapitanari ebatsia izan nintzela, baina ez zuen aintzakotzat hartu ere nere esana. Nik ezagutzen nituen lapurrak, nere errejimendukoak baiziren eta ez nituen begiz galtzen. Berak ere ohartu ziren perilean zeudela eta ernai zeuden. Konturatu nintzen, egunak pasa ala, tenienteak atseginez tratatzen ninduela eta nitaz interesatu zen. Ohartu nintzen bihotz oneko gizona zela eta dirua nola ebatsi (ostu, lapurtu) zidaten kontatu

nion eta lapurrak nor ziren banekiela. Agindu zidan kapitanarekin hitz eginen zuela eta justizia eginen zidatela. Biharamonean kapitanak deitu ninduen lapurrak ezagutarazteko. Formatu zituzten nik esan nien konpainiako soldadu guztiak eta berehalaxe izendatu nituen nor ziren. Berek ukatu zuten, baina kapitanak mehatxu egin zien dirua segituan bueltatzen ez bazuten, bertantxe afusilatuko zituela. Nere dirua, berei aurkitzeko beldurrez, beste adiskide batek zeukan gordea. Berehala, Huesca-ko kuarteleko kalabozoan sartu zituen eta han gelditu ziren epaiaren zain. Ez dakit zer izan den euretaz. Kapitanak afusilatu nahi zituen, diru mordoa baitzen ebatsitakoa eta gerla denboran, armadan, aski da hori gizon bat hiltzeko. Nik, ordea, bizia barkatzeko eskatu nion. Ordudanik kapitanak istimu handia hartu zidan eta lehenago mehatxu egin zidàn astebeteko ziega (kalabozoa) barkatu zidan. Hau ere, berez, zakarra izanarren, ez zen gizon gaiztoa, baina euskaldunen eskubideek bere onetik ateratzen zuten eta espainol guztiak berdinak garela esanaz, ez ninduen libratu nahi. Hontan, Huesca-tik atera baino egun batzuk lehenago, Otsagi-ko apez euskaldun bat ezagutu nuen eta Errazu-ko gure erretorearen adiskide handia izatea gertatu zen. Apezgai elkarrekin egon ziren Iruñean eta karrera guztia batera egin zuten. Orduan pentsatu nuen nere dirua berari uztea eta esan nion gerla bukatzean etorriko nintzela bila eta guduan hil banendi, pobreen artean bana zezala diru hori. Orain, bada, eskertuko nizuke esango bazenio gerlan hil naizela eta pobreen artean zabal dezala neure Ameriketako dirua. D. Felipe Esparza deritza eta Huesca-ko Agustinetako kapeilau da.

SOL. KOR.—Zaude lasai, Pedro Mari, neuk agintzen baitizut zure borondatea kunplituko dudala.

PEDRO MARI.—Milesker, jauna. Eta esaiozu ere ene arimaren alde meza batzuk eman ditzala neure diru hortatik.

SOL. KOR.—Esango diot ere. Egon trankil (lasai).

PEDRO MARI.—Ez dut beste esan beharrik. Hori da neure azkeneko borondatea.

SOL. KOR.—(*Pedro Mari-ri eskuak maiteki estutuz*). Dohakabea, dohakabea! Nola egin duzu barka ezin daitekeen krimen hau? Nola arnegatu zenuen Aberriaz eta Erregeaz?

PEDRO MARI.—(*Bihotz-bihotzetik irten biezaio ahots sendo eta irmoa*). Jauna, *hori* ez zegoen neure bihotzean. Berak euskaldunak ziren eta ni ere bai!

SOL. KOR.—(*Pedro Mari-ren hitz hauek egiten dioten zirraraz bere buruaz arras lotsatua geldi bedi*). Horra! Badator plaza zehar Sagarminaga jenerala.

PEDRO MARI.—Jauna, mesede bat.

SOL. KOR.—(*Zakar*). Eskatu.

PEDRO MARI.—Berorren (zure) izena?

SOL. KOR.—Socorro-ko Markesa naiz, Frantzisko Solano jauna.

PEDRO MARI.—Nik eskatuko diot Jaungoikoari bizitza luze bat eman diezaiola (diezazula) eta heriotza zoriontsu bat... neri espero didana baino hobea.

SOL. KOR.—(*Bihotz-ukituta, berriro eskuak estutuko dizkio, agur eginaz*). Eskerrak zure otoitzengatik, Pedro Mari; Ama Birjinari eskatuko diot zure alde, jaiera (debozino) handia baitiot.

SEIGARREN AGERRALDIA

LEHENGOAK, SAGARMINAGA, JENERALA, KAPELLAUA, KAPITAN BAT PIKETEBURU EGITEN DUENA ET PIKETEKO SOLDADUAK

SAGAR. JENERALA.—El desertor prisionero que vaya a confesarse con el capellán inmediatamente a un rincón. (*Sarjentuari*) Mientras se confiesa, los dos soldados de guardia deberán permanecer a diez metros de distancia, uno a cada lado, y caso de que intente escapar, que disparen a matar. (*Bihoaz Pedro Mari eta apeza, gurutzefikarekin, txoko batera eta bi soldaduak ondotik. Agertoki barruan edo kanpoan fonfesa daiteke: zuzendariak ikus beza zer den egokiako*). Al coronel y a ti (*sarjentoari*) os necesito para haceros unas cuantas preguntas.

SARJENTUA.—(*Kuadratuz eta militarki agurtuz*). A sus órdenes, mi general.

SAGAR. JENERALA.—Vamos a ver, amigo Marqués, supongo que habrás interrogado al desertor durante mi ausencia.

SOL. KOR.—Efectivamente, mi general.

SAGAR JENERAL.—¿Y qué aduce para justificar su vil acción?

SOL. KOR.—Aduce que se perdió en la niebla al ir a efectuar un reconocimiento en terreno enemigo. Estando perdido en el monte escuchó unas canciones vascongadas en la lejanía y sin sospechar que pudiera tratarse de tropas francesas, fue siguiendo las voces hasta que llegó a un destacamento de soldados vasco-franceses, de los cuales provenían las canciones.

SAGAR. JENER.—Esa versión, además de ser bastante infantil, tiene varios puntos oscuros. Primero, ¿por qué se dispersó del grupo cuando el resto del destacamento permaneció unido y, según tengo entendido, regresó a su base sin ningún percance? A mi entender, el acusado miente y su deserción del grupo de reconocimiento fue voluntaria, con la intención de pasarse al enemigo. Segundo, ¿por qué tiró monte abajo cuando sabía que para alcanzar el collado de Perthus desde el lado francés debía tirar para arriba y que caminando hacia abajo debería desembocar necesariamente en un poblado francés? Segundo indicio de que obró conscientemente. Además sabía que las canciones vascas —caso de que existiesen dichas canciones, ya que puede ser una invención para justificarse— no podían proceder del campo español, ya que en todo el sector Catalán y Aragonés no hay un solo soldado vascongado. Por lo tanto, sabía que procedían del campo francés y no obstante pasó al enemigo. Tercero, los franceses no le fusilaron ni le hicieron prisionero, sino que le recibieron como amigo, dejándole en libertad como admirador de la República francesa.

SOL. KOR.—Perdón, mi general, el desertor aduce que no está a favor de la República francesa ni muchísimo menos. Su único sueño era marcharse a América para hacer fortuna. Ten en cuenta que fue raptado ilegalmente por nuestro ejército en Navarra y que por lo tanto se consideraba injustamente atropellado. Quizás esto le indujo a dar este desgraciado paso pensando que los franceses le dejarían marcharse a América como era su sueño, pero según me dio a entender, lo que principalmente le arrastró a las filas francesas fueron aquellas voces vascongadas de hermanos suyos del otro lado de la frontera, pues tal como me indicó inge-

nuamente, él no entendía nuestra guerra. Aquello no estaba en su corazón. En cambio su corazón le decía que aquellos soldados eran euskaldunes y él también.

SAGAR. JENER.—(*Hotz eta lehor*). Todo lo que acabas de decir no le justifica en absoluto. El hecho es que por un motivo u otro prefirió pasarse al enemigo que luchar con sus hermanos en el sagrado ejército de la Patria. Todo lo demás son pamplinas. Pero creo que hay acusaciones más graves contra el desertor. Que hable el sargento Ruiz: el desertor en cuestión, ¿se entregó voluntariamente a nuestras tropas o intentó defenderse o incluso atacó a nuestras fuerzas?

SARJENTUA.—En honor a la verdad he de decir que disparó o por lo menos intentó disparar contra nuestras fuerzas. Si no lo hizo fue porque no le dio tiempo, ya que le arrebatamos el fusil sorprendiéndole por la espalda en el momento en que intentaba disparar, lo cual no quiere decir, por otra parte, que con anterioridad no hubiese disparado. Es más, si no le hubiésemos cogido prisionero, hubiera hecho una sarracina entre los nuestros.

SAGAR. JENER.—Está bien. Es suficiente. Creo que no hay dudas al respecto. Observad si el desertor ha terminado de confesarse.

SOL. KOR.—Parece que sí. Caminan hacia aquí (*hel bitez Pedro Mari, apeza eta bi soldaduak Sagarminaga jeneralaren ondoraino*).

SAGAR JENER.—¿Cómo te llamas y de dónde eres?

PEDRO MARI.—Pedro Mari Belarra, mi general, y soy de Errazu, en el valle de Baztán.

SAGAR. JENER.—Me han dicho que perteneces al regimiento «Córdoba». ¿No es así?

PEDRO MARI.—Sí, mi general, al tercer batallón, compañía de granaderos.

SAGAR. JENER.—Pues bien, ponte en posición de firme y escucha la sentencia: (*atabala jo beza piketeko soldadu atabalariak*) Pedro María Belarra, natural de Errazu, en el valle de Baztán, soldado del regimiento «Córdoba», tercer batallón, compañía de granaderos, se te condena a ser fusilado por la espalda por traicionar al Rey y a la Patria al desertar de

las filas del ejército nacional para unirse al enemigo. Deseo añadir que en esta deserción no se ha encontrado ningún atenuante y sí en cambio agravantes, como disparar o intentar disparar contra nuestras fuerzas. La sentencia de muerte será ejecutada inmediatamente y se confiará al capitán Pedro de Atienza, aquí presente (*hau kuadratu bedi, militarki agur eginaz*). Queda prohibido, en nombre del Rey, a cualquier soldado, de cualquier calidad o condición que fuese, dar voces por la gracia, so pena de la vida. He dicho (*atabala jo beza piketeko soldadu atabalariak*).

PEDRO MARI.—(*Jeneralari eta koronelari, mindurik, euskaraz*). Hil egin behar nauzue! Nork eman dizue botere hori?

SAGAR. JENER.—(*Solano koronelari*). No le contestes, Francisco. Déjale en paz. Este es un asunto muy desagradable. De veras, siento tanto como tú el tener que fusilar a un paisano. Pero no podemos hacer excepciones. La ley es la ley y hay que cumplirla. ¿Qué dirían los castellanos si indultáramos a este muchacho de la pena de muerte? Sus corazones están hinchados de odio hacia el desertor y piden su cabeza a gritos.

SOL. KOR.—¡Pobre muchacho! Tiene un corazón noble. Le he conocido y me ha conmovido. Su gran ilusión era hacer fortuna en América.

SAGAR. JENER.—Lo siento. Yo también estoy pasando uno de los peores tragos de mi vida. Pero no hay nada que hacer. ¡Vámonos! (*Bihoaz*).

APEZA.—(*Gurutzefika Pedro Mari-ri emanaz*). Toma el crucifijo, hijo mío, bésalo y pídele fuerzas a Jesús en este supremo instante de tu vida.

PEDRO MARI.—(*Jesus-en belaun zaurituak muinkatuz*). Jesus Jauna, indazu kemena ene heriotzeko ordu larri honetan eta har nazazu, otoi, zure Erresuman (erreinuan).

APEZA.—Dentro de breves momentos serás juzgado de nuevo, Pedro Mari, pero esta vez no por los hombres, sino por Dios, por nuestro Señor Jesucristo a quien acabas de suplicar. Es el juicio supremo y definitivo para el hombre, el único juicio válido e inapelable. Pídele a Dios nuestro Señor que te sean perdonados tus pecados, así como yo te he perdonado en su nombre y que te conceda la felicidad eterna.

PEDRO MARI.—(*Jesus jauna berriro muinkatuz*). Jauna, barka iezazkiguzu gure zorrak guk gure zordunei barkatzen diegun bezala. Har nazazu, jauna, neure arbasoekin. Zure baitan aurkituko ahal dut egiazko Amerika, nik espero nuena baino aunitzez hobea!

APEZA.—¿Estás dispuesto?

PEDRO MARI.—(*Apezari gurutzefika itzuliz*). Sí, lo estoy. (*Berekiko*). Prest nago, Jauna, zure aintzinean aurkezteko, juzga nazazun. Ezazu nitaz (nizaz) kupida, Jesus maitea!

ATIENZA KAPITANA.—(*Bi soldaduri*). Vendadle los ojos al reo y colocadle junto a ese muro. (*Pedro Mari-ri*) Si quieres, hasta el momento de ser fusilado te sostendrán entre dos soldados.

PEDRO MARI.—(*Ahots irmoz*). No hazer falta. No temblar mis piernas (*jar bezate hormaren kontra*).

ATIENZA KAP.—(*Soldaduei*). Colocad al desertor cara al muro, ya que la orden es que sea fusilado por la espalda para su mayor ignominia. Así mueren los traidores. (*Atsedenaldi baten ondoren*). Soldados del piquete: la primera línea a seis pasos del reo. (*Beste egonalditxo bat soldaduak beren eginbeharrerako kolokatzen diren bitartean*) ¡Carguen! (*Tarte bat*) Apunten! (*Beste tarte bat*) ¡Fuego! (*Deskarga hotsa entzun bedi eta Pedro Mari-ren gorputza zerraldo eroriko da*).

ATIENZA KAP.—¡Soldados! Este es el final que espera a los traidores. Tenedlo siempre presente. ¡Viva el Rey! ¡Viva España!

SOLDADU OROK.—¡Viva!

(Ahots ozen bat entzun bedi bastidore artetik.)

AHOTSA.—Oi, nolako oinazea darion euskal odolaren gorriak!

OIHALA JAITSI BEDI

Donostian, Abenduak 21 (Santo Tomas egunez), 1981.

XURI GORRIAK ETA...

Antzerkia hiru zati eta bost agertaldi

Egilea: Daniel LANDART

JOKOLARIAK

Gaetan LAPEGUE *(auzapez xuria)* ... ... 60 urte

Janamari *(haren emaztea)* ... ... 52 urte

Beñat *(horien semea)* ... ... 24 urte

Alfred HARANETA *(atxuant xuria)* ... ... 56 urte

Gilen MANDUKU *(Gorrien auzapezgaia)* ... ... 46 urte

Xoxefina *(haren emaztea)* ... ... 42 urte

Maider *(horien alaba bat)* ... ... 22 urte

Apeza ... ... 44 urte

Laurendi ... ... 62 urte

Kaskobeltz ... ... 40 urte

Andere Ida ... ... 64 urte

Panpale Handia *(Gorrien atxuantgaia)* ... ... 43 urte

Pello ... ... 17 urte

Bestalde; gizon eta emazte zenbait.

(Gaetan Lapegue jaun auzapezaren etxean gara. Barne zabal eta haundizki apainduak segidan sendi arazten du errexki bizi diren jende batzuen egoitzan gaudela.)

GAETAN - LAURENDI

GAETAN.—Jar zaitez, Laurendi. Jar gostuan...

LAURENDI.—Ez naiz menturatzen... Hain ederrak dira! Ez nituzke zikindu nahi...

GAETAN.—Ba, pentsa! Egizu etxean bezala, gizona! Zer uste duzu ala edergailutzat atxikitzen ditugula? Bestalde, auzapezaren etxea ez ote da zure bigarren etxea?

LAURENDI.—Emeki, emeki... Herriko etxea, bai! Auzapezarena... ez da batere berdin...

(Laurendi jartzen da eta Gaetan salaren erdira ba doa.)

GAETAN.—Alta, Herriko Etxean bezainbat jende pasatzen da barne honetan! Batek hau nahi, besteak hura behar, denak zinkurinaka eta beti presatuak... Ba da segur mogimendu hemen! Oraino, lehen aldian berean konprenitzen balute bederen, ez litzateke gaizki... Baina, batzuetan, gauza bera behar diezu bospasei aldiz errepikatu, eta kontent izan behar, ez balin badira bestaldi bat etortzen, hauzi berarentzat! Zenbat oren, zenbat gau! Eta horik guziak ororen buru zertarako? Zertarako? Baina, bego horretan! *(Azken hitzen erraten ari delarik, edariz bete karro bat hartzen du eta Laurendiren aldera pusatzen.)* Zer gostu zenuke?

LAURENDI.—Horrelako edari andana ikusi-ta, hautatzea ez da errex, ori...

GAETAN.—Whisky xorta bat?

LAURENDI.—A, ez! Karatsegia da! Deabru zikina, ez bestea! Aldi bat harturik, mihia erretzen daut oraino...

GAETAN.—Harritzen nauzu... zeren zure zintzurño horrek ba du zerbait zerbait klikaturik, ez, denboran...?

LAURENDI.—Denboran bai! Orain haatik...

GAETAN.—«Ricard» bat?

LAURENDI.—Ez eta ere. Goizegi da. *(Geldi).* Schwepps bat izatekoz.

GAETAN.—Schwepps bat? Burutik ba duzua gizona? Bekatu mortala da goizarekin Schwepps baten edatea! Barne guzia nahasiko dautzu!

LAURENDI. — Barnea nahasiko? Ez balautate gaineratekoek Schwepps-ak baino gehiago barnea nahasten, ez nuke arrangura haundirik!

GAETAN.—Nik segurik «Martini» xuri bat hartu gogo dut...

LAURENDI.—Zuk bezala egitekotan beraz...

(Auzapezak bi «Martini» zerbitzatzen ditu.)

LAURENDI.—Zure osagarriari...

GAETAN.—Herriko batasunari! (*Gaetan jartzen da*) Martini xuria laket zaizu?

LAURENDI.—Lehen aldiko edaten dut...

GAETAN.—Eta?

LAURENDI.—Goxoa da.

GAETAN.—Xuria ..

LAURENDI.—Xuria bai. (*Biek batean berriz edaten dute.*)

GAETAN.—Eta andrea, zertan duzu?

LAURENDI.—Andrea zertan? Hoberenean. Hoberenean, mihia segurik! Milesker. Ama maite zeruetakoa; ez naiz ez kexu ari gure Klodinarentzat... Kalapita poxi bat muntatzen ahal badu zakutik edo zorrotik... Hura hura haren besta!... Beharrik ni, beti ixil ixila bainago...

(Gaetan zutitzen da.)

GAETAN.—Ixil ixila?... Beraz Herriko bozak ez dituzue aipatzen ere?

LAURENDI.—A, hori besterik da. Herriko bozak ez dira egun guziez gero... Aipatzen ditugu, eta nola! Funtsean, herri guzia ez da horietaz baizik mintzo...

GAETAN.—Eta zer diote? Zer entzun duzu hor gaindi?

LAURENDI.—Ho, denetarik ba da, ori... Batzuk zure alde eta besteak...

GAETAN.—Ene kontra. Ez dea hala?

LAURENDI.—Zure kontra bai. Eta jakin zazu ez dutela mihia sakelan, zenbaitek segurik!

GAETAN.—Ba dakit hori eta horregatik zaitut deitu.

LAURENDI.—Pentsaten nuen bai ez zela Ezpeletako biper bestaz mintzatzeko...

GAETAN.—Eta zure uztez, nor pasatuko da?

LAURENDI.—Sobera galdatzen dautazu... Nik deabru dakida? Jendeek ez baitute sekulan gogoan dutena erraten... Ez da errex egiaren jakitea...

GAETAN.—Zure emazteak zer dio?

LAURENDI.—Beti errepika bera: kasu emateko zer erraten dudan eta eskandalarik ez egiteko; geroan ere, berdin, elkarrekin bizi beharko dugula... eta horrelako...

GAETAN.—Halere, bere hautua egina duke?

LAURENDI.—Bere hautua? Apezak bai.

GAETAN.—Apezak?

LAURENDI.—Gure Klodina, beti apezaren erranetarik dabil.

GAETAN.—Eta Apeza?

LAURENDI.—(*Gogoetatua*). Nago... ez ote den gorrien alde!...

GAETAN.—Ez naiz harritzen. Jada, anitz ahotarik entzuna dut gauza bera. Baina jakin zazu Laurendi, dolutuko zaiola bere joko maltzurra! dolutuko!

LAURENDI.—Uste nuke! Ahalgegarri da bai... Horrelako gauzen ikustea... Apeza gorrien alde! Apeza gorrien alde!

GAETAN.—Eta zuhaur noren alde zara?

LAURENDI.—Ondarreko aldian segurik, zuri eman nautzun boza!

GAETAN.—Alabaina; ez nuen kontrariorik...

LAURENDI.—Egia da hori ere...

GAETAN.—Aldi honetan... Balantzan?

LAURENDI.—Balantzan? Ni balantzan... Jajajaja...

GAETAN.—(*Bortitz*). Aldi honetan pasatzeko, boz guzien beharra ukanen dugu. Zurea ere bai. Horregatik, segurtamen gehiago ukaiteko, eta baitakigu denen beharra baduzuela; har zazu billet honen erdia. (*Hamar mila liberako zahar baten erdia ematin dio*). Boz ondoan, askiko duzu beste erdiaren galdez etortzea.

LAURENDI.—Biba Xuriak! Biba Xuriak! (*eta zutitzen da*).

GAETAN.—Pentsatzen dut ez zarela gure arteko berrien denei kondatzen ariko. Bestela hainbat gaixto zuretzat!

LAURENDI.—Zaude gostuan! Zaude gostu-gostuan, segretuaren atxikitzen jakinen dudala!

GAETAN.—Bozak ondo arte beraz...

LAURENDI.—Aizu eta... gure Klodinak ardura erraten baitut, aho hetsitik ez dela eulirik ateratzen... eta... behar bada, harentzat ere, besteño baten erdia ba zenuke?...

GAETAN.—Nola? Zer derasazu, Laurendi?

LAURENDI.—Ho, barkatu ene ausarkeriaz baina... gure Klodina, ba dakizu...

GAETAN.—Zure Klodina akomea dadila apezarekin! Agur Laurendi!

LAURENDI.—Agur, agur... eta milesker. Milesker... Biba Xuriak! Biba Xuriak!...

(Laurendi jalgitzen da. Gaetan sala erdira dator bere buruarekin eleketa.)

GAETAN.—Gaixo herresta! gaixo herresta... Funtsean hoitarik ere behar, mundu honen egiteko eta... Bozen irabazteko...!

(Beñat sartzen da.)

GAETAN - BEÑAT

BEÑAT.—Bozen irabazteko joko onak ezagutzen dituzula, nork uka? Ez nuen uste...

GAETAN.—Eta barrandan egotea joko ona zaik?

BEÑAT.—Ez zaituztet barrandatu. Nahi gabe entzun dut zuen solasaldia.

GAETAN.—Belarrien tapatzen ez ote dakik? Edo tokiz aldatzen behar delarik?

BEÑAT.—Aita! Ez nuen uste bozak eta ohorea horrela erosten zirenik!

GAETAN.—Behardun batzuei artetan diru apur baten ematea, karitate egitea duk eta hik diokan bezala, horien erostea!

BEÑAT.—Ez du balio estakuru bilatzen aritzea! zeren Laurendik berak arras ongi konprenitu du zure egintza, bestela ez zuen segidan «biba Xuriak» oihu eginen!

GAETAN.—Hire aita, herriko auzapez izan dadin ez zaik ongi ala?

BEÑAT.—Egin duzuna ikusirik, ba da segur bi gogoeten egitekoa!

GAETAN.—Ez hadila hain minbera izan, mutikoa! Bestela ez haiz deusetara helduko...

BEÑAT.—Zerbaitetara heltzeko, bestetaz baliatu behar da beraz?

GAETAN.—Ez diat hori erran nahi. Baina, boz denboran ahal dena egiten duk! Ez ote dituk bada entzuten gure kontrario gorri zikin horien gezur eta espantuak? Aho beteka ene kontra ari dituk, baizik eta kontseiluan ez dugula deus egin eta azpikoz-gora botako gaituztela. Gau eta egun herriaren alde lanean arizan ondoan, goxo duk bai, horrelako gauzen entzutea!

BEÑAT.—Ba dituzkete beren arrazoinak...

GAETAN.—Ez diat onartzen horrela mintza hadin! Ala zer haiz, gorriek kutsatua hi ere?

BEÑAT.—Gilen Manduku zergatik da gorria?

GAETAN.—Ni xuria naizelako.

BEÑAT.—Eta zu zergatik zara xuria?

GAETAN.—Ez ote dakik? nik ordrea eta diziplina ezarri eta atxikitzen ditiat herrian, bai eta Frantzia gure ama maitearen alderako amodia. Bestalde, herritarrek eskatu dauzkidaten guziak eskuratu ditiazte, dela ur, eletrika, bide, telefona eta gainerako. Horra, auzapez leial eta zuzen bati zer galdegina zaion; eta nik neure eginbidea bete diat eta bihar ere beteko!

BEÑAT.—Eta Gilen Mandukuk zer uste duzu bada egin lezakeen besterik?

GAETAN.—Zer egin lezakeen? Saltsa. Saltsa. Besterik deus. Jada, rorregatik herria bi alderdi jarria duk: batzuk haren alde eta besteak ene. Gilen ez balitz presentatzen, herri guzia geldi geldia eta kontent egonen zuan. Baina ez! beti da dituk sua piztu beharrez ari direnak... Pitz bezate beraz. Pitz gostuan. Ikusiko ditek, berak direla lehenik erreko!

BEÑAT.—Baina orain arte elkarren lagunak zineten...

GAETAN.—Hori duk bada. Horrek berak erakustera ematen dik nitaz *jelos* delako dela presentatzen. Funtsean ez nauk harritzen. Gilen betidanik faltsua izan duk eta heldu nahia; bere emazte moko mehe kriketa deabruxka horrek pusatzen duela!

BEÑAT.—Halere, entzun dudanaz, jende xehearen aldekoa da eta horien ongia baizik bilatzen ez duena. Zuk aldiz, diotenaz, haundiak baizik ez omen dituzu laguntzen.

GAETAN.—Gezurra! Herritar guziak lekuko, goraki erraten ahal diat, nehor ez dudala baztertu; edo izatekoz, behartsuenak ditudala lagundu. Eta Gilen Manduku nola izan daiteke ttipien aldekoa, bera herriko etxalde aberatsenetako baten jabe izanki-eta? Bestalde, jauntto horri zer eta zer ez diot egin eta ardiets arazi? Segur balio baitzuen, ematen dautan

uztarraren biltzeko! Baina Gilen Mandukuk uztarka arizan nahi balin badu, jakin beza, ene putar batek berak firrindika botako duela!

(Janamari sartzen da.)

GAETAN - BEÑAT - JANAMARI

JANAMARI.—Jainkoaz, zaudete apalago! Hauzo guziek entzunen dituzte zuen kalapitak! Zer duzue bada hain gora mintzatzeko?

BEÑAT.—Bozak, ama, bozak!

JANAMARI.—Burua galduko diagu, bai, boz horiekin! Balio baitu! balio baitu! (*eta ateratzen da*).

GAETAN - BEÑAT

BEÑAT.—Ongi pentsatu-eta, amak puxka bat arrazoin du. Alabaina, zergatik balio du herri ttipi honetan horrenbeste haserretzeak; zeren ororen buru, Gilen Manduku eta zure artean ez da diferentzia haundirik!

GAETAN.—Zer derasak? Xurien eta gorrien artean diferentziarik ez dela? Baina mutikoa, burutik joan haiz ala zer? Ez ote dakik, gorri horiek non-nahi eta aldi oroz, zorigaitz eta herra baizik ez dituztela ekarri eta ekartzen?

BEÑAT.—Aita, entzun nazazu...

GAETAN.—Semeak eginen ote daut orain katixima?

BEÑAT.—Entzun nazazu, halere. Xuri eta gorrien arteko istorioak, biziki zaharrak dira.

GAETAN.—Za zakiat hori!

BEÑAT.—Erregetiar eta Errepublikanoen denborakoak. Ez ote duzu uste bada ordutik hona gauzak aldatu direnik? Beharrik funtsean. Ikusmolde eta alderdi berriak sortu dira eta ongi begiratu eta, xuri gorrien eztabadak, denbora haietan

zerbait erran nahi bazuten ere, orain problema faltsu bilakatu dira. Zeren...

GAETAN.—(*Moztuz*). Non habil mutikoa?

BEÑAT.—Zeren, Xuriak eskuindarrak balin badira, gorriak eta bereziki gure herrietan gorriak deitzen ditugunak, zinez ezkerrekoak ote dira? Askotan ez; zorigaitzez.

GAETAN.—Zeeer? Zer komprenitzen dut? Ezkerrekoa ote haiz?

BEÑAT.—Eskuindarrak, haundi mandien interesen zaintzaleak dira, ezkerrekoak aldiz, jende xehearen alde bermatzen direnak. Neure hautua egina dut.

GAETAN.—Oroit hadi seme, Zeruaren eta ifernuaren erdian, purgatorio bat da dela!

BEÑAT.—Horrek erran nahi ote du, erdiko zarela? Baina erdikoek, xurien intres berak dituzte!

GAETAN.—Herriko kantseiluan, ez diagu politikarik egiten! Bestalde, hautu baten egitea ez duk hik diokan bezain errex. Eskuin: ba dituk anitz eskuin eta ezker are gehiago. Erdian, ho, erdian, han han goxo!

BEÑAT.—Hautu baten egiteak lanak ematen dituela, horretan zurekin ados nago. Neronek ere Bordeleko unibertsitatera joan behar izan dut gauzen hobeki senditzeko eta ikusteko. Eta han ohartu naiz...

GAETAN.—Zeri?

BEÑAT.—Eskuina zer den. Erdia zer den. Ezkerra zer den. Ohartu naiz ere: Ni Euskalduna naizela!

GAETAN.—Eta gero zer?

BEÑAT.—*Euskalduna naizela*!

GAETAN.—Euskaldun frantsesa. Hemengo guziak bezala...

BEÑAT.—Zu eta Gilen Manduku, behar bada bai. *Ni ez*. Euskaldun izatea niri aski zait.

GAETAN.—Nola? Nola? Zer entzun behar dudan! eta ene semearen ahotik, gehiago dena! Baina lehen ez hintzen horrela mintzo... Bordelen galdu haiz. Auzapez ohoragarri baten semeak ez zezakek sekulan horrelakorik erran!

BEÑAT.—Ni, Euskalduna naiz eta jende xumearen aldekoa. Ez eta zu bezala, Paris(e)ko sistima arrotzaren esku-makila, eta gainera, egiazko euskaldungoaren ukatzailea!

GAETAN.—Ixil hadi Beñat! etxe hau desohoratzen duk eta heure aita mexprexatzen. Ez dezakeat hori onhar. Ez dezakeat onhar!

BEÑAT.—Alta, neure hautatua egina dut.

GAETAN.—(*Eztiago*). Baina Beñat, zergatik ez haiz gauza horietaz enekin lehenago mintzatu? Behar bada...

BEÑAT.—Ba ahal dakizu aita, gauza horik ez daitezkeela zurekin aipa! Zurekin eta, kasik nehorekin futsean...

GAETAN.—Heure gogoeten berri eman bahaut, esplikatuko nauan nik, lehenagoko amets zozo batzuk direla horik guziak, haurkeria hutsak, sekula ondoriorik ukanen ez dutenak. Eta ba zakiat zer diodan! (*Geldi*) Hire anaia zenak ere gauza bera erranen zauan, zeren hura segurik ez duk beldur izan, Algeriako gerla denboran bere odola Frantziaren alde ixurtzeko! (*Geldi*). Edo, ez haiz norbaitek pagatua bederen?

BEÑAT.—Zer uste duzu ala, denak zu bezalakoak direla? Ideal bat ba dugu, guk!

GAETAN.—Aski! aski entzunik ba diat egungoz! galduak gaituk! Janamari, Janamari, zatoz otoi! Zatoz! (*Janamari sartzen da.*)

GAETAN - BEÑAT - JANAMARI

JANAMARI.—Zer da? Zer gertatzen zaizu Gaetan? Zer duzue orain ere?

GAETAN.—Semea burutik joan zaigu!

JANAMARI.—Burutik joan? Burutik joan? Ez du iduri...

GAETAN.—Burutik joan bai! Gure Beñat, galatu daukute.

BEÑAT.—Ez zaitezela izi, ama.

JANAMARI.—Gaetan, mintza zaitez!

GAETAN.—Gure Beñatek erran dauzkit sekula asmatuko ez nituen gauza harrigarri eta gutarteko jende normal batek erran ez ditzakeenak.

JANAMARI.—Zer erran diok bada?

BEÑAT.—Euskalduna naizela eta jende xumearen aldekoa...

JANAMARI.—Hori baizik ez bada... (*Berez*) Uste ez banuen kanzera zuela...

GAETAN.—Hori baizik ez bada? Baina Janamari ez ote duzu konprenitzen geure semea separatista dugula? Separatista?

JANAMARI.—Ba dira besteak ere...

GAETAN.—Eta besteak ba direlakoan, gure semea buru-bero horiei jarrai dakien onartzen duzu? Baina Janamari, zu ere ez zaude plomuan! Ala zuri, zerbait aipaturik bazautzun?

JANAMARI.—Zerbaitxka bai...

GAETAN.—Eta ez zenautan erraten ahal?

JANAMARI.—Zer nahi duzu Gaetan, gure Beñat ez da haur bat gehiago; laster notario eskolak bururatuko ditu... Hogei ta lau urtetan ba daki zer egiten duen ez?

GAETAN.—Behar luke jakin segurik! Baina entzunak entzun, ez naiz batere segur. Batere gero! (*Beñati*) Jakintzak ez nuela hori igurikatzen hiregandik!

BEÑAT.—Zer igurikatzen zenuen bada?

GAETAN.—Ez ote dakik? Beñat, ez dik balio, bat batean etsaiak bagina bezala mintzatzeak. Amak eta nik, hire ongia baizik ez diagu bilatu eta eta bilatzen.

BEÑAT.—Frangotan errepikatu dautazu gauza bera...

GAETAN.—Ez ote da egia? Hire eskolen pagatzeko, sehirik gabe bizi gaituk; amak egin behar dituela etxeko lan guziak.

JANAMARI.—Ez zuen balio horren errateak...

GAETAN.—Bestalde, neure aita zenaren etxaldeko lurren karrakas saltzen ari nauk, baina ez zizkioat nor-nahiri eskaintzen. Parisko xaharrei bakarrik! Parisko xaharrei... Horrela, egun batez beren familiako partimenak eginen dituztenean;

hi izanez baihaiz itzuli hauetako notario bakarra, horiekin berekin berehala afera andana bat ukanen duk...

JANAMARI.—Ez da gaizki asmatua...

GAETAN.—(*Fier*) Zer uste duzu ala? (*Beñati buruz*). Eta pentsatua nian ere, hemendik hamar bat urteren buruan, neure karguaren hiri uztea...

JANAMARI.—Ho, Gaetan, nik uste baino hobea zara... gure semearentzat...

BEÑAT.—Biziki pena haundia eginen dautzut —edo dautzuet—, baina ez naiz batere zure gogo bereko, aita! Ez dut «inapresta» edo «standard» izan nahi. Ene nortasuna eta ene geroa, utz otoi, ene gain.

GAETAN.—Harrituko ninduan... ene erranak onartu bahitu!

BEÑAT.—Ez naiz bihurri bat. Eta hori frangotan frogatu dautzuet. Baina orain urrunegi ba zoazte.

JANAMARI.—Nik ez diat deus erraten...

GAETAN.—Erran bazeneza bederen!

BENAT.—Sobera lan ba du, entzun dudanaz...

JANAMARI.—Aski Beñat!

BEÑAT.—Bestalde, nork erran dautzue notario izanen naizela? Dretxoa ikasten dut baina horrek ez du erran nahi notario bilakatuko naizenik. Abokat egin gogo dut.

JANAMARI.—Abokat, eleketari polita haiz horretarako.

BEÑAT.—Abokat izateko ez da eleketari pollita agertzea aski! Nik abokat izan nahi dut, baina ez edozein abokat. Zuzentasunaren alde bermatzekotan, jende xehea zainduz.

GAEAN.—Eta baaa! Sartua, sartua teoria berria! Frantziara lanketa etorri Afrikano eta Polonesak zaindu nahi dituk ez? Bai eta Espainol errefugiatuak, eta dudarik gabe, Carrefours horietako ebasleak? Ederki ederki, ez nian uste, ez nian uste, Bordeleko unibertsitatean karitatea, hain, hain barna sartua zenik! hobe funtsean...

BEÑAT.—Karitatea eta zuzentasuna, bi gauza dira, aita. Nola Espainol edo Euskaldun errefugiatuak eta «Carrefour»-eko

ebasteak bi diren bezala! Otoi, ez itzazula gauza guziak nahitara nahas! Bestalde ez naiz zurekin batere ados aita zenak utzi dauzkizun lur parteak Parisko xahar erretretatuei sal diezazkiezun. Zergatik ez, hemengo laborariei, lur horien beharra ba dute, ihardukitzeko.

GAETAN.—Baina hi mutikoa, arrunt itzulikatu haute. Aspaldi dik ideia horik dituala?

BEÑAT.—Hiru urte. Hastean halaere, ez nituen gauzak orain bezain garbi ikusten.

GAETAN.—Hiru urte? Eta ez dautak deus aipatu?

BEÑAT.—Zer nahi duzu, ez zen errex. Gure arteko solas guziak hain murritz eta eskasak dira! Egia erran, ez gara sekulan behar bezala mintzatu elkarrekin.

GAETAN.—Noren faltaz? Ni beti prest nauk besteen entzutera.

BEÑAT.—Zu, beti prest zara, besteei zure nahiaren egin araztera. Ez da berdin.

GAETAN.—(*Oihuz*). Orain ohartzen nauk onegi izateak ez duela deus balio!

JANAMARI.—Otoi, ez zaiteztela samur!

GAETAN.—Nahi niake jakin, familiako ohoreaz zer egiten dukan! A, zer auzapezgaia, hi!

BEÑAT.—Horik guziak, zure asmoak dira, aita. Nik, ez dut sekula pentsatu, hemengo auzapez izan nintekeenik! Sekula santan! Ez dut, zuk bezala frantses sistiman lepo zintzurreraino sartu nahi! A, ez! Ene nortasunak besterik galdatzen daut!

GAETAN.—Janamari, Janamari, entzuten duzu gure semea nola mintzo den?

JANAMARI.—Bihotz onegia du...

BEÑAT.—Beste zerbait ere ba dut zuei errateko baina, nola has...

GAETAN.—Zer? Gose-greba egin nahi dukala? Edo, amanda bat pagatzeko? Zer? Zer? Mintza hadi!

BEÑAT.—Erran behar dautzuedanak, politikarekin ez du deus ikustekorik. Amodioarekin bakarrik.

GAETAN.—Hobe!

JANAMARI.—Ikusiko...

(Geldi.)

BEÑAT.—Gilen Mandukuren alaba Maiderrekin atxikitzen dut eta laster ezkondu beharrak gara!

GAETAN.—(*Ohiuz*). Nola? Zer derasak? A, hori, ez. Hori ez! Hire onetan! Denak barkatuko dauzkiat, baina hori ez! Ez diat nahi jende guzia gutaz trufa dadin! Ene etsai haundienaren alaba utzak bere gisa! Aditzen nauk: bera gisa! edo bestela, ez haut gehiago neure begien aintzinean ikusi nahi! Entzuten duk? Entzuten duk?

JANAMARI.—Gaetan, Gaetan, ezti zaitez!

GAETAN.—Zaude ixilik zu ere!

(Ordu berean telefonak jotzen du. Gaetan telefonoari buruz doa.)

GAETAN.—A, ez! Hor haatik, urrunegi ba hoa!

GAETAN (Telefonoan)

Beste biak ixil ixila, Gaetani so.

GAETAN.—Alo? Bai zuri ere, Mme DUPUIS. Nola? Gilen Manduku Herriko-Etxean duzula? Eta zer nahi du? Enekin solastatu? Berehala? Ez ote daki non bizi naizen? edo, ni ikusi nahi balin banau, ez da besteak bezala asteazken arratsaldearekin etortzen ahal herriko etxera? Zer? Paper batzuen miatzen ari dela? Zaude. Segidan nator. Biltzarre bat ere egin nahi lukeela plazako arkupean? Forman, forman gure puttikoa! Jada erasiatu zaituela? Hau kopeta! Norentzat hartzen ote du bere burua? Jakin dezala, orainokoan segurik, nik dudala Herriko etxean manatzen, eta nik bakarrik! Ongi da Mme DUPUIS. Laster arte. (*Telefona pausatzen du.*)

GAETAN.—Uste duzue! Gilen Manduku gure herriko etxean paper mian! eta biltzarre bat egin nahiz ari... Polliki, polliki, hop pette! Ba noa, zer pasatzen den hor gaindi... (*Kanpora abiatzen da*). Eta hik Beñat, bi gogoeta egizkik, edo bestela...

JANAMARI.—Bortitzegia zara Gaetan... Gure Beñaten ongia bilatu behar dugu... Orain arte bezala...

GAETAN.—Bizian, neurriak ba dira. Erranak erran!

(Gaetan, urrats haundiz jalgitzen da.)

JANAMARI - BEÑAT

JANAMARI.—Saltsa pollitean gaituk to!

BEÑAT.—Zuk errazu...

JANAMARI.—Aitaren hiztua ikusi duk?

BEÑAT.—Bai naski. Beharrik zuk bederen zerbait baitzenekien.

JANAMARI.—Beti hire alde mintzatu nauk.

BEÑAT.—Milesker ama. Ez dut ahantziko (*Geldi*). Baina beste zerbait ba da oraino...

JANAMARI.—Zer ote?

BEÑAT.—Uste dut, Maider haur-beharretan dela...

JANAMARI.—Aiaiaiai! Zeruetako ama! Ez genian beste beharragorik! Baino, BENAT espres ari haiz, ba...

BEÑAT.—Ez, ez, ez dut batere espres egin...

JANAMARI.—Ez zenuten ezkontgaua igurikatzen ahal, besteek bezala?

BEÑAT.—Zer nahi duzu ama, elkar hain maite dugu!

JANAMARI.—Aspaldi dik elkarrekin zabiltzatela?

BEÑAT.—Kasik bi urte. Bi urte luze da gero...

JANAMARI.—Maiderrek, hire ideia berak ditik?

BEÑAT.—Ez da ni bezain bero, baina heldu da heldu. Biziki neska xarmanta da. Segur naiz arras ongi akomeatuko zaretela. Gure haurraren amatxi zu izanen zara.

JANANMNRI.—Eta hauk guziak, boz denboran gertatzen direla, kontuaren gaineko. Jendeek jakinen dutenean, orduan xintxin-mariak! Pentsatzen berak buru burtzoroak ematen zauzkidak. Eta aitak jakinen duenean... Aitak jakinen duenean! (*Geldi*). Hire ustez, zenbat du?

BEÑAT.—Berri da. Ez da segur segur ere, oraino, arratsalde honetan joan beharra da medikuaren ikustera...

JANAMARI.—Aitari, ez zaiokala deus aipa. Utz ditzagun bozak pasatzera. Hola hola aski entzunik ba dik gaizo gizonak! ez badu bederen burua galtzen!

BEÑAT.—Uste duzu, onartuko duela?

JANAMARI.—Ez zakiat... Batere ez zakiat...

(*Ateko tirrinta entzuten da.*)

JANAMARI.—Ba nioak irekitza...

BEÑAT.—Bai eta ni ikastera.

(*Beñat alde batetatik jalgitzen da, Janamari, bestetik.*)

JANAMARI.—Zerk hatzeman behar gintuen! Zerk hatzeman!

JANAMARI - KASKOBELTZ

KASKOBELTZ.—Agur Janamari!

JANAMARI.—Agur Kaskobeltz. Gaetan ikusi nahiz zatoz?

KASKOBELTZ.—Preseski. Ez da etxean ala?

JANAMARI.—Ez. Oraintxe joana da Herriko Etxeraino. Baina laster itzuli beharra da.

KASKOBELTZ.—Berriz pasatuko naiz beraz...

JANAMARI.—Ez du balio. Sar zaitez, Kaskobeltz...

KASKOBELTZ.—Zure lanean gibel araziko zaitut.

JANAMARI.—Ba, pentsa! Zer gostu zenuke? Ricard bat?

KASKOBELTZ.—Berdin, ori. (*Zerbitzatzen dio eta Kaskobeltz jartzen da.*)

JANAMARI.—Eta boz horik?

KASKOBELTZ.—Ez dakit nola iraganen diren, baina ba da arrabots hor gaindi! Jendea arrunt berotua da! Balekite bederen zerentzako!

JANAMARI.—Denborak erranen. Denborak erranen... (*Oihu eta ele batzuk nabaritzen dira.*)

JANAMARI.—Gaetan, hor da, ori...

JANAMARI - KASKOBELTZ - GAETAN

GAETAN.—Boz egun hauk zerbait ba dira! denek odola kaldan eta denek beren burua jadanik nagusi ikusten... Utz ditzagun pasatzera; ea nor den xapeldun aterako! gero ikusiko! ai, urdeak ez besteak! Kontu faltsuak ba direla... Zaude zaude, gure arteko kontuak segurik eginen ditugu eta laster! (*Gaetan, Kaskobeltzi ohartzen da.*) A! hor haiza Kaskobeltz?

JANAMARI.—Zure beha dago!

KASKOBELTZ.—Ez da mementoa ez, naski...

GAETAN.—Janamari, zoaz otoi Alfred Haraneta gure atxuantaren etxera eta erraiozu, ahal badu bederen, ene ikustera segidan etor dadin; afera serios batzuk ba ditugula elkarrekin zuritzeko.

JANAMARI.—Abian ba noa. (*Janamari jalgitzen da.*)

KASKOBELTZ - GAETAN

KASKOBELTZ.—Gure herriak ez du aspaldian horrelako harroaldirik hartu!

GAETAN.—Gezurti zikinak! Dolutuko zaizkiek beren balentriak! (*Geldi*). Eta hik Kaskobeltz, zer nahi huen? Gure alde haiz, hi bederen?

KASKOBELTZ.—Duda muda izpirik gabe! Sobera zerbitzu eginik ba dautazu orain ni zure kontra itzultzeko...

GAETAN.—Ez dituk denak hi bezala mintzo!

KASKOBELTZ.—Alta aldi honetan ere... zure beharretan naiz...

GAETAN.—Mintza hadi. Lagunduko haut, ahal badut bederen...

KASKOBELTZ.—Joan den egunean, jendarmek arrastatu naute ehun ta bost egiten nituelako, lauetan hogei ta hamar egin beharrean... Tribunalera joan beharko dut naski. Zuk Gaetan, hanitz jende haundi ezagutzen baituzu, ez zenezakea zerbait egin afera horren hauts arazteko?

GAETAN.—Garbiki erranen dauat Kaskobeltz, memento honetan besterik ba dudala buruan; baina hi haizenez gero, zerbaitxka eginen diat bai...

KASKOBELTZ.—Milesker!

GAETAN.—Hi, herritarrekin hanitz gurutzatzen baihaiz, hire ustez, hire adinekoei eta gazteei plazer egiteko, zer hitzeman behar genuke ote?

KASKOBELTZ.—Ori, ongi egiten duzu aipatzea. Gazteak, aspertzen dira; eta dancing edo Night Club bat behar litzateke egin. Mementoan arrakasta gaitza ba dute eta horrelako bat eginez gero hiruzpalau urteren bakea ba zenuke. Dantza tokiaren sahetsean, ostatu goxoño bat ongi izan liteke argi ilun batzuekin eta bi gau-oilo barnean, herriko donadoak ere puska bat purga daitezen artetan...

GAETAN.—Apezak ez dik sekula horrelakorik onartuko!

KASKOBELTZ.—Zer behar duzu apezetik? Berdin gorri deabru horien aldekoa da...

GAETAN.—Segur haiz?

KASKOBELTZ.—Segur, eta fida! Azken igande hauetako predikuak ez dituzu entzun ala? Beti jende pobreen laudan arizan da, aberatsak aldiz gain gainetik kondenatzen zituela. Garbi da, ez...?

GAETAN.—Jakin zak Kaskobeltz, ez banaiz pasatzen, lekuak hustu beharko dituela eta laster!

KASKOBELTZ.—Arrazoinekin. Baina itzul gaitezen geure harira. Dancing eta ostatuño baten egitea, ni jada begistatua dut...

GAETAN.—Nor?

KASKOBELTZ.—Neure koinatoa...

GAETAN.—Hire koinatoa? Hire koinatoa ez bait jendarme?

KASKOBELTZ.—Jendarme da bai, Lyonen. Baina hilabete baten buruko erretretan sartuko da... eta preseski berak aipatua zautan nahiko zukeela gure herrira etorri eta horrelako zerbait egin.

GAETAN.—Baina laster istorioak izanen ditik...

KASKOBELTZ.—Ba pentsa! arras ongi ezagutzen du «le milieu».

GAETAN.—Horrela denaz gero, ez nauk ideia horren kontra... zenbait boz emaile biltzen ahal baditugu bederen...

KASKOBELTZ.—Segur baietz!

GAETAN.—Baina ez nauk ni gauza horien garbiki eta publikoki erraten ariko! Aski duk hik, heure ezagun eta adiskideei azpiz eta ahopetik erratea. Gazteei bereziki. Ea bada nola jolatuko haizen...

KASKOBELTZ.—Zaude gostuan, Gaetan, neure egin ahalak eginen ditudala!

GAETAN.—Heure amandaz ez hadila kexa!

(*Orduan Janamari eta Alfred Haraneta sartzen dira.*)

GAETAN.—Ha, hor zarete zuek...

ALFRED.—Egun on, Jaunak, ez zaituztet poxolatzen bederen. Goizegi etortzen naiz...

KASKOBELTZ.—Ez, ez. Guk geure aferak eginak ditugu... Ba noa. Uzten zaituztet.

GAETAN.—Erranak erran beraz, Kaskobeltz...

KASKOBELTZ.—Bai, milesker Gaetan. Milesker denetaz... (*eta jalgitzen da, Gaetanek segitzen duela*).

JANAMARI - ALFRED

JANAMARI.—Jar zaitez, Alfred. Zer gostu zenuke?

ALFRED.—Goizetan ez dut sekula deus hartzen.

JANAMARI.—Ongi egiten duzu... Luzaz biziko zara.

ALFRED.—Jainkoraren menturan ni ere, Jainkoaren menturan, beste guziak bezala... (*Gaetan sartzen da*).

JANAMARI - ALFRED - GAETAN

GAETAN.—Alfred, Alfred, biziki memento gaixtoan gaude!

JANAMARI.—Hobe dut naski zuen joko eta jukutrien entzuten egoteko ordez, bazkariaren egitera joatea...

GAETAN.—Hori zeronek ikus, Janamari.

JANAMARI.—Gero arte beraz eta ez zazuela burua sobera bero! (*Janamari jalgitzen da*).

GAETAN - ALFRED

GAETAN.—Herriko etxetik nator. Han; Gilen MANDUKU hatzeman dut paper mian eta mian. Bortizki mintzatu natzaio baina hura ni baino. Kontseiluan deus ez omen dugu egin eta Kontu faltsuak ba direla erran daut. Karrikan pasatzean, Andere Ida gure dendari mekela horrek ez nau agurtu eta Panpale Haundiak «Xuriak kanpora»! oihu egin daut. Ikusten duzu Alfred hamabi urte herriaren zerbitzuko pasa ondoan jendeak zer estimu duen guretzat.

ALFRED.—Gilen MANDUKUk die burua muntatzen, berak auzapez izan nahi duelako... Baina Gaetan, ene ustez hogei-tahamaika ta esku dugu.

GAETAN.—Ez naiz zu bezain segur... Apeza kontra omen dugu... Eta apezak, ba dakizu, gure herrietan oraindik botere gaitza ba duela!

ALFRED.—Apez xaharra ez balitz hil bederen... Hura arras gure aldekoa genuen...

GAETAN.—Hura bai! Hura zentzuduna zen gero... Hau aldiz, ez da ez zozoa, baina gazteena egin nahi... eta gazteek berriz aldaketa... Baina Kaskobeltzekin aipatu gauza batzuei esker, uste dut gazteria ere bilduko dugula...

ALFRED.—Hobe! (*Geldi*) Bestalde; gure taldean, general bat behar genuke... General baten ukaiteak izigarriko laguntza ekartzen baitu... Frantses armadako general muztazdun haundi bat bagenu, orduan segurra genuke irabaztea... Hemengo jendeek maite dituzte generalak edo bederen horien beldur dira eta hori bera ez da gaizki. Ez ote dugu bada herríko seme bat, non edo non general?

GAETAN.—Nik dakidanez segurik ez. General, General, ez da nornahi gero, general... Hemengo bakar batzuk Kaporal ziren... eta fier oraino! Kaporal ez baita gaizki gure herrikotzat.

ALFRED.—Eta Antziburuko Panpi zer bilakatu zen? Armadan da ez hura ere?

GAETAN.—Bai, baina ez general... Legionnaire...

ALFRED.—Egia. Ba zuen bai halako buru-bero aire bat...

GAETAN.—Ez bakarrik airea! Besterik ere... Hura alde bagenu, segur herri guzia kontra genukeela!

ALFRED.—Halere, bi edo hiru gazte gure taldean sartu bagenitu, ez ote duzu uste gauzak bestela iraganen zirenik?

GAETAN.—Ez naiz segur. Datorren aldian aski goiz izanen da oraino. Bestalde, nola hiruetan hogei urte ditudan, neure maraxalgoaren uztea deliberatu dut eta erretretan sartzea. Horrela, pasatzen bagara segurik eta egin behar genuke, horrela beraz, egun guzian libro izan ninteke herriaren zerbitzuko.

ALFRED.—Ederki! Ederki! Gilen MANDUKU erotuko da hori jakinen duenean zeren hark lan gehiegi ba du egun guzia Herriko etxean iragateko. Astean egun erdi bat ere, sobera bezala...

GAETAN.—Zer uste du ala, eñul batzuk garela? Guk ere, geure karkulen egiten ba dakigu gero!

ALFRED.—Eta bere biltzarrea noiz antolatzen du?

GAETAN.—Asteazkenean.

ALFRED.—Uste duzu jendea joanen zaiola?

GAETAN.—Ez dakit. Baina guk segurik han izan behar dugu bere gezurren erraten hasiko denean, segidan tapa dezagun.

ALFRED. Eta tapatzen ahalko dugu? Eleketari ederra da gero...!

GAETAN.—Eleketari ederra izatea ez da aski. Gaurko egunean obrak behar dira. Eta guk, horik ba ditugu! Begira: zenbat etxe eder, zenbat bide berri, familia gutiz gehienak zorionean bizi dira, barnerako eta kanporako behar dituzten guziekin. Guk, obrak ba ditugu. Gilen MANDUKUk aldiz ez du haizea baizik ereiten! haizea eta ametsak. Ametsak eta gezurrak. Guk, eta berriz ere diot: guk obrak hor ditugu lekuko. Obrak! Beraz, fuera Gorriak! Eta orain arte bezala, bihar ere, Herriko-Etxean, Xurien taldea izanen da nagusi, Xurien talde osoa, eta ni auzapez, ni, Gaetan LAPEGUE. (*Eta biek batean*) Vive la République! Vive la France!

OIHALA

BIGARREN ZATIA

Lehen agertaldia.

(Herriko arkupe batetan gaude. Aldean, eliza, herriko-etxe eta beste zenbait bizitegi ikus daitezke. Arkupean, mahai bat eta kadera edo aulki andana bat ezarriak dira, biltzar toki edo egunetan egiten den bezala. Gilen MANDUKU eta Panpale haundia, jarririk solasean ari dira.)

GILEN - PANPALE

GILEN.—Aski kadera ba ote da bederen?

PANPALE.—Ez dakit. Mundua etorri beharra omen da.

GILEN.—Gero ere, zutik egonen baitira.

PANPALE.—Bai, anitzez hobeago da toki ttipi bat jendeez mukurru ezinez eta barne haundi bat erdi hutsa...

GILEN.—Neure mintzaldia, hastetik buru gogoz ikasia dut. Ez dut paper beharrik ukanen...

PANPALE.—Hobe, paperetik aritzea marka txarra da. Beha: apezak ere lehen paperik gabe ari zirelarik prediku ederragoak egiten zituzten... Orain paperetik hasiz gero ez dute deus funtsezkorik ateratzen... Paperak biziki garrantzi (inportantzia) haundia du!

GILEN.—Zuk ere eskukaldi bat emanen dautazu dudarik gabe? Atxuantgaia zara gero! Herritik kanpo izanen naizenean, zuk beharko nauzu ordainkatu.

PANPALE.—Egia, egia. Presentatzea ez da aski. Eta, artetik errateko, ezkontza bat nola egiten den, ba dakizu bederen...?

GILEN.—Jakin beharko! Zeren gure Maider, laster ezkonduko zaigu naski.

PANPALE.—Eta norekin, ez banaiz kuriosegi?

GILEN.—Ez baitakizu? Ez baitakizu? Harritzen naiz...

PANPALE.—Maider, Bordelen ikasten ari dena da ez? Gazte horik sortu orduko norabait ba doaz non ez baitugu horien ezagutzeko astirik ere...

GILEN.—Bordelen dena bai... Oraingo ustez «Sciences Po» egin nahi luke...

PANPALE.—«Sciences Po»... Zer da hori?

GILEN.—«Sciences Politiques».

PANPALE.—Deabruentxua! «Sciences Po»... Ez dela nornahi izanen zuen alaba! Funtsean, lau haurrideak bat bestea bezain xarmantak dituzue... Eta senargaia, Bordeleko jaun haundi zenbaiten semea hain segur?

GILEN.—Ba pentsa! Hala balitz bederen...

PANPALE.—Zer da, hippies zenbait?

GILEN.—Ja, ja. (*Geldi*). Gaetan Lapegueren semearekin atxikitzen du...

PANPALE.—Mekauen sos! Hauxe berria! Irri egiteko ari zara bai...

GILEN.—Ez, ez. Ez dut segur irri egiteko gutiziarik; etxean, ezin bizia dugu..

PANPALE.—Eta, marro mutur zuriak zer dio? Arrunt zozotua dateke ondikotz...?

GILEN.—Ez omen du deus aditu nahi eta semeari errana dio etxetik kanpo ezarriko duela ez balin badu gure Maider uzten...

PANPALE.—Maiderek zer pentsatzen du?

GILEN.—Beti erdi nigarrez ari da.

PANPALE.—Zer; Beñatek utziko du ala?

GILEN.—Ez dira horretarik ari. Lekuak hustuko dituztela diote...

PANPALE.—Eta zuri ongi zaizu?

GILEN.—Xoxefinak hori aipatu zautalarik, ileak zutzuta jarri zitzaizkidan, iduri hormatuak... Baina gero, anitz gogoeta egin ondoan; zer nahi duzu, Beñat ez da Gaetan bezain basa eta idorra... Izatekoz mutiko xehe eta goxoa da...

PANPALE.—Xuria halere...

GILEN.—Xuria, xuria, batere ez dakit ori. Nago ez ote den gu baino gorriagoa! (*Xoxefina sartzen da.*)

GILEN - PANPALE - XOXEFINA

XOXEFIN.—Prest zarete? Jendea abiatua da hona buruz.

GILEN.—Hobe, hobe. Etor bitez... Ukanen dute zer adi...

XOXEFIN.—Apezaren etxetik ba nator. Arrunt gure alde dugu...

PANPALE.—Biba hura, ori! eta Errienta?

XOXEFIN.—Errientak ez du boza hemen ematen. Bere sort-herrian kontseiluko omen da.

PANPALE.—Zure emazteak jakin duela apezaren biltzen!

XOXEFIN.—Zuzen da ez? «Action Catholique Générale Féminine» buruzagi bat naiz gero!

PANPALE.—«Action Catholique» ala puñeta, memento honetan, apezaren boza ukaitea da beharrezkoena...

GILEN.—Eta Maider beti berdin?

XOXEFIN.—Are gaizkiago. Aita-Semek harrigarriko kalapita partida egin omen dute berriz ere.

GAETAN.—Gure boz hauekin ez dugunaz aski, ez genuen istorio horren beharragorik baizik...

XOXEFIN.—Zuk errazu!

(Laurendi sartzen da.)

HIRUAK ETA LAURENDI

LAURENDI.—Hemen dea, delako biltzarre famatu hura...?

GILEN.—Hemen da bai... Zu ere gure entzutera etorria?

LAURENDI.—Aspaldian ez baitugu herrian «toberarik» ukan, eta... ea ba, zenbait irri karkaila egiten ahalko ditugun...

(Bi emazte sartzen dira.)

GAETAN.—Aintzina, aintzina... Jar zaitezte... Ba da toki oraino...

BATEK.—Kadera hau maingu da...

PANPALE.—Aski duzu beste bat hartzea...

(Jende batzuk sartzen dirak Gilen eta Panpale aldiz mahai ttipiaren gibelean jartzen.)

BESTEAK.—Biltzarre hau, Xuriena ala Gorriena da?

GILEN.—Gorriena.

BESTEAK.—Beraz, bandera gorria non duzue?

LAURENDI.—Apezak ekarri beharra die... *(Andere Ida sartzen da).*

IDA.—Ni, baleki bale, neure kaderarekin ba nator... Neure adinean ez bainuke biltzarre guzian zutik egon nahi...

GILEN.—Ongi egiten duzu, Andere Ida...

IDA.—Oraingo gazte gaizki ikasiek ez baitautzute sekula beren lekua uzten... Ez gara segur horrela usatuak gu... Baina gaurko egunean politezia eta gainerako guziak errekan behera joanak baitira...!

LAURENDI.—Arrazoina duzu Andere Ida...

IDA.—Nik, ixtantean bi hitz erran nahi bainituzke, orain beretik erria altxaturik behar ote dut egon?

GILEN.—Ez, ez. Mintzatzeko mementoan askiko da...

IDA.—Hobe... Hobe... Beso hau, preseski, erromatismak janik baitut...

(Gaetan LAPEGUE, Alfred HARANETTA, Kaskobeltz, Janamari eta beste hamar bat gizon emazte sartzen dira, albota gaitzean.)

GILEN.—Hasiko gara, naski.

(Jende guzia jartzen da; batzuk zutik.)

(Bere mintzaldiaren egiten hasten da.)

GILEN.—Jaun andereak. Neure mintzaldia hasi aintzin, jakin nahi nuke ea denek euskara konprenitzen duzuen; bestela frantsesez mintza baninteke...

KASKOBELTZ.—Emak euskaraz bai, deabru brilili... Zer uste duk ala, ez dakigula hire frantsesaren berri!

GILEN.—Jaun andereak; Demokrazian gaudenez gero, denek ba dugu bozetan presentatzeko eskubidea... Horregatik, eta ikusirik aintzineko kontseilu xuriak ez duela deus kasik egin...

BATZUEK.—Ho, ho, emeki, emeki...

GILEN.—Erabaki dugu presentatzea. Batzuek eta pentsatzen dukezue nork, gezurrak kurri arazi dituzte erranez herri guzia su eta odol ezarri nahi genuela... Horik guziak zuen izi arazteko erranak izan dira...

PANPALE.—(*Ahopetik*) Biziki ongi hasia zara...

GILEN.—Gure nahia arras sinplea da. Ez ditugu segur denak uzkaili nahi. Bakarrik zenbait kanbiamendu ekarri, zeren orain arteko kontseiluak afera guziak bazterrera utziak baititu, eta...

GAETAN.—Gezurra. Gezur ustela! Etxe berri horik guziak ez ote dituzu ikusten?

GILEN.—Etxe horik nork egin ditu? Zuk, ala aterbe baten beharretan zirenek? Besteen izerditik eginiko obrak ez itzazula otoi zeure gain ezar...

GAETAN. Eta bide berri horik? Bide berri horik ez dira hor lekuko?

PANPALE.—Zure onetan, bide berri horik ez itzazula sobera aipa, zeren geure etxerakoa segurik... bost urte ba du igurikatzen dugula... Zuek, fitsik ez duzue egin... ele eta bazkari ederrez beste...

IDA.—Mintza naiteke? Ala ba duzue oraindik beste zerbait errateko?

GILEN.—Bai, ba dugu oraindik anitz gauza errateko eta jaun andereak, gauden otoi, geure zainen jabe. Herriaren onetan mintzo gara, ez eta batzuek besteen apaltzeko. Baina, halere, gauza bitxi zenbait jakin behar dituzue...

KASKOBELTZ.—Kasu'mak zer erraten dukan, he!

GILEN.—Herriko Etxean, kontu batzuk...

ALFRED.—Kontu horietaz, hitz bat gehiago erraten baduk, afera Tribunalean ezartzen diat...

GILEN.—Ikusten duzue, egiak nola izi arazten dituen! Bai Jaun-Andereak, *herriko etxean kontu faltsuak ba dira*!

GAETAN.—Diffamation! Diffamation!

GILEN.—Bestalde, auzapez ohoragarri horrek herriko lur batzuk balio ttipienean erosi ditu eta orain tirahala Parisko xahar erretretatuei saltzen ari da, prezio ikaragarrienetan, hemengo laborari guziak ziztor dagozela.

GAETAN.—Zer erran dezakezu zuk? Zure bi etxetiarrak hemen balira, nahi nituzke entzun... Haiek garbiki erran bailiezagute zer jauntto zaren zu... Jauntto... ez dakit izen hori merezi duzun ere...!

GILEN.—Ni, neuretan nago bederen, zu ez.

GAETAN.—Erosiz gero, eneak dira. Eta ene aferetan ez zauzula sudurrik sar!

GILEN.—Lur horik Herriarenak ziren... Lur horietaz jabetzeko, kontseilu guziaren ixiltasunaz edo ezazolkeriaz baliatu zara!

GAETAN.—Dolutuko zaikizu horik guziak. Dolutuko eta ez guti...

(*Norbaitek*: «*Biba Gorriak*».)

IDA.—Jaun andereak, jaun andereak, orratza beti aintzina baitoa eta ene adineko pertsonek goizik etzan behar baitute, bi hitz erran nahi dauzkitzuet lehen-bai-lehen.

KASKOBELTZ.—Gure deabrusak zer aterako ote dauku?

IDA.—Neure adinean, ixilik egotea hobeki eginen nuke. Baina ezin naiteke eta hona zergatik. Jaun auzapezak ez du bere hitza atxiki eta beraz ene boza gorriei joanen zaie!

GAETAN.—Zer nautun hitzemanik?

IDA.—Ez ote zara oroitzen? Hiru urte ba du, iluntze guziez, herriko gazte mukutsu horiek ene etxondoko murruari kontra pixegiten dutela. Usaina ez dut aipatzen. Baina sekula leihora agertzen banaiz zenbait erasiren egiteko, beren tresnak erakusten dauzkidate eta zernahi ele itsusi erraten!

EMAZTE GUZIAK.—Hohohoho... Jainko maite zeruetakoa!

IDA.—Bai, Jaun andereak. Horra zer nuen errateko. Azken hiru urteotan, horrelako jestu itsusiak ikusita, gau guzian gero, ez dezaket begirik hets!

KASKOBELTZ.—Guti gose baita oraino ere!

IDA.—Jaun auzapezari, hamaika aldiz bederen aipatu diot gauza ahalgegarri hori baina, orantxe zeniotsuna, ele ederraz beste, ez du ezer egin. Alta, herriaren eta gazteen zaintzeko, bizpahiru jendarme ekar arazi balitu, aski izanen zen ordrea eta diziplina poxi baten ezartzeko. Baina ez. Horren egiteko ere ez da kapable izan. Nik segurik, auzapez horretan, konfientzia arrunt galdua dut...

GAETAN.—Zer uste duzu ala, bizpahiru jendarme nolanahika ekar araz daitezkeela?

IDA.—Nolanahika? Arrazoinak ba dira ez? Eta ez ttipiak!

ALFRED.—Errazu Andere Ida, ez du balio orain moko fina ezin eginez aritzea, zeren gazteago zinelarik, zeronek deitzen zenituen herriko gazte ederrenak, eta ez bakarrik pixegiteko!

IDA.—Oieiaieiaiei! Zer entzun behar nuen! Gezurti tzarra zu... Oieiaiei! Ni, oraino, birjina izanki-ta! Birjina! Ai, oi, oi, ai! Hatsa, hatsa! (*Eta Andere Ida alditxartzen da...*)

XOXEFINA.—Laster, laster, zoazte apezaren bila!

(Orduan, bizpahiru gizonek ahal bezala, polliki polliki ateratzen dute. Gilenek segitzen du.)

GILEN.—Otoi, otoi, Jaun andereak, gure hitzak izar ditzagun eta ez bortizkiegi mintza!

ALFRED.—Nor da hasi?

GILEN.—Mintzatzera utz nazazue bederen! Zuen ihardespena gero eginen duzue... Bestela, horrela segituz, nehork ez du deus konprenituko!

GAETAN.—Ez dute konprenitzearen beharrik. Behatzea aski dute! Behatzea: gure herrian zer aintzinamendua egina izan den ni auzapez jarriz gero!!! Beste solas guziak, amets eta gezurrak baizik ez dira!

LAURENDI.—Biba Xuriak!

GILEN.—Amets ala gezurrak diren, hori datorren igandean ikusiko. Azken hitza herritarrek ukanen baitute! (*Geldi*). Gure herriaren agonia eta heriotzea nahi balin baduzue, bai eta haundi mandien menpeko egon, Xuriei emaiezue boza. Aldiz, herriaren berpiztean, eta berritzean sinesten baduzue, bai eta zuzentasunean, orduan, bozka gure alde!

(Xoxefina eta Alfred tirahala esku zartaka hasten dira. Jende guziak segidan zutitzen dira.)

OIHALA

BIGARREN ZATIA

Bigarren agertaldia

(Arkupe berean gaude, baina argi gehienak itzalirik eta goian argizagia ikus daiteke. Elizako dorrean hamabi danga entzuten dira. Beñat, aulki batetan jarria, maleta bat ondoan daukala, arras gogoetatua dago, bere ukaraiko ordulariari so eta so.)

B E Ñ A T

BEÑAT.—Etorriko ote da? Hauxe memento luze eta latza... Maider, Maider... zatoz otoi... zatoz laster... (*Beste hamabi danga entzuten dira*). Etorriko da bai! Segur etorriko dela... Elkar maite ahal dugu! Baina horrelakoetan denetaz dudatzekoa ba da... Nork erranen zuen, neure aitak, edozein eskale bezala etxetik kanpo ezarriko ninduela? Nork? Eta ama? Gaixo ama... Jadanik seme gehiena gerlan hila izanki-ta, ez zuen beste beharragorik... Zer egin? Zer egin? Baina txo, norbait ba dator... (*orduan Maider erdi lasterka agertzen da*).

BEÑAT - MAIDER

(Beñatek zenbait urrats egiten ditu Maiderri buruz eta azkenean, luzaz eta luzaz besarkatzen dira.)

MAIDER.—Beñat, Beñat, ene maitea!

BEÑAT.—Berantetsia zintudan...

MAIDER.—Gauerditan errana zenautan. Gauerdi da orain...

BEÑAT.—Bai... Baina hain luze zen, hain luze... Zein zoriontsu naizen etorri baitzara...

MAIDER.—Ez ote nautzun hitzemana? (*Eta berritz besarkatzen dira.*)

BEÑAT.—Eta medikuak, zer erran dautzu..

MAIDER.—Seme bat ukanen dugula!

BEÑAT.—Hau berri ona! Lorietan nago. Eta zu? Berriz behar zaitut besarkatu! Oi, Maider, ene bihotza! (*Besarkatzen dira...*)

MAIDER.—Zure aitarekin ez da ezer egitekorik naski...

BEÑAT.—Ez. Azken egun hauk biziki bortitzak izan dira. Eta oixtian, biltzarretik etxeratu denean hainbestetaraino kexatua zen non zernahi erran baitaut eta etxetik joatea manatu!

MAIDER.—Gaixo Beñat... Zinez maite nauzu bederen?

BEÑAT.—Hauxe galdera! Duda zenezake?

MAIDER.—Ez. Sekulan ez. Gehiegi maite zaitut. Uzten banindu-zu, uste dut hilen nintzatekeela.

BEÑAT.—Ni ere bai.

MAIDER.—Eta zure amak zer dio?

BEÑAT.—Amak aspalditik ba zekien gure berri. Ama alde dut. Beharrik funtsean. Baina aitak ez du deus entzun nahi... Alta, amak ahal dituen guziak egiten ditu ene zaintzeko edo lauzkatzeko, baina debaldetan... Amak bakea bilatzen du eta gure zoriona.

MAIDER.—Bat bederen zure alde izan dadin ez da gaizki...

BEÑAT.—Bai, baina, besteak baitu manatzen!

MAIDER.—Politika aipatu duzue?

BEÑAT.—Horretarik hasi gara. Aspaldian erran nahi nizkion zenbait hitz.

MAIDER.—Memento hoberena hautatu duzu...

BEÑAT.—Zer nahi duzu Maider, gauza horien errateko memento guziak tzarrak dira... zeren nehork ez baitu horrelakorik igurikatzen edo izatekoz igurikatu nahi. Egia erran, ez nuen sekulan pentsatuko ene aita hain idorki mintzatuko zenik ideia horien kontra. Kontrakoa baino kontrakoagoa agertu zait, Euskal-Herria eta euskara zangopilaturik ezartzen zituela bai eta ere jende langilea. Ene aita, Frantsesak baino ere frantsesagoa da, Euskalduna izanik-ta!...

MAIDER.—Alta neurea ere, ez dut uste alde horretarik zurea baino hobeagoa den, nahiz langileen zuzenak bederen arras ongi konprenitzen eta sustengatzen dituen. Baina joan den egunean, doi-doia euskaldun problema aipatu diodalarik,

abian oihestu da eta segidan ixiltzeko erran daut... Urteak ba ziren ez zaidala hain fermuki mintzatu...

BEÑAT.—Zinez pena da, pondu horretan gorriak ere, xuriak bezain gaizki jokatzen baitira... Xuri ala gorriak, frantseskeriak janak ditu...

MAIDER.—Nik, politikarik ez omen dut egin behar neure eskolak bururatu arte! Horra zer dioen ene aitak. Eta anartean, abere bat bezala bizi behar ote dut?

BEÑAT.—Aitama gehientsuena da hori. Ene aitak gauza bera erraten daut. Sartu sartu sisteman... ezin ateratzerainokoan! (*Geldi*).

MAIDER.—Gure haurrari izen euskalduna emanen diogu, ez?

BEÑAT.—Zaude, zaude... presatuagorik ba dugu naski... Nik, mementoan aterberik ez daukat gero!... Eta ez litzateke gisa zuen etxera etor nendin. Horrelakorik egiten banu, aitak berdin, hilen baininduke! Orain bertan Bordelera joatea hobe dugu...

MAIDER.—Nik ere gauza bera pentsatua nuen. Zaude, ama etorri beharra dut, maletarekin.

BEÑAT.—Ama, tenore honetan?

MAIDER.—Zer uste duzu ala? Boz denboran, gau guziez biziki berant etzaten dira.

BEÑAT.—Zergatik?

MAIDER.—Aita, etxez etxe boz-keta ibilki da eta ama...

BEÑAT.—Ama?

MAIDER.—Horra non datorkigun...

(*Xoxefina agertzen da.*)

BEÑAT - MAIDER - XOXEFINA

XOXEFIN.—Gaixo haurrak, gaixo haurrak... Hoztuko zarete...

BEÑAT.—Ba pentsa... Gure adinean, ez dugu ez hotzaren beldurrik...

XOXEFIN.—Hobe segur! Ez dezakeat hainbeste erran... (*Maiderri*). Horra maleta. Gaixo haurrak zer bilatuko zarete orain.

BEÑAT.—Bordelen egonen gara zenbait denboraz... Ganberak ba ditugu han... Ez da ez lehen aldiko abiatzen bagina bezala izanen.

XOXEFIN.—Ez, ez. Baina ama batek beti pena hartzen baitu, bere haurrak joaten ikustean... Zu bederen Maider, igande guziez etorriko zara?

MAIDER.—Igande guziez? Beñat bakarrik utzirik? Ez dut uste ez.

XOXEFIN.—Horra, horra... gure batasuna hautsia. Hain goxoki bizi baiginen orain arte... Hain goxoki... (*Boz batzuk entzuten dira*).

XOXEFIN.—Kasu, kasu, nehork ez gaitzan ikus... Goazen barnago...

(Hiruak erdi gordetzen dira. Laurendi agertzen da trenpu pollitean.)

LAURENDI.—Xuriek hamar... Gorriek hamar... Hamar eta hamar, hogei! Damurik ez baita hirugarren alderdi bat, beste hamarren biltzeko! Nahiz, hogei ere ez den guti... Hogei mila libera zahar hementxetako paper txar honetan truk! Burutik ba diate bai... Jende zozo horiek! Funtsean etxeko probetxu... Gure Klodinak haatik, hemendik aintzina apalago beharko duela arizan! Zeren, ez dira gero nonnahi harrapatzen ni bezalako senarrak fitsik egin gabe, ttank, hogei mila libera zahar etxera ekartzen dituztenak. Hop pette! Gure Klodina, bere jakitate guziarekin, ez da gero ni bezainbat... Ja, ja, ja... Apezarekin bai ongi. Baina, apezak ez baitizkio nehoiz hogei mila libera emanen; berak bai guri bilduko! Biba bozak! biba bozak! Urte guziez balira bederen! Biba bozak! (*Laurendi ba doa, beste hiruak agertzen*).

BEÑAT - XOXEFINA - MAIDER

XOXEFIN.—Gizon nahasia ez bestea... Bihar goizean bereak adituko ditu haatik! Horrelako gizon herrebes ezdeusek daukate herria galtzen...

MAIDER.—Zer dio gure aitak dirua eman...

XOXEFIN.—Ba pentsa... Zer uste duzu ala gure aita gizon horren erosten arizan dela? Ez gara hain behera jausten, gu...!

MAIDER.—Eta zureak?

BEÑAT.—Jes, hona buruz datorren emazte hori, nor da?

MAIDER.—Zure ama, ez?

BEÑAT.—Ama tenore honetan?

(Bere amarengana doa, beste biak xoko batetan daude, apaletik eleketa.)

BEÑAT.—Zer ari zara hemen?

BEÑAT - JANAMARI

JANAMARI.—Ezin lo eginez, aire hartzera jaiki nauk... Aita biziki gaizki zioak. Apezpikuari telefonatzen ari utzia diat...

BEÑAT.—Apezpikuari?

JANAMARI.—Bai. Arrunt buruari emana ziok, apeza gorrien aldekoa dela eta nahi liake apezpikuak apez hau lehen-bai-lehen hemendik igor dezan...

BEÑAT.—Beren intresen zaintzeko, batzuek zer ez lezakete egin! (*Janamarik, besteei buruz*).

JANAMARI.—Zuek ere hemen?

BEÑAT - JANAMARI - XOXEFINA - MAIDER

XOXEFIN.—Ez gure nahiz!

JANAMARI.—Nork daki?

XOXEFIN.—Zer, nork daki?

JANAMARI.—Eta bai... Gilen ez balitz presentatu, hauk guziak ez ziren gertatuko...

XOXEFIN.—Zure Gaetan gizonagoa izan balitz ere ez...

BEÑAT.—Otoi, ez zaiteztela ele txarka has!

MAIDER.—A, ez, ama! Ez da mementoa.

XOXEFIN.—Zure senarra gure herriaz gehiago griñatu balitz, gure Gilen ez zen presentatuko!

JANAMARI.—Zuen Gilen herriko etxean izanen denean ikusiko du orduan, auzapez izatea zein idor den. Bazterretik aritzea bai, errex da. Baina sei urteren buruan berriz mintzatuko gara.

XOXEFIN.—Bai eta lehenago ere, nahi balin baduzu... Guk hitzemanak eginen ditugu eta ez zuek bezala herri guzia gibelaturik atxikiko.

BEÑAT.—Geldi, otoi!

JANAMARI.—Zer uste duzu ala gure nahitara gibelaturik daukagula... Herri batetan auzapez batek zer botere daukala uste ote duzu? Prefeta eta bere gizonak hor dira denen kudeatzaile... eta poliz-gizonak bestalde... Administrazioa ez dut aipaten ere; hasten banintz ez bainuke bururatzerik!

XOXEFIN.—Gure Gilenek jakinen du zer egin!

BEÑAT ETA MAIDER.—Guk orain abiatu behar genuke...

JANAMARI.—Gaixo Beñat...

XOXEFIN.—Bozaren ematera etorriko zarete?

MAIDER.—Ez dugu uste ez.

BEÑAT.—Memento hobea igurikatuko dugu...

JANAMARI.—Zer hutsa ukanen dugun hi gabe... Ez bakarrik hutsa, zer ziloa, zer ziloa! Ez dezakeat sinets! Ez dezaket sinets... (*Janamari nigarrez hasten da*)...

BEÑAT.—Askiko duzu gure ikustera ardura etortzea...

MAIDER.—Beñaten berriak nik ekarriko dauzkizut.

JANAMARI.—Denboraren buruan, zerk hatxeman behar gintuen orain! Eta ikusiko noiz arte iraunen duen memento tzar honek? Funtsean gureak egin dik!

BEÑAT.—Laster pasatuko da...

JANAMARI.—Hiretzat bai, hain segur. Baina enetzat, enetzat hiltzea bezala duk...

BEÑAT.—Otoi, ama!

JANAMARI.—Hire anaia ere, Algeriara buruz, holohola abiatu zuan, erranez: «laster etorriko naiz»... Etorri duk bai... errauts.

BEÑAT.—Ez da konparaziorik.

JANAMARI.—Sekulan ez duk konparaziorik... Baina pasa behar to... Pasa behar, edo amor eman. Agur beraz. Agur Beñat, ene seme maitea.

BEÑAT.—Ez adiorik ama... Eta zatoz gure ikustera... (*eta nigarrez ateratzen da, besteak agurtu gabe ere*).

XOXEFINA - MAIDER - BEÑAT

XOXEFIN.—Guk ere hobe dugu abiatzea ez?

MAIDER.—Laster, tenorea dugu...

XOXEFIN.—Treineraino segitzen zaituztet.

BEÑAT.—Ongi da. Goazen bada... (*eta kanpora buruz doaz*).

O I H A L A

Hirugarren agertaldia

(Arkupe berean gaude. Arratsaldeko seiak dira. Aulki batetan jarririk, Andere Ida, trikotatzen ari.)

I D A

IDA.—Laster jakinen dugu nork irabaziko duen. Gorriek, agian! Bestela galdua naiz. Ez banu bederen neure burua honenbeste erakutsi... Baina bego. Bego. Orain egina da!

(Urrunetik oihu bat entzuten da: «Biba Gorriak!»)

IDA.—Bai «Biba Gorriak!» zeren sekula Xuriak pasatzen badira, kontseiluko gizonak bera etorriko baitzaizkit berdin ene etxondoko murru ondora trufa baino musika haundiago! (*Berriz «Biba Gorriak!»*) Bai «biba Gorriak» eta «Biba jandarmeak». Diziplina, diziplina, horra horra zer duten eskas gazte bihurri horriek! Gazteek, eta funtsean besteek ere... Alfred Haranetak erran dauzkidanekin, hor bertan preso sartzekoa baita! A! hori segurik sekula ez dut ahantziko. Sekula! Zer afruntua herri guziaren aintzinean. Baina, aldi honetan, bere atxuangoa galduko du! Galduko! Merezi! Merezi! (*Geldi*).

(Urrunetik «Biba Xuriak!» Mutiko gazte bat pasatzera doa.)

IDA - PELLO

PELLO.—Zertan ari zara hor, Andre Ida?

IDA.—Otoitzean, haurra, otoitzean.

PELLO.—Ongi egiten duzu... Norbait bederen ari dadin...

IDA.—Ba zakiat bai, zuetarik ez dugula anitz igurikatu behar! Mezan ibiltzen haiz bederen?

PELLO.—Rubian ari ez naizelarik, bai.

IDA.—Zer da, rubia meza baino importanteago?

PELLO.—Ho, nik Andere Ida, besteek errana egiten dut, he...

IDA.—Urrats onen uztea errex duk, bai...

PELLO.—Errazu eta, egia dea?

IDA.—Zer?

PELLO.—Eta; Gorriak pasatzen baldin badira, apeza eta serorek hemendik joan beharko dutela?

IDA.—Bakea emak hortik, mutikoa... Nork erran dauk hori?

PELLO.—Lagunek... Bestalde, meza-bezperak ere kenduko dituztela diote...

IDA.—Ago ixilik hortik...

PELLO.—Ba, ni, egia erran, meza-bezperak kendurik ere, berdin biziko naiz gero...

IDA.—Jainkoak gaztigatuko hau, horrela mintzatzen bahaiz! Gezurrak dituk horik guziak!

PELLO.—Beraz apeza eta serorak, meza eta bezperak aintzinean bezala izanen badira, ez du balio Gorriak pasa daitezen...

IDA.—Bai, balio dik! Gorriak pasatzen badira, laster herrian, jandarmeak ukanen baititugu, eta hik eta heure lagunek, ez duzue gehiago ene etxondoko murrua bustiko!

PELLO.—Ikusiko...

IDA.—Zer ikusiko? Ez eta ez! Eta zuen tresna itsusiak gorderik atxiki beharko dituzue!

PELLO.—Kontentxko zinen eta!...

IDA.—Habil hemendik, Luzifer! Habil hemendik eta segidan! Otoitza segi dezadan...

(Ida xutiturik Pelloren ondotik abiatzen da, baina horra non, mutikoak apezarekin junt egiten duen.)

IDA - PELLO - APEZA

APEZA.—Pello, andere Idari zer egin diok?

PELLO.—Nik, fitsik... Bera da hasi...

IDA.—Oraingo gazteak zerbait ba dira bai jaun erretora! Zerbait badira...

APEZA.—Zer nahi duzu, adin gaixtoa...

IDA.—Adin gaixtoa ez dakit... Deabrua alan ari... Deabrua denetan nagusi!... «*Biba Manduku!*».

PELLO.—Errazu Jaun erretora, egia dea hemendik joan beharko duzula sekula Gorriak pasatzen badira?

APEZA.—Denek hik bezala egiten badute, ez duk gehiago hemen apez beharrik izanen... Goizean ere, ez hintzen mezan!

PELLO.—Rubian ari naizelarik, ez naiteke mezara etor!

APEZA.—Larunbat arratsetakoa ere hor duk...

PELLO.—Larunbat arratsetan, ihizin ibiltzen naiz... Konprenitzen duzu?...

IDA.—Estakuru guziak on zaizkio, bide zuzenetik ateratzeko. «*Gorriak nausitzen ari! Hiuffi!*»

PELLO.—Boza emana duzu, jaun erretora?

APEZA.—Bai, goizean emana diat.

PELLO.—Gorriei, omen...

APEZA.—Hori, ene egitekoa duk...

PELLO.—Nik, bozaren emateko aski adin banu, nori emanen niokeen ba dakizu?

APEZA.—Nork daki?

IDA.—Brigitte Bardot-ri hik berdin!

PELLO.—Ez. *Zuri.* Nik jandarme egin nahi baitut, horrela herrian berean be nuke enplegu zure etxondoko murruaren zaintzen! Piztona nintzakezu ez?

IDA.—Trufa hadi trufa; azken hitza nork ukanen duen, ikusiko duk...

PELLO.—Bai eta zuk beste zerbait!...

(Eta Pello lasterka ba doa. «Biba Gorriak! Xuriak kanpora!»)

IDA.—Ohartzen zara Jaun erretora, gure adinako jendeontzat zer errespetua duten! Ahalgegarriak, ez besteak!

APEZA.—Ez dira ez gaixtoak... Espantu poxi bat...

IDA.—Ez dakit batere, baina gu segurik ez gara horrela ibiliak denboran...

APEZA.—Eztituko da hori ere...

IDA.—Ba du beharra... Jandarmeak hemen ukanen ditugunean, gauzak ez baitira batzuek nahi lituzketen bezala iraganen...

APEZA.—Eta boz horik?... Egun haundia dugu...

IDA.—Bulegoa hetsi dute... Boz kondan ari dira. Agian, agian Gorriek irabaziko dute! Gorrien aldekoa zara, ez? Zu ere...

APEZA.—Nik; batasuna egin behar dut.

IDA.—Konprenitzen dut bai. Konprenitzen dut. Zuk, bi taldeetakoak nahastikatu dituzu... Hemendik hoberenak, handik hoberenak. Ikusten dut, bai. Zuk, arraultze moleta on bat egin duzu patata ausarkirekin! Ai, zer saltsa! Baina ez naiz zure gogo bereko. Kontseilu batetan, auzapezak du manatzen. Besteen erranak, zinkurina batzuk baizik ez dira. Eta gaurko gure kasuan, Gaetan Lapegue eta Gilen Mandukuren artean behar zen hautatu. Horrelakoetan gizonen nahastikatzea ez da ongi jokatzea!

APEZA.—Auzapez batek; xuri ala gorri izan dadin, bere kontseiluan zenbait kontrario ukan ditzan frangotan beharrezkoa da. Horrela, apur bat bederen elkar akulatzen dute...

IDA.—Ez eta ez. Zeren orduan horra zer gertatzen den: Xuriek zerbait proposatzen dutelarik, Gorriak beti kontra eta Gorriek zerbait proposatzen dutenean Xuriak aintzinetik kontra! Beren denbora eleketa eta aparka pasatzen dute eta ez dira deusetara heltzen. Eta zaude; beste toki batzuetan berriz; Xuriak, Gorriak baino gorriago agertzen dira eta Gorriak aldiz xuri. Jendeak ez du deus konprenitzen eta kontseiluan muntatzen dute izigarriko kaka. Ho! barkatu, arrunt ahantzia nuen jaun erretorarekin nintzela mintzo. Barkatu, hitz larri hori eskapatzera utzirik...

(*Boz bat: Gaetan Lapeguen taldeak* 130
Gilen Mandukurenak 130
130-*na ados Jaunak eta Andereak! Parioa libro!*)

APEZA.—Ez dute naski diferentzia haundirik ukanen...

IDA.—Datorren igandean berriz itzuli beharko dugunez ote?...

APEZA.—Agian aldi honetan berean bururako dira. Bestela, aste bat gehiago irauten badute, gauzak ez dira hobetuz joanen...

IDA.—Eta ene etxondoko murruak ere ukanen du oraino trenpaldi! Funtsean balia bitez, balia! Gero ikusiko...

APEZA.—Arrazoina duzu. Gero ikusiko zer gertatuko den eta jendea poxi bat bederen zentzatuko denez. Zeren, geroan ere elkarrekin bizi beharko baitugu...

IDA.—Jandarmeak hor ukanen ditugu, ordrearen errespetarazteko!

(Gorriek bat gehiago!)

APEZA.—Andere Ida, utzi behar zaitut. Boz egunean, apez batek barnean egotea hobe du...

IDA.—Eta nola... Besteak zioena: arraultze moleta barnean egin eta kuskuak bota kanpora...

APEZA.—Bestaldi bat arte, Andere Ida...

IDA.—Ez adiorik jaun erretora eta barkatu oraino ere oixtian eskapatzera utzi hitz larriaz...
(Apeza badoa.)

IDA.—On dute bai, horiek ere, artetan bederen, zenbait hitz gordinen entzutea... Zer mila sorgin!...

(Ida berriz trikotatzen hasten da. Bozak gero ta gorago: Manduku talde osoa, Manduku, Manduku, Lapègue, Manduku, Lapègue...)

Bozen irabazteko, saindu berezi bat otoiztu behar ote da? Ez dakit, ori... Zein ote? San Bladi? Ja, ja. San Bladi, abe-

reen aldekoa da. Gaetan Lapègue maraxala izanki-ta... Ez, ez. San Bladi, bego abere ta maraxalen zaintzeko... Alta; Saindu Gorririk ba denez, ez dut nehoiz entzun...

(«Manduku, Manduku, Manduku, Lapègue, Manduku, Manduku, «Biba Gorriak»!)

Nik ere, apezak bezala, etxean sartzea hobe dut naski... Nehork ez daki, partida nola bururako den... Ba noa... Baina abiatu aintzin: «Biba Gorriak eta biba Jandarmeak!»

(Ida kanporatzen delarik bozak gero ta gorago nabaritzen dira: «Manduku, Manduku, Lapègue, Manduku, Manduku, Manduku, Lapègue, Manduku, Manduku, gero ta lasterrago, Manduku, Manduku, Lapègue, Manduku —gero ta emekiago— Manduku, Manduku, Manduku, Manduku... MANDUKU! Orduan, Laurendi gorribelztua agertzen da.)

LAURENDI

LAURENDI.—Biba Gorriak! Biba Gorriak! Errana nautzuen nik! Errana nik... Gorriek irabazi... Fuera Xuriak... Fuera! Orain orain libertatea! Libertatea, denetako eta denentzako... Biba Gorriak!

(Jende andana bat agertzen da eta taulagain erditik pasatzen...)

PANPALE.—Jaun auzapezaren partez; Gorrien alde boza eman duzuen guziok gomitatuak zarete xanpañaren edatera.

BATZUEK.—Non? Non?

PANPALE.—Auzapezaren etxean?

BATZUEK.—Bota xanpaña!

XOXEFIN.—Apezaren bila ba noa...

PANPALE.—Uste duzu etorri nahiko duela?

XOXEFIN.—Etorri beharko du. Ez ote dakizu apezak beti irabazdunekin dabiltzala?

(Jende guzia kanpora doa. Goetan Lapègue agertzen da eta bakar bakarrik arkupe aintzinean.)

GAETAN

GAETAN.—Hamabi urtez herriko auzapez izan ondoan, hamabi urtez, herritar guziei laguntza eta kontseilu eman ondoan, horra non, bakar bakarrik gelditzen naizen... Ohoin edo ebasle bat bezala. Neure andreak berak ez nau sustengatu. Semeak are gutiago. Funtsean, semea ez dut aipatu nahi ere. Neure gogotik, behin betiko kendua dut. Hila! Bai, ene bi semeak hilak dira. (*Geldi*). Manduku, oi, Manduku, irabazi duk... Baina kasu emak! Denbora anitz, denbora guzia ukanen diat hire urratsen kondatzeko; eta behaztopatuko haizenean, jakin'zak, lehena izanen naizela hire ehortzeko! Barkamenik ez diat ukanen. Sekulan, sekula santan! Ez hiretzat, ez eta hire alabarentzat. Eta ene semea, egun batez, hire alabarekin ezkontzen bada, ekonduko duk ene baimenik gabe, ezkonduko duk ixilik eta gordeka... Eta, haurrak egiten badituzte... ez ditiat ezagutu nahiko ere... (*Zenbait urrats egiten ditu*). Eta zu jaun erretora, eta zu jaun erretora, gizon ttipi agertu zarenez gero, jakinen duzu zuk ere, ene erroak noraino heltzen diren. Jakinen duzu bai, urte bat barne, hortxetan hara abiatuko zarenean... Aski gaizki eginik ba duzu hemen gaindi... Aski! Apez bat, sortzez xuria da eta xuria egon behar du hiltzeraino! Hainbat gaixto bestela. Eta zuk, jaun erretora, hitza ez duzu atxiki! Zoaz, zoaz beraz eta lehen bai lehen! Ikusiko duzue, ikusiko duzue bai, herri honetako legea, oraindik nik dudala egiten eta nik bakarrik!

OIHALA

(Apezaren etxean gaude. Barne haundi bat, xinple xinplea, laneko mahai, kadera eta beste. Apeza eta Gilen MANDUKU solasean ari dira.)

APEZA - GILEN

GILEN.—Eta noizko litzateke?

APEZA.—Hemendik bi aste barne. Atzo eskuratu dut jaun apezpikuaren letra.

GILEN.—Arrazoinik ematen du?

APEZA.—Ez, ez.

GILEN.—Hor, ez da hara ez honatik... Gaetan Lapègue-n joko maltzur eta tzarra garbi eta argi ageri da. Gizon deabru horrek, apezpikutegiko manatariei burua muntatu dieke. Eta haiek gezur eta ele herrakor guziak sinetsi... (*Bortitz*). Hemendik joatea, jaun erretora, ez zenuke onartu behar!

APEZA.—Jaun apezpikuak ongi pizatua duke bere hautua...

GILEN.—Hautu hori; Gaetan Lapègue-n mendeku bat da. Besterik ez.

APEZA.—Apez berri batek, batasunaren egiten jakinen du.

GILEN.—Ez eta ez. Horik guziak estakuru batzuk dira. Zeren ororen buru, zertaz zara hobendun?

APEZA.—Neure burua, Gorrien alde sobera erakutsi omen dut...

GILEN.—Eta gero zer? Frogarik ba ote da? Prediku aulkitik goraki mintzatu ote zara gure alde? Zerbait idatzi ote duzu Xurien kontra? Ez! Eta beraz, beste guziak ez dira jendeen erran batzuk baizik...

APEZA.—Jendeen erranak... ez baitira beti gezurrak...

GILEN.—Hori ba dakit. Baina gure arteko nahasmenduetan ez duzu zuk deus ikustekorik. Bestalde, Gaetan Lapègue, etorriko den apez berriaz ongi futitzen da. Zu zaitu hemendik

kasatu nahi! Eta baldin bazoaz, usteko du hauzia irabazia duela eta bere sustengatzaileek halaber.

APEZA.—Nago ez ote duzun Gaetan Lapègue idorkiegi jujatzen. Eta segur naiz, elkarrekin solastatzen bagina zerbait onik atera litekeela.

GILEN.—Zer derasazu Jaun erretora? Elkarrekin solasta?

APEZA.—Zergatik ez?

GILEN.—Baina zer apez mota zara zu?

APEZA.—Bakearen eta zuzentasunaren alde bermatzen naizen Jainko seme bat.

GILEN.—Zuzentasuna ez da bera etortzen. Zuzentasuna irabazten da. Bakea aldiz...

APEZA.—Ni joan aintzin bake poxi bat nahi nuke herri honetan utzi eta horregatik, zurekin batean, Gaetan Lapègue ere gomitatu dut, hiruak zerbaitetara heltzen bagina, gero, herri guzia apur bat bederen ezti bailiteke.

GILEN.—Gaetan Lapègue hona etorri beharra? Ongi entzun ote dut?

APEZA —Bai... Bost orenetan etortzeko errana diot.

GILEN.—Ba noa beraz!

APEZA.—Zergatik? Kontzientzia ez daukazu trankil?

GILEN.—Trankil trankila. Baina...

APEZA.—(*Moztuz*). Nik ere bai. Beraz, guk biok, herri honetako auzapez ohia hementxe bertan igurikatuko dugu.

GILEN.—Ba daki hemen naizela?

APEZA.—Ikusiko.

GILEN.—Segur naiz ez duela egon nahiko.

APEZA.—Hari ere, zuri bezala galde bera eginen diot. Eta kontzientzia trankil ez badauka, joanen da. Baina nola, nehork ez duen onartu nahi kontzientzia makur daukanik, kasik segur naiz geldituo dela. Gerokoak gero! Funtsean laster jakinen dugu, norbaiten urratsa entzun dut...

GILEN.—Orain, orain komedia haste!... (*Ateko xilintxa entzuten da.*)

APEZA.—Hor da, ori...

GILEN.—(*Ordulariari so egiten du.*) Xuxen datorrela, xuxen! (*Apezak atea irekitzen duelarik, Laurendi agertzen da.*)

APEZA - GILEN - LAURENDI

LAURENDI.—Jainkoak dautzula arratsalde on, Jaun erretora...

APEZA.—Bai, zuri ere, Laurendi.

LAURENDI.—Agur Gilen!

GILEN.—Agur, agur! (*Apeza eta Laurendi xoko batetan dagoz. Gilenek, horien solasaldia ez du segitzen.*)

LAURENDI.—Gure Klodina hemen dea?

APEZA.—Ez.

LAURENDI.—Ez baita hemen?

APEZA.—Ez, ez.

LAURENDI.—Atzo hemen zena?

APEZA.—Ez.

LAURENDI.—Herenegun?

APEZA.—Ez eta ere... Bi hilabete bederen ba du ikustekoa dudala...

LAURENDI.—Jes, harritzen nauzu... Elizako oihal xuri eta gainerakoak ez ote ditu gure Klodinak antolatzen?

APEZA.—Zuen Klodinak? Ba pentsa! Andere Idak egiten ditu horik guziak.

LAURENDI.—Baina, baina, ez dut deus konprenitzen.

APEZA.—Nik ere ez.

LAURENDI.—Beraz, bi hilabete erran duzu...

APEZA.—Bi hilabete, gutienez... Zaude, zaude... Biziki gehiago ba du... Ori, bozak geroz ez da hemen izan eta aintzinean ere doi-doia bi edo hiru sar-jalgi...

LAURENDI.—Hauxe berria... Tronpatzen zara...

APEZA.—Ez. Horretaz segur naiz.

LAURENDI.—Ala... Ai, urdea, ai urde zikin andoila lodia! konprenitzen dut bai orain!

APEZA.—Hobe! Norbaitek bederen...

LAURENDI.—(*Oihuz*). Ez da egia. Ez da posible... Gezurrez ari zatekeen...

APEZA.—Mintza zaitez gizona...

LAURENDI.—Gure Klodina...

APEZA.—Zure Klodinak zer du bada?

LAURENDI.—Alfred Haraneta, azpiz denei kondan ari baitzitzaien...

APEZA.—Zer zioen?

LAURENDI.—Baizik eta... Baizik eta gure Klodinari Kaskobeltzek, apezak baino hobeki egiten ziola katixima... Orain konprenitzen dut bai, zein katiximataz zen mintzo Alfred kaxkaila hori! Beraz egia zerbait ba da hor? Zer diozu zuk, jaun erretora? Zer diozu?...

APEZA.—Nik dakida? Ezti zaitez Laurenti, ezti. Beti ba dira mihi gaixtoak... Baina erran dezakedana da, zure Klodina, aspaldian ez dela hona agertu...

LAURENDI.—Ez nuen beste beldurrik. Ai, emazte deabrusa, gezurti nahasia! Dolutuko zain Klodina, dolutuko zain! Eta Kaskobeltz pitrail horri, gure zerri hiltzeko kanit-marrazarekin moztuko dizkiot... moztu beharrak!

APEZA.—Ixo, ixo...

LAURENDI.—Bai, moztuko dizkiot! (*Geldi*). Horra, zu baino biziki gazteagoko emazte batekin ezkontea zer den! Horra!

APEZA.—Hori, nik ez dakit...

LAURENDI.—Beraz, beraz egia daiteke. Gure Klodina eta Kaskobeltz. Deabrua sar balekie! Sekulan hor gaindi harrapatzen baditut...

APEZA.—Ezti zaitez...

LAURENDI.—Katixima dutea, katixima. Eginen diet bai nik katixima... Neure ihiziko armarekin, biak garbituko ditut. Biak! *(Eta atera buruz doa, ordu berean norbaitek jotzen, baina Laurendik segitzen du...)* Nik, biak hilen, bai, biak, eta laster! *(Laurendi ateratzen delarik, atea irekirik uzten baitu Gaetan Lapègue sartzen da.)*

GAETAN - APEZA - GILEN

GAETAN.—Ba da mogimendu etxe honetan. Hiltzailegaiak ere? Non sartu naiz?

APEZA.—Arratsalde on, Jauna.

GAETAN.—(*Gileni ohartuz*). Hori ere hemen?

APEZA.—Apez etxe batetan denen tokia ba da.

GAETAN.—Jaun horrekin bururako duzunean, askiko nauzu deitzea. (*Eta kanpora abiatzen da.*)

APEZA.—Jaun horrekin eta enekin mintzatzeko kontzientzia ez ote duzu trankil?

GAETAN.—Trankil, trankila. Baina buruz-buru solastatzeko etorria naiz, ez eta...

APEZA.—Jar zaitez halere. Anitz gauza ba dugu elkarri errateko. (*Gaetan jartzen da.*)

GAETAN.—Pentsatzen dut baietz. Alabaina, hamar hilabete ba du ez zarela gure ikusten izan. Alta, lehenago... Funtsean, konprenitzekoa da... Zure alderdia ba duzu...

APEZA.—Zude andrearekin noiz-nahi gurutzatzen naiz eta aldi oroz zure berriak galdatzen dizkiot. (*Geldi*). Bestalde; zure semea ere, nik ezkondua dut.

GAETAN.—Ez'zazula otoi ene semerik aipa!

GILEN.—Eta bai, zure semea eta ene alaba aipa ditzagun! Zeren zuregatik...

GAETAN.—Ba noa hemendik. (*Eta zutitzen da.*)

APEZA.—Ez! Gauzen argitzeko mementoa orain da. Herri honetarik joan aintzin, bokata egin nahi dut.

GAETAN.—Ba zoaz ala?

APEZA.—Bai. Jaun apezpikuaren manuz, hemendik bi aste barne lekuak hustu behar ditut, neure herri berrira buruz.

GILEN.—(*Gaetani buruz*). Kontent zara ez? (*Gaetanek ez du ihardesten.*)

APEZA.—Kontent edo ez, nik joan behar dut. Baina, ez naiz hemendik burua apalik abiatuko, ez urguluz betea naizelako, baina uste baitut eta uste neure indar guziaz, herriko boz horietako hara-honatan, ez dudala sudurrik sartu eta hemen gertatzen diren samurgo eta elkar ezin ikusietaz ez naizela apantziarik ere hobendun!

GILEN.—Hobendun bakarra zu zara Gaetan!

GAETAN.—Zu, ixilik zaude. Zuk dituzu bazter guziak nahasi eta nahasten!

APEZA.—Ez zaituztet elkarretaratu, aparka eta oihuka aritzeko, bakarrik bake bide baten bilatzeko. Herritarra bi alderdi dagoz, baina zuek bakoitzak urrats bana egiten baduzue, jakin zazue denen onetan izanen dela. Eta urrats hori, urrats ttipi hori, batak eta besteak, egin dezakezue, horretaz segur naiz! Zeren; ororen buru, ez ote zarete familia bereko?

GAETAN.—Familia bereko? Bortxaz bai, familia bereko. Ene semea eta horren alaba, senar-emazte omen dira, Jainkoaren eta legearen aintzinean. Baina nik, hori ez dakit; eta ez dut jakin nahi ere. Ene baimenik gabe ezkondu dira, bizi daitezela ni gabe!

APEZA.—Horik ez dira aita familiako on baten hitzak. Are gutiago, kristau batenak.

GAETAN.—Arrazoinka arizan nahi baduzu jaun erretora, arrazoinka ariko gara, bihar goiz arte. Eta ez gara deusetara helduko. Beraz, Jaunak, agur!

APEZA.—Batasunik egin gabe joanen naiz naski... Agian ene ondokoa ni baino hobea izanen da.

GAETAN.—Zoaz lehenik. Gero ikusiko.

GILEN.—Horra Jaun erretora, nik errana!

(Atean xilintxa. Apeza irekitzera ba doa. Janamari sartzen da.)

APEZA - GILEN - GAETAN - JANAMARI

JANAMARI.—Egun on Jaun erretora. Gaetan hemen dago?

GAETAN.—Zer nahi duzu Janamari?

JANAMARI.—Hemengo aferak, nola doaz? Ongi, agian...

APEZA.—Hastapen bat baizik ez da... Baina ongi egin duzu etortzea. Emazte baten beharretan gineuden.

JANAMARI.—Ez zarete gora beraz!

GAETAN.—Goazen hemendik, Janamari.

GILEN.—Zure senarra iheska dabil.

GAETAN.—Iheska ni? Hamabi urtez nitaz behartu zarelarik honen edo harentzako ez zenautan horrelakorik erraten! Aldi bakar bat, zerbait errefusatu ote dautzut? Aldi bakar bat, eginbideei ihes egin ote diet?

APEZA.—Uzkizu atzokoak atzoko. Biharraz gaitezen mintza...

GAETAN.—Zu *bihar* hemendik joanen zara eta kito!

JANAMARI.—Zer? Apeza hemendik joanen zaigula?

APEZA.—Jaun apezpikuak beste herri batetara izendatu nau...

JANAMARI.—Entzuten duzu, Gaetan?

GAETAN.—Errana nautzun, Janamari, gaizki gobernatzen dena beti harrapatua dela!

APEZA.—Apez bat ez da Xurien edo Gorrien mutil. Apez batek Jaikoaren erranen arabera gobernatu behar du!

GAETAN.—Frogak hor dira!

GILEN.—Zein froga?

GAETAN.—Jaun apezpikuak ez du apez saltserorik nahi!

GILEN.—Saltsa, zer deitzen duzu, zuk? Prediku aulkitik apez hau zure alde mintzatu balitz edo bozetan pasatu bazina, orduan ongi eginen zuen eta ez zen saltsero bat izanen. Orduan ez. Baina nola ez duen publikoki, bataren edo bestearen alderdirik hartu eta nola ni naizen auzapez jarri apezak pekatu behar! Apeza saltsero! Gizontasun poxi bat, Gaetan! Herriko zozoenak ere garbiki ikusten du zure jukutria...

JANAMARI.—Zure gogoko naiz, Gilen. Mil'aldiz gauza bera errana diot baina ez du deus aditu nahi. Bakea behar dugu. Eta gauzen akulatzeko, nik ere saltsa poxi bat muntatu dut...

GAETAN.—Zer egin duzu, Janamari?

JANAMARI.—Beñat eta Maiderri idatzi diet, baizik eta herriko eta familiako istorioak ahantzi nahi zenituela eta batasuna berriz egin.

GAETAN.—Gezurra!

JANAMARI.—Errana diet ere barkatzen zeniela eta nahi zutelarik etxera etortzen ahal zirela...

GAETAN.—Janamari, ez zenuen horren egiteko dretxorik!

JANAMARI.—Berantegi da orain...

GAETAN.—Nolaz berantegi? Zer derasazu?

JANAMARI.—Gure etxean dira.

GAETAN.—Ez dut onartzen!

JANAMARI.—Eta ez dira bakarrik...

GAETAN.—Nor ekarri dute kontuaren gaineko?

JANAMARI.—Beren semea!

GILEN ETA GAETAN.—Beren semea?

JANAMARI.—Seme eder bat, bost kilokoa! (*Gaetari buruz*): Dena zu iduria... (*Geldi*). Loriatuak daude eta pentsatzen dut haien

zoriona ez duzula histu nahiko. Edo izatekotz, zerau bozkarioz beteko zarela haur eder eta hardit hori ikustean! (*Gaetan gogoetatua dago.*)

APEZA.—Zer zoriona!

GILEN.—Xoxefinak ba daki hor direla?

JANAMARI.—Elkarrekin utziak ditut...

GAETAN.—Zer, Xoxefina gure etxean?

JANAMARI.—Eta zergatik ez?

GAETAN.—Hauk kopeta! Herriko etxetik kanpora bota nautenak orain ene etxean nagusi?

GILEN.—Ez zaitugu guk botatu, herritarrek dute hautatu.

JANAMARI.—Beñaten eta Maiderren partez ba nator zure ikustera. Beren haurra nahi lukete bataiatu eta zu aitatxi izatea galdatzen dautzute...

GAETAN.—Sare guziak on zaizkizue ene biltzeko; eta zuek Gorriak nitaz trufatzeko. Ai, zerriak, ez besteak! Desohoratu ondoan, orain ene ondotik, nik bakea egin behar eta zuek ttanttoak kondatu... (*Geldi*). Eta; EZ erran baneza?

JANAMARI.—Ez dezakezu horrelakorik egin, Gaetan. Otoi ez! Begira jadanik, hamar hilabete hau zein luzeak izan diren... Gure etxean ez da gehiago bizirik ez eta bizitzeko gutiziarik...

GAETAN.—Noren faltaz?

JANAMARI.—Beñat, Maider eta beren semea, larrunbat igandetan bederen hor bagenitu horrek berak kuraia eman liezaguke aste guzirako... Eta nork daki, haurra ez ote dugunez berdin guk atxiki beharko? O, Gaetan... Haur sortu berri bat; gelditzen zaigun semearen lehen haurra! Aingeruño bat etxean, zer bozkarioa!

GAETAN.—Zuek, emazteok, harriak ere nigarrez has araz zenitzakete!

JANAMARI.—Zure biotza ez da balinba harri bat baino idorragoa? (*Haur nigar batzuk entzuten dira eta atean xilintxa.*)

APEZA.—Hor dira. (*Eta irekitzera ba doa. Xoxefin agertzen.*)

XOXEFIN.—Beha, nor dudan hemen? (*Eta haurra erakusten du. Haurra nigarrez ari dela, guziek begiratzen diote.*)

GILEN.—Hauxe haur ederra!

APEZA.—Guti zoriontsu bait ditazke!

XOXEFIN.—Irria ere egiten du... Beha... Kilikilikili...

JANAMARI.—Ho, zein pollita den!

GILEN.—Denak ongi pasa dira naski...?

XOXEFIN.—Arras ongi.

APEZA.—Bataiatu beharko dut hemendik joan aintzin...

XOXEFIN.—Eta nora joan gogo duzu jaun erretora?

APEZA.—Bi asteren buruko ba noa, artalde berri batetara buruz.

XOXEFIN.—Hauxe berria. Ez da egia!

APEZA.—Egia osoa!

XOXEFIN.—Oizu, memento onean etorri dira, ori! Guti pena ukanen baitzuten zu joan-ta gero etorri balira...

JANAMARI.—(*Gaetani buru*). Eta zuk Gaetan, ez duzu deus erraten?

GAETAN.—Zertaz? Haur horretaz? Hemengo saltsaz? Hor zaudete, itzuli-mitzuli irri faltsu eta begi-keinu, delako batasuna ezin eginez ari! Gero ta hobeki ohartzen naiz, zuek guziok, tripa bereko zaretela eta ni hemen soberakin!

JANAMARI.—Ez Gaetan! Ez zara soberakin. Gure bozkarioan parte harrazu, atzoko historioak ahantzirik...

GAETAN.—Ez zara ahalge horrela mintzatzeko?

JANAMARI.—Bizitzeko gelditzen zaigun denbora laburra sakrifikatu behar ote dugu bozetan ez zarelako pasa? Bozak, iraganak dira orain. Bizi behar dugu eta ahal bezain deskantxuan, ez eta beti gauza berak gogoan ukan!

GAETAN.—Eta ohorea, Janamari? Zer egiten duzu ene ohoreaz?

JANAMARI.—Zure ohoreak irabaziko du, lehenik, etxean bertan batasuna egiten badugu. Zure ohoreak irabaziko du ere, agurtzen ez dituzunekin solasean hasten bazara. Aldiz zure ohorea gero ta ttipituz joanen da familiako eta herriko batasunari uko egiten badiozu!

GILEN.—Zure andreak arrazoin du.

XOXEFIN.—Eta nola!

GAETAN.—Zuei, ez dautzuet deus galdegin!...

APEZA.—Alta ni ere horien gogo bereko naiz...

GAETAN.—Ho, zu... Alabaina...

XOXEFINA.—Errazue eta... arrunt ahantzia nuen... Haur honek

XOXEFIN.—Errazue eta... arrunt ahantzia nuen... Haur honek burua gal arazi daut... Barka... Beñat eta Maider atean daude, sartzeko zuen baimenaren haiduru... (*Gaetan salbu, denek*): Sar bitez, sar... Baina zer ari zarete kanpoan. Sar, sar... (*Orduan Beñat eta Maider sartzen dira, apur bat herabe*).

BESTEAK - BEÑAT - MAIDER

(Denak nahastikatzen dira, esku tinkatze eta potta. Sahets batetan, Gaetan bakarrik dago. Batzuk besteen artean, hitz hauk entzun daitezke): Biba zuek! Goresmenak! Biziki haur ederra duzue! Zorionak! Dena aita iduria! A, ez amatik ere zerbait ba du... O, bai, aho egitea dena amarena. Biba zuek! Luzaz bizi bedi eta zuek ere bai! Guti kontent baitzaratekete... Biba zuek! (*Beñat aitarengana buruz hurbiltzen.*)

BEÑAT.—Arratsalde on aita!

GAETAN.—Ez dautak beste deus erraten?

BEÑAT.—Andre bat eta seme bat ba ditudala...

GAETAN.—Hori ba zakiat...

APEZA.—Sobera jende ba gara hemen; goazen ondoko barne horretara... freskoagoa da eta edateko zerbait ere ba dateke... Goazen bada...

(Denak abiatzen dira, Gaetan salbu. Guziak beste barnera sartuak direlarik Beñatek gibelera egiten du eta bere aitari diotso):

BEÑAT.—Ez zatoz aita?

GAETAN - BEÑAT

GAETAN.—Ez; eta hirekin nahi niake buruz-buru solastatu...

BEÑAT.—Nahi duzun bezala. *(Geldi).*

GAETAN.—Eta?

BEÑAT.—Eta... Hemen garela, ori...

GAETAN.—Ikusten diat... *(Janamari agertzen da.)*

GAETAN - BEÑAT - JANAMARI

JANAMARJ.—Zatozte, zuek ere... Etxean mintzatuko zarete...

GAETAN.—Ez. Hemen bertan eta segidan zenbait gauza argitu nahi ditugu...

JANAMARI.—Zer erranen dute besteek?

GAETAN.—Erran bezate nahi dutena...

BEÑAT.—Laster etorriko gara bai...

JANAMARI.—Ez zaiteztela berriz samurt! *(Eta Janamari ba doa.)*

GAETAN - BEÑAT

BEÑAT.—Amak igorri dauku letra luze bat erranez bihotz bihotzetik igurikatzen gintuzuela...

GAETAN.—Eta sinetsi duk?

BEÑAT.—Zergatik ez?

GAETAN.—Amak, hori bere burutik egin dik, niri baimenik galdatu gabe.

BEÑAT.—Bizkitartean...

GAETAN.—Ez duk hor hara ez honatik. Gauzak ez dituk hik uste duan bezain plomuan. Batere gero.

BEÑAT.—Harritzen nauzu...

GAETAN.—Ni ez!

BEÑAT.—Uste nuen, zure aldetik...

GAETAN.—Eta bai... ene aldetik. Nik beti amor eman behar. Eta zuek?... Zuek aldiz burutik pasa guziak egin! Etxeko ohoreaz, ongi futitzen haiz, ez?

BEÑAT.—Ene ustez, ez dut sekulan etxeko ohorea zikindu...

GAETAN.—A, ez? Baina zer derasak Beñat? Ene etsai handienaren alabarekin ezkont eta oraino eztaiak aintzin haur bat egin...

BEÑAT.—Nornahiri gerta dakiokeena da hori...

GAETAN.—Ni, ez nauk nornahi. Eta hi ene semea hintzen!

BEÑAT.—Orain ez ala?

GAETAN.—Ez zakiat batere...

BEÑAT.—Baina aita... amarengatik bederen onartu behar duzu... Nik lehen urratsa egin dut: etorri naiz. Zinez bihotz gogorra ukan banu... han egon nintekeen... Han denak ba ditugu orain... Zer uste duzu ala ez dudala sofritu, ez dugula sofritu hamar hilabetez, eta bereziki etxetik kanpo ezarri nauzularik... Neure ohorea orduan non zen? Non? Edozein gaixtagin bezala joan behar ukan dut, zeure burua eta zeure auzapezgoa baizik ez zenituelako ikusten. Zu, zu, bakarrik zu! Iduri eta zu gabe, mundua ez dela berdin itzulikatuko!

GAETAN.—Beraz, ongi konprenitzen badut, ni nauk denetaz hobendun?

BEÑAT.—Ez dut hori erran nahi. Ez zara denetaz hobendun. Baina, anitz gauzez bai! Eta jakin'azu, aldi honetan ez bagara ados jartzen, gero berantegi izanen dela! Ez gara berriz etorriko... A, ez!

GAETAN.—Mehatxuak orain?

BEÑAT.—Ez; baina gauzak ongi karkula itzazu... Zeren amak berak erraten zautan...

GAETAN.—Zer erraten zauan?

BEÑAT,—Gauzak ez badira ongi itzulikatzen, gurekin Bordelen biziko dela, eta konprenitzen dut; sobera aspertzen da gu gabe.

GAETAN.—Beraz horretara helduak gaituk... Beraz horretara helduak gaituk! Ikusten diat bai. Denboraren buruan, bakar bakarrik hiltzera utz nazakezue?

BEÑAT.—Guk segurik ez genuke horrelakorik nahi. Bordelen, istukioak burura orduko, gu, berriz etorriko gara Euskal Herrira. Nonbait bizi beharko gara; etxean edo... Hori, zuk ikus... (*Geldi*).

GAETAN.—Egin dituan guziak barkatuko dauzkiat; hurrengo aldian Gilen Mundukuren kontra presentatzen bahaiz, Xurien izenean!

BEÑAT.—Aita! Orain tratu bat proposatzen dautazu?

GAETAN.—Har edo utz.

BEÑAT.—Hori da zure azken hitza?

GAETAN.—Bai. (*Janamari agertzen da.*)

GAETAN - BEÑAT - JANAMARI

JANAMARI.—Zatozte bada. Zatozte. Bataioko egunaren hautatzen ari gara...

BEÑAT.—Ez dakit bataiorik eginen dugunez...

JANAMARI.—Nola? Zer derasak?

BEÑAT.—Uste nuen aitaren eta gure arteko aferak hobeki kurrituko zirela. Zure letran hitz eder eta goxoak ezartzen zenauzkidan, baina egia besterik da. Aitak, egiazko bake baten ordez tratu bat eskaintzen daut.

GAETAN.—Ez duk hori tratu bat. Bakarrik hire eginbidea. Aitari zerbait gertatzen zaionean, semeak mendekatu behar dik!

JANAMARI.—Baina zertaz ari zarete? Tratu hori zer da?

BEÑAT.—Aitak denak barkatuko dauzkit, hurrengo aldian Mandukuren kontra presentatzen banaiz!

GAETAN.—Xurien izenean! Ez ahantz.

JANAMARI.—Baina Gaetan, ixtorio horik utz ditzagun beren gisa.

GAETAN.—Eta beraz, zer diok?

JANAMARI.—Otoi, Gaetan!

BEÑAT.—Labur eta argi izanen naiz eta etxetik kasatu aintzin erran naukizun gauza berak errepikatuko dauzkizut. Har edo utz!

JANAMARI.—Adio gure batasuna!

GAETAN.—Beti heure ideia zoroekin haiz beraz?

BEÑAT.—Ene ideiak ez dira zoroak. Eta lehen lehenik, ez dut sekulan onartuko Xurien izenean zerbait egitea. Xuriak; haundi-maundiak edo heien intresen zerbitzariak dira eta jende langilearen etsaiak. Ez dut horietarik izan nahi. Sekula santan! (*Geldi*).

GAETAN.—Beste aldian, Gilen Mandukuri emanen diok heure boza?

BEÑAT.—Jadanik errana dautzut Mandukuren eta zure artean ez dela zorigaitzez diferentzia haundirik. Zu, xuria deitzen zara eta izan daiteke xurien intresen aldekoa zarela, erran nahi baitut, diruzaleen mutil bat.

GAETAN.—Zer entzun behar dudan!

BEÑAT.—Manduku aldiz, ez da egiazko gorria: egiazko gorri batek sistema baliakorra desegin behar baitu; baina Manduku gaizoak ez du hautsi-mautsi bat baizik eskatzen.

GAETAN.—Beraz hi; Manduku baino gorriago haiz?

BEÑAT.—Bai eta duda-muda izpirik gabe. Funtsean Manduku baino gorriago izatea ez da gauza zaila. Baina, ez naiz edozein gorri.

GAETAN.—A, bon...

BEÑAT.—Euskal Herria libro ikusi nahi dut, mugaz bi aldeak bateratuak eta arrotz eta barneko xurgatzaileen hatzaparretarik kendua!

(Atean, xilintxa gogor jo bedi eta Panpale Haundia lasterketa sartzen da.)

GAETAN - BEÑAT - PANPALE

PANPALE.—Jaun erretora, jaun erretora, zatoz, zatoz. Apeza non da? Jaun erretora... (*Apeza agerten da.*)

HIRUAK ETA APEZA

APEZA.—Zer da? Zer da? Zer gertatzen da?

PANPALE.—Zatoz laster. Zatoz...

APEZA.—Nora? Mintza zaitez...

PANPALE.—Laurendi, Laurendi...

APEZA.—Laurendik zer du? Sobera edan egun ere?

PANPALE.—Ez, ez. Baina eskandala gaitza. Jende guzia... bildua... Zatoz...

APEZA.—Argitasun gehiago emazu, gizona!

PANPALE.—Laurendik, bere Klodina eta Kaskobeltz harrapatu ditu Urrutibordako selauruan, belar meta baten gainean etzanik eta... ari.

APEZA.—Zer ari?

PANPALE.—Zer ari, zer ari... Ez musean, ez Jauna. Trukean, trukean...

APEZA.—Eta?

PANPALE.—Eta Laurendik eskuan zuen aitzurrarekin Kaskobeltzi sekulakoa eman dio eta burua arraildu... (*Gilen agertzen da.*)

APEZA.—Hauxe berria!

LAUAK ETA GILEN

GILEN.—Zer gertatzen dela?

PANPALE.—Laurendik Kaskobeltzi burua arraildu. Mututua dago, orain... Ponpierak jandarmeak, medikuak, denak bidean dira...

GILEN.—Goazen ikustera...

PANPALE.—Klodinak aldiz, gorputz guzia uspalkatua du... eta isterrean animaleko jaki bat.

APEZA.—Isterrean?

PANPALE.—Bai, Jauna. Laurendik kanibet ukaldi bat isterrean eman dio! Hementxet ori (*erakusten dio*). Odola zurrupitan heldu zaio...

APEZA.—Nolaz ikusi duzu pikoa hain gora duela?

PANPALE.—Baina, Jauna, larrugorri dira, biak...

APEZA.—Larrugorri? Jainko ona!

PANPALE.—Zer uste duzu ala bestiturik egiten direla gauza horik? (*Ponpieren auto tuta entzuten da.*)

GILEN.—Ponpierrak hor dira. Goazen gu ere.

PANPALE.—Jaun erretora, oliadurak har itzazu baleki bale... (*Gilen eta Panpale ateratzen dira. Apeza beste barnera doa. Orduan, Xoxefin, Maider eta haurra agertzen dira.*)

JANAMARI.—Gaizo Klodina!

GAETAN.—Gaizo ona...

XOXEFIN.—Zer dela? Zer dela?

JANAMARI.—Berri hitsak, ori, berri hitsak. Kanpoan jakinen ditugu xehetasunak. (*Eta abiatzen da. Apeza sar bedi.*)

APEZA.—Sarri arte. Segidan nator. Hemen bertan igurika nazazue. (*Eta ba doa.*)

XOXEFIN.—Zer ariko gara hemen? Goazen geure etxeetara. Zuen arribada (etorpena) goxoki ospa dezagun...

(Hiru emazteak eta haurra abiatzen dira.)

MAIDER.—Zein etxetara goaz gu, Beñat?

BEÑAT.—Ez dakit oraino.

JANAMARI.—Gurera, ez?

XOXEFIN.—Azkenean, zuek, hemen bertan egoten ahalko zarete. Etxe hau ere hutsa izanen baita laster...

BEÑAT.—Hutsa? Nolaz?

XOXEFIN.—Apeza tokiz aldatzen baitute, hire aitari plazer egiteko...

GAETAN.—Zer derasazu zuk?

BEÑAT.—Aita zer da istorio berri hau?

GAETAN.—Nik ez dakit? Apezen hara honatetan ez diat deus ikustekorik!...

BEÑAT.—Ha... Horra ondorioak! Semea etxetik kanpo, apeza heritik kanpo... Zure parren betetzeko zer ez zenezake egin zuk? (*Geldi*). Maider, zoaz zeure ait'amen etxera!

MAIDER.—Ongi da. Laster arte beraz.

XOXEFIN.—Gu ere ba goaz. Agur!... (*Bi emazteak eta haurra ateratzen dira.*)

JANAMARI.—Bataioa, igandean beraz. Ibil polliki...

GAETAN - JANAMARI - BEÑAT

JANAMARI.—Horien aintzinean ez dautzut gogoan dudana erran, Gaetan. Baina, orain adi nazazu. Aski ba dut, aski, zure ohore-kolpatu, herriko-boz eta gainerako guziez. Zuk, kanpokoa baizik ez duzu ikusten; baina ni, familia barnean nahi nuke goxotasun apur bat. Beñaten itzulian, zoriontsu izaten ahal garelarik, zergatik eska, egin ez dezakeena?

GAETAN.—Ez da hor, egin ez dezakeenik!

BEÑAT.—Baina, aita...

GAETAN.—Eta semea zure senarra baino maiteago baduzu, zoaz etxetik, zu ere!

JANAMARI.—Gaetan, ez zaude ongi...

GAETAN.—Arras ongi. Eta balin bazoaz; eskaini dautzudan urreria utziko duzu den tokian!

JANAMARI.—Ez naiz urreriaz biziki axolatua, baina otoi, geroari pentsa dezagun... zure onetan mintzo naiz.

GAETAN.—Nik ba dakit zer egin!

JANAMARI.—Horrela denez geroz, neure semeari jarraikiko natzaio. (*Geldi*). Ez nuen uste herriko bozak eta zure ohorea familia baino maiteago zenituela!

GAETAN - BEÑAT - JANAMARI - APEZA

APEZA.—Hauxe gertakaria! Jainko maite zeruetakoa, zerbait ba da bai hori! Zerbait ba da!

JANAMARI.—Biziki kolpatuak dira?

APEZA.—Kolpatuak, kolpatuak sendatuko dira bederen...! Hospitalera eraman dituzte... Baina Laurendi, Laurendi...

GAETAN.—Laurendik zer du?

APEZA.—Laurendik jandarmeak ikusi dituelarik lasterka ihesari eman du. Jandarmeek segitu dute, eta azkenean ohartu delarik kasik hatzemana zutela, Uhaldeko ziternaren barnera bota du bere burua eta han... ito!

JANAMARI.—Ito?

GAETAN.—Gaizo gizona!

APEZA.—Bai, zinez... (*Hil zainuak hasten dira.*)

JANAMARI.—Ponpierrek ez dutea berriz piztu ahal?

APEZA.—Jadanik joanak ziren!

JANAMARI.—To, to, to, ez genuen beste beharragorik aferen argitzeko!

APEZA.—Gaizo Laurendi! Zer heriotzeak hatzeman duen! Gaizoa!

GAETAN.—(*Biziki fier*). Errana nautzuen nik; Gorriak kontseiluan sartu orduko, istorio eta eskandala haundienak gertatuko zirela herri hontan! Errana nautzuen! Horra frogak! Laster eta garbi!

BEÑAT.—Baina aita, gertakari hauek ez dute deus ikustekorik herriko kontseiluarekin. Zergatik nahi dituzu beti gauza guziak nahastikatu?

GAETAN.—Hamabi urte auzapez egon naizen denboran ez duk horrelakorik hemen gertatu.

BEÑAT.—Horrek ez du deus erran nahi.

GAETAN.—Ez duela deus erran nahi? Aise mintzo haiz hi. Auzapez banintz, oraintxe ere, bakean eta zorionean egonen gintuan eta Laurendi bizi izanen zuan! Mandukuk piztu dik sua eta zuk jaun erretora, ufatu... Hor duzue orain, nahi zenuten saltsa!

APEZA.—Zuk, apezpikutegian montatu dukezun saltsak usain tzarragoa du, hemengo senar-emazte hauen goiti-beheitienek baino... eta Mandukuk ez du hor deus ikustekorik.

GAETAN.—Nik ez du zure aferan sudurrik sartu...

JANAMARI.—Neronek entzun zaitut apezpikutegiko norbaiti telefonatzen...

GAETAN.—Janamari, zaude ixilik!

BEÑAT.—Ahalgegarri da apez honi gertatzen zaiona. Zeren ez du balio hala ez denaren erratea eta horren besteei sinets

araztea. Apez hau ez da zu baino gorriagoa. Funtsean, gorri hitz horrek zer erran nahi du zure gogoan?

GAETAN.—Eta hirean?

BEÑAT.—Jadanik errana dautzut. Nago ongi konprenitu nauzun.

GAETAN.—Ez nauk beste bat baino zozoagoa.

BEÑAT.—Hori ba dakit. Gauza batzuen errepikatzeak halere ez du gaizkirik egiten. Apez hau; jende xehearen onetan Euskal Herriaren beregaintasunaren alde mintzatu balitz, orduan bai gauzek beste itxura bat hartuko zuten. Baina zer egin du? Behar-bada Mandukuren alde boza eman eta gero zer? Mandukuk, herriko hara-honetan zure bide bertsua segitzen du, ez ditu segur denak azpikoz-goiti ezarri. Etxe loratuen zein gehiagoka bat munta, han edo hemen bizpahirur «stop» ezar... Halere, herriko kantonierren irabazia goititu du; baina Euskal Herriaren nortasunari buruz zu bezainbat ba da, biak bat bestea bezain azkar: *deusen ez egiteko!*

GAETAN.—Abokat egin nahi duala; juge izateko ere ez hintzateke txarra!

BEÑAT.—Frantseskeria eta problema faltsuak ezin trenkatuz galdu eta galtzen duzue zeuen denbora, anartean gure egiazko buru-hauste eta griñak nahitara baztertzen dituzuela gauzen errora ez joan nahiz. Frantses gobernuko gizon eta manatari haundiei irri pollit eta begi kainuka ari zatzaizkiete, zuek Xuriak; eta Gorriak ere funtsean Frantses mito berari jarraikitzen zaizkio, memento berean, gure Herria, menperatua eta zatitua, hiltzen ari daukutelarik!

APEZA.—Zorigaitzez...

BEÑAT.—Gure seme sortu berriari esker, *familiako batasuna* bederen egin nahi izan dut baina ez gara naski deusetara heldu...

JANAMARI.—Gaetan, zerbait errazu, otoi! (*Gaetan ixilik dago.*)

BEÑAT.—Apez hau herri honetarik joanen da; eta gu aldiz, biziko gara bakoitza geure alde...

JANAMARI.—Beñat...!

BEÑAT.—Politika bidea; gertatzen zaigunaren aldean, oraindik biziki zailagoa da eta arrisku haundiz betea. Euskadiko zeru gaina lano beltzez estalia dago, urrunean ortzi ilun burrunbatsuak nabaritzen dira eta ximistak ditugu argi; lurrean aldiz gure langile lagun borrokalarien odola ixurtzen ari... Baina barazuz eta erautsien ondotik, egun batez halere, Euskal eguzki bat berriz agertuko da. Orduan, ere goiti-beheitiño batzuk izanen dira. Orduan ere, hautu garbi bat egin beharko! Agian hartu bidea, ez dut sekulan ukatuko!

DANIEL LANDART
1973/XII/11-an
Mugerren

DANIEL LANDART-en IDAZKIAK

OLERKIAK

HOGOI URTE
(Hamasei eta hogei urte artean idatzitako olerki eta gogoeta zenbaiten bilduma.)

ANTZERKI LABURRAK

MENDIKO BAKEA

HILAK HIL
(Jean Hiriart-Urruty jaun kalonje zenaren kondaira batetik ateraia.)

HERRA ETA NIGAR
«Eskualzaleen Biltzarrak» saristatua.

GURE HAURRA
(Gure almanaka-n agertua.)

IRUNAKO BESTAK
(Radiotegitik emana.)

OSTATUAN

IHIZTARIAK

ITZULPEN-ANTOLAMENAK

ODOL EZTEIAK
(«Bodas de Sangre»
Federico Garcia Lorca-rena.)

AMAREN HARMAK
(Jean-Louis Lafitte-en laguntzarekin
Bertolt Brecht-en arabera.)

ANTZERKIAK

BAI ALA EZ
1969-en idatzia, eta 1970-eko apirilaren 14-ean emana, Donibane Lohizunen.

NOIZ
(1970-ean idatzia eta 1971-eko otsailaren 29-ean emana, Baionako Antzokian.)

ETXE GABEAK
(1971-an idatzia, Lazkaoko «Kemen» taldearentzat; Espainiako zensurak debekatua.)

HIL BIZIAK
(1972-1973-eko neguan idatzia eta 1974-eko apirilaren 27-an emana, Donibane Garazin.)

HENRIK IBSEN

ANDERE ETXEA

AGIRRE'tar JOXEK
euskaratua

KROGSTAD.—Gañera txorakeri galanta litzake besterik ez, izan ere lenengo trumoijasa pasatzen danean... Ementxe patrikan dakarkit zure senarrarentzat eskutitz bat.

NORA.—Dana dan bezela kontatzen al-diozu?

KROGSTAD.—Al dan guzia zurituta baño, bai.

NORA.—(*Itxumustuan*). Eztu karta ori ikusiko. Autsi zazu ta nik billatuko det zuretzat dirua.

KROGSTAD.—Barkatu, andrea, bañan uste det esan dizudala aixtian...

NORA.—Ez nintzan lendik zor dizudan diru ortaz ari. Esaidazu nere senarrari zenbat eskatzea pentsaten dezun ta nik emango dizut.

KROGSTAD.—Zure senarrari ez diot dirurik eskatzen!

NORA.—Ze eskatzen diozun ba, ordun?

KROGSTAD.—Esango dizut, ba. Gorago igo nai det, dirua egin, ta zure senarrak lagundu behar dit. Urte ta erdian nere izena beztu dezaken ezertxo ez det egin, ta urte ta erdi orretan goiak eta beak jo bear izan ditut eta ezin esan ala traba aurretik kendu. Pozik nengoen pitinka-pitinka bederen igotzen ari nintzan da... Orain gauetik goizera lanik gabe uzten naute! Ez det naikoa, mesedez, errukiz, lengo lana ematea! Gorago igo naiz detela diot. Bankuan sartu nai det bai, bañan len baño kondizio obetan zure senarrak kargu berria sortu bear du neretzat.

NORA.—Ori ez du egundu egingo.

KROGSTAD.—Bearko. Ezagutzen det nik ua ta ez du txintik aterako ta oinbeste iritxitakoan, ikusiko dezu. Urte bete baño len ni izango naiz bankuko diretorearen eskubiko eskua. Ta ortik aurrera Bankua zuzenduko duana Enrike Krogstad izango da, ta ez Torwaldo Helmer.

NORA.—Ez da orrelakorik gertatuko.

KROGSTAD.—Apika, naiago ote zenduke?

NORA.—Ba-det korajea arpegi emateko.

KROGSTAD.—Oh! Enazu bildurtzen. Zu bezelako emakume guri ta fin batek...

NORA.—Ezetz? Ikusiko dezu..., ikusiko!

KROGSTAD.—Izotzaren azpian edo? Leize-zulo otz eta illunean. Ta udaberrian gañera azaldu, itxura galdua, itsusitua, illerik gabe...

NORA.—Enazu ikaratzen.

KROGSTAD.—Ezta zuk ere ni. Gauz oiek ez dira egitan, andrea. Ta zertako egin gañera? Alper-alperrik litzake-ta. Dana dala nik patrikan daukat...

NORA.—Ni ez naizenean...

KROGSTAD.—Zuk zeure burua iltzen ba-dezu ere, nere eskutan dago zure izen ona. (*Nora arritu ta zur eginda begiratzen dio*). Orra jakiñen gañean jarri. Etzazu txorakeririk egin. Helmer'ek nere eskutitza irakurtzean, segitun erantzungo dit. Ta ondo gogoan artu, zure senarra dala ontara beartu nauna. Ori bai ez diodala beñere barkatuko. Agur andrea! (*Bijoa.*)

IX AGERRALDIA

NORA TA GERO KRISTINA

NORA.—(*Kontuz-kontuz «bestibulo»ko atea pittin bat irikitzen du ta xeletan dagola*). Joan da. Ez dio eskutitzik bialiko. Ez, ezin diteke. (*Atea gero ta geio irikitzen du*). Ara berriz.

Gelditu eginda. Zalantzan dagola dirudi. Botako ote du? *(Karta bat buzoian erortzearen otsa entzuten da ta ondoren Krogstad'en pauso otsa gutxituz-gutxituz eskalleretan bera dijoan aiñean. Norak karraxi bat eztarrian itotzen du ta korrika itzultzen da «beladorɔeraño. Ixil une txiki baten ondoren)* Buzoian dago! *(Ta ixilka anka punttetan antekamarako ate ondoraño)* Ortxe dago. Ai Torwaldo, Torwaldo... galdu gera!

KRISTINA.—(*Ezkerreko atetik soñekoarekin sartzen da*) Eztiñat geiago egiterik izan Probatu al den?

NORA.—(*Ixilxamar abots itoaz*) Kristina, ator onuntza!

KRISTINA.—(*Sofaren gañean soñekoa utziz*). Baña zer den neska? Ziaro naastua ago!

NORA.—Ator ona. Ikusten al den karta ori? Ara or, buzoiaren zirrikitutik begira zan!

KRISTINA.—Bai ortxe zegon. Ederki ikusten diñat.

NORA.—Ba, karta ori Krogstad'ena den.

KRISTINA.—Nora...! Krogstad al unan dirua eman ziñana?

NORA.—Bai, Torwaldok jakin egingo din.

KRISTINA.—Sinistu idan Nora. Biontzat obe dezute.

NORA.—Bañan ik ez dakin guzia. Gezurrezko firma bat ere badiñat jarria.

KRISTINA.—Jainko maitea!!! Zer dion?

NORA.—Orain adi zan Kristina. Entzun zan au ondo: testigu egin bear didan.

KRISTINA.—Testigu? Zertan?...

NORA.—Ni txoratuko ba-nintz... ta gerta ditekena den...

KRISTINA.—Nora!

NORA.—Ez bearren bat gertatuko balitzaida..., eta emen ez banengo...

KRISTINA.—Nora, Nora burutik egin al zain?

NORA.—Erru guzia bere buru gain artu nai lukenen bat izango ba-litz...

KRISTINA.—Baña, nola uste dezaken?...

NORA.—Orduan Kristina gezurra dala testigutzan aitortu bear den. Ez naun erotu, nere kabaletan neon ta auxe esaten diñat: iñortxok ere etzuala jakin nik bakarrik egin niñan, bakarrik egin niñan, bakar-bakarrik. Ondo gogoan artu zan ori.

KRISTINA.—Etzaidan aztuko, baña etzekiñat...

NORA.—A, nola jakingo den, ba? Gauz arrigarri bat gertatzera zijoan.

KRISTINA.—Arrigarria?

NORA.—Bai, Kristina, baña izugarria den. Eliken orrelakorik gertatu bear; eztiñat nai ezta iñola ere.

KRISTINA.—Krogstad'ekin itzegitera natxian oraintxe.

NORA.—Ez adi joan. Gaizki ibilliko intzanake.

KRISTINA.—Izan unan garai bat neri atsegin ematearren edozer gauza, danik eta zaillena ere egingo zukeana.

NORA.—Ark?

KRISTINA.—Nun bizi den?

NORA.—Zertzekiñat, ba, nik? (*Patrika miatzen du*). Ementxe zeukanat aren tarjeta. Baña eskutitza...

HELMER.—(*Barrundik atea joaz*). Nora.

NORA.—(*Karraxi bat bildurrez egiñiz*). Zer da, zer bear dezu?

HELMER.—Etzaite bildurtu emakumea, ezin giñezkela sartu, atea giltzatu egin dezu-ta. Soiñekoa proatzen ari al zera?

NORA.—Bai, bai, alaxe ari naiz. Ikusiko dezu zeiñen polita egongo naizen, Torwaldo...

KRISTINA.—Bertan bizi den oso. Kale onen kantoian.

NORA.—Bai, bañan zertarako joan? Galdu gaitun, eskutitza buzoian zegon.

KRISTINA.—Ta giltza senarrak al du?

NORA.—Bai, beti.

KRISTINA.—Krogstad'ek eska zezaken eskutitza iñork irakurri baño len, aitzakiren bat billatuko din artarako.

NORA.—Baña Torwaldok oitura duanez oraintxe din garaia...

KRISTINA.—Bitartean joan akio bere gelara. Ni etorriko naun al dedan azkarrena. (*Bijoa itxumustuan eskaratzeko atetik*).

X AGERRALDIA

NORA, HELMER TA GEROXEAGO RANK

NORA.—(*Helmer"en atera inguratzen da, irikitzen du ta barrura begira*) Torwaldooo.

HELMER.—(*Barrundik*). Tira ba, azkenian sartu gindezke. Atoz Rank ikusi dezagun... (*Agertzen da*). Bañan, zertan giñan ba?

NORA —Ze, Torwaldo maitea!!

HELMER.—Rank'ek esan didanez soiñeko zoragarri bat ikusi bearrean giñan.

RANK.—(*Azaltzen*) Nik ala uste nuan, baña ikusten detanez oker nengoen.

NORA.—Zearo. Biar arte ez nau iñork ikusiko nere apaingarri guziekin.

HELMER.—Bai arpegi txarra daukazula, Nora. Dantzan trebetzen geiegi nekatu al-zera?

NORA.—Oraindik ez naiz aritu-ta.

HELMER.—Eztago beste erremediorik.

NORA.—Bai Torwaldo bai. Ari bear nuen baña zu gabe ezin det pauso bat eman, zearo aztu zait.

HELMER.—Ez dio ajolik lagunduko dizugu.

NORA.—A bai? Orratik azkenian nerekin egoteko beta ba-dezu! Agintzen al didazu? Ain larri nagi! Billera ori... gaur gabean utzi itzazu negozio guztik. Nai dezu?

HELMER.—Bai agintzen dizut. Gaur gabean zuk nai dezunerako naukazu... txoliña. A, bai, lenago gauz bat ikusi bear det. (*Eskaratz aldera abiatzen da*).

NORA.—Zertara zoaz?

HELMER.—Kartak etorri ote diran ikustera.

NORA.—Ez, Torwaldo ez zaite joan.

HELMER.—Zer ba?

NORA.—Ez dira etorri, nik esaten dizut!

HELMER.—Utzi idazu ikusten. (*Pauso bat aterutz ematen du*). (*Nora pianora jartzen da ta tarantela jotzen ari*). (*Helmer Nora'ri entzuteko geldituz*). A!

NORA.—Gaur zurekin ensaiatzen ez ba-det biar ez det dantzatzerik izango.

HELMER.—(*Nora'gan inguratuz*). Benetan orren bildur al zera?

NORA.—Bai orixe, bildurrez aidean nago. Ari gaitean oraintxe bertan, oraindik ba-daukagu beta maiean exeri arte. Jarri zaite or. Torwaldo ta jo zazu. Erakutsi idazu, kontzejuak eman bestetan bezela.

HELMER.—Beno, ortaraño leiatzen zeran ezkero asi gaitezen ba (*Exertzen da pianoan*). (*Kutxa bat irekitzen du; pandereta bat eta koloretako txamarra ateratzen ditu. Salto bat egiñaz erdi-erdian jartzen da*). Tira! Jo zazu, dantzan astera noa-ta. (*Helmer'ek jotzen du ta Norak dantzatu*). (*Rank Helmer'en atzean bego Nora'ri begira*).

HELMER.—(*Joaz*). Astiro, astiro.

NORA.—Ezin det.

HELMER.—Ez orren arin.

NORA.—Orixe bear da, ba.

HELMER.—Ba, ez dezu ondo egiten.

NORA.—(*Parrez ta pandereta dantzatuz*). Ze esaten nizun nik?

NORA.—Utzi idazu neri piano jotzen.

HELMER.—Bai gizona. (*Altzatuaz*). Orrela obeto zuzendu al izango det. (*Rank exertzen da pianora ta jotzen du, Norak gero*

ta sutsuago iñori kasorik egin gabe dantzan. Helmer"ek tximinik ingurutik aldian bein zerbait esaten dio baña berak ez dirudi entzuten duanik. Dabillela mototza askatzen zaio ta illeak bizkarrean bera erortzen. Ez da oartzen ta dantzari jarraitzen du). (Kristina sartzen da).

XI AGERRALDIA

LENGOAK KRISTINA TA GERO ELENA

HELMER.—(*Arriturik gelditzen da*). Oh!!...

NORA.—Txoroaldi betebetean arrapatu naun Kristina.

HELMER.—Baña Nora biotzekoa, bizia ortan ba-zijoakizu bezela ari zera dantzan.

NORA.—Alaxe da izan ere ta...

HELMER.—Geldi Rank! Erotu egin dala dirudi. Gelditzeko! *(Rank'ek uzten dio piano jotzeari eta Nora bat-batean gelditzen da.)*

HELMER.—(*Nora'ri*). Ez nuan asko uste, erakutsi nizun guzia aaztu zaizu...

NORA.—(*Pandereta tireaz*). Orra ba, ikusten dezu.

HELMER.—Iñork zuzentzearen premi aundia daukazu.

NORA.—Orixe bear detala, ta zuk zuzenduko nauzu azkeneraño Torwaldo. Agintzen al-didazu?

HELMER.—Bai emakumea, izazu nigan usteon.

NORA.—Ez gaur eta ez biar ez dezu nigan bestetan pentsa bear; ezta eskutitzik iriki ere; ezta buzoia ere.

HELMER.—Bueno ba, berriz ere gizon orren bildurra.

NORA.—Bai, pixka bat bai.

HELMER.—Arpegian antzematen dizut Nora, ta seguru asko aren kartaren bat egongo da or.

NORA.—Eztakit... ba-diteke, baña orain ezta irakurri bear. Eztedilla trabarik jarri gu bion artean alik eta au dana bukatu arte.

RANK.—(*Helmer"eri aparte*). Etzaiozula gogor egin.

HELMER.—(*Gerritik besoarekin elduz*). Bueno ba, umea, zuk nai dezuna egingo degu: bañan biar dantzak bukatzean...

NORA.—Orduan zure esku izango zera.

ELENA.—(*Eskubiko atetik*). Maia jarria dago etxekoandre.

NORA.—Ekarzazu txanpaña, Elena.

ELENA —Bai andre, oraintxe. (*Bijoa*).

HELMER.—Hola! Jan-pesta degu dirudinez.

NORA.—Jai eta jan-pesta biar arte. (*Neskameari deituz*). Ta almendra batzuk ere bai Elena; batzuk ez, asko obe. (*Torwaldori*) Beingoa ez da egunero.

HELMER.—Ori da ori, Ola guztatzen zait neri. Ez bildurrez aidean. Oi-bezelakoa izan bear dezu, nere larratxori kantaria.

NORA.—Bai, Torwaldo, bai. Baña zoaz pittin batean ta zu ere bai Rank. Ta ik Kristina, lagundu idan txima oek orrazten.

RANK.—(*Helmeri aparte jan-tokira doazela*). Ta... ze? Joera auek ezer bereizirik igarri-arazten al-digute?

HELMER.—Ez gizona ez. Len esan dizutan umekerizkio izu ori besterik ezta (*Bijoaz eskubitik*).

NORA.—Ta ze?

KRISTINA.—Kanpora joan dala.

NORA.—Arpegian antzeman diñat.

KRISTINA.—Biar gauerako omen zetorren. Lau letra utzi zizkionat.

NORA.—Ez unan egin bear. Datorrena datorrela. Izuaren zai egoteak ere atsegin ematen din!

KRISTINA.—Ze espero den, ba?

NORA.—A... ez naken konprenituko. Oa aiengana. Ni ere banatxian belaxe. (*Bijoa*).

XII AGERRALDIA

NORA TA GERO HELMER

NORA.—(*Apur batean bego zirkiñik egiteke, bere baitara biltzeko bezela. Gero erlojuari begiratzen dio*). Bostak. Zazpi ordu gauerdira, ta beste ogeita lau biarko gauerdira. Ordurako tarantela dantzatua izango det. Ogei ta lau ta zazpi? Ogeita amaika orduko bizia zeukanat.

HELMER.—(*Eskuiko atean*). Baña ze ari da larratxoria?

NORA.—(*Besoetara etzatzen zaio*). Emen naukazu!!!

ZAPIA

III garren EKINALDIA

Lengo irudi-toki bera. Maia, exerlekuak ta sofa erdi-erdian jarriak daude. Antekamarako atea zabalik. Musika entzuten da ta dirudinez goiko bizitzatik dator.

I AGERRALDIA

KRISTINA TA GEROAGO KROGSTAD

(Kristina mai inguruan exerita bego, liburu bat eskuetan duela. Aldian bei atera begiratzen zorrotz ta adi-adi jartzen da.)

KRISTINA.—(*Erlojuari begiratuz*). Ez dator ta ordua pasia da orratik. Alare... (*Adi adi jartzen da berriz*). A... bera da. (*Eskaratzera joaten da ta poliki-poliki irikitzen du kanpoko atea. ixil-mixilka*). Sartu zaite; bakarrik nago.

KROGSTAD.—(*Atean*). Zure eskutitz bat artu det. Zer bear didazu?

KRISTINA.—Bear-bearrezkoa det zurekin itzegitea.

KROGSTAD.—A, bai? Ta ementxe izatea ere bear-bearrezkoa alzan?

KRISTINA.—Ezin zindudan nere etxera deitu, ez baitu izkutuko aterik. Atoz onuntz biok bakarrik egongo gera. Helmer enekoak dantzan dira bigarren bizitzan.

KROGSTAD.—(*Sartuz*) Ara... (*Arrituz*). Helmer'enekoak dantzan al dira gaur gabean?

KRISTINA.—Zergaitik ez dira izango, ba?

KROGSTAD.—Bai, bai.

KRISTINA.—Itzegin bear degu, Krogstad.

KROGSTAD.—Gu biok? Alkarri ze esanik ba al-degu oraindik ere?

KRISTINA.—Gauz asko.

KROGSTAD.—Enuan beñere usteko.

KRISTINA.—Zuk ezpanauzu ondo konprendi iñoiz ere.

KROGSTAD.—Gure arteko gora-berak konprenditzen etzan burua asko nekatu bearrik. Sarri gertatzen dira orrelakoak. Biotzik ez duan neskatxak kalabazak ematen dizkio senar-gaiari beste bat obea inguratzen zaionean.

KRISTINA.—Biotzik ez detala uste dezu ortaz? Neri etzitzaidala kosta uste al-dezu zurekikoak bukatzea?

KROGSTAD.—Itxurak ala ziran.

KRISTINA.—Benetan sinistu al dezu, Krogstad?

KROGSTAD.—Ola izan ezik, zergatik idatzi zenidan, ba, tankera artan.

KRISTINA.—Besterik ezin nualako. Gure artu-emanak desegitera erabaki nuan ezkero zure biotzetik niganako sentimentu danak atera bear nituan.

KROGSTAD.—(*Eskuari eragiñaz*). A... ori da... ta dana diru zikin pixka bategatik...

KRISTINA.—Konturatu zaite nik orduan ama zaarra ta bi anai txiki mantendu bear nituela. Ezin gindezken zure zai egon, artean noizbait izateko esperantza besterik etzenduen-da.

KROGSTAD.—Ala balitz ere, zuk etzenduen eskubiderik beste bategatik ni zapuztatzeko.

KRISTINA.—Ori ez dakit. Nere buruari amaika aldiz galdetu diot orixe.

KROGSTAD.—(*Ixillago itzegiñaz*). Zu galdu zindudanean uste nuan, anka azpiko lurra ere palta zitzaidala. Begira, itxaso zabalean, ol zar bati elduta ur-gañean doi-doi dagon gizona nauzu.

KRISTINA.—Bear bada laister etorriko zaizu bizirik aterako zaitun txalupa.

KROGSTAD.—Inguratu zitzaidan bañan zuk etorrita kendu didazu.

KRISTINA.—Nik ez det ortan zer ikusirik izan, Krogstad. Gaur arte jakin ere eznekien zure ordez zure lekura sartzen nintzanik Bankura.

KROGSTAD.—Ala izango da, zuk ala diozu-ta; baña orain dakizun ezkero zergatik ez dezu zapuztu ta puztuz uzten?

KRISTINA.—Ez, zuretzat ala ere alper-alperrik izango litzakelako.

KROGSTAD.—Ba... dana-dala, ni zure larruan ba-nengo ez nuke artuko.

KRISTINA.—Nik buruz jokatzen ikasi det. Bearrak erakutsi dit, nere bizitzan.

KROGSTAD.—Ba, neri bizi-bearrak zenbaiten itzetan ez sinisten erakutsi dit.

KRISTINA.—Ikaskizun ederra da ori. Ta iñoren egiteetan sinisten al-dezu?

KROGSTAD.—Nik ba-dakit zergaitik dioten.

KRISTINA.—Ni ere ol zaar bati eldu eziñik ia itoan nabil. Ez daukat nori lagundurik norengatik jardun, iñor nere bearrean dagonik.

KROGSTAD.—Zeorrek nai izandu dezu.

KRISTINA.—Ez nuan aukeratzerik izan.

KROGSTAD.—Nora zoaz azkenerako edo zer esan nai dezu?

KRISTINA.—Gaizki al derizkiozu biok itokarrean gauden ezkero alkarri eskua eman ta lagunduko ba-genio?

KROGSTAD.—Zer diozu?

KRISTINA.—Ez al da obe alkarri ola kentzen jardun bearrean, biok ol berari eldu ta alkarri laguntzea?

KROGSTAD.—Kristina!!!

KRISTINA.—Zergatik etorri naizela uste dezu, ba, uri ontara?

KROGSTAD.—Baña nitzaz oroitu ote-zera, ba?

KRISTINA.—Lan egin bear det biziko ba-naiz. Nere bizi guzian, txiki-txikitandik, gogoratu nezaken guzian lanean aritu naiz.

Nere poz iturri aundiena ta bakarra orixe zan: Ta orain bakar-bakarrik nago munduan ta utsune izugarria nabaitzen det, neregatik ta neretzat bakarrik lanean aritzea gogaikarria da arrunt. Esaidazu Krogstad, ia zeñengatik eta zertarako lanean ari bear detan.

KROGSTAD.—Ez dizut sinisten. Emakumearen arrokeria besterik ez-ta ori.

KRISTINA.—Ikusi al-nauzu iñoiz arrotuta?

KROGSTAD.—Esan dezun guzia egiteko kapaz al ziñake? Ba aldakizu nolakoa izan naizen?

KRISTINA.—Bai.

KROGSTAD.—Ba al-dakizu ze fama daukaten ta nitzaz ze gauza esan dituzten?

KRISTINA.—Bai, aixtian ondo asko oartu naiz. Gañera zuk uste dezu, nik utzi ez ba-zindudan, etzendula zure izatea zikinduko.

KROGSTAD.—Bai, ori bai egia dala.

KRISTINA.—Ta ezin al-diteke garbitu?

KROGSTAD.—Bañan Kristina, konturatzen al-zera ondo, zer esaten didazun? Baietz esango nuke zure arpegia ikusi-ta. Beraz, ba-dezu korajea?

KRISTINA.—Nik baten-baten ama izateko premia daukat ta zure semeak ama bat bear dute. Gu biok, berriz, bata-bestearenganako bultzaizua nabaitzen degu. Nik oraindikan, zure barruan bizi dan gizon orrengan ba-det sinismena, Krogstad... zurekin ez nau ezerk izutuko.

KROGSTAD.—Eskerrikasgo, Kristina, eskerrikasko. (*Alkarri eskua ematen diote*). Orain munduaren aurrean lokatzetatik atera ta burua tentetu bear det, ta aterako naiz! A... bañan aaztuta nengoan... (*Musika tarantela jotzen entzuten da.*)

KRISTINA.—Ixo! (*Entzunaz*). Ixo, tarantela! Zoaz, zoaz aguro!

KROGSTAD.—Zergaitik?

KRISTINA.—Ez al-dezu aditzen musika? Dantza-aldia bukatu da ta orain etorri egingo dira.

KROGSTAD.—Bai, ba-noa, ba. Alperrik izango litzake gañera... Zuk eztezu jakingo noski Helmer'en aurka ezer egin detanik?

KRISTINA.—Bai, dana dan bezelaxe dakit, Krogstad.

KROGSTAD.—Ta alare ba-dezu korajea...

KRISTINA.—Bai ba-dakit zertaraño iritxi diteken zu bezelako gizon bat zearo etsitzen duanian.

KROGSTAD.—A! egin detana desegin al ba-neza!

KRISTINA.—Ba, desegin zenezake, zure eskutitza oraindik buzoian dago.

KROGSTAD.—Ziur al zaude?

KRISTINA.—Bai, bañan...

KROGSTAD.—(*Arpegiz-arpegi begiratuaz*). Zertan zabiltza? Kosta ala kosta zure laguna Nora salbatu nai al dezu? Ala balitz obe zenduke garbi-garbi aitortu! Ala al-da?

KRISTINA.—Ez gutxiagorik ere.

KROGSTAD.—Alare! Orduan ementxe itxoingo diot Helmer'i, nere eskutitza jaso egin nai detala esateko, ni lanetik bota nauen kontua besterik eztala-ta... eztauka irakurri bearrik ta... emateko esango diot.

KRISTINA.—Ez Krogstad, ez, etzazu kartik eskatu.

KROGSTAD.—Baña ez al-nauzu ortarakoxe gaur onera ekarri?

KRISTINA.—Azkenengo ogeita lau ordu auetan, gauza arrigarriak gertatu dira emen ta Helmer'ek dana dan bezela jakitea komeni da. Gauzak diran bezela alkarri adierazi dezaizkiotela. Alkarri ixil-gordeta ibiltzea onek bukatu bear du.

KROGSTAD.—Zure kontu artzen ba-dezu... Bañan dana-dala, bada nik egin dezakedan zerbait, eta lenbailen egitea komeni da...

KRISTINA.—(*Entzunaz*). Aldegin zazu! Zoaz! Dantza bukatu ta ez gaude seguru emen.

KROGSTAD.—Beean itxoingo dizut.

KRISTINA.—Ondo da. Etxeko ateraño lagunduko didazu.

KROGSTAD.—Sekulan ez naiz izan onen zorioneko! (*Atariko atetik dijoa*).

II AGERRALDIA

KRISTINA, GERO HELMER TA NORA

KRISTINA.—(*Irudi tokia txukuntzen du pittin bat, ta bere abrigoa ta sonbreroa prestatzen.*) Au etorkizuna! Zerua iriki zait! Ba-det zeñentzat lan egin, ba-det zertarako bizi, ba-det famili, ba-det zaindu bearra. Berriro bizitzen astera noa. (*Entzunez*). Ba-datoz. Aguro abrigoa. (*Artzen ditu sonbreroa ta abrigoa. Helmer ta Nora'ren abotsa entzuten da. Nora Napolitana jantziaz ta txal"arekin, bortxatua balitz bezela sartzen da, Helmer'ek beartuta, onek frak jasten du ta domino bat buruan.*)

NORA.—(*Atean sartu nai ezik*). Ez, ez, eztet sartu nai, berriz gora noa ni, ez det orren azkar etxeratu nai.

HELMER.—Tira, tira, zer dezu nere biotzeko Nora?

NORA.—Mesedez Torwaldo, mesedez eskatzen dizut, beste ordu bete bakarrik.

HELMER.—Ezta miñutu bat ere, Nora. Ba-dakizu zertan geratu giñan. Sar zaite emen oztu egingo zera-ta. (*Bortxatzen du sartzera.*)

KRISTINA.—Gau on.

NORA —Kristina.

HELMER.—Ara, zu al-ziñan? Nolatan emen onen berandu?

KRISTINA.—Barkatu zaidazute, baña ainbesterañoko gogoa neukan Nora jantzi orrekin ikusteko...

NORA.—Ta dantza garai guzian emen egon al aiz nere zai?

KRISTINA.—Bai, zoritxarrez, oso berandu etorri naun, gora igoak ziñaten eta... eztiñat aldegin nai izandu ikusi gabe.

HELMER.—(*Nora'ri txal'a kenduz*). Orduan begiratu iozu ondo. Uste det merezi duala-ta. Zoragarri dago! Ez al da ala, andre?

KRISTINA.—Txamangarria, bai orixe.

HELMER.—Arrigarri ederra! ez al da ala? An goian ere alaxen zioten danak. Baña bai setatsua umea! Ez zuala etorri nai, eta ez zuala etorri nai. Sinistu nai al-didazu ia beartu egin bear izan detala dantzatik ateratzeko!

NORA.—A, Torwaldo, damutu bear zaizu oraindik beste ordu erdibat bederen ez utzia!

HELMER.—Kontuak atera itzazu andre. Tarantela dantzatu du ta danak eskuak apurtu bearrean txalo jo diote, merezi ere bazun bai. Ta ondoren, an utzi bear al-nuan? Ortarakoxe nengon neroni? Artu det besoetan nere Kapriko neskatil polita ta jendeari ezker-eskubitara agur egiñaz, kea bezin aguro izkutatu... esan oi dan bezela. Olakotan jendea ao zabalik uzteko bear bearrezkoa da olaxe izkutatzea, andre, ta ezin ori Nora'ri buruan sartu. Uf! Bero dago ementxe! (*Domino botatzen du alki gañera ta despatxuko atea irikitzen du*). Ara, ez al-dago argirik? A, izan ere, barka zaidazu (*sartzen da ta bi bujia piztutzen ditu*).

NORA.—(*Ixil-mixilka ta presaka*). Zer da?

KRISTINA.—Itzegin diñat berarekin.

NORA.—Ta?

KRISTINA.—Nora... esan egin bear dion dana ire senarrari.

NORA.—(*etsipenez*). Ba-netxekiñan.

KRISTINA.—Etzan Krogstad'en bildurrik izan, baña itzegin bear den.

NORA.—Eztiñat txintik esango.

KRISTINA.—Orduan kartak itzegingo din ire ordez.

NORA.—Eskerrik asko, Kristina, orain ba-zekiñat zer egin bear detan. Ixo, ixo...

HELMER.—(*Sartuaz*). Ikusi al-dezu, ba, ondo andre?

KRISTINA.—Bai, orain lasai joan nindeke.

HELMER.—Orratx, zurea al-da lantxo au?

KRISTINA.—A, bai, eskerrik asko, aztuta ninjoan.

HELMER.—Galtzerdi egiten aritzen al-zara?

KRISTINA.—Bai.

HELMER.—Obe zenduke bordatzen ari.

KRISTINA.—Zer ba?

HELMER.—Politagoa. Begira, zapia ezkerrean artzen da... ola... ta eskubiarekin orratza eramaten da... olaxe. Ikusten al dezu ze bira luxe-mear egiten dan? Ez al-da polita?

KRISTINA.—Enuke ezetzik esango.

HELMER.—Galtzerdia egitea berriz beti da itxusi. Bi besoak gorputzari erantsiak ta orratzak beti ere goitik-bera ta goitik-bera dijoazela... txinoen lantegia dirudi! A, bai bizia zala gaur eman diguten txanpaña!

KRISTINA.—Gabon, Nora, ta etzaitela izan setatsu!

HELMER.—Ederki esana, andre.

KRISTINA.—Gau on, diretore jaun!

HELMER.—(*Aateraño lagunduz*). Gabon, gabon. Bidea ba-dakizu, noski Nik pozik... baño ain urrean dago!.. (*Kristina joaten da ta Helmer'ek atea ixten du.*)

III AGERRALDIA

HELMER TA NORA

HELMER.—Eskerrak aldegin duala! Gogaikarri xamarra da andre ori!

NORA.—Ez al zaude nekatua, Torwaldo?

HELMER.—Ez ta batere.

NORA.—Ez al dezu logalerik?

HELMER.—Ezta izpirik ere. Sekula baño erneago nago. Ta zuk? Zu bai nekatua ta logaletua zaude.

NORA.—Bai, oso nekatua nago ta berealaxe lo artuko det.

HELMER.—Ikusten dezu, nola nuan arrazoi, dantzalekuan ez gelditzeko.

NORA.—Zuk beti dezu arrazoi.

HELMER.—(*Kopetan muxu emanez*). Tira, larratxoria asi da tajuz itzegiten. Aizu, ta oartu al zera zeñen kontentu zebillen Rank gaur-gauean.

NORA.—Bai? Eztet itzegiteko egokierarik izan.

HELMER.—Nerekin ere ez du itz asko trukatu bañan aspaldian ez nuan ikusi orren umore onez (*pitin batean begiratu ta urreratzen zaio*). Bai ederra dala nor-bere etxera itzultzea, zurekin bakarrik egotea...! O! bai andre polit eta lilluragarria zaudela!

NORA.—Etzaidazu orrela begiratu, Torwaldo.

ELMER.—Ez diot ba begiratuko nere altxorrik maiteenari!! Izar au nerea da, nerea bakarrik, nerea oso osorik!

NORA.—(*Mayaren beste aldera aldeginaz*). Etzaidazu orrela itzegin gaur gabean!

HELMER. — Oraindikan dantza-soñua borbor dabilzu odolean ta ikusten detanez, orrek oraindik lilluragarriago egiten zaitu! Ara, ba dijoaz gonbirauak (*ixilago*). Nora, laister etxea ixiltasunean gelditzuko da.

NORA.—Nik ala uste.

ELMER.—Bai, ezta? Biotzeko Nora! Gaur gabean bezala, lagunartean gabiltzanean ba aldakizu zergaitik itzegiten dizudan ain gutxi, zergatik egoten naizen zugandik urrun, aldian bein lapurretan bezela begiraka bat boteaz? Ba dakizu zergatik? Ba... zu nere ixilpeko maitalea, iñortxok ez dakian nere gordeko andregai xamurra zerala pentsatzea gustatzen zaitelako.

NORA.—Bai, bai; ba-dakit zure pentsamentu guziak neretzako dirala.

HELMER.—Ta irtetzerakoan, zure bizkar guri ta bigun orretan txaketa jartzen dizutenean, pentsatzen det nere emazte berria zerala, eztaietatik gatozela, lenbiziko aldiz nere etxera zakarzkidala ta azkenik biok bakarrik egongo gerala... Biok

bakarrik gaude nere edertasun guziz ikarakoia! Gau-jai guzian zure antsian egon besterik ez det egin. Dantzan zebiltzalarik zure mugimentu zirikagarriak ikusi ditudanean, odola berotzen asi zait, irakin dit eta ezin nuan geiago burutu ta itsumustuan ekarri zaitut oneraño.

NORA.—Aldegidazu, Torwaldo. Utzi zaidazu. Ezdet nai ori.

HELMER.—Ara berriz! Iseka egiten didazu. Eztezula nai diozu? Ez al naiz zure senarra? Ez al zera nere andratxo polita? (*kanpoko atea jotzen dute*).

NORA.—(*Ikaratuta*). Aitu al dezu?

HELMER.—(*Ezkaratzera joanaz*). Zein da?

IV AGERRALDIA

LENGOAK ETA RANK

RANK. (*Barrendik*). Ni naiz, sartu al-ninteke ixtan baterako?

HELMER.—(*Sumindua*). Ze bear ote-du orain? Ba-noa, ba-noa (*irikitzen dio*). Estimatzekoa da gure ate parean pasatzen zeran guzian kaso egitea.

RANK.—Zure itz otsa entzun det, eta pittin batean sartu bear detala bururatu dit. Auxe leku goxo ta epela! Pake gozoan eta ondo bizi zerate. Zuek bi zorioneko!

HELMER.—Zuk ere gaur illuntzeko dantzaldian gustora zenbiltzala ematen zendun, ba.

RANK.—Bai gizona, izugarri! Ta zergaitik gozatu ez bizia al danean ta al-dan arte beintzat?... Ardoa aparta zegon.

HELMER.—Batez ere, txanpaña.

RANK.—Ala ere konturatu al zera? Erruz edan det.

HELMER.—Torwaldo'k ere asko edan du gaur gabean.

RANK.—Bai?

HELMER.—Nora olakotan ain espeziala; berezia, jartzen da...

RANK.—Arrapa! Zergatik ez gabean gozatu, egun guzia lanean ondo aprobetzatuta gero?

HELMER.—Ondo aprobetxatu? gaur zoritxarrez, ez ninteke ortaz asko arrotu.

RANK.—(*Bizkarrean joaz*). Ni bai, ba.

NORA.—Rank jauna, gaur zure mediku jakintza ortan gauza berriren bat ikasi dezu?

RANK.—Orixe, ba, orixe.

HELMER.—Au ere ba-degu? Noratxo, mediku-jakintzan gauza berriak ikasteaz mintzo.

NORA.—Ta ikasi dezunagatik zorionak eman bear al-dizkizugu?

RANK.—Noski, ba. Bai sendagillearentzat eta bai gaxoarentzat onen-onena gauza ziur jakitea da.

NORA.—(*Biziki, begiratu zorrotz bat botatzen dio*). Ziur al-dakizu?

RANK.—Bai, ba-dakit ziur. Ta oinbeste ikasi ezkero, ez al nuen, ba, eskubiderik gau-pesta au alai gozatzeko?

NORA.—Bai, jauna.

HELMER.—Nik ere ala uste det; biaramonean damutu bear ez ba-zaizu beintzat.

RANK.—Bizitzan zertaz ezta damutzen?

NORA.—Jauna... zuri maskarak atsegin izango zaizkizu noski?

RANK.—Bai, batez ere jantzi arrigarriekin diranean.

NORA.—Esaiguzu, ba, zertaz jantziko giñake zu ta ni urrengo maskarak artzen ditugunean.

HELMER.—Ara beste txoroa, berriz! Dagoneko beste dantzaldi batean pentsatzen.

RANK.—Zu ta ni? Esango dizut, ba. Zu maskotaz jantzi ziñezke.
HELMER.—Bai, baña ze maskota-modu? Ola poliki emango lioken bat...

RANK.—Zure andrea agertu liteke egunero ikusten degun bezelaxe ere...

HELMER.—Ori da arrazoia! Bai, ta zu? Bururatu al zaizu nola jantzi ziñezkean?

RANK.—Bai gizona, ori erabakia daukat.

HELMER.—Jakin al-diteke?

RANK.—Urrengo dantza-aldian ikusi-ezina izango naiz.

HELMER.—Berriketa oiekin al-zatoz orain?

RANK.—Bai-da kapelu aundi bat. Ez al-dezute beñere entzun badala sonbrero aundi bat persona ikusi ezin ditekela uzten duana? Ba, jazten du batek buruan ta kito! ez du iñork ikusten.

HELMER.—(*Parrari eutsi eziñik*). Bai, bai ala izango da.

RANK.—Bueno! zertara etorri naizen aztuta nengon, Helmer; emaidazu zigarro puru bat, zure abano oietako bat.

HELMER.—Bai gizona (*eskeintzen dio*).

RANK.—(*Bat artuaz*). Eskerrikasko.

HELMER.—(*Pospolo bat piztuaz*). Tori sua.

RANK.—Eskerrikasko. (*Piztutzen du*). Ta orain agur.

HELMER.—Agur, agur adiskide.

NORA.—Gabon ta ondo lo egin.

RANK.—Berdin, ondo lo egin zuek ere ta eskerrikasko suagatik (*buruari eragiñaz agurtu bitza ta bijoa*).

V AGERRALDIA

HELMER TA NORA, GEROAGO ELENA

NORA.—(*Ixil-xamar*). Geitxo edan du.

HELMER.—(*Beste zerbait pentsatzen ari balitz bezela*). Ba-liteke. (*Helmer patrikatik giltzak atera ta eskaratzera sartzen da.*)

NORA.—Zertara zoaz, Torwaldo?

HELMER.—Buzoia ustutzera. Goraño betea da, ta biar goizean izparringiak ez dira kabituko.

NORA.—Gaur gauean lanean aritu bear al-dezu?

HELMER.—Bai orixe! Zer da au? Zerralla beartu dute.

NORA.—Zerralla?

HELMER.—Bai, bat-edo-bat ibili da emen. Neskameak ez dute, ba, sekula olakorikan. Jostarratz puska bat dago emen eta illea. Nora, ille au zurea da...

NORA.—(*Biziki*). Bear ba-da aurrak...

HELMER.—Oitura txar ori kendu bear didazu. Alare! ireki det beintzat. (*Ustutzen du buzoia ta deika*). Elena... Elena!! Itzali zazu sarrerako argia. (*Badator eskuan kartak dituala ta ezkaratzako atea ixten du*). Ara ikusten duzu zenbat zeuden. (*Sobrera begira*). Zer da au?

NORA.—(*Txuriaz dago*). Eskutitz ori. Ez, ez, Torwaldo!

HELMER.—Bi tarjeta Rank'enak.

NORA.—Medikuarenak?

HELMER.—(*Begiratuz*). Bai, Rank sendagillearenak. Gain-gaiñean zeuden... orain irtetzerakoan utziko zituan.

NORA.—Ezer jartzen al-dute?

HELMER.—Ez. Gurutze aundi bat izenaren gañean. Ara. Broma zatarra da, ba! Bere eriotzaren berri emango ba-ligu bezelaxe.

NORA.—Alaxe ematen digu-ta.

HELMER.—Zer? Zer dakizu? Zerbait esan al-dizu?

NORA.—Bai, orrek esan nai du bein-betiko gugandik agurtu dala. Bere burua etxean jartzera dijoa iltzeko...

HELMER.—Gizajoa! Ba-nekien ezin zitekeala luzaroan bizi, baña orain bat-batean... ta pizti eritua bezela zokoan gorde nai du.

NORA.—Gertatu bear dun ezkero, ixilik eta gordean gertatzea obe da. Ez al-derizkiozu, Torwaldo?

HELMER.—(*Paseatuz*). Etxekoa gendun. Ezin zait buruan sartu galdu dugunik. Bere oñaze ta bazterrean bizi bearrekin gure etxeko alaitasunaren illun unea zan... Zer egingo degu, ba. Bear bada obe da beretzat beintzat (gelditzen da)... A... nere biotzeko andretxoa! beñere etzaitut bear ainbat estutuko! Begira Nora ia-ia naiago nuke arrixku aundi batean jarriko ba-ziña, nik nere bizia nere zañetako odola, naizen guzia zure alde arrixkatzeko.

NORA.—(*Askatzen da ta abots irmoz ta erabakiz*). Ikusi itzazu eskutitzak, Torwaldo.

HELMER.—Ez, ez..., gaur gauean ez. Zurekin egon nai det, nere emazte maite!

NORA.—Zure laguna il-zorian dagola jakinda?

HELMER.—Bai, arrazoi dezu. Biotza illundu digu. Eriotzaren errañua jarri da gu bion artean ta banakatzen gaitu. Aztutzen alegiñak egin ditzagun. Aztu arte goazen, ba, bakoitza bere gelara.

NORA.—(*Lepotik eltzen diola*). Gabon, Torwaldo..., gabon!

HELMER.—(*Kopetan muxu ematen dio*). Gabon larratxori kantari. Lo egizu pakean. Eskutitzak irakurtzera noa. (*Bere gelara sartzen da kartak eramanaz ta atea ixten du.*)

NORA.—(*Ingurumaria eskuz miaketan dabil, begi zuriz gora ta ola Helmer'en dominoa topatu ta gañetik jazten du ta erdi-karraxika abotsa ebakiz dio.*) Geiago ez det ikusi nai beiñere, bein ere ez!!! Aurrak ere ez sekula-santun A! ura izoztua, leize zulo... beltza... ondorik ez... A... pasea ba-lego... Oraintxe artuko zuan ta irakurri. Ez oraindik ez. Agur Torwaldo..., agur seme-alabak! (*Ate aldera abiatzen da bizkor baña une ortantxe Helmer'ek bere gelako atea irikitzen du indarrean ta karta eskuan duala azaltzen da.*)

HELMER.—Nora!

NORA—(*Karraxi egiten du*). A...

HELMER.—Zer da au? Ba-aldakizu ze jartzen dun eskutitz onek?

NORA.—Bai, ba-dakit. Utziazu aldegiten! Utziazu irtetzen!

HELMER.—(*Eutsiz*). Nora zoaz?

NORA.—(*Askatu nairik*). Enazu salbatuko, Torwaldo.

HELMER.—(*Atzeratzen da*). Egia da ordun?... Egia dio eskutitz onek? Milla diabru!!! Ez, ezin diteke, ezin diteke.

NORA.—Bai, egia da. Munduko gauza guzien gañetik maitatu zaitut.

HELMER.—Ee? Utzi ditzagun txorakeriak.

NORA.—(*Pauso bat arengana inguratuz*). Torwaldo!!

HELMER.—Aluba! Zer egin den?

NORA.—Utziazu ateratzen. Zuk ez dezu nozituko nere erruz, zuri ez dizute nik egiñaren kargurik artuko.

HELMER.—Utzi panpliña oiek! Etzera moituko emendik ta zeatzmeatz esango didazu zer egin dezun! Ze alukeri gero! Baño konturatzen al-zera zer egin dezun? esan zazu, konturatzen al zera?

NORA.—(*Norak, gero ta otzago begiratuz otz-otzean dio*). Bai, orain konturatzen naiz zer garrantzi duten gauzak.

HELMER.—(*Aruntz ta onuntz astoratuz dabillela*). Au esnatze izugarria! Zortzi urte oietan... nere poza, nere arrobidea... ta bitartean azal-uts, gezur-ontzi maltzur, areago, alu bat! Au itxuskeria, au biotz-ikara ta izu-laburra. (*Artu ta begirabegira dagokion Noraren aurrean geldituz*). Nik antzeman bear nion zer gerta zitekean. Aldez aurretik kontuak atera bear nitun. Zure aita alakoa izan da; aren antzeko atera zera zu ere. Jainkorik ez, bakerik ez, ta ezeren bildurrik ez. Zure gaztetako gora-berak estali ta burua, ederki nozitu det. Nik zure onagatik egin nuan ta au al-da zure ordaña?

NORA.—Bai, auxe da.

HELMER.—Nere zoriona txandu dezu ta nere etorkizuna ondatu. Ezin det pentsatu bildurrez aidean jarri gabe. Biotzik eta begirapenik gabeko gizon baten eskuetan utzi nauzu ta orain egin dezake nai duan guzia, nai duana eskatu, nai duana agindu ta nik txintik atera gabe egin bear. Orra ni ezer egin ezin dezakedala, desegindua ta lur joa emakume baten arinkeriagatik.

NORA.—Nik mundu au uztean libratuko zera.

HELMER.—Ba, etzazu txorakeririk esan. Zure aitak ere esaten zituan ugari. Zer aurreratuko nuke nik, zuk mundu au uztearekin? Ezer ez. Ta bear ba, zurru-murrua zabaldu egingo litzake jende artean ta gañera bateon batek pentsa dezake nik bultza zaitudala, nik eragin dizudala. Ta au dana zuri zor dizut, zuri, ezkondu giñan ezkero nere besoetan ibili zaitudan orri. Konturatzen al-zera orain zer egin dezun?

NORA.—(*Lasai ta otz-otzean*). Bai.

HELMER.—Arri ta zur egiñik gelditu naiz ta nere onera etorri eziñik nabil, baña egin bear da zerbait... (*itxoin aldia*). Erantzi zazu «domino» ori. Erazteko esaten dizut! (*itxoin aldia*). Gizon orri gustoa emateko era bat topatu bear det. Nola edo ala asunto au estali bear da. Eta gu... gu ezertxo ere pasa ez balitz bezelaxe... itxuraz beintzat, jakiña. Gaurtik aurrera ere, ementxe biziko zera; ori esan bearrik ez dago... baña aurrak ezitzea debekatua daukazu... ezin dezaket zure kontura utzi... A! orrela itzegin bear ainbeste maitatu detanari! ta oraindik ere... bueno, bukatu ziran kontu oiek, joan ziran pikuetara. Emendik aurrera ez dago pentsatzerik zorionekoak izaten, ondakiña salbatu, itxurak... (*kanpoko atean deitzen dute, Helmer astoratzen da*) Zer da ori? Orren berandu! Arraio madarikatua! Gizon orrek!... Gorde zaite, Nora! Esan zazu gaxo zaudela. (*Nora'k ez du zirkiñik ere egiten. Helmer atea irikitzera dijoa*).

ELENA.—(*Erdi jantzian eskaratzetik*). Eskutitz bat etxeko andrearentzat.

HELMER.—Ekatzu. (*Karta artu ta atea ixten du*). Bai aretxena da; baña ez dizut emango. Nik irakurri bear det.

NORA.—Irakurri zazu.

HELMER.—(*Argira inguratuaz*). Bildurra ematen dit. Batak-bestea ondatu genezake. Ez, jakin bear det nik. (*Itxumustuan irikitzen du ta lerro batzuek irakurri, barruan datorren paper bati begiratzen dio ta pozik ¡aufa! oiu egiten du*). Nora! Ea berriz irakurri dezagun! Bai orixe! salbatu naiz! Nora, salbatu naiz!

NORA.—Ta ni?

HELMER.—Zu ere bai, jakiña. Biok salbatu gera. Ara ikusi zazu. Erreziboa itzultzen dizu. Sentitzen duala dio ta damutzen zaiola... zorionezko gertakizun batek bere bizi-modua zearo aldatzen duala ta... ba, ez dio ardura aundirik ze jartzen duan... Salbatu gera Nora! Salbatu gera. Gaurgero iñortxok ez dezaikezu gaitz egin! aufa! Nora! Lenbizi txikitu ditzagun paper txar auek. Utzi idazu ikusten... (*Erreziboari begiratzen dio*). Ez... zertako? Ez det ezertako ikusi nai... amets txar bat izan dedala pentsatuko det, eta kito. (*Austen ditu bi kartak eta surtara bota ta nola erretzen diran begira*). Tira, dana bukatu da. Eguberri bezperatik jartzen zizun, zu... O! bai txarrak pasako zinduzela iru egun auek! Nora!

NORA.—Iru egun auetan burruka gogorrean bizitu naiz.

HELMER.—Ta etsi egin dezu. Etzeunden iltzea beste biderik ikusten. Aztu itzazu zearo garraztasun oiek danak. Ospa dezagun gure askapena ta esan bein ta berriro: bukatu da, bukatu da. Baiño, aizu Nora, ba-dirudi ez dezula aditzen: bukatu da. Zergatik zaude orren itun?... A! Nora gaxoa, pentsatzen det bai... ezin siñistu dezu barkatzen dizudanik. Ba, sinistu zazu, Nora, ezin egiten dizut: zearo barkatua zaude! Ba-dakit niganako maitasunez egin zenduala dana.

NORA.—Egia da.

HELMER.—Emazte batek bere senarra maite bear duan añaxe maitatu nauzu, maitatzeko eran utsegin dezu. Zeure burua gidatzen asmatu ez dezulako uste al dezu, gutxiago maite zaitudala? Ez, ez. Izazu uste on nigan, ta etzaizu paltako laguntza ta gidaria. Enitzake ni gizon izango orregatixe maitagarriago ez ba-zintzaizkit. Aztu itzazu lenengo larri-aldian esan dizkizudan itz-zakarrak mundua nere gañera zetorrela uste bai-nuan. Barkatu dizut ura, bai ala Jainkoa! barkatu dizut.

NORA.—Eskerrikasko barkatu didazulako. (*Bijoa eskubiko atetik*).

HELMER.—Etzaite joan, geldi zaite emen... (*begiekin jarraitzen dio*). Zertara zoaz gelara?

NORA.—(*Barrendik*). Dantza-soiñekoa eraztera noa.

HELMER.—(*Erdi zabalik gelditu dan ate ondoan*). Ondo da, bai, atseden ar zazu, lasaitu zaite, pasa sustua, nere txori txiki aztoratua. Zaude lasai nik ba-ditut ego aundiak zu estaltzeko. (*Ate ondotik urrutiratu gabe aruntz ta onuntz*). Bai goxo ta paketsua dala gure kabia, Nora. Emen seguru zaude. Putre bati atzaparretatik aixtian kendu dioten usakumea baziña bezelaxe gordeko zaitut. Zure biotzaren taupada larriak nik baretuko ditut pixkana-pixkana. Sinistu idazu, Nora, biar beste era-batera ikusiko dituzu gauzak. Danak len bezelaxe segiko du. Ez det unero barkatzen dizudala esaten ari bearrik izango, zeorrek antzemango diozu. Nola uste dezakezu etzaitudala ondo artuko edo errieta emango dizudala? A! zuk ez dakizu maite duan biotza zer dan! Ain atsegin ta goxoa da gizon batentzat benetan barkatzea! Ez du emazte bakarrik barkatua, alaba zaio gañera. Gaurgero alaxe izango zera neretzat, Nora, biderik gabe galdu ziñan gaxo ori! Etzaite ezertaz ardura. Esaizkidazu zure kontu guziak ta ni izango naiz zure borondate ta zure kontzientzi... Ara, berriz! ez al zera oeratu? jantzi egin al-zera berriz?

NORA.—(*Eguneroko jantziaz*). Bai Torwaldo, jantzi egin naiz berriro.

HELMER.—Zertako?

NORA.—Ez det gaur gabean lo egiteko asmorik.

HELMER.—Baña Nora biotzekoa!...

NORA.—(*Erlojuari begiratuaz*). Oraindik ez da berandu. Exeri zaite, Torwaldo. Itzegin bear degu. (*Maiaren ondoan exeritzen da bera.*)

HELMER.—Baña zer da au? Zer dezu orren benaz begiratzeko?

NORA.—Exeri zaite! Luzaro jardungo gera. Gauza asko dauzkagu alkarri esan bearrekoak.

HELMER.—(*Exertzen zaio aurrez-aurre*). Artega naukazu, Nora. Eztizut tutik ere ulertzen.

NORA.—Egia diozu bai. Eztidazu konprenditzen, ta nik ere ez dizut zuri konprenditu... gaur arte. Utzi idazu izketan. Entzun esaten dizudana... alkarren arteko gure kontuak garbitu egin bear ditugu.

HELMER.—Ze kontu?

NORA.—(*Ixil-aldi baten ondoren*). Alkarren aurrez-aurre gaude. Ez al-zaizu ezer txokatzen?

HELMER.—Ez esan nai dezu?

NORA.—Zortzi urte ba-dira ezkondu giñala. Ta pentsa zazu ez al-du au gu biok senar-emazteok alkarrekin benetan itzegiten degun lendabiziko aldia?

HELMER.—Benetan bai... baño zer?

NORA.—Zortzi urte luze joan dira... ta geiago alkar ezagutu genduanetik ta sekula eztegu alkarrekin benezko itzik trukatu pulamentuzko ezertaz!

HELMER.—Zuk ezin kendu zenizkidakela jakin-da, nere buru auste ta kardabazioak kontatzen ari bear al nintzaizun, ba?

NORA.—Enintzan kardaba oietaz ari. Esan nai nukeana auxe da: gu biok sekulan artaz edo ontaz ze pentsatu edo ze uste izan bear degun gauzak ondo miatuz ikusten saiatu al-gera?

HELMER. Baña esaidazu, biotzeko Nora: Zure egitekoa al-da ori? Emakume bati dagokien eginkizuna al-da?

NORA.—Or dago, ba, koxka. Orixe da guzia. Ortantxe egin didazute bidegabekeri izugarria, lenbizi aitak eta gero zuk.

HELMER.—Zer aitak eta nik?... Baña, ba-al-da, ba, munduan iñor gu biok baño geiago maitatu zaituanik?

NORA.—(*Buruari eragiñaz*). Ez nauzute sekulan maite izan. Atsegin zitzaizuten neri losintxaka egiñez jolasean ibiltzea.

HELMER.—Aizu, Nora, izketa modu orrekin ze adierazi nai dezu?

NORA.—Entzuten dezuna, Torwaldo. Aitaren ondoan nengoenean, bere iritziak azaltzen zizkidan ta nik dana amor ematen nion, arek ez bezela, ba-nerizkion ere, ez nion ezertxo esaten asarretu egingo bai-zitzaidan. «Nere anderetxoa» deitu oiziden eta nerekin jostatzen zan, ni nere niniekin jolastu oi nintzan bezelaxe. Gero zure etxera etorri nintzan.

HELMER.—Ori da, ori, gure ezkontzaz itzegiteko modua.

NORA.—(*Len bezelaxe*). Esan nai nuan aitaren eskuetatik zure besoetara pasa nintzala. Zuk dana zure gogora antolatu zendun eta neri dana ondo iruditzen zitzaidan edo beintzat ala

adierazten nuan. Ez dakit neronek ere ziur esateko, bata ala bestea zan. Orain atzera begiratuta premi-gorrian bizitu naizela, nik uste, egunean egunekoa iritxi eziñik. Zuri atsegin emateko salto ta imintzio egiñez aritu naiz. Aita ta biok dezute errua gaur nik ezertarako balio ez-pa-det.

HELMER.—Ulerkaitza zaude, Nora, ulerkaitza ta esker txarrekoa. Ez al-zera zorioneko izan nere ondoan?

NORA.—Ez, egundaño ez, ala uste izan ba nuan ere.

HELMER.—Ezetz?... etzerala izan zorioneko?

NORA.—Ez, alai nenbillen besterik ezer ez. Atsegiña ziñan neretzat... baña gure etxea etzan jolas-toki bat besterik. Panpin aundi bat izandu naiz zure etxean, aitarenan panpin txiki bat nintzan bezelaxe. Orixe izan da gure ezkontza, Torwaldo.

HELMER.—Arrazoi pittin bat ba-dezula ez dizut ukatuko, baña arri koskorra dagon tokian arkaitza ikusten dezu. Baña tira, gaurtik dana erabat aldatuko gera... Jolaserako garaiak joan ziran, orain ezitzeko denpora da.

NORA.—Ezitzeko zein? ni ala aurrak?

HELMER.—Aurrak eta zu, biotzeko Nora.

NORA.—Etzera gauza, Torwaldo, ni ezitzeko ta nerekin bear zenduken bezelako emazte egiteko.

HELMER.—Ta zeñek eta zuk esaten al-dezu ori?

NORA.—Ta nik berriz... zer dakit aurrei behar bezela erakusteko?

HELMER.—Nora!

NORA.—Ez al-dezu zeorrek esan aixtian? Ez al-zenion, ba, lan ori neri ematen ezin ziñezkela ausartu?

HELMER.—Irakin-aldi batean esan dut eta orain orri eldu bear aldiozu?

NORA.—Alajaiña! Garbi asko esan dezu. Nik ez detela ortarako bear ainbat zentzun. Beste lan bat ba-daukat bai aurretik egiteko: neure burua ezi ta osatu ta orixe egin bear det. Zuk ez dezaidakezu ori egin; neronek bakarrik egin bear det. Orregaitik uzten zaitut ta ba-noa.

HELMER.—(*Saltoan altxatzen da*). Zer... ze esan dezu?

NORA.—Bakar-bakarrik bizi bearrean nago neure burua ezagutzeko; ezin nezake beraz zure ondoan segi.

HELMER.—Nora! Nora!!!

NORA.—Oraintxe bertan aldegin nai det. Gaur gaberako ostatua etzait paltako Kristina'ren etxean.

HELMER.—Txoratu egin al-zera? Ez daukazu aldegiteko eskubiderik. Debekatu egiten dizut.

NORA.—Zuk ez dezaidakezu ezer debekatu emendik aurrera. Badaramazkit nere gauza guztiak. Zurerik ez det ezer ere nai: ez orain eta ez sekula.

HELMER.—Baña ze txorakeri da au?

NORA.—Biar abiatuko naiz nere jaioterri aldera... an obeto biziko naiz.

HELMER.—Bai itxua zaudela, munduko berri ezer ez dakizun gaixo ori...!

NORA.—Orain saiatuko naiz ikasten, bai Torwaldo.

HELMER.—Zure etxea, zure senarra, zure seme-alabak utzi ta aldegin... Ze esango du jendeak?

NORA.—Nai duana esan dezala. Ezin egongo naiz uskeri orri begira. Neretzako bear-bearrezkoa da aldegitera.

HELMER.—A, amorragarria da! Zure lenengo eginkizunak ez dituzu bete nai ortaz.

NORA.—Zeintzuk dira, zure ustetan nere lenengo eginkizun oiek?

HELMER.—Esan bearrik ere ba al-dago. Zure senarrarentzako ta seme-alabekiko dituzunak!

NORA.—Ba-ditut oiek baño aurreragokoak.

HELMER.—Ez. Zeintzuk izan ditezke, ba?

NORA.—Nere buruarekiko ditudan eginkizunak.

HELMER.—Beste ezer baño len, emazte ta ama zera.

NORA.—Ez det, ba, uste. Beste ezer baño len, zuk añaxe eskubidetako persona bat naiz edo izaten saiatu bear det, beintzat. Ba-dakit bai, gizonik geienak arrazoi emango dizutela Torwaldo, eta zure iritzi oiek liburuetan barreiatuak daudela, baña orain ez ninteke begira egon gizonak esan dutenari

edo liburuak jartzen dutenari. Nik nere iritzia atera bear det.

HELMER.—Ara! Ez al-dakizu etxe barruan ze leku dagokizun? Ez al-daukazu utsegingo ez duan gidari bat ortarako? Ez al dezu erlijiorik?

NORA.—Oraintxe ez dakit ziur-ziur erlijioa zer dan!

HELMER.—Ez dakizula zer dan?

NORA.—Artzai Hansen'ek esandako auxe bakarrik dakit. Erlijioa, au, ori ta gañerako guzia da. Ori ere beste gauza asko bezelaxe, bakarrik ta aske nagoenean aztertu ta ikusiko det. Ea ark ziona egi dan edo neretzako, beintzat, egi izan diteken

HELMER.—O! Beste ainbeste entzun bear genionik ere emakume gazte bati!!! Erlijioak ezin ba-zaitu gidatu, utzi idazu, beintzat, zure barru ori miatzen. Gaizki egiña edo ondo egiña bereziko dituzu ezta? Edo ezta ori ere? Esaidazu.

NORA.—Orra Torwaldo, ze nai dezu? Ez dakit, ba, zer erantzun. Ez dakit. Ez det ezer garbi ikusten. Bai, gauza bat ikusten det garbi: zure ta nere iritziak arras desberdiñak dirala, legeak ez dirala nik uste bezelakoak, ta lege oiek zuzenak diranik etzaidala buruan sartzen. Nolatan ez dezake emakume batek il-zorian dagon bere aita zarrari buruauste ta kardabazio berri bat ez emateko eskubiderik izan, edo bere senarraren bizia salbatzeko. Ori ezin diteke!!!

HELMER.—Ume bat bezela ari zera izketan. Ez dezu ezer konprenditzen bizi zeran gizarteari buruz.

NORA.—Ez, ezta ezertxo ere. Baña ezagutu nai det inguruko gizarte ori ta jakin ere bai ea zeiñek dun arrazoi; gizarteak, ala nik.

HELMER.—Zu gaxo zaude Nora, sukarra daukazu ta burutik naastu etzeranik ere enuke esango.

NORA.—Bai zera, sekula baño otzago daukat burua ta segurantzi geiago nigan.

HELMER.—Ta segurantzi ori eukita, senarra ta aurrak utzita aldegiten al-diguzu?

NORA.—Bai.

HELMER.—Orrek gauza bat bakarra esan nai du ortaz.

NORA.—Zer?

HELMER.—Ez nazula maite.

NORA.—Alaxe da; orregaitik da guzia.

HELMER.—Nora, ta esan egiten didazu, gañera?

NORA.—Sentitzen det, Torwaldo, nerekin beti ona izan zera-ta. Baño zer egingo diot ba? Orain etzaitut maite.

HELMER.—(*Bare irauten aleginduz*). Ortan ere segurantzi osoa daukazu, noski.

NORA.—Bai ziur nago, ta orregatixe eztet emen egon nai.

HELMER.—Ta esango al-zenidake noiz eta nola galdu detan zure maitasuna?

NORA.—Bai gizona. Gaur gabean bertan, nik uste nuan miraria gertatu ez dala ikusi dedanean. Orduntxe jabetu naiz, zu etzerala nik uste nuan gizona.

HELMER.—Garbiago esan zazu. Ez det ulertzen.

NORA.—Zortzi urte luzean egondu naiz zai, patxara osoan, bai baitakit mirariak ez dirala egunero gertatzen. Azkenean iritxi da une larria ta nere buruari nion: oraintxe sortuko da miraria. Krogstard'en eskutitza buzoian zegon bitartean etzait buruan sartu gizon orren eskabideetara makurtuko ziñanik baizik eta esango zeniola: zabaldu zazu ixtori guzia barra-barra. Ta ori gertatuta gero...

HELMER.—A, bai... ta nere emaztea lotsa gorritan ta destañapean jarri ta gero...

NORA.—Ta ori gertatuta gero... ni ziur nengoen oker guzien kargu ta jabe egingo ziñala. Ni naiz erruduna, esanez.

HELMER.—Nora!

NORA.—Nik ez nuala ori ontzat emango ta enintzala ixilik egongo? Ala da. Baña zer balioko zuan nere itzak zurearen ondoan? Orra, ba, orixe da nik bildurrez aidean espero nuan miraria. Ta gerta etzedin iltzera ninjoan.

HELMER.—Nora, pozik ariko nintzan gau ta egun zuregaitik lanean ta ezbear guziak pasa ere bai, baña ez du iñork bere onra, maiteagaitik galtzen.

NORA.—Millaka emakumek egiten dute!

HELMER.—A! Eme batek bezela pentsatu ta itzegiten dezu.

NORA.—Ba-liteke. Baña zuk ere ez dezu pentsatu ta ez itzegin nik bear nuken gizonak bezela. Lasaitu ziñanean, ez nere gain zetorren arrizkua baizik zure gain zetorrena pasa zalako... aztu zaizu dena ta berriz ere zuretzat kardantxori kantaria izan nadilla nai dezu... zure besoetan erabiltzeko panpiña, ori bai, iñoiz baño kontu geiagokin errez autsi nintekela ikusi dezu-ta. (*Altxatzen da*). Entzun, Torwaldo, une artantxe zortzi urtetan arrotz batekin bizitu naizela iduritu zait, ta arrotz batekin izan ditudala iru aur... A! Ez det pentsatu ere egin nai! Nere gorputza zazpi milla puska egiteko gogoa datorkit.

HELMER.—Konprenditzen det. Ez dago ukatzerik: gu bion artean leize sakon bat iriki da. Baña esaidazu, ezin al-diteke leize zulo ori bete?

NORA.—Ni orain naizen bezelako izanik, ez naiteke zure emazte izan!

HELMER.—Ez ote-naiz eraldatuko?

NORA.—Bear bada, bai... panpiña kentzen ba-dizute.

HELMER.—Aldendu... zugandik aldendu. Ez, ez, Nora; ez dut etsiko zu gabe.

NORA.—(*Eskuiko aterutz dijoala*). Orregatixe aldegin bear det segitun. (*Bijoa ta betor abrigo, sonbrero ta txango-aldirako poltsarekin, ta au silla baten gañean uzten du «beladore» inguruan.*)

HELMER.—Nora, oraindik ez, oraindik etzaitez joan. Itxoin zazu biar arte.

NORA.—(*Abrigoa jantziz*). Ezin nezake gaua igaro arrotz baten aterpean.

HELMER.—Baña ezin al gindezke, ba, bizi anai-arrebak bezela?

NORA.—(*Sonbreroa jantziz*). Bizi-era orrek ez luke luzaro iraungo! (*chal'a bizkarretik bera artuz*). Agur, Torwaldo. Aurrak ez ditut ikusi nai. Ba-dakit nereetan baño esku obeetan daudela. Orain nagoen bezela... ezin ninteke zuentzat ama izan.

HELMER.—Baña egunen batean... Nora... egunen batean?

NORA.—Ezin, ba, esan, ez baitakit nere etorkizunaren berri.

HELMER.—Baiña, dana-dala, zu nere emaztea zera.

NORA.—Emazte batek senarraren etxetik aldegiten duanean, nik orain aldegiten dedan bezela, legeak diotenez, senarra emaztearekiko eginkizun guzietaz libre uzten dute. Dana-dalarik, ala uzten zaitut, ez baita ondo zu katiatuta gelditzea ta ni ez. Libertade osoa bi aldeontzat. Tori zure eraztuna. Ekatzu nerea.

HELMER.—Ori ere bai?

NORA.—Bai.

HELMER.—Tori.

NORA.—Eskerrikasko. Orain dana bukatu da. Or uzten ditut giltzak. Etxeko martxaren berri neskameak ba-daki... nik baño obeto. Biar ni joan da gero Kristina etorriko da nik onera ekarri nituan gauza guztiak baul baten sartzera ta bialduko dizkit.

HELMER.—Dana bukatu da! Ez ote-zera nitzaz beiñere oroituko?

NORA.—Seguru asko bai sarritan zutaz, aurretaz, etxe ontaz...

HELMER.—Idatzi al dezaizuket, Nora?

NORA.—Ez, beiñere ez. Debekatu egiten dizut.

HELMER.—Baña bialdu al-izango dizut...

NORA.—Ez, ezer ez.

HELMER.—Laguntza pixka bat, bear ba-zendu.

NORA.—Ez, ez. Ezin nezake ezer artu arrotz batengandik.

HELMER.—Arrotz bat besterik ez al-naiz iango zuretazt, Nora?

NORA.—(*Ibil-aldirako poltsa artuaz*). A Torwaldo, miraririk aundiena gertatu bearko luke.

HELMER.—Esaidazu, ze mirari?

NORA.—Gu biok ainbesteraño eraldatu bearko genduke... Torwaldo... nik mirarietan ustea galdua det.

HELMER.—Nik ez, ba. Esaidazu zenbateraño aldatu bear genduke?

NORA.—Gure alkartzea benetako ezkontza izateraño. Agur.

(*Etxeko atea ixtearen otsa entzuten da.*)

HELMER.—(*Bere buruari ate-ondoko sillan erortzen uzten dio ta bi eskuz arpegia estaliz*). Nora! Nora! (*burua altxa ta bere ingurumarira begiratuz*). Jun da, geroago ikusterik ez... (*itxaropenez*). Miraririk aundiena.

AMAIA

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 »
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 »
Número suelto	400 »

MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales «Aranzadi»)

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes ...	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN